

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hondarribia



Aurkibidea

Udalerria: Hondarribia

Sarrera



Txingudiko badiako hiria, Gipuzkoa eta Lapurdiko lurraldeen artean. Arrantzale herria izan da beti, baina turismoak ere indar handia izan du. XIX. mendea amaieran hasi zen turismoa Hondarribian, eta horrek arkitektura eta hirigintza baldintzatu zituen. Iparraldeko goi-nafarrera da eremu honetako hizkera.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 16.519
- **Euskaldunak:** %58,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **55**
- Zintak: **98**
- Pasarteak: **1.119**
- Transkribatutakoak: **100**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **1.119**

Proiektuak


- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Gazte gara gazte
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Pepi Aginagalde (1945)

Pepi Aginagalde Hondarribiko Jaizubia auzoko Gebaralarre baserrian jaio zen, 1945eko abuztuaren 13an. Txakolako eskolan ibili zen Pepi (gaur egungo Hondarribiko golfa den), 6 urterekin hasi eta 12 urte bete bitarte. Txikierdiko bilera batean ezagutu zuen Joxe Juan Oiarzabal, gerora senarra izango zuena. Baserrian lan asko egindakoa da Pepi, eta jakingarri asko ematen ditu, baratzeko lanei lotutakoak, batez ere.

Mari Kruz Alkain Jauregi (1926)



Santiago kalean jaioa, guraso biak portuarrak zituen. Zortzi senide ziren. Aita arrantzalea zen, patroia, eta amak sareak konpontzen zituen. Gerra hasi zenean Ziburura joan ziren, eta handik Cabretonera. Zazpi urte pasatu zituen kanpoan. 17 urterekin itzuli zen. Besteak beste interina bezala egin zuen lana eta arraina saltzen ere ibili zen. Arrantzale batekin ezkondu zen, eta hiru seme izan zituzten.

Jon Alkain Zendoia (1988)



1988. urtean jaio zen, Hondarribian, eta jaioterrian eta Donostian bizi izan da. Gurasoak donostiarrak ditu eta bi senidetan zaharrena da. Ikasketaz ingeniari mekanikoa da, eta masterra ere egin du eguzki energiaren kudeaketan, baina egun gida turistiko lanetan aritzen da munduan barrena, eta zinez maite du bere lana. Bidaiatzea, kirola eta irakurtzea ditu zaletasun nagusi, eta Hondarribiko gazte-mugimenduan urtetan zehar ibilia da; herriko hainbat proiektutan murgilduta harrapatu genuen Xabier Bengoetxea lagunarekin elkarriketa egin genionean, eta azalpen eta jakingarri mordoa eman zizkiguten biek ala biek, besteak beste, Hondarribiko gazte olinpiaden antolaketari eta gazte asanbladaren funtzionamenduari buruz.

Juanito Altuna Arranbide (1933)




San Pedro kalean jaioa. Gerra hasi zenean, familia Hendaia joan zen eta pare bat urte pasatu zituen han. Ama portuarra zuen, eta Errenteriara joaten zen arraina saltzera; aita Elgetan jaio zen, baina arrantzalea zen Pasaian. Sei senide ziren, hiru neska eta hiru mutil. 14 urterekin hasi zen arrantzan Juanito, aitonarekin, eta itsasontzi handietan 25 urterekin. Patroia izan zen hainbat urtean. Hiru itsasontzi izan zituzten. Zeraingo emakume batekin ezkondu zen, eta hiru seme izan zituzten.

Akilino Antzizar Arozena (1921-2015)



Arroka baserrian jaio zen, baina umetan Torre baserrira joan ziren bizitzera. Gurasoak biak ziren hondarribiarrak. Bederatzi senide ziren. Eskola publikoan ibili zen. 16 urtera arte baserrian egon zen, eta orduan Irunen hasi zen lanean, nekazarien sindikatuko tabernan. Handik urte batzuetara nekazarien elkarteko pentsu eta ongarri biltegian hasi zen, eta hantxe jardun zuen erretiroa hartu arte. Irunera ezkondu zen, [Enkarna Alzagarekin](#), eta alaba bat izan zuten. Elkarriketan emaztea ere egon zen.

Jose Mari Arbelaitz Arozena (1932-2023)



Biteri eskolaren ondoko etxe batean jaioa, guraso biak Hondarribiakoak zituen, baserritarak. Aitak tranbiako bideak konpontzen egiten zuen lana, eta gero lbargoien eraikuntza enpresan ibili zen peoi, Irunen. Hiru senide ziren. Jose Mari Biterira joaten zen eskolara. Gaztetxoa zela Kosta auzora joan ziren bizitzera. Mugarrieta baserrian ere igaro zuen urtebete, osabarekin behizain, eta gero kordel-lantegian hasi zen lanean. Soldaduska egin artean igeltsero peoi ere ibili zen. Ondoren, Coloniales janari-biltegiaren banaketa egiten jardun zuen. Emazteak eta biek arropadenda jarri zuen Irunen, eta hantxe eman zituen azken urteak. Hondarribiako pilota-eskolaren sortzaileetako bat da. Kanturako zaletasuna du. Irunera ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Joxe Arozena Aranzasti (1933)



Soldaduenea baserrian jaioa, ama bertakoa zuen eta aita Guadalupe ondokoa. Lau senide ziren. Baserritik bizi ziren, esnea eta tratua saltzera joaten ziren kalera. Amuten ibili zen eskolan. Ehizazalea da.

Mari Jose Arroyo Olaso (1940)



Guraso biak Hondarribiakoak zituen, aita arrantzalea eta ama etxekoandrea. Bost senidetan azkena; lehenengoa sei urterekin hil zen. Jostun eta saltzaile moduan lan egin du Mari Josek. Irunera ezkondu zen, Francisco Javier Iguñizekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Xabier Bengoetxea Erriondo Xabi (1984)

1984ko abuztuaren 20an jaio zen Xabier, Hondarribian, eta Errenteriakoak ditu gurasoak. Bi senidetan zaharrena da Xabier. Ikasketei dagokionean, erdi mailako gradua egin du elektronikan, batetik, eta goi mailakoa informatika sistemetan, bestetik. Telefonía tekniko da lanbidez, eta mendira joatea, informatika eta irakurtzea ditu zaletasun nagusi. Herrigintzan, euskalgintzan eta gazte-mugimenduetan eskarmentu handikoa, Jon Alkain Zendoia lagunarekin egin genion elkarrizketa, eta hamaika eta bat kontu azaldu zizkiguten Hondarribiko gazte olinpiaden antolaketari zein Hondarribiko gazte asanbladaren funtzionamenduari buruz. Xabik informatika eta interneten gainera hainbat jakingarri ematen ditu.

Gregorio Berrotaran Etxeberria (1945-2012)



Gornutz auzoko Artzu baserrian jaioa. Gurasoak Hondarribikoak zituen. Artzuko errota ere beraiena zen. Baserriko lanetan aritua mutikotatik, itzain gisa besteak beste. 16 urterekin itsasoan hasi zen, Terranovan. Elkarrizketa egin zitzaionean, Landa Garapeneko zinegotzia zen Hondarribiko Udalean.

Mertxe Birtó Sorondo (1929)



San Pedro kalean jaioa. Bederatzi senidetan neska bakarra. Aita portuarra zuten, hainbat lanetan ibilia: guardapeska bezala, aduanan, arrantzan eta bentan. Ama ere bertakoa zen eta arraina saltzen zuen, gerra aurretik Hendaian eta ondoren Nafarroan. Mertxe ere langintza horretan ibili zen ezkondu aurretik. Gerra garaian Ziburun pasa zituzten hiru urte. Arrantzale batekin ezkondu zen, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Fermin Darceles Olaso (1935)



Gaztelun jaioa, gurasoak bertako zaintzaileak ziren. Ama esnearekin joaten zen kalera eta aita arrantza egiten zuen, batelarekin. Ferminek zazpi urte bitarte Salaberri baserrian ikasi zuen (doktrina batez ere) eta ondoren arma plaza atzean eta Biterin ibili zen. 12 urterako txipiroitan zebilen eta 14 urterekin itsasora joan zen. [Maria Jesus Miranda](#)ekin ezkondu zen, Leninenea baserrira, eta bi seme-alaba izan zituzten. Senar-emazteei egindako elkarrizketa.

Joxe Migel Elduañen Emazabel (1934)



Santiago kalean jaioa, gurasoak portuarrak zituen: aita arrantzale eta arraunlaria, ama sare-konpontzailea. Gerra hasi zenean, Iparraldera joan ziren denboraldi baterako. Portuko eskola publikoan ibili zen eta Mendelun ere bai. Hamalau urterekin hasi zen itsasoan, langostatan eta txipiroitan. Guadalupeko Ama barkua izan zuten lehenengo: "Tukutukutarrak" bezala dira ezagunak familian, itsasontzi hark ateratzen zuen soinua dela eta. 34 urterekin patroï bihurtu zen. Kofradiako presidente izan da hainbat urtean. Portuar batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Maria Angeles Elduaian Emazabel (1936)




Ziburun jaio zen, gerraren ondorioz. Aita arrantzalea zuen eta ama sare-konpontzailea. Sei senide ziren, hiru mutil eta hiru neska. Hiru urtera bueltatu ziren Hondarribiara, Almirante Alonso kaleko Villa Pepita etxera. Janari-denda jarri zuen. [Julian Oronoz](#) arrantzalearekin ezkontzeko lana utzi zuen. Hiru seme izan zituzten, eta Mariñel burdindegia jarri zuten gero.

Tere Elizazu Azaldegi (1937)



Errezubienea baserrian jaioa, guraso biak Hondarribiakoak zituen. Zazpi senide ziren. Ama plazara joaten zen tratuaekin, Irunera. Terek, berriz, Marinan partitzen zuen esnea, eta arratsaldetan joaten zen eskolara. Josten ikasten ere ibili zen. Irunera ezkondu zen, Kateako Semezarren baserrira, eta hamar seme-alaba izan zituen.

Garbiñe Elorza Zulaika (1932)




Amute auzoan jaioa, fraide komentuaeren pareko etxean. Gurasoak Hondarribikoak zituen. Lau senidetan gazteena zen, II. Errepublika garaian jaioa; gurasoek Donostian ikusi zuten euskarazko antzezlan baten izena jarri nahi zioten: Garbiñe. Epaitegian ez zieten utzi, eta nortasun agirian Bicenta jartzen badu ere, Garbiñe deitu diote beti denek. Amuteko eskolan ibili zen lehenengo, eta gero San Bizente Paul ikastetxeko mojekin. Irungo denda batean ibili zen lanean, eta ezkondu ere Irunera egin zen. Gerora Gurutze Gorrian ibili zen, eta ospitalean ere egin zuen lan. Etxez etxeko arreta zerbitzuan ibili zen lehenengoetakoa ei da Gipuzkoan. Bi alaba izan zituzten.

Jose Manuel Emazabel Oronoz Katxarros (1921)



Hondarribian jaio zen eta gurasoak ere bertakoak zituen. Gazterik hasi zen aitarekin arrantzan eta bizi guztia itsasoan eman du hainbat seniderekin: anaiak, semeak, ilobak... Kontrabandoan ere aritu zen garai batean. Hondarribiko hizkera jasotzeko zenbait proiektutan jaso da bere lekukotasuna.

Adelaida Etxeberria Arozena (1929)



Mendelun jaioa, Aranburuenea baserrian. Guraso biak Hondarribikoak zituen. Aita portuarra zuen, ikasia, baina baserrira ezkondua; oilo haztegi modernoak jarri zuten senar-emazteek. Sei senidetan gazteena zen Adelaida, eta baserriko lanetan aritu zen umetatik. Ahizpak Errenteriara joaten ziren plazara, berdura, oilaskoak eta arrautzak saltzera; esnea ere partitzen zuten. Gerra garaian Hendaiaira joan ziren hamabost egunerako. Irunen ibili zen eskolan, Etxeberria ikastetxean. Kalera ezkondu zen, arrantzale batekin, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Bittor Galarza Ugarte (1934)



Jaizubiako Muñoa baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Azkoia auzokoa, Mugarrieta baserrikoa. Zortzi senide ziren eta baserritik bizi ziren. Behiak zituzten, eta Irunera joaten ziren plazara tratuarekin, zaldi-karroan. Auzoko eskolan ibili zen, 14 urte bete arte. 28 urterekin Bittor aduanan hasi zen lanean, eta 35 urte egin zituen han; azken urteak Hondarribiko aireportuan eman zituen, aduana itxi zutenean. Irungo [Maria Jesus Tolosarekin](#) ezkondu zen, Muñoara, eta seme bat izan zuten.

Joxe Ramon Goikoetxea Berra (1931)



Montañenea baserrian jaioa, bost senidetan zaharrena. Aita bertakoa zen, eta ama Iparragirre baserrikoa. Baserritik bizi ziren, aita kaminero lanetan ere ibili zen arren. Joxe Ramon Biteriko eskolara joan zen, baina gutxi; umetatik lagundu behar izan zuen etxean: behiak gobernatzen, baratzean... Amari Irungo plazara tratua eramaten laguntzen zion, eta esnea partitzen ere ibiltzen zen. Madrilen egin zuen soldaduska, eta 26 urterekin itsasoan hasi zen, arrantzale: bost urte egin zituen Pasaiatik Terranovara joaten, bakailaotara, eta gero Hondarribiako ontzi txiki batean ere ibili zen, atunetan, legatzetan eta antxoatan.

Joxepa Goikoetxea Genua (1920)



Ttakenea (Jakuenea) baserrian jaioa, Zimizarga auzoan. Ama bertakoa zuen, eta aita Madalengain baserrikoa. Zazpi senidetan zaharrena zen Joxepa. Biterira joan zen eskolara, eta neskame ibili zen ondoren. Baserritik ateratzen zuten bizimodua, eta aita lanpernetan ere aritzen zen. Hura gazte hil zen, gerra garaian, eta orduan Joxepa egin zen etxearen kargu, amarekin batera. Arrantzale batekin ezkondu zen, baserrira, eta gero portura joan ziren bizitzera. Sei seme-alabak aurrera ateratzeko, hainbat lanetan jardun zuen: etxeak garbitzen, Sokoako kontserba lantegian eta bentan arraina pisatzen. Elkarrizketan Izaskun biloba egon zen.

Maria Goikoetxea Kanpandegi (1927)



Hondarribiko Madalena kalean jaio zen 1927. urtean. Hamalau anai-arreba ziren eta oso gazterik hasi behar izan zuen lanean. Bere senarrari ere egin zaio elkarrizketa, Jose Manuel Emazabeli. Gizona arrantzalea izaki, arraina saltzea egokitu zitzaion hainbat urtez Mariari: bentan, Manterola fabrikan, kalerik kale...

Juanito Gonzalez Camio (1934)



Endanea baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Matutenea baserrikoa; aitak artaldea eta betizuak zituen; gazta egiten zuen. Zortzi senide ziren. 50 txerri hazten zituzten, eta berdura saltzen zuten, baita esnea partitu ere. Lanpernetan ere ibiltzen ziren. Kontrabandoa ere gertutik ezagutu zuen Juanitok. Hernaniko Mañoli Goikoetxearekin ezkondu zen, eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Loreak saltzen hasi ziren, eta Endanea lore haztegi ezaguna sortu zuten.

Carmen Gonzalez Oiarbide (1922)



Hondarribiako kalean jaioa, harresien ondoko etxe batean. Ama Segurakoa zuen eta aita Hondarribiako, lorezaina eta gabarraria. Ama gazte alargundu zen, eta zortzi senide ziren. Mojekin ibili zen eskolan eta baita Biterin eta portuko eskolan ere. Gerra hasi zenean, Hendaian egin zituzten aste batzuek, itsasontzi batean bizitzen. Etxeak garbitzen eta kontserba lantegian egin zuen lana gaztetan. [Julian Lekuona](#) arrantzalearekin ezkondu zen.

Ebarista Imaz Arruabarrena (1928-2014)



Txapelingoi baserrian jaioa, Akartegi auzoan. Aita Mutiloakoa zen eta gazterik hil zen, tifusarekin; ama Hondarribikoa zuen. Zortzi senide ziren. Baserriko lanetan ibili zen umetatik: 14 behi zituzten eta tratua eramaten zuten plazara. Lapa bila eta lanpernetan ibiltzen ziren arroketan. Biterira joan zen eskolara. [Zelestino Lizarragarekin](#) ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Migel Imaz Arruabarrena (1927)




Txapelinbe baserrian jaio zen, baina bi hilabete zituenean Txapelingoira joan ziren bizitzera. Zortzi senide ziren. Aita Zumarragan jaioa zen eta ama hondarribitarra. Artzuko [Kontxita Mendizabalekin](#) ezkondu zen, etxera. Baserritik atera dute bizimodua. Kontrabando kontuak esan ditu eta baita gerra garaikoak ere. Anaia bat hil zitzaion gerran.

Luis Iriazabal Oronoz (1926)



San Pedro kalean jaioa, guraso biak portuarrak zituen. Aita arrantzalea zen, fogoneroa. Bederatzi senide ziren. Portuko eskolan ibili zen, eta gero Arma plazan. 14 urterekin hasi zen arrantzan, eta motorista ibili da batez ere. Soldaduska Juan Sebastian Elkano eskola-ontzian egin zuen, munduari bira emanaz. San Pedro kalera ezkondu zen, bertako emakume batekin. Bigarren aldiz ezkondu zen gerora. Itsasontziei buruzko hainbat azalpen eman zituen.

Ana Mari Iza Berrotaran (1943)



Guadalupeko kantuan jaioa, ama bertakoa baitzuen. Aita aita ere Hondarribiakoa zuen, baina kalekoa, Santa Engrazikoa; hantxe bizi izan zen Ana Mari ere, 15 urterekin amak kantina hartu zuen arte, amona erretiratu zenean. Kantina hark eresia zen. Hiru senide ziren. Ana Mari Biterin ibili zen eskolan 11 urte arte, eta gero partikular, Alamedan. Josten ere ikasi zuen. Ama lanpernatan ibiltzen zen eta aita, berriz, anguletan.

Fermin Larrarte Zusaia (1927)



Santa Engrazia auzoko Larrartenea etxean jaioa. Gurasoak hondarribitarrak zituen: aita Nabarronea baserrikoa, "Nabarro" bezala ezaguna, eta ama Joxekruzenekoa. Bederatzi senide atera ziren aurrera. Ferminek La Sallen ikasi zuen, Irunen, eta 12 urterekin igeltsero hasi zen aitarekin; kontratista zen hura. Ondarroako emakume batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Kontrabandoari buruzko kontu interesgarriak kontatu zituen.

Mertxe Larrarte Zusaia (1933)



Santa Engrazian jaioa, Larrartene etxean. Guraso biak hondarribitarrak zituen. Aita igeltseroa zen. Hamabi anai-arrebatatik zazpi irten ziren aurrera; zaharrena gerran hil zen. Ez zuten ganadurik, baina bai baratzea, oiloak, untxiak eta txerria. Gurutzeko mojekin ikasi zuen, eta lana ere hantxe egin zuen urte askoan, bai sukaldari moduan eta baita jolas-orduetan umeak zaintzen ere. Besteak beste, gerra ondorengo gose garaiaz mintzatu zen.

Julian Lekuona Igos (1922)



Santa Maria Madalena kalean jaioa, gurasoak portuarrak zituen. Aita arrantzalea zen eta amak Hendaian saltzen zuen arraina (gerra aurretik). Bederatzi senidetan zaharrena, Julian 13 urterekin hasi zen itsasoan. Aurretik, hiru urtean Hendaian bizi izan ziren, gerrak hartaratuta. Arraunlaria izana, lanpernatan ere ibilia da. Ferrolen egin zuen soldaduska, Cervera itsasontzian. [Carmen Gonzalez](#)ekin ezkondu zen.

Karlos Lizarazu Zeberio (1935)



Jaitzubiako Zaldunborda baserrian jaioa, aita bertakoa zen eta ama Elbistia baserrikoa. Aitak Errenteriako paper-lantegian egiten zuen lana. Sei senidetan zaharrena, Karlosek umetan Zaldunboran bertan ikasi zuen, izebarekin; ondoren Katean ibili zen eskolan eta gero Errenteriako korazonistetan. 14 urterekin arotz lanak ikasten hasi zen Irunen, eta horixe izan du ogibidea. Sagardogintzaz ere badaki. 18 urterekin familia Irungo Lokaiztegi baserrira joan zen bizitzera. Kalera ezkondu zen, Burgosko emakume batekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zelestino Lizarraga Olazabal (1922-2018)



Jaizubia auzoko Zigarro baserrian jaioa, guraso biak Hondarribiakoak zituen. Zazpi senide ziren. Txakolan ibili zen eskolan, baina gutxi, beti zegoelako lana baserrian. Lehen soldata artzain bati laguntzen atera zuen, trenbidea konpontzen ere aritu zen eta baita hargin peoi ere; ondoren morroi egon zen Kamio baserrian. 22 urterekin itsasora joaten hasi zen, arrantzara. Pasaiaiko itsasontzietan ibili zen hasieran, legatzetan eta bakailaotan; gero, Hondarribian, antxoatan. Arrantzako istripu batean begia galdu zuen. [Ebarista Imazekin](#) ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Pako Lizarraga Peña (1935)



Jaizubiako Lobeaga baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Anakakoa (Irun). Bi aldiz ezkondu ziren gurasoak; aurretik bina seme-alaba zituzten, eta denera 14 senide izan ziren Pako eta. Txakolan ibili zen eskolan eta 11 urterekin morroi hasi zen. Igeltsero, trenbidearekin lotutako lanetan eta aduanan ibili izan da. Etxera ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Bixente Manterola Zabala (1934)



Jaizubia auzoko Txakola baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama gertuko baserri batekoa, baina Irungo partekoa, Jaizkibel errekaaren bestaldekoa. Bi senide ziren. Txakolako eskolan ibili zen, eta Hondarribiara joaten zen doktrina ikastera. Baserriko lanetan ibili zen mutikotatik, eta baita baso lanetan ere. 29 urterekin aduanan hasi zen lanean, karga-deskargan, eta erretiroa hartu artean egon zen han. Irundar batekin ezkondu zen, etxera. Ehiza zalea da.

Akilino Martínez Lekuona (1926)



Hondarribian jaioa. Aita Corellakoa zuen, Donostiara lanera etorritakoa; amaren familia guztia, berriz, Hondarribikoa zen. Gazte-gazterik hasi zen arrantzan, eta bizi guztia arrantzale izan da. Itsasoko kontuak, arrainen gorabeherak, izurdeen ipuinak, hegaztien izenak eta abar azaldu dizkigu.

Kontxita Mendizabal Arzuaga (1930)



Artzu baserrian jaioa. Aita Gurutze baserritik joan zen hara; alargundu egin zen, lau seme-alabarekin, eta berriro ezkondu zen, Oiartzungo emakume batekin. Beste bost jaio ziren gero. Kontxita bederatzi senideetan gazteena da. Mojatan ibili zen. Esnea partitzera joaten zen Marinara eta postua zuten Irungo plazan. Txapelingo baserrira ezkondu zen, [Migel Imazekin](#). Baserritik atera dute bizimodua. Hondarribian lehenengotako emakumea izan zen gidabaimena ateratzen.

Maria Jesus Miranda Bengoetxea (1937)



Lenineneagoia baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Perukenea baserrikkoa; hura Terranovan ibiltzen zen arrantzan. Zazpi senide ziren. Umetan Salabarri baserrira joaten zen doktrina ikastera, eta gero mojetan ibili zen. Baserriko lanetan ibili da beti, tratua plazan saltzen. [Fermin Darcelesekin](#) ezkondu zen etxera, eta bi seme-alaba izan zituzten. Senar-emazteei elkarrekin egindako elkarriketa.

Pablo Miranda Bengoetxea (1939)



Leninenea baserrian jaioa, ama bertakoa zuen eta aita Perukoenea baserrikkoa. Zazpi senide ziren. Umetan izandako gaixotasun batek belarriak hondatu zizkion. 19 urterekin ebakuntza egin zioten, eta 20rekin itsasora joaten hasi zen. Hamabost urte egin zituen arrantzan, medikuak galarazi zion arte. Ondoren artzain ibili zen. Ezkondu egin zen, eta alaba bat izan zuten.

Guillermo Olasagasti Sagarzazu (1940)



Ferrantxiki baserrian jaioa, gurasoak hondarribitarrak zituen. Hiru senide ziren. Aita serenoa zen. Guillermo Biterin ibili zen eskolan, eta gero La Sallen. Maizterrak ziren, eta hogeitazero urte zituenean baserria bota zuten. Orduan, Ferrantxiki etxea eraiki zuten; bertako zaindari ala lorezain egon zen bera. Tabernan lanean ere urte asko egin ditu. Luistarren kongregazioko presidentea izan zen, eta Aste Santuko prozesioa gidatzen ere ibilia da, baita zezen suzkoa eramaten ere.

Gaxpar Olazabal Martiarena (1930)



Ogalurreta (Oilurta) baserrian jaioa, jaitzubian. Aita bertakoa zen, eta ama ere auzokoa, Leriñenea baserrikoa. 14 urtetatik itzain ibili zen, gurdiaekin, aita bezalaxe. Lau senide ziren eta bera mutil bakarra. Ama eta arrebak plazara joaten ziren tratuaekin. Ganaduarekin azoketara joaten ziren eta baita sariak irabazi ere. Gaxpar Txakolako eskolan ibili zen, eta gero baita Irunen ere, fraideekin. Ezkondu ostean ardiak jarri zituen. Irungo Torre baserriko Juliana Lekuonarekin ezkondu zen.

Petra Olazabal Mendizabal (1920)



Botika baserrian jaioa. Aita alargun geratu zen bi umerekin, eta berriz ezkondu zen; beste zazpi jaio ziren, Petra tarteko. Ama jaitzubiakoa zen. Baserritik bizi ziren, ama Irunera joaten zen plazara, eta aitak lorazain lanak ere egiten zituen. Petrak Biteri eskolan ikasi zuen 14 urtera arte, eta gero mojekin josten ikasten ibili zen. Etxean hasi zen jostun lanetan, eta hainbat neska gazte izan zituen bere kargura. Errenteriara ezkondu zen, Pasai Donibaneko batekin, eta bertan jarri zuen jostun tailerra.

Jonas Ormabera Errazquin (1987)



Jonas 1987ko ekainaren 19an jaio zen, eta Oleretan bizi izan zen 7 urte bete arte. Gero Hondarribira joan ziren bizitzera, eta bertan bizi izan da gaur arte. Ama Hondarribikoa du eta lezoarra aita. Anaia gazteagoa du. Lorezaintza ikasketak ere eginak dituen arren, arotzarena du lanbiderik gogokoena. Arotz izateko ikasketak egiten ari direnen irakasle ere jardun izan du. Aisialdian eskalada eta koadrilakoekin egotea ditu zaletasun nagusi, eta azken bi kontu horiez, Hondarribiko koadrilen olinpiadez, IKTez eta "101 Gaztelu" telebista saioan izandako esperientziak mintzatu zitzaigun batik bat, Axier Unanue koadrilako lagunarekin egin genion elkarrizketan.

Julian Oronoz Alkain (1935)



Santiago kalean jaioa, gurasoak portuarrak zituen: aita arrantzalea eta ama sare-konpontzailea. Mutikoa zenean, sagardotegia ere bazuten. Hiru senide ziren. Biterin ibili zen eskolan eta Irunen ere bai, San Martzialgo fraideekin. 15 urterekin hasi zen arrantzan, Katalintxo itsasontzian, eta denborarekin patroï bihurtu zen. San Pio X itsasontzia izan zuten. [Maria Angeles Elduaie](#)n ezkondu zen, eta hiru seme izan zituzten. Itsasontziko errepika aurrean zuela eman zituen azalpenak.

Eleuterio Oronoz Salaberria *Elute* (1918)



San Pedro kalean jaioa, gurasoak portuarrak zituen. Bost senide ziren. Amonak arrandegia zuen etxe azpian, eta aita ile-apaintzailea zen. Gerra garaian Ziburura joan ziren. Ikazkin ibili zen, eta gero Irunen hasi zen lanean, Artistas Vidrieros lantegian. Bertako jabeei laguntzeagatik urtebete egin zuen preso Ondarretan. Ondoren margolari ibili zen 30 urtean, Donibane Lohizunen. Zamorako emakume batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Manuel Perez Aramendi (1935)



Kale Nagusian jaioa, aita donostiarra zuen eta ama bertakoa. Hiru senide ziren. Telegramak partitzen ibili zen umetan eta gero postari lanetan ere bai. 14 urterekin CAF lantegian hasi zen, Irunen; handik hamar urtera, hura utzi eta atunetara joan zen. Arrantzan jardun zuen gerriko minak lana aldatzera bultzatu zuen arte: lonjan benta egiten ibili zen gero.

Joxe Perez Otegi (1932)



Mixerebe baserrian jaioa, hiru senidetik bi atera ziren aurrera. Ama bertakoa zen eta aita Alkizenekoa. Gerra etorri zenean, aitona-amonekin joan zen bizitzera. Hainbat lanetan ibili zen: zerrailak jartzen, mekaniko, baserriko lanetan... 26 urterekin Kosta auzora joan zen bizitzera.

Mertxe Sagarzazu Iriarte (1921)



Tximistene baserrian jaioa. Sei senide ziren, hiru mutil eta hiru neska. Aita bertakoa zuten eta ama Idiazabalgoa. Aitak garraioan egiten zuen lana, idiekin. Ama Irunera joaten zen tratuarekin eta berak esnea partitzen zuen etxez etxe. Mojetan ibili zen eskolan, hamabi urte bete arte. Idiazabalera bidali zuten orduan, aitonaren etxera, laguntzera. Kontserba lantegian ere egin zuen lana. Baina jostun ibili da batez ere: josten ikasi zuen, eta hortik atera du bizimodua; josten erakusten ere ibili zen.

Pedro Sagarzazu Iriarte Tximista (1925-2020)



Soroetagain baserrian jaioa, Tximista bezala ezagunagoa. Ama Idiazabalgoa zuen eta aita bertakoa. Sei senide ziren, hiru neska eta hiru mutil. Maizterrak izan dira 70eko hamarkada arte. Biterin ibili zen eskolan eta mutikotatik trebatu zen baserriko lanetan. Hori bai, etxetik kanpo ere egin du lana, bi ferrategitan. Erretiroa hartu aurreko urteetan frontoiko zaintzailea izan zen, eta lorazain lanak ere egin ditu. Txoriei eta sendabelarrei buruzko hainbat kontu esan ditu.

Adelaida Sorondo Araneta (1926)



Matxin Artzu kalean jaioa, Juanitoenea etxean. Gurasoak portuarrak zituen, aita arrantzalea; ama Nafarroara joaten zen arraina saltzera. Adelaida bost senidetan zaharrena zen. Gerra hasi zenean, Hendaiara joan ziren; hiru urte egin zituzten han. Marinelen bizimodua gertutik ezagutu du, arrantzale batekin ezkondu baitzen. Lurgorri bizi izan zen gero.

Lourdes Sorondo Iriazabal (1931)



Madalena karrikan jaioa, Benta Zaharrean. Zortzi senide ziren. Guraso biak portuarrak zituzten, aita arrantzalea eta ama arrain-saltzailea. Portuko eskolan ibili zen Lourdes, eta 15 urte ingururekin sareak konpontzen hasi zen, bi ahizparekin batera. Etxeko sareak jostiaz gainera, Donostiara, Pasaiara eta Donibane Lohizunera ere joan izan da sarera. Bañistei zerbitzatzen eta kontserba-lantegietan ere egin zuen lana tarteka. Sareei buruzko azalpen ugari eman zituen.

Manuel Sorzabal Ugarte (1935)




Ballestanea baserrian jaioa, aita bertakoa zuen eta ama Jaitzubiako Elizazpi baserrikoa. Zortzi senidetan hirugarrena zen. Amuteko eskolan ibili zen, marrazketa ikasi zuen akademia batean eta 16 urterekin Irungo Artistas Vidrieros lantegian hasi zen lanean, beirateak egiten. Gero Iparraldean egin zuen lana, 20 urtean, arotz. Irungo emakume batekin ezkondu zen. 14 urterekin eskusoinua erosi zuen, eta 50 urtean aritu da jotzen. Pieza batzuk jo ditu.

Mari Karmen Toledo Eskamendi (1928)



Gaintxurisketan jaioa, Jaizubiako kantinan. Ama bertakoa zuen, eta bi familia bizi ziren kantinan. Izeba zen tabernako eta dendako arduraduna. Beraiek lau senide ziren eta lehengusuak bederatzi. Zortzi urte zituenean estazio-etxe batera joan ziren bizitzera, kantinatik gertu: aita, Lezokoa bera, topoan egiten zuen lana. Eskolan etxe ondoan ibili zen hasieran eta gero Erreterian, mojetan. Topoz joaten ziren eskolara, debalde zuten. Hiru ahizpak neskame joan ziren. Mari Karmen 13 urterekin Erreteriarra bidali zuten, Kaputxinotako mina lantegiko arduradunaren etxera. Hamar urte egin zituen han zerbitzatzen, Pasai Donibanera ezkondu zen arte. [Xeberiano Sistiaga](#) rekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Sebastiana Ugarte Ugarte (1932)



Hondarribiako Jaizubia auzoan jaioa, Elizazpi baserrian. Guraso biak bertakoak zituen. Hamabi senidetik hamar irten ziren aurrera. Txakolako eskolan ibili zen Sebastiana eta gero baita Irunen ere, partikular. Baserriko lanetan aritu zen umetatik; Irunen saltzen zuten tratua. Hamahiru urterekin neskame joan zen Aramara, eta bost urte egin zituen han. Esneketaria izan da. Irungo Olaberria auzora ezkondu zen, Urunea baserrira, [Jose Antonio Martiarenarekin](#). Biei elkarrekin egindako elkarriketa.

Axier Unanue Zumeta (1987)



1987ko azaroaren 4an jaio zen Axier, Donostiko ospitalean, baina Irunen bizi izan zen 14 urte bete arte, eta Hondarribira joan ziren gero, Jaizubia auzora. Aita azpeitiarra du eta Oreretakoa ama. Anaia zaharragoa du. Axierrek mekanika ikasketak burutu bazituen ere, igeltsero dihardu anaiarekin sortutako enpresan. Korrika ibiltzea du zaletasun nagusi, eta koadrilaz, parrandaz eta kirol kontuez jarduten du nagusiki, Jonas Ormabera koadrilako lagunarekin Hondarribian egin genion elkarriketan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Aita Corellatik etorria

- **Hizlaria(k)**: Martínez Lekuona, Akilino
- **Elkarriketatzailea(k)**: Maya Urroz, Ainara - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: HON-001/002

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aita Corellakoa zen. Euskal Herrira etorri zen marinarekin soldadutza egitera eta amaren senideek hartu zuten gero beraiekin baporean lan egiteko. Akilino Hondarribian jaio zen. Beraiek zortzi senide ziren, lau mutil eta lau neska.

Transkripzioa

-Eta jaio, esan diazu, bertan, Hondarribin.
 -Bai. Jaio bai. Ta gurasuak, zen, atta zeakua, Corellakua.
 -Corellakua?
 -Bai. Eta Corellatik etorri zenian, Donostira, erregiak hor serbitzen ibilli zen, serbiziyan, ta gero jarri zuten, "franco de ría" ematen zutenian, [...] egiten zen honuntz etorri, ta egin zun hor andria.
 -Zure ama...
 -Bai. Zure ama. Eta atta hemen geldittu zen. Izandu gera denbora haietan zortzi. Zortzi. Lau neska ta lau mutil. Zortzi.
 -Zortzi senide?
 -E?
 -Zortzi senide familian?
 -Bai. Zortzi, zera, izandu gera: lau mutil eta lau neska. Zortzi izandu gera. Ta gaiñera ttikiyak, ta hura mantentzeko [...], atta-ta lanian ibilki-ta, ogiya're justu-justu ekartzen-ta, hola ibilli giñen.
 -Eta zure aita hona etorri zanian zer egiten zun? Arrantzalia zan edo zertan egiten zun lan?
 -Ez, ez. Zera, marinan, Donostiyan zerbitu zuen, eta gero honuntz, gero gurasuak, andrian aldetikan, zea, anaiak eta zera in zuten hartu.

1.2. Hiru urterekin Hendaiara

- **Hizlaria(k):** Altuna Arranbide, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-026/002
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Hiru urterekin San Pedro kaleko etxea utzi eta Hendaiara joan ziren. Bi urte inguru pasatu zituen han, beste familia batekin. Sei senidetan zaharrena da. Hasieran baporean bizi izan ziren Hendaian.

Transkripzioa

-... gero, noiz esango dizut /esangoizut/, hiru urtekin, oroitzen naiz, geo aldatu giñen, ta bizi giñen San Pedro kalia, baiñon, kamiyuak buelta nola hartzen du... heldu zera Irundik edo hemendik juaten zera farmaziko zera hartan, buelta hartzen duzuta hemengo rebuelta hortan, pues itxe hortan bizi giñen, ta hiru urtekin amak jantzi zian, ohi gañian, eta hor ixkiñea etorri, botia hartu ta Hendaiara juan giñan. Hogeita hamaseyian, gerra zea in zenian, ta hantxet eon giñan, nik, nik han igual, bi urte pasako nittuen nik han, Frantziyan, beste famili batekin.

-Zuek zenbat senide ziñeten?
 -Gu sei. Hiru ta hiru. Hiru mutil ta hiru neska.
 -Ta ordurako denak jaioak ziñeten?
 -Ez. Zaharrena ni naiz.
 -Zu zaharrena...
 -Bai. Gero, hiru... gaztienakin, anai gaztienakin hogeita bi urte diferentziya daukau. Munizipalatako jefe dago.
 -Orduan, hiru urtekin, jantzi, eta...
 -Eta ospa.
 -Ospa. Eta? Badezu goguan nora jun ziñeten edo...
 -Hendaia, bapora bati, ta denak hantxe jan, hantxe lo, baporian jan, baporian lo ta kai gañian pasio batzuk eman ta hantxet ibiltzen giñen denak, bueltaka, bueltaka, bueltaka...
 -Ordun, baporian bizi ziñeten...
 -Bai, bai, bai... Baporian bizittu giñen. Ta gero pues gurasuk etorri zien ta ni han geatu nitzen, beste familia batekin ta bost urte arte edo hantxet egon nitzan ni.
 -Eta ama ta ata...
 -Hemen, bai, beste arreba batekin.
 -Eta zu han, ze, uste zuten han hobeto egongo ziñela...
 -Pues, han ..., nola esango nizuke, da familia bat beti elkarrekin bizittu garenak. Beti elkarrekin. Bai aitonan etxean, gero handik etorri giñenian han itxe bat bazuten, erosi zuten haiek hiru bizitzako itxe bat eta han lehelengo pisuan, ta beti familia horrekin beti elkarrekin bizittu gera. Ezkondu arte, bueno, haiek hil arte, zaharraguak zien ta zera ta pixkan-pixkan jun zien ta, haitako bat aman ahizpa batekin ezkondu zen ta... Beti elkarrekin.
 -Eta Hendaian zegoen ordun familia hori...
 -A, familia harekin egondu nintzen ni.
 -Hantxe zeuden, baina Hondarribikuak zian?
 -Bai, bai, bai, bai, Hondarribikuak, Hondarribikuak.
 -Baina Hendaian...
 -Baiña Hendaian egon zien, haiek dendo asko eon zien, ni etorri ta gero're denbo askuan egon zien haiek.

1.3. Itsasoan bainatzen, eskola ondoan

- **Hizlaria(k):** Oronoz Salaberria, Eleuterio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-037/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Eskola ondoan bainatzen ziren, itsasoan. Benta ondoan. Bainujantzirik ez zuten.

Transkripzioa

-Baiñatu ere eingo ziñeten...
 -A! Eskola onduan! E'giñen gu playara faten, behin'e. Beti eskola aurrian, itsasua zen, itsasua ta barkuk-eta etortzen zienian-ta, handik urera salta. Urera saltatzen genun ta igerika, handik, ordun kaia baitzen! Bentan

onduan nola zen barkuak sartzen zien ta gero eskola in zutenian'e, handik, itsasua bertan-bertan.

-Ta trajedebañorik-eta bazenuten?

-Galtza zaharrak. Galtza zaharrak. Gero bai, gero hasi zen galtz, bañoko arropak-eta. Gure gazte denboran ez zen bañuko arropik. Dena soñeko galtzak.

1.4. Sukalde motak eta egurra

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/006
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:14:32. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Beheko sua nolakoa zen. Ekonomia motak. Egurra nondik ekartzen zuten. Nafarroatik, kamioiarekin. 1934an erosi zuen kamioia, amerikarra. Aita Manuel Larrarte zen. Berarekin hasi zen lanean, 12 urterekin.

Transkripzioa

-Ta nolakua zen beheko su hori; ze zeukan, hola, kate bat?

-Ba, kate lori bat, zintzillik, gantxuakin. Ta gero kati hura jartzen zenuen nahi zenun alturian, zera, jartzeko heltzia, bihian suan. Su haundiya bazen, itten zen gora altza ta su txikiya bazen, itten zen baja behera.

-Horrek bazun izenik, kati horrek? Laratza...

-Bai, izango zuen, pero ez naiz oroitzen.

-Orduan hauspuakin ta...

-Hauspua! Hauspua zen alde guztitan. Kozina ekonomiak, bazen kozina ekonomika bat izena zuena "puerta de leña". Gero erakutsiko dizut, goian. Du beste kozina ekonomika normalmente botatzen zaio sua, goian ditu arrandelak, kendu, han bota egurra. Ta berriz jarri arrandelak. Erraza da, burni, su-burniyakin, ra-ra-ra, erraza da oso. Biñon gero etorri zen beste bat moderna, modernagua, sukaldia, aurrian du ate txiki bat. Egurra goitik sartzen, heltzia kendu, ta goitik sartzen ibilli gabe, atia ireki ta handik sartzen zen egurra. Ta gero berriz itxi ta ya esta. Goian hala da. Puerta leña.

-Ta lehen aterik ez zen orduan...

-Ez. Lehenoz ez. Gaiñetik bakarra. Bai. Gaiñetik bakarra sartzen zan eura.

-Ta ze egur erabiltzen zenuten?

-Zernahi. Balio zuen dena. Guk itxian gastatzen genun asko "de construcción". Tabloiak hautsita o tablak hautsita, [zelak eta hau], menditik ere ekartzen nuen, tarteka, kamionakin juanda, piñua edo hola. Biño hemen piñua asko erretzen zen. Orduan mendiyan ziren piñoak pilla bat, mendiyan. Ta eoten ziren entresaka, itten zuten tartian atera, piñua, ta ekartzen zen panaderitara, sua iteko ere bai, ta gero Nafarroatik etortzen zan egurra asko honea. Nafarroatik etortzen zen, zertik hor zen "el tren Txikito". Tren bat. Irundik "hasta Elizondo". Ta hor zan egurra, puf! Eta kargatzen zuten han bagoiak, etortzen zan, horrara, "Avenida Francia"n, hor zen estaziyua "del tren Txikito" horrena. Ta hortikan guk kamionakin hartzen genuen egur hori ta ematen genuen segun zein karbonerontzako

zan, o zein panaderikotz zan, handik hartu ta ematen genuen. Klaro, guk kobratzen genun “el porte”, eta hola.

-Zuek kamioia bazenuten, etxekua?

-Bai.

-Attana?

-Attana, bai. Attak, nere attak erosi zuen en el año treinta y cuatro o hola, kamioi bat. Chevrolet, amerikano, bi milla kilo ibiltzen zittuen harek. Ta gero erosi nun beste bat, beste Ford bat, ere amerikano ere bai. Ford txikiya, txikiyagua, Forda zen lau milla kilo o hola ibiltzen zuen Fordak. Ta bestiak bi milla kilo. Biño [...] attak zuen, igeltserua zen, e! Beretzako zuen kamiona, bazittuan hamar langille, hamabi o hola.

-Bere kargu hamar langille?

-Bai. El año treinta y cinco. Treinta y cuatro.

-Nola zun izena zure attak? Zure attak, izena?

-Manuel Larrarte. Manuel Larrarte Sorondo.

-Ta zu berarekin hasi ziñen?

-Igeltsero? Bai. Bai.

-Zenbat urtekin hasi ziñen?

-Hamabi urtekin.

1.5. Gerra garaian, Donibane Lohizunera

- **Hizlaria(k)**: Elduaiein Emazabel, Joxe Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-048/002
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:02:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Ama portukoa zen, arrantzaleen alaba. Gerra denboran, Donibane Lohizunera joan ziren; hantxe jaio zen arreba. Nolatan joan ziren hara.

Transkripzioa

-Zure ama nungua zen?

-Hondarbitarra, portukua, Brigida Emazabel, arrantzale alaba. Ta gero gerra denbuan fan giñen Frantzira. Arreba Maria Angeles Frantziyan jayua da. Bi urtekin, zera, ni bi urtetan fan nintzan Frantzira. Gerra zen, ta osaba bat banun Frantziyan, attan anai bat, ta haren itxera fan giñen, San Juan de Luzera. Ta hantxet egondu giñen, herritar asko juan zien hemendikan horrara, Hendaia, ta gerra zela Irunen ta hemen’de gerra ta hau ta hori ta hura, ta gu han egondu giñen bi urtian edo, San Juan de Luzen. Izeba baten itxian. Izeba zen bentakua, katekua, izeba, ta osaba bat, ez serbiziora jutetikan Afrikara, orduan [serbizioa Afrikan], hara ez jutetik fan zen desertora Frantzira. Ta nola arratzalia zen, pues, han, hango jendiakin arrantzan-ta hasi zen, ta hatxe zea in zen.

-Ta hantxe geratu zen...

-Bai.

-Osaba hori...

-Geo etorri zen honea, gero gerra bukatu zenian ta hemengo paperak ondo zea in zenin ta aita maite haundiya zun ta ekarri zun ta etorri zen osaba honea. Ta Hondarribian bizittu zen, ta hil, Hondarribian hil zen.

1.6. Benta zaharra; lixa arraina lehortzen

- **Hizlaria(k):** Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-050/002
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Madalena kalean jaioa. Benta zaharra zen lehen etxea. Xegunda Bentakua deitzen zioten amari. Ura bertaraino iristen zen lehen, eta arraina bertan saltzen zuten. Ama bertakoa zen, eta aita ere portuarra, arrantzalea. Amak arraina saltzen zuen Hendaian. Lixa arraina lehortzen zuten. "Polayuak".

Transkripzioa

-Ta non jaio ziñen?

-Hemen bertan. "Calle Madalena, número dos, primero".

-Etxe honek badu izenik?

-Ez. Ez. A, bueno, hau zan lehenago benta zaharra. Nire amari deitzen zioten Xegunda bentakua. Hemen zen lehenago benta, arraia ta eitten zuten hemen. Ura zen hona, ixkin hortainoko. Ta etortzen zien arraiyakin gero honara. Ta hau zen, zera, benta bat arraia saltzen zen tokiya.

-Bai, e! Ura...

-Honaiño etortzen zen, bai, bai.

-Ta zure ama hemen jaiua zen?

-Bai, bai, bai.

-Eta...

-Atta ez, miñon ama bai.

-Ta atta nungua zen?

-Atta Hondarbikua zen biño ez dakit non jaiyua den.

-Portuarra?

-Bai, portuarra, bai.

-Ta zertara dedikatzen zen zure atta?

-Itsasuan, [arraigintzan].

-Arrantzalia?

-Bai.

-Eta ama?

-Ama, pues, arraia saltzen eta arraia garbitzen ta horrela. Ta juaten ziren Hendaia're bai arraia saltzera, biyek, goiko andria ta bera, arraia saltzera. Ta gero, denbua zutenian, pues lixak-eta garbitzen.

-Ta kontaidazu, lixa ze arrai da?

-Da arrai haundi bat, arrai haundi bat. Eta harrerri eitten zioten tripak ibaki ta gero itten ziotena zen azala kendu. Ta azal hori eitten zuten gorde. Ta ere bai, mamiyak ez zuen asko baliyo zertikan mamiya ez zen horren ona izaten, biñon orduan badakizu, mixeriyakin ta, jaten zigun. Baiño axalak itten zittuten, bialtzen zuten zeakin, zerak, uan nola esan duzu Juaniton ama, horrek itten zuen askoz, baldin bazien beste andriak ere eitten zutena, ta horrek eitten zuen bidali leku batera ta dirua ematen zioten gero haien axalangatikan.

-Ta axalakin ze iten zen?

-Axalakin, zera hori, nola esan dizut lehenago...

-Lija?

-Lija [...] itten zuten.
 -Lija papera?
 -Ba, bai. Bai, hori esaten zuten orduan, e! Lixan azalakin eitten zutela. Lixan azalakin.
 -Ta arrai hori nun...
 -Ta kolayuak! Kolayuak, kolayuak zien ttikiyaguak. Biño kolayua zen jateko ona. Ta haren azala bota eitten zuten. Ez zuen baliyo, ze, ez zien, holaku ttikiyak zien kolayuak. Biño beste lixak zien pues honela, haundiyoguak.
 -Ta lixa nun harrapatzen zuten ba?
 -Ba itsasuan, bai, bai, bai, bai.
 -Baiño urruti ala inguruan?
 -Ez, ez, ez, ez. Hurbillian. Batelakin juaten ziren. Uan barkuk bezela, makinakin, ez, ez. Arraunian juaten ziren itsasora ta hori harrapatzen zutenian, ba hori ekartzen zuten. Ordun arrai gutxio ekartzen baizuten.
 -Ta lixa ze koloretako arraia zen? Illuna?
 -Bai. Illuna, illuna, azal illuna. Bai.
 -Azal illuna...
 -Uan nola harrapatu dute zerian, Zarautzen nola harrapatu dute?
 "Txakalote" zera hori, horrelako kolori hori.
 -Ta zer, nun, nola jartzen zuten zintzillik?
 -Zintzillikan hor, bihian, gero ikusiko duzu foto zerian, zera bat jartzen zuten ta arraiari itten zioten, o axalari eitten zioten, honelako makillat, attak-eta eitten zittuzten aproposak, kanibelak ekarri, ta kanibelakin eitten zuten sartu alde batetik bestera, ta itten ziren zabal-zabalik geldittu. Aixago sekatzeko.
 -Orduan, kañabelekin...
 -Bai, bai, zintzillik jartzen zuten sekatzeko. Ta gero, sekatzen zienian, eitten zuten eman Maritxuna, hark itten zuen saldu gizon bateri.

1.7. Aita alargundu eta berriz ezkondu zen

- **Hizlaria(k):** Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-050/023
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:58:21. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Zortzi senide ziren, bost ahizpa. Aita alarguna zen, eta emaztearen ahizparekin ezkondu zen gero. Lehen andrea gazterik hil zen.

Transkripzioa

-Ta zuek zenbat senide ziñeten?
 -Gu giñen bat, bi, hiru anai eta bost ahizpa. Bat hil zen, biño bost ahizpa bizittu giñen.
 -Orduan, zortzi.
 -Nere atta zen alarguna, ta esposatu zen gero bere andrian ahizpakin. Ziren bi ahizpak gizon batekin.
 -Hori asko pasatzen zen, ezta?
 -Bai. Gure aurreko aldian ere bazen, Martxela difunta, harek ere bi gizonak biyek anaiak zittuen. Bai. Ta beste bat bada, Cristina, attak ere bi andre zittuen ta biyek ahizpak. Bai.

-Eta nola hil zen ba, aitan lehenengo andria?
 -Oso andre polita zen. Gaztia. Nik ez nuen ezagutzen.
 -Gaixotuta?
 -Gaixotuta, bai. Orduan, ez baizen uan bezelako medikamentuak eta gauza horiyek eta! Ta nere ama hil zen iya larogehi urtekin. Hura ez dakit, hura oso gazterik hil zen. Zittuen neska-mutillak. Oso gaztiak. Eta gero nere amakin bizitzen ziren. Biyek. Uan dela gutxi hil da koiñata, neria, larogehita hamahiru urtekin. Anaian andria, bai. Fan den hillabetian, bi hillabete gehienez ere hil dela.

1.8. Aita, ofizio askotan ibilia

- **Hizlaria(k)**: Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/002
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:00:45. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Aita portuarra zen. gerra aurretik aduanan ibili zen lanean, eta "guardapesca" ere bazen; arrantzan eta lanpernatan ibiltzea ere gustatzen zitzaion. Bederatzi senide ziren. Guardapesca lana. Egunkari papera jartzen zuen paparrean, eta bizikletan joaten zen guardiara. Karburozko linterna.

Transkripzioa

-Ta zure atta nungua zen?
 -Hondarbikua!
 -Portuarra?
 -Portuarra.
 -Arrantzalia?
 -Ez. Gerra biño lehenago, oseake, zera, ofizinan e... (ofizinan...) aduanan lan iten zuen eta aparte guardapeska. Bi lanak iten zittuen eta ordu bete baldin bazuen libre, arrantzara juaten zen o zerara, mendira joaten... o zerara, o arroketara joaten zen, lanpernetara... Ez zen gelditzen! Ta nik ez dakit nondikan ekarri zittuen bederatzi ume! Ta bi hillak, hamaika.
 -Jaten emateko denaki zerbait egin bihar. Jaten ematen denoki zerbait egin bihar...
 -Biñon esan nahi dut, ordu guztiyak hartuak, gabaz igual, zera, guardapeska gabaz, egunez ofizinan, eta gero zittuen denborak o batela hartuta andare arrantzara, o arroketara, o lanpernatara. Lapatara, lokesea. Elkasoes geldirik ez egotia.
 -Ta guardapeska lana ze izaten zen? Guardapeskak ze iten zun?
 -Pues Bidasoatik barrena guardiyan pues zerak, ordun ibiltzen ziren "al robo", deitzen zuten, arrantzan, korrokoiaikin ta horrela pues zera bat, amu, amu lodi batekin ta direkto botatzen zuten ta edozein tokitan itxeki eta, oseake, "una manera mala de pescar". Nola oain, zera, sariak, zeran, Frantses horiyek, galeaziyak direnak, pues hori horrela. Ta ibiltzen ziren, pues, bizikletakin juaten zen, oroitzen naiz, zera, neguan, jartzen zuen petxuan eta bizkarrian pediodikuakin. Gero arropa jantzi. Ta hanka mutturretan ere bai. Zapatillak baziren bezela, zera: pediodiko puskak ta gero galtzetak. Bizikletakin joaten zen. Hemendikan Behobiño igual juaten

ziren; Behobi o Biriatu, nik ez dakit non dan, handik barrena, eta gabaz. Gabaz aitzen zen, ta hotza. A! Ta zea bat, lan... handik etorri giñenian uaindik hemen zen, tia Sebastianak-eta gorde ziguten gauza asko posible zutenak salbatu, armariyuk-eta utzi behar izandu zuten, biño gauza asko salbatu ziguten. Bazuten etxe xar bat, eta han gorde ziguten. Eta han agertu zen...

-...

-E?

-...

-Frantzira joan giñenin, gerra denboran. Eta zera bat: linterna bat attak ibiltzen zuena. Linterna bat ibiltzen zuen attak, horrela joaten zenin bizikletakin guardira, eta zera, karburuakin! Karburua zen halako, nik ez dakit, mezkla zurizko bat hola... gauz... gauz, zuriya're ez zen. Nik ez dakit. Gris klaro... Bueno. Ta harekin nunbait argiya iten zuen, nik ez dakit nola, ez dut konprenditzen... Han joaten zen bere harekin, eta bere eskopetakin. -Eskopeta ere beharrezkoa...

-Bai.

1.9. Bazkaria eta etxeko lanak bere kontu

- **Hizlaria(k)**: Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/009
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:18:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: 15 urtetatik berak egiten zituen bazkaria eta etxeko lanak. Zer jaten zuten. Anaiaren gaixotasuna. Anaiak laguntzen zion lurra garbitzen.

Transkripzioa

-Eta bueno, hamabost urtekoz ya ematen nuen nik itxia. Nik ematen non itxia. Ez zidan esan beharrikan nere amak zer jarri behar nuen bazkaltzeko ta ze arrai erosi behar nuen afaltzeko ta deus ere. Nere gain ya utzi zen. Ke remedio...

-Ta normalian ze jaten zenuten, leikua?

-Hombre! Leiku gorriya, leiku txuriya azakin, bestela ez; porru zopa, igandetan salda, haragi ta [...] pixkatekin, eta zera, eta garbantzua eta horrela. Biñon banuen anai bat, leiku txukiya egiten nuenian azarik gabe, esaten zun zera: "honek lepua lodittuko din!" Komo diciendo ez zula indarrikan.

Ta jaten leikuak, gorriya jaten zuen, bi plater jan, hoitako platerak gañera ez dire oain bezelakuak, e! Bi plater jan ta [...] "Ves? Gehio kabitzen zian". Hirugarrena jaten zuen eta gero dena gottika bota. Biñon ze majua neretzat, o... Serbizioa Ferrolen, Ferrolera joaten zien lehen, marinara, eta geldittu zen gibelarikan.... zerbait jo zion gibelerara eta... joan biño lehenuo jo zion kai zaharrian mixiko aldiyan, ta gero elizan barrenian, mezan zela [...]. Eta joan zen serbiziora ta gero etorri zen permisuaikin eta geldittu zen hemen berriz ere gibleko miñakin geldittu zen; ordun harrapatu zioten, zeran, hospital militarrian, Donostiyan. Eta ya utzi zuten bertan, hemengo komandantziyan, ta goizian iten zittuen ogiyak, marineruakentzat, eta itxera, egun guzikotz itxera, ta ekartzen zuen boillo goxo-goxuak itxera.

Pues harek iten zian /itentzian/ asko lagundu, itxian, zera, igual aritzen zen frotatzen, ordun argizariyak eta eman behar ziren ta alanbria, ta eskobilla, ta gero bailletakin-ta, eta launbatetan argizariya eman ta launbatian, o... ostiralian [...] argizariya eman ta launbatian, zera, brillua atera. Eta asko laguntzen zian harek orduan. Gero, ya, klaro, itsasora joatian ta...

-Brilloa atera belauniko ala hankakin?

-Hankakin, hankakin... honela, honela... Eta gero, pues, klaro, sukaldiak eta kumuna-ta izaten ziren, pues, zurezkuak, tablazkuak denak, eta ordun bai, ordun lurrian, ta azpillak ere bai, lurrian ta jaboia ta ura ta leja pixkatekin, eskobilla batekin, karra-karra-karra, o!... Arpillera batekin xukatzen, izugarriya!

1.10. Umetako jostaketak

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/009
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jostaketak. Ume asko izaten zen kalean, denak jolasean. Ezkutaketan, gainetik saltoka... baloi gutxi zeuden.

Transkripzioa

-Ta zuk, mutikotan, ze iten zenun? Zuen jostaketak-eta nolakuak izaten zian?

-Uf! Beti jostatzen. Ta orduan jendia ibiltzen zen dena jostatzen, e! Denak ibiltzen zien jostatzen.

-Bai?

-Bai. Alde guzitan denak, zea, dena haur. Dena jostatzen, hor jostatzen, han jostatzen, dena jostatzen. Uain iñor ez da ikusten.

-Ta ze, zuen jostaketak nolakuak ziran?

-Ui! [...] gorde, ta batzuk gorde, ta, hura eittera jun, hura billatzera jun ta beste ixkin batian bestia atera ta pareta jo ta hola. Beste batzuk hola jarri ta gañetik saltoka ta, holako gauzak.

-Zuek baloirik-eta izaten zenuten?

-E?

-Baloia-ta izaten zenuten?

-Bai biño gutxi. Bai. Gu biño haundiyaguak ibiltzen zien, haundi batzuk ibiltzen zien, bai, ordun ere, biño gu, gaztiak giñen eta ez. Gaiñea goiz hasi nintzen itsasuan...

1.11. Alamedan mutilekin dantza egitea

- **Hizlaria(k):** Gonzalez Oiarbide, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-077/018
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:40:56. **Bukatu:** 00:43:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- **Laburpena:** Alamedara joaten ziren dantzara. Lotuta eta soltean egiten zuten dantza. Mariaren alaben kongregaziotik bota zuten, mutilekin dantza egiteagatik. Irundik joaten ziren asko. Emakumeak ez ziren tabernatara joaten.

Transkripzioa

-Ta hor, zuk, Alamedara ere faten ziñeten, zuek?

-Alamedara? Hori tipiko zen. Hori, Lameda zen el pil-pil.

-Bai?

-Lamida, oso polita zen. Zergatik baile dena zen Lamedan eta goi o hura dena, betetzen zen kanpoko jendia o itxeko jendia, o anaiak, o arrebak, amak eta... Ikustera. Eta egoten zen beti horrela Alameda. Beti. Txoil polita zen.

-Ta dantza itia gustatzen zitzaizun zuri?

-Asko. Mucho. A lo suelto.

-Ze iten zenuten, sueltuan? Ala...

-A losuelto, a lo suelto! Sueltoan.

-Ez zen posible lotuta dantza itia, mutillekin?

-Bai, bai, bai. Baita, baita. [...] agarrau ta ttun-ttuna zen sueltokotz. Zien bi. Ttun-ttuna, ttun-ttunero dire hiru o lau. Haiek ttun-ttuna. Eta bestia, banda. La banda de musika. Haiek denatatik.

-Denetatik?

-Denatatik. Ta izaten zen pues igande atsaldetan.

-Ta zuk iten zenun dantza, mutillekin?

-Ez! Amakin ein bihar nuen, e!

-Baina batzuk ez zuten iten, kongregaziyokuak zianak...

-Bai! Batzuk bai. Baziren bai holakuak, baziren. Baziren holakuak. Hijas de Maria. Guri biali in ziguten, mutillakin dantza iten genuelako.

-A bai?

-Bai. Bai. Ez zuten utzitzen mutillakin dantza itten. Biño eitten zuten gero, ya normal.

-Klaro, hori gero kanbitu ingo zen, denborakin ta.

-Bai, ya gero pixkaka-pixkaka, dena. Eta orduan etortzen zen Irundikan jende asko etortzen zen ere, Lamedara. Egoten zen hola.

-Tranbian? Tranbian etotzen zen jendia?

-Bai.

-Irundik?

-Ta oinez! Fan'e bai, ta etorri're bai, askotan dirorik ez ta korrika hasi ta ala, segi! Bai. Hala.

-Zuek, tabernetara eta ez ziñeten joango... Emakumiak...

-Ez. Tabernetan nada.

-Ta paseatu eta bai. Paseatzera ta.

-Paseatu bai, hori bai, ibilli!

2. Itsasoa

2.1. 14 urterekin hasi zen itsasoa lanean

- **Hizlaria(k):** Martínez Lekuona, Akilino

- **Elkarrizketatzailea(k):** Maya Urroz, Ainara - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** HON-001/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena:** Bere senideek lehenbizi baporea izan zuten eta ondoren motorra. 14 urtetik aurrera itsasoa lanean hasi zen familiaren ontzian .

Transkripzioa

-Eta zure aita hona etorri zanian zer egiten zun? Arrantzalia zan edo zertan egiten zun lan?

-Ez, ez, ez. Zera, marinan, Donostiyan zerbitu zuen, eta gero honuntz, gero gurasuak, andrian aldetikan, zea, anaiak eta zera in zuten hartu. Ta gero Hondarbikuk ere bai, hartu ta, behin bateko bajoriak edo hola ibiltzen zien! Baforiak.

-Baforiak.

-Bai. Pues han ibiltzen zen, arrantzan. Ta gero, bajore huraiek, zahartzean, eitten zuten kendu. Kendu in zuten. Ta gero jartu ziren “a base de” motorra. Motorrakin. Eta zuten, gerra miño lehenago, motorra, hamalauko zera, zaldikua. Eta ibiltzen geren familia guztiya han, ya kozkortu, hamalau urtetik hasi nitzen itsasuan. Hamalau urtetan, klaro, “uain baduk saioa, ta guazen, itsasuan hasi bihar duk”.

-Hamalu urtekin.

-Bai. Sartu gure barkuan, eta gero zerkua, zerku horiyek txikiyago zien, hor ehun bat metro baldin baziren, haundiyena, eta han ibiltzen geren.

-Antxoatan?

-Bai. Eta gero, sartzen garen, sartu dugu saria, eta martxa, itsasora. Hurrengo goizian, seirak aldera-edo, andare. Erne, erne! Aitak, aitak, brankan jartzen geren tente, ekusteko arraiak non saltatzen zuen, o txoriyak ze itten zuten...

2.2. Antxoak nola harrapatu eta saltzen ziren

- **Hizlaria(k):** Martínez Lekuona, Akilino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maya Urroz, Ainara - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** HON-001/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Antxoatan egiteko hegaztiei asko begiratzen zitzairen. Itsasoa mantxa gorri bat ikusten zen, antxoak gora irteten zirenean. Hara joan, sarea bota eta poltsa baten antzera jasotzen zen gora. Handik salabardoarekin ateratzen dira arrainak ontzira. Antxoa gero bentan saltzen zen.

Transkripzioa

... ekusteko arraiak non saltatzen zuen, o txoriyak ze itten zuten...

-Nola segitzen zan? Antxoa ikusteko zer egiten zan ardoran, o txoriak beiratu o...

-Bai, txoriyak beiratu ta gero iten zen atera mantxa bat gorri gorriya, eta

hura dena antxua da. Bere [aiñaldi] tenperaturakin iten da gottittu. Eta “hara, hara, hara! Gorriya! Gorriya!”. Ta “nun?”, ta “han!”. “A, bale, bale, guazen!”. Bota, harriya, hartu, eta bira, bira, bira, makinillakin, eiten da etorri horrela, eta hori itten da gero hola jartu. Hola, boltsa bat bezala. Hola, boltsa bat bezala, eta han, gero, salabardukin, salabardua jakingo duzu /jakingouzu/ nola den, zera horrelakukin, boltsan, sartu, hartu ta bota. -Salabarduakin? -Bai. Bota. -Saria ez zan ekartzen ontzira? -Bai. Saria ekartzen duzu /ekartzentzu/ ontzira, ta gero halatzen zen ta boltsa bat gelditzen zen han, ta handik itten da arraia hartu eta kubiartan behera bota. Kubiartan behera bota, bete ta guazen itxera. -Saltzera? -Bai. Ta itxera etorri ta [...] muestra ematen genun, holako xistoak baziren, espartzukin eiñako xisto batzuek, oain hemen ez da ikusten halakorik... -Oain plastikua... -[...] erdiya bezela itten genun muestra eman. Muestra eman. Gero, benteruak, benta hemen zen, hemen... Benterua, etortzen zen ta “bueno, ze barku?” ta “holakua”, “hori?” “holakua”, “holakua”... jartu, ta gero konpradoriak sartzen zien, denak ixerita, konpradoriak denak, eta benteruak esaten zuen: “hoge pezeta”. Ta batek “kraaaa!”, bola bota, “kraaaa!”, tal, tal, tantos arroas. -Lehelen botatako bola? -Bai. [...] bola, hainbeste arrua, holako preziyotan, hori.

2.3. Atuna nola harrapatzen zen

- **Hizlaria(k)**: Martínez Lekuona, Akilino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maya Urroz, Ainara - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: HON-001/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- **Laburpena**: Atunetarako arto-malutak erabiltzen ziren. Arto-malutak nola prestatzen ziren arrantzarako. Atuna harrapatutakoan puntila sartuta hil egin behar izaten zen.

Transkripzioa

... urtiak etorri zien, ta hara, uain’e urtiak etorko’ttie, ez dakit zenbat urte den. Urte asko da. Uain [amajiñetan]. Atunatarata faten garen, sardiakin. Zera, txurikiña ez dakizu zein den? Artuan hojak, barrengua onena, harekin eitten genun malutiak. [Orratxa] batekin, [orratxa] bat jartu zerakin, jostorratzak, eta tra, tra, tra, tra malutiak hartan itten nugen. Ttaka, ttaka, taka, taka, ta... hala itten nugen ta hala atzamaten nugen atuna. Batzutan hamar, bestetan bost, ta segun nola zen, biñon, arrai asko zen. Arraia asko. -Eta gaiñera hurbil izango zen? -Bai, hemen, gaiñian, hemendik bost bat minutura o zerbait hola. Eta arrai asko zen. Ta gero, denboraliak jotzen zunian, atuna jakin asko dela, eta ekusten tuzun, urian, axal-axaletik martxan: Aaaaaa!... Dios! Aaaaa! E! Hor duk! [Ez faki!] Horreri! Ta handik pixkatara... Fuuua! Hartzen zuten malotia, atun haundiya, bi lagun itxekita, tira ta tira ta tira. Hartzen nugen, ta

krokakin jo, eta gero mataderiyan nola den puntil, puntil bat?
 -Bai.
 -Horrek du hemen, zera badu, muiñak! Txuri-txuriya. Handik sartu. Trrrrrr!
 Ta hiltzen da.
 -Orduan, hil egiten ziren?
 -Bai.
 -Jaso, ta hil.
 -Bai. Hola, eta gero, pues hortan hasi garen, hasi garen, hasi garen...

2.4. Familiako emakumeak sareak josten

- **Hizlaria(k)**: Martínez Lekuona, Akilino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maya Urroz, Ainara - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: HON-001/007
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Sareak puskatutakoan etxera itzuli behar izaten zuten. Gero familiako emakumeek josten zituzten sareak. Sareak nola egin edo josten zituzten. Honen inguruko azalpenak; lexikoa.

Transkripzioa

-Bai. Hola, eta gero, pues hortan hasi garen, hasi garen, hasi garen... Gero barkuak ttikiyak, ta sare ttikiyak, eta mordua atetzen zenian saria puskatu, ta itxera, deus gabe. Eta itxera etortzen garenian, arreba-ta hor zien, "jostunerak", arreba-eta hor zien, ta etortzen zien ta faten zen atta o anaia, "zer?" "saria puskatu dugu ta etorri jositzera", jartzera ondo, "bai, bai, etorko gera"-ta, han barkun bertan, [...], jositzen ibiltzen zian.
 -Eta zein ibiltzen zan jositzen?
 -Arreba! Nere arreba! Gure arreba!
 -Baiña emakumiak-eta, familiako emakumiak-eta?
 -Bai, bai, familiako, zea, familiko emakumiak aproposak baziren, zeran, hortan [...] zutenak, "sare berriya in bihar duk?" "bueno, bai". Hamabost bat-edo, bost bat-edo hartu zuten, zerak, hoiek, lagunak, andriak, eta bat zen, zera, asko jakin zuena. Ta asko jakin zuena, ta bueno, "bihar ekarri holako piezak". Piezak izaten zien holako piezak, fardun moduan ekartzen zuten saria. Biñon harizkua. Harizkua ta, bueno, "sare haundiya in bihar dugula? Bai, bueno, eingo diu". Ta hartzen zuten holako makil bat bazuten, nebriyak, beste hainbeste, hainbeste, gero botzen zuten hola, iten zuten kortxu sartu, ta hola hartu, berunak ta zerak, eta listo. Gero zituzten hiru-lau eraztun, eraztunak, hola pasatu ta horrela pasatu eta itten zuen mutur honekin dena boltsa bat geldittu; gottitzen denian boltsa geldittu. Eta gero, arraia goitti ekartzeko, ein bihar duzu "manilla" deitzen diogu guk horrerri; sariari, gotti, gotti, gotti ta gero jartzen zenian [...], orduan salabarduakin, krak eta hmmm..., hmmm..., indarrak utzita [...]

2.5. Hondarribiko gabarrak

- **Hizlaria(k)**: Lizarraga Peña, Pako

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-016/011
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:31:51. **Bukatu**: 00:32:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Lehen asko erabiltzen zen gabarra Hondarribi inguruan. Zenbat gabarra zeuden aipatzen du.

Transkripzioa

-Ta sasoi batian gabarra asko ibiltzen zien hemen?
 -Bai. Asko, asko. Hemen inguruan ez genun, biño hemendik hara asko ziren, bueno, gue barriyuan hori, mutil zahar hori bakarra. [Ta gero] hortik hara bazien... lau edo bost bai! Beste barriyuan, zean, ta bat gaiñea, arraunlaia ona gaiñea ona izandu zen, Miel, uaindik bizi da. Larogeita zortzi-hamar urte izango dittu /izangoittu/ ya. Ta gizon hoy, fuertia. Hiru gabarra jarri, filan, ta aurrian lantxa bat izaten dute /izateute/, zea itteko, urak ez eamateko, lurrin sartu ta gelditzen da ta atzea ittian indarra itten du. Ta hiru zea, borta o zea hoiek bota gaiñea, segiduan, ta hiru gabarrak marea batin berak bakarrik kargatu ta Hondarribiko alamedan ustutzen zittun. Arraunlariya're ona izandu zen, Hondarrabiyan, ta geo Donostira eaman zuten. Donostiarrak ikusi zuten zer zen, ta Donostian ibili zen, Miel. [...], baserriya.

2.6. Osaba fogoneroa zen

- **Hizlaria(k)**: Oronoz Salaberria, Eleuterio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-037/008
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:19:18. **Bukatu**: 00:21:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Aitona ez zen arraunlaria, ezta osabak ere. Osaba fogoneroa zen, ikatzezko itsasontzian. Pasaiatik eramaten zuten ikatza, eta "xaietan" gordetzen zuten. Batelean eramaten zuten ontzira. Fogoneroaren lana.

Transkripzioa

Ta aitona zer zen, arraunlariya izandakua?
 -Ez, ez, denak arraunakin biño ez ziren arraunlariyak izandu. Attona ez. Osabak'e ez ttut izandu arraunlariyak. Osaba zen fogonerua. Orduan dena ikatzakin baitzen! Barkuak! Ez zen oan bezala, gasoila. Ikatzakin. Denak bel-beltz iñak, zera, fogoneruak, denak ikatzakin barkuak, tximiniyakin.
 -Ta ikatza nundik ekartzen zuten?
 -Ez dakit! Pasaitik ekartzen zuten. [Prika] batzuek.
 -Ta gero biltegin baten izaten zuten, ikatza?
 -E?
 -Ikatza gordia izaten zuten?
 -Gordia?
 -Biltegin baten edo nunbaiten izaten zen ikatza? Garajen baten edo nunbaiten?

-A! Klaro! Xaian. Guk xaia esaten diogu.
 -A, xaia.
 -Xaiak esaten genun guk. [...]. Sartzen zuten ta gero barkora eman, ba zerian, batelian. Batela da lantxa. Batela. Batela.
 -Bai, baiña arraunian?
 -Bai. Barkua ematen zuten. Karrukin hartu ta kaiara eman zeratik, xaiatik. Barkotik gero [...]. Batelan sartu ta barkora.
 -Barko bakoitzak fogonero bat zeukan ala bi?
 -Ez. Makinista ta fogonerua. Fogoneruak in bihar zuen, mariñelak juan biño lehen barkora, pixtu. Fogoneruak. Ta makinixtak gero, makinixtak ematen zuen itsasuan bere kontu, ta fogoneruak pixtu ta prestatu ta dena, fogonerua. Nik banuen osaba bat hortako.
 -Eta beste osaba zer zen? Mariñela?
 -Mariñela. Haiek zien hamalau anai.
 -Jesus!
 -Osaba haiek zien hamalau anai. Ta bat zen neska. Ta eman zioten izena Bienvenida.

2.7. Legatza, berdela eta txipiroiak

- **Hizlaria(k)**: Oronoz Salaberria, Eleuterio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-037/013
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:28:43. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Legatza
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- **Laburpena**: Negu partean legatza eta arrosela harrapatzen zuten, krabak, dontzellak... Lehen berdela aparejuarekin harrapatzen zuten, ez sarearekin. Txipiroitarako zaldiaren buztaneko ilea erabiltzen zen. Amugileak. Berunak nola egiten zituzten.

Transkripzioa

-Ta neguan ze ibiltzen zian, legatza harrapatzen, negu partian?
 -E?
 -Negu partian legatza?
 -Leatza, bai.
 -Leatza...
 -Leatza ta arrosela. Gero atzamaten zien beste gauz, krabak ere bai atzamaten ziren asko, dontzellak, erregiñak, txitxarruak, berdelak, zerakin, erramintakin, sariakin ez. Uain, gero hasi zien sariakin berdelak-eta atzamaten. Lehenotik, zerakin, erramientakin.
 -Aparejua?
 -Aparejua, erramientakin, atzamaten zuten berdelak eta gauzak.
 -Ta aparejua nolakua zen?
 -Pita. Pita izena zuen. Pita mehe bat izaten zen, xuri bat, xuriya, ta gero, bestia, berriz, txipiroitako zen zaldiyan buztanan illia. Eitten zuten eskuakin erramienta, zaldiyan buztanakin, ta zaldiyan lepoko illiakin, ba itten zuten erramienta.
 -Eta amua?
 -Amua, ba, amua izaten zen amu-illiak. Bi, Hondaribin baziren bi amu-ille, amuak eitten zutenak.

-Izenekin gogoratzen zea, nola zuten izena, amugilleak?
 -Batek Xebero ta besteak...uain...gue pariantia zen. Uan ez naiz oroituko.
 Batek Xeberio izena zuen. Haiek eitten zuten amua.
 -Ta nola iten zuten? Urtu?
 -Ez, ez, ez, ez! Eskuz itten zuten.
 -Eskuz...
 -Ezkuz eitten zuten, amuak.
 -Eta ez zuten erabiltzen molde bat, eta hara beruna urtu ta...
 -No. Hura, hori itten zuten txipiroia atzamatekoa. Txipiroia atzamateko berunakin.
 -Berunakin.
 -Bai. Berunakin eitten zen moldia. Gero jartzen zen muturrian orratzak.
 Muturrian orratzak.
 -Hori txipiroitako.
 -Hori txipiroiantzat.

2.8. Angula asko harrapatzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/001
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Angula asko zen erriean. Sarea nolakoa den, "baia". Kaxa. Askok saltzen zuten, eta etxean jan ere bai. Angulak nola hil, tabakoarekin. Nola prestatu, piperminarekin.

Transkripzioa

-Ari giñen erriyoko kontuekin, ta angula ere bazen han?
 -Bai! Hemen angula asko hartzen zen orduan! Baiño asko, e! Angula asko hartzen zen hemen!
 -Zu ere ibili...
 -Ez. Ni ibili naiz, baiño, beste, gutxitan. [...]. Banuen saria, bakizu nola hartzen den, ez? Palo luze batekin, muturrian du jarriya zera bat, sare bat, egur mehe-mihakin einda, hola, eta sari harekin eitten da, lehorretik eta itsasotik, batelatik ere bai, jun. Angula asko hartzen zen hemen!
 -Nola du izena horrek? Sariak?
 -Baya.
 -Baya?
 -Baya.
 -Ta horrekin, lehorretik edo...
 -Lehorretik o batelatik. Eta gero ematen dute kaja bat, hola, "uno veinte", hola, luze, "cuarenta de ancho" eta "veinte de alto". Eta handik atera, ta itten dute bota kaja hortara. Zeatik ateratzen da zakarra ere bai, makil puskak ta holakuak, belarra-ta atetzen da asko, zikiña, ta ura ere bai. Ta kaja horrek du egiña "una rejilla" jarrita. Eitten da zulo bat, hola, "diez por... diez por diez, o diez por veinte", rejilla bat, ta jartzen zaio "red metálica", itxi-itxi-itxi-itxia, angulak eskapo ein gabe. Ta harekin atera ta tra: hiru, o lau, o hamar angula. Bueno! Berriz, pla, ala!, kajara bota. Angula asko hartzen zen hemen, lehen. Askok. Baiño asko, e! Ez milla kilo,

ez, biño hiru-lau kilo, bi-hiru kilo, beti, bakoitzak.

-Bai, e?

-Bai.

-Ta angulak saldu ere...

-Hemen angula asko saltzen zen. Klaro, saltzen zen peskaderita, angula saltzen zen. Asko. Ta itxetan jan, pilla bat ere bai. Biño angula asko. Asko.

-Normala zen angula jatia etxian?

-Bai. Honbre!

-Egun espezialetan ala...

-Ez, ez, ez. Hartzen zuenak itxian jaten zuen, egun... normal.

-Ta angulak hiltzeko?

-Botatzen da tabakua. Ez duzu aitu hori, lehenok?

-Bai, baiña nola?

-Tabakua lehen saltzen zan, tabakua, kuarteroi batzuek, liatu gabe. Paketia ireki ta da barrenen tabakua bakarra, txikittua dena. Handik hartu ta bota, ..., gaiñian, ta hasten dire denak saltoka, hasten dire, ta bota pixkat handik, hiltzen dire segittuan. Ta gero prejittu ta jan.

-Oliyuakin ta ze gehio?

-Batzuriya. "Que no falte". Ta piper miña. Miña. "El picante"! Angula pikante gabe, no pita. Ta badire arraiak, porejemplo bakallua ere bai, ni, ni, netzako, bada jendiak ezin dutenak jan. Biño guk itxian jaten dugu ta ni, ta nire andriak'e jaten du pixka bat miña, ta alabak ere bai, miño ni, gustatzen nau pikante-pikante. Ona da. Ardua edateko.

2.9. Baserriak berritzen, aitarekin

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/005
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:14:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Duela 50 urtetik du batela, arrantzara joateko. Aitak ere izan zuen, baina ez beti; kontratista zen, etxeak eta obrak egiten zituen Irunen eta Hondarribian. Lehengo teilatuak nolakoak ziren. Sukalde asko berritu zituzten, su baxua zutenak.

Transkripzioa

-... erriyuan ibiltzen zela beti jendia...

- Ni bai. Asko. Asko. Ni, gustatu nau, badut nik barko bat, faten naiz uain ere, arrantzara, uain gutxi, baiño lehenok igandetan beti. Hartu xixaria eta bakar-bakarrik itsasora juaten nintzen, igual ordu erdi bat kanpora, han eoten nitzan bakar-bakar- bakar-bakarrik, itsasuan. Arrantzan. Ta hartzen nuen beti.

-Batela beti euki izan dezue?

-Uain dala berrogeita hamar urte o hola hasi nintzen ni batelakin.

Lehenotik juten nitzen, lehorretik, biñon gero, uain dela berrogeita hamar urte, o gehixo, berrogeita hamabost urte o hola, gu erosi genun batel bat eta harekin joaten nintzen. Batelari jarri nion fueraborda bat, motorra, japonese bat, hamar zaldikua, ta harekin juten nintzen, puf!

-Orduan zure attak ez zun batelik?

-Euki zuen. Biñon ez zuen. Zertik nere atta zen, esan dizut, kontratista, ta zittun beste problema asko, ta lanak, eta zea, gauzak, eta...

-Nun iten zun lana?

-Irun ta Hondarbiyan. Biño gehiago Hondarbiyan. Beti, iya, Hondarbiyan. Irunen'e bai. Biño normalmente Hondarrabiyan.

-Etxiak iten?

-Bai. Eitten zuen etxiak ere bai. Ta geo reforma, milla reforma, zertik orduan baserritan ez zen tetxorik, aleik'e. Gotti beittu ta ikusten zan "los solivos de madera". Berrogeita hamar zentimetrotik distantziara. Eta gaiñian tarima, egurra. Ta ez zen, hori ez zen tapatua, iñun ere. Dena bistan. Asike gaiñian jendia ibiltzen bazen eitten zan erori zikiña ta dena. Tablak ez ziren matxinbratuak, ziren hola, tope josita, ta hor tartetik itten zen zikiña erori betti. Kuartora're bai. Solibak dire hola diferente, trabeska, ta gero gaiñian tabla josiya. Besteik ezer ez. Gero, gero hasi giñen gu eiten, tetxuk eiten, listoiak josi soliba hoiekeri, listoiak, hola, listoi mehe batzuek, ta gero ieltsua eman, azpitik. Ta lajatzen genun tetxuk hola, liso-liso-liso. Milla baseritan. Ta ez zuten sukalderik ere ez. Sua itten zuten lurrian.

-Su bajua?

-Bai. Hemengo baserritan, klaro, guk jarri genittuen baserri pilla batian, sukaldiak. Sukalde, guk esaten genun "cocina económica".

2.10. Kontserba lantegiak

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/021
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:44:53. **Bukatu:** 00:46:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Andregaiaren familia Ondarroako zen, eta kontserba lantegia zuen Hondarribian. Bi lantegi zeuden: Ruiz eta Manterola. Etxean ere egiten zituen kontserbak jendeak. Italiara saltzen zuten asko. Antxoa eta atuna. Prezioak.

Transkripzioa

-Ta esan diazu fabrika hori, eskabetxeria, Hondarribian bi zeudela.

-Bai. Ruiz eta bestia Manterola. Gero itten zen konserba asko Hondarrabiyan "en los bajos", itxian bajotan ere bai.

-Salmueran?

-Bai. Barrikatan-ta salmueran jarri, gatzatan, antxua, ta gero itten zan, hori nahasitzen zanian, antxua, normalmente, oso-osorik o leike ere, itten zuten burua kendu're bai, antxuari, salatzeke. Burua kendu ta tripak kenduta. Ta hori, burua hori botatzen zuten, baserritarrek ematen zuten, zelairako ona da. Eta bestia, gatzetan gatzittu ta hori saltzen zen asko "a Italia". Ta han itten zuten horrekin "filetes de anchoas", ta filetiak, pilla bat.

-Fabrika hoietan, eskabetxerietan, ze iten zuten, antxoa ta atuna ere bai?

-Atuna're bai. Baiño antxoa gehiago. Zertik orduan antxoa zen nahi hainbeste. Nahi hainbeste antxo. Nahi hainbeste. Ez zen saltzen, askotan, ekarri arraia ta ez zen... zelaira botzen zuten. Baiño antxo Haundiya, ederra, e! Ez zen saltzen. Ta baliyo, pagatzen zuten... Uain kilua pagatzen dute hiru euro. Hiru euro, e! "Que son quinientas pelas". Ta orduan

hemezortzi kilok, potua, zen neurri bat, hemezortzi kilok baliyo zuen zortzi pezeta. "Dieciocho kilos", e, potua, zortzi pezeta. Zazpi, zortzi, hor ibiltzen zen. Sei're bai. Hamabi ere bai, klaro.

2.11. Kontserba lantegiak II

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/022
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:46:52. **Bukatu**: 00:49:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Antxoa garaian emakume asko ibiltzen zen kontserba lantegian. Burua kendu, eta barrikatan jarri, gatzarekin. Pisua jartzen zioten gainean. "Muera". Atuna nola prestatzen zuten. Ramon y Carranza enpresa.

Transkripzioa

-Ta hor, fabrika hoyetan, antxua garaian, ibiliko zan jende asko lanean...
-Bo! Pilla bat.
-Emakumiak?
-Bai. Iya dena. Gizona bat o beste bazen, biñon iya dena andria. Andria.
-Ze iten zuten, burua kendu...
-Burua kendu ta "empacar". "Empacar" badakizu zer den, ez? Gero barrikan jarri denak, denak buruz honara, esan nahi dut, atze aldia hara, ta bestiak dena itten zuten enpakatu, dena ondo. Eta jarri illera bat eta gatza bota; jarri beste illera bat ta gatza bota. Ta gero itten zuten, barrikak zuen tapa bat redondua, biñon, sartzen zen barrure. Ta jartzen zuten gero harriakin pisua, gaiñian, istutzeko.
-[...]?
-Bai. Ta horrek irauten zuen ba, ba, hillabetetan ta zea, gero muera, likidua zen, botatzen zen ura, ta itten zen muera. Muera horrek idukitzen zuen antxua urtetan, ez zen galtzen. Usai ona botatzen du, gaiñea.
-Bai?
-Ta gero hori ematen zuten asko, esan tzut, Italiara, hemendik.
-Eta atuna? Atuna ere bai?
-Atuna saltzen zen hemen asko. Baiñon ematen zuten tanbien, bai, kanpora, nonbaitte.
-Nola iten zuten atuna, oliyotan?
-Atuna itten zuten, burua ta tripak kendu, ta gero baziren, sobre todo hemen etorri zen empresa bat, "Ramón y Carranza", hoiek ziren, zuten en, Zeutan o hor zuten fabrika haundi bat. Handik etorri, harek alkilatu zuen fabrika hau. Horrek itten zuen pillo gogorra, ta horrek bialtzen zuen dena kanpora, atuna einda, ya bukatua, latatan, e! Biñon tonelada asko, e! Askok.

2.12. Tuku-tukutarrak

- **Hizlaria(k)**: Elduaiei Emazabel, Joxe Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-048/004

- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:05:56. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
 Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- **Laburpena:** Madre de Guadalupe ontzian hasi zen itsasoan. Aitarena-eta zen; hamabi ziren sozioak. Familiako flota. Zimarroitan 1961 inguruan hasi ziren, biberoarekin. Gaur egungo kontuak. Lehenengo ontziak. Txalupak. Gasoilezko motorra zuten, eta "tuku-tuku" egiten zuen; "tukutukutarrak".

Transkripzioa

-Seme bat ibiltzen da, Eugenio, barko batian, ta beste bi ibiltzen die beste bi... Lehengusuak, beste bi, hiru barko die. Txapazkuak. Barku ederrak. Bat Tuku-tuku, bestia Bella Mar, ta bestia, berriz, Ama Guadalupekua. Hiru barku hor ibiltzen die uain, uain gauza danak aldatu die ta! Gure denboran barkuak, uaindik barku ederrak zittuzten, ederrak! Nik barkua ontziyakeri deitzen diot, e! Barkua. Ta barkuak ederrak, txapazkuak denak, biño, arraia...

-Arraia falta?

-Arraia bada. Zimarroia. Gu [...] defendittu gera, Hondarbitarrak, defendittu gera, gue denbo guziyan zimarroitan. Zimarroia. Ondo. Kostan ez zen inor ibiltzen zimarroitan. Ez Bermeotarrak... Hegaluxetan. Xardiyakin ta gauzakin ta. Ta hemen hasi zien, biberukin, lehelengo Frantsesak, San Juan de Luzkuak biberukin, kañiberari helduta. Ta geo, geo kostan iñor ez zen ibiltzen. Geo gu hasi giñen, hondarbitarrak, el año 61 o hola.

-Zimarroitan.

-Bai. Ta barkuan arraia harrapatzen zen, ta uain bada arraia, biño, ez dizute utzitzen harrapatzen. Uain badakizu, uain kupua jarri dute. Kupua bihar da, biño kupo ttikiya dute. Aurten 10.000 kilo, barko bakotxak. Ta 10.000 kilo ez da ezer ere. Asko die kupua iñak, uaintxe [...] ai die. Sasoi baten. Hegaluxerik ez delako. Urruti gañea dago, pizarra hura dago urrutian. Berrogeita hamarrian ta hamalau de longitud, itsasuan, goian. Ta gasoila garesti ta motorrak haundiyak eta... Urte kazkarra dute. Aurtengo [gaztiak eta] urte kazkarra. Bestela, gu bizittu gera. Itsasuak eman du ta bazun, arraiak baliyo zuen.

-Lehenoko barkuak nolakuan ziran?

-Lehenengo barkuak zien egurrezkuak, lehelen-lehelengo barkuak hasi zien txalupak. Txalupak. Abantian-ta belakin-ta. Ta geo hasi zien motorra gasoilezkuak. Ta gasoilezko motorrak, dieselak die gasoila, kosta guziyan izango da lehelengo motorra gue attak-eta in zuten. Hogeita bost zaldiko motor bat. Alemana motorra, e! Alemana: Otto Deutz. Alemana. Armadoria zen lehorrekua. Karnizero bat. Lehelengo motorra. Ta motorrak iten zuen tupatupatu- tupatupatu, tupatupatu... motorrak, lehen zien baforiak, iten zien ikatzakin-ta, baforiak! Baño baforiak kalderakin-ta zera in zenian, gasoilezkua, lehelengua, hogeita bost zaldikua, iten zuen motorrak tuku-tuku, tuku-tuku... Ta deitzen zioten "tuku-tuku". Ta azkeneako guk motia dugu tuku-tukutarrak. Tuku-tuku. Ta barko berriya in diu uain dela hiru urte ta indiu tuku-tuku izena, eman izena. Ya herriyan deitzen digute tuku-tukutarrak. Denak bere motia: bixartarrak, hola dute... Guk dugu tuku-tukutarrak. Barkuak iten zulako tuku-tuku, tuku-tuku... Gasoilezko lehelengo barkua, hogeita bostekua. Barko ttikiyak, e! Sare ttiki batekin, ta hemen denak ibiltzen giñen, egunez atera ta hor ta... Biño, arrai pixkat ekartzen zenun ta hola bizi, hola bizitu gera, pixkan-pixkan-pixkan... pixkortu gera! [...] Geo barkua ein, haundixio ein, beti haundixio iten fan

gera, uain txapazkoak, nik 61 urtekin lajatu nun semiari, ta itsasuan martxa bazen, arraia harrapatzen genun ta saltzen zen arraia ondo, e, ordun...

2.13. Lehengo arrantza motak eta itsasontziak

- **Hizlaria(k):** Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-050/003
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantza motak
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Ez zuten arrain mota asko harrapatzen lehen. Pantxoa, sardina, txitxarroa... Amak Bentan erosten zuen, eta Hendaiara eta Irunera joaten zen saltzera. Antxoa gero etorri zen. Itsasontziak txikiak ziren. Gaur egungo arrantzaren egoera. Batelak. Baporeak eztanda eginda hil zirenak.

Transkripzioa

-Ta besterik iten zuten, ba, arraia salmueran jarri ta holakorik bai?
-Orduan ez. Orduan ez zen zerikan. Uan bezalako arraiak ez zen orduan deus ere. Orduan ez zuten atunik harrapatzen, ta ez, gero pixkat hasi ziren biñon bestela ez.
-Ze harrapatzen...
-Harrapatzen zuten pantxua, o salmiroia-edo zerbait, ta gero itten zittuzten bentan erosi, ta itten zien, Hendaira faten zien saltzera, edo Irunera, bi lehengusu juaten ziren.
-Ze hartzen zuten arraia, buru gañian?
-Bai. Saski batzutan sartzen zien aurrena, redonduak, ta hemen jartzen zuten paño bat o trapu bat, trapua, eta hola faten zien saltzera. Oiñez juaten zien, e! Irunera oiñez. Urte asko da hori.
-Ta txardiña ta...
-Baita, txardiña-ta ekartzen zun, ibiltzen zien bi-hiru barku ttiki hemen, ta ekartzen zuten txardiña edo txitxarrua, ta erosten zuten zerin, bentan, ta hura saltzera juaten ziren.
-Ta antxua're izango zen...
-Gero, bai, gero antxuakin gure ama-ta ez ziren juaten antxuakin. Gero ya jendia gaztiagua hasi zen, antxua erosi ta Irunera saltzera, biño juaten ziren tranbian.
-Ta aurretik ez zen antxuarik ez zen harrapatzen ala?
-Oso gutxi. Mas bien txardiña harrapatzen zen.
-Ordun txardiña, txitxarrua...
-Bai, eta txardiña. Gero harrapatzen zuten, pues batzuek pantxo ttikiyak eta horrelakuak juaten zirenak, bakotxa bere txalupa ttiki horiyekin.
-Orduan barku haundirik ez zen?
-Ez zen, ez, ez, ez, ez. Hura eaman ta gero bai hasi zien barko haundiyak, barku haundiyan, ta gero ya hasi zien zerakin, biberukin, arrai bixiyakin, hegaluzia eta hegal-motza-ta harrapatzen. Ta oan oso urte txarra dugu. Oso hegaluze gutxi da. Gutxi-gutxi-gutxi... Ta juaten dire hiru eguneko, zerara, birera. Ta uan beste barkuak dagozte txitxarrota eta makarelatan,

ardorian deitzen diote horrerri. Barko haundiyak, e! Haundiyak. Arrayik ez da, hegaluxerikan; atuna ez dugu posible, ez dute posible ekartzia. Ta nahiko bada! Atun nahiko bada! Hegal-motza. Biño ez dute utzitzen ekartzen gobiernuak. Barko bakotxai hamar milla kilo temporada guzian. Eta ba! Atunez betia dago itsasua ta ez dute posible. Ta, en kanbio, frantsesak ekartzen dute dena usteldua ta hori ekartzen dute gero Espaiñira saltzera. Ikusten duzu /ikusteuzu/ ze bizimodua!

-Bai. Baiña lehen, zure aman garaian diferentia zen.

-O! Txoill! Txoill!

-Barkuak ttikiyak...

-Ttiki-ttikiyak ziren, bai, ttikiyak, ttikiyak.

-Dena batelak?

-Ta batelak. Gehiena batelak. Bai.

-Ta barkuak, baporezkuak izaten zien?

-Bai. Hori ni ez naiz oroitzen. Zera zen, itten ziren zerak, ordun baziren hemen gizonak zera lehertuta. Ze esaten zioten... Baporian, ikatzakin-ta ibiltzen ziren, ta gero ez dakit zerekin lehertu itten zioten, ta hemen bada, bueno, hilla da, Juanito, osaba bat itsua gelditu zen. Osaba Juanito. Bai. Ta bestik baziren, ba, dozena erdi bat hil, golpe berian hillak ere bai.

-Hola esplosiyuakin edo?

-Bai, esplosiyuakin, bai, bai.

-Eta zuk ez dezu oroitzen holako barkuak, ikatzakin?

-Ez. Ez, ni ez, ez, ez. Ni jaio gabia nintzen orduan. Urte asko, urte asko da.

-Zu neskatala ziñenian ya barkuak...

-Ya beste [...] ziren, bai.

-Ya gasolinakin...

-Gasoillakin, gasoillakin ya, barkukin. Bai. Bai.

2.14. Aita batelarekin ibiltzen zen; txipiroitan

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/004
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:07:28. **Bukatu**: 00:09:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza motak
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- **Laburpena**: Aita batelarekin joaten zen arrantzara eta gero motorrarekin. Hurbilean ibiltzen zen. Haize egunetan ez ziren joaten. Txipiroitan. Aguarina beraiek egin, harizko koloreekin, edo eresia.

Transkripzioa

-Ta zure atta arrantzara nora juaten zen badakizu?

-Mixi fuaten ziren batelakin eta gero ya hasi ziren pixkat zerakin, motorrak. Bai. Nere attak biaje gutxi in dittu /inttu/ motorrak. Mas bien ibiltzen ziren batelakin.

-Eta nun ibiltzen zen? Hemen inguruan?

-Bai. Oso hurbillian, hurbillian. Haize pixkat baldin bazen ez ziren faten. Nola juan bihar zuten, arraunian juaten ziren ta gero haize pixkatekin, ez ziren juaten.

-Ta txipiroitan ta...

-A! Txipiroitan-ta baitare, bai. Gero txipiroi asko ekartzen zuten hemen.

Urte bat bazen, hotz haundiya ein zuen Hondarbiyan. Hotz izugarriya. Ta ordun etorri zen txipiroi asko-asko, etorri zen. Bai. Neguan txipiroi asko harrapatu zen urti hartan.

-Ta txipiroitarako ze erabiltzen zuten? Ze aparejo, aguariña?

-Auariña, bai, justuan.

-Baiña beraiek indakua izaten zen?

-Hoi, batzutan, ekartzen zutenian zera hori, beudek itten zuten hariyakin forma eman, biño beste batzuk itten zuten erosi. Ta askok itten zuten itxian. Gure illoba honek eitten zuen itxian.

-Ta nola? Hariyekin?

-Bai. Kolorezkoa. Axula, [...], uan hemen bera bazen akrriko zizun nolakua den, biño kolorezkuak, axula, gorriya, berdia, txuriya. Zenbat kolore gehiago, ta nik ez dakit, txipiroiyak zera gehiago itten zuen o ze.

-Eta barruan amua?

-Ez, ez, zerakin, zera horrekin, bai.

-Nola du izena horrek?

-Ez dakit nik ba, holako katxarrua izaten zen, dena horrela, ez dakit nola...

-Bai, puntak aldetan?

-Bai, punta bai, puntakin, bai.

2.15. Itsasoa hildakoak, barra txarra zelako

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/007
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:10:23. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
 Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Sardina ekarri, eta ezin saldu ibiltzen ziren. Arrantzale batzuk nola ito ziren, barra oso txarra zelako. Lagun baten anaia zegoen tartean. Motorra zen, baina txikia. Itsasoa hildakoak. Osaba bat ere hala hil zen; 13-14 hil ziren gau batean. Guadalupeko kantua.

Transkripzioa

-Ta txardiña?

-A, txardiña ekartzen zuten, biñon askotan ezin saldu. Gaba batian ein ziren ito hemen hiru-lau lagun. Juan ziren txardintara. Ta nere lagun baten anaia orduan ito zen. Ta gure atta zen ordun itsasuan, txardiñetan, ta etorri zien tae san nion: “atta!”, zera, itsaso haundiya zen ta zen orduan barra oso txarra, omen. Barra izaten zen oso oso txarra. Ta “zera ez duzu ikusi, honalko barkua, Santa Luzia?” ta “Denak heldu dittun” eta bitartekoz hura, bestik ein zien han geldittu, puertuan, ta horrek, hori in zen sartu, barrenera. Ta ordun ito ziren Pedro, Ordulio, atta-semik ere bai, lau, lau-bost lagun ito ziren.

-Denak zuen lagunak?

-Ez. Bat zen nere lagun anaia. Mutil gaztia. Mutil gaztia. Denak gaztiak ziren, bat ez, atta, atta-semiak, edo atta’re orduan gaztia zen, pero, hura [aritua] zen. Denak harrapatu zittuzten, gorputza denak.

-Nola...

-Eske in zen sartu barkukin, ta ze gauza, nola barra oso txarra izaten zen, jo olatuak eta akabo.

-Ta hondoratu ein zen?

-Bai, bai.

-Baiña batela ez zen...

-Ez, ez, ez, motorra, motorra, bai, motorra. Haundi-haundiya ere ez, pero motorra zen, bai. Bestik ziren haundiyaguak, ta bestiak, uan bezalakuak ez, uan dire oso haundiyak dire oain.

-Ta asko, hola, jende asko hil da itsasuan?

-Bai, nahikua. Gu, han nere ahizpa uaindik, edo bizi bazen hark esango zizun aski ederki, zera, guk badiu osaba bat itua, attan anai bat, horrela, barran, ordun ito omen ziren, ez dakit, hamahiru edo hamalau lagun. Bai.

-Egun batian?

-Bai, bai, bai, gaba batian. Gure ahizpak kontatzen zuen ondo, gure Natic eitten zuen kontatu. Hura ni miño askoz, bueno, ni miño askoz, hamar urte- edo bazittuen zaharragua, ta harek itten zuen hobekiyo kontatzen zittuen harek.

-Ze izan zen, egualdi txarra?

-Bai. Txarra, txarra, ta in ziren sartu, ta bakizu barra, beti izaten da Guadalupeko nobenak itten ttugunian, kantan esaten da beti barra, esaten da. Barrako zera txarra izaten zen, bai. Ta beti hori jartzen dute kantan bertan. Bai. Gero in zuten zera jarri, espigoia in zuten frantsesak, ta in zuten espaiñolak, ta geo diferentzi gogorra. Uan, uan aixago sartzen dire. Uan oso aixa sartzen dire. Barko frantsesa horiyek ta hemenguak, bueno, hemenguak gutxiyo zertik oan karruk eta gauzak kendu baittuzte eta oan faten dire Oriyora edo Pasaira-edo, karrora ematen dittuzte /ematenttuzte/, pintatzeko ta gauzak eitteko... Biñon oan, zera, oan barra oso ondo digu Hondarbiyan. Oso ondo.

-Kaia...

-Espigoia ittikin, pues mesede gogorra in zen.

2.16. Sareak eta tanatokiak

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/009
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:14:42. **Bukatu**: 00:18:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Sareak oraingoak baino askok txikiagoak ziren. 100 brazakoak. Kotoizkoak ziren. Tanatokian tindatzen zituzten, eta Butroi pasealekuan lehortzen jarri. Tana. Euri egunetan ez zuten tanatzen.

Transkripzioa

-Ta txardiña harrapatzeko saria?

-Bai, izaten zien sariak, biñon uan aldian, pues askoz ttikiyaguak, bueno! Uan izaten dire, zenbat esango dizut [...], cuatrocientos metros izango ttuzte uain. Eta orduan ze izango zien, ehun metrorik ere ez. Sare ttikiyak izaten ziren.

-Nola neurtzen zenuten, brazatan?

-Bai, zera, makillakin. Braza-makillak izaten zuen “uno setenta y dos

centímetros". Ta braza-makilla. Beste herritan izaten zen "uno setenta y cinco", bestik izaten zuten gutxigo, ta hemen zen beti "uno setenta y dos".

-Braza?

-Bai. Bai.

-Ta zenbat braza izaten zitun sariak?

-Sariak? Pues, uan, e! Uan!?

-Ez, lehenguak.

-A! Lehenguak? Ez, gutxi. Ehun braza? Ehun braza? Ta uangon, berriz, hirurehun braza. Hirurehun braza. Izugarriyak izaten dire. Ta loriyaguak. Zertikan arraia karga hartzen duenakin itten da hautsi.

-Ta lehen materiala ere diferencia...

-Bai, lehen zen zerazkua, uan da dena nylon, ta lehenogo ez.

-Algodoizkua?

-Lehen algodoizkua, ta hura itten zen aixago hautsi, berriya ez bazen, aixago hautsitzen zen.

-Eta hura, sare hura, algodoizkua, tanatu...

-Itten zen, bai, justo, badakizu. Tanatokira juaten giñen horrara, [ni juaten], gu foaten giñen attakin, barkuk itsasura juaten zienian, beti beste sariak, laguntzeko pixkat, gero itten zigun zeakin jarri, Paseo Butronen, arbolak nola dijozten, han itten zigun sekatzan jarri.

-Arbolatik arbolara?

-Arbolatik arbolara. Ta sekatzan zienian, ta hautsia bazen, lurrian iseri ta hura konpontzen.

-Ta tana zer da?

-Zen, zera bat zen, honelako katxarro bat, kuadrato bat, gogor-gogor bat, ta itten zuten ibaki, zerakin, adrillukin itten zuten puskak ebaki, ta gero itten zuten, ura nola jartzen zuten berotzen suan, hara botatzen zuten, ta ematen zuten kolore marroixkide bat, saria bezela.

- Urtu iten zen?

-Bai. Urian bai. Ta gero itten zuten harekin, zerakin, pasa urakin ta gero zabaltzera, sekatzera.

-Han, tanatokiyan eoten zen saria?

-Bai.

-Zenbat denboran eukitzen zuten?

-Ez, a, ez dakit hoi, a, ez, gutxi, gutxi, gutxi... Bakizu Hermandadia, bazkaltzen nola ematen duten, jantokiya?

-Bai.

-Pues ixkerretara zen tanatokiya Hondarbiyan beti. Beti hala zen. Ta gure, guk beti esaten dugu, gure plaza honetan, uan itxe berriyak in zittuzten hor, ta hor zen tanatokiya ere bai, biñon, hori zen zera batena, patro batena. Berak bakarrik eitten zuen bere sariak. Biño beste hura zen denakena. Kofradikua. Ta zenbat zeuden, bat?

-Bi. Bi tanatoki ziren.

-Baiña zenbat aska-edo?

-A, bi aska, biño askotan banaka itten zuten. Txandaka. Zuk in duzu? Pues gero ni, ta gero besti hura, ta horrela. Ta egualdi txarratan, pues, han egoten ziren montoizka jarriyak zertikan eudiya bazen, tana dena zen kolore guziyak juango zioten-ta, han egoten zien, egualdi ona zenian, sekatzera dena.

-Ta zenbat denbora bihar zun sariak sikatzan?

-Aguro itten zen, egualdi ona bazen aguro sekatzan zen.

-Aguro?

-Bai, aguro.

-Ta gero gorde?

-Bai. Espazun hautsiyikan, gorde.

2.17. Sareak konpontzen nola hasi zen

- **Hizlaria(k):** Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-050/010
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:20:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena:** Sareak konpontzen nola ikasi zuen. Ahizpa zaharrena Erreteriarra joaten zen arraina saltzera eta beste hirurek sareak konpontzen zituzten; haiei begira ikasi zuen. Ezpaina egiten eta zuloak egiten. Lexikoa. Beruna eta kortxoa. Ama Birjina kortxoan. Beruna Irunen egiten zuen gizon batek; ikasi zutenean, arrantzaleak hasi ziren saietan egiten.

Transkripzioa

Ta zuk sariak konpontzen ere iten zenun?

-Bai.

-Zure amak bazekien?

-Ez. Nere hiru ahizpak. Beste ahizpa zaharrena ibiltzen zen arraia saltzen. Juaten zen Erreterira arraia saltzera. Eta ni juaten nitzen, hiru ahizpak han ibiltzen zien lanian, ta faten nitzen ta egoten nitzen iserita haiekeri begiraka. Ta hórrela ikasi nuen. Haieki begiraka eon ta ikasi nuen.

-Ta ahizpak, zure beste ahizpak, nola ikasi zuten?

-Nola ikasi? Bi ahizpa, behintzat, ahizpa zaharrenak.

-Ahizpa zaharrenak erakutsita?

-Bai. Bai. Ta ni han egoten nitzen heiek hiruaki begiraka. Ta horrela ikasi nuen.

-Ta zer da da lehenengo ikasten dena? Zer da inportantiena saria [jo...]?

-Mixa ikasten duzu ezpaina itten. Ezpaina itten. Ta gero eitten dute, xoluak eitten. "Media malla" esaten zuten; hura egitten. Ta gero hiru maillakua. Ta gero golgarriya deitzen ziogun, loriyari mihiari, ta gero intxaltxa izaten zen honelako zera bat, handi eitten da txikotia sartu, ta berunak eta kortxuak handik zera eitten ziren.

-Ta beruna alde batian ta kortxua bestian...

-Beste aldian, bai.

-Ta kortxuan zuek medallarik-edo jartzen zenuten?

-Bai. Gure illoba, nik ere erakutsi nion, gure illoba, nik uan dittut, nere illoba baten bi alaba lanian. Eta horrek itten zuen, kostunbre gogorra zuen! Zera eitteko, Ama Birjina zera jartzeko, Guadalupeko edo Milagrosa edo Jesusen Bihotza, zeozter jartzeko. Kostunbre gogorra. Ta gure ahizpak, zera, zaharrenak, lanian ibiltzen zen, hark ere bai bazuen. Guk ez dugu behinere... "Jarri dizia, zera, medulla?" ta "Bai, jarri ziogun". Bai, bai.

-Eta kortxua ze iten zen, erosi?

-Bai. Ta beruna itten zuten, Irunen eoten zen gizon bat, beruna izaten zen, pues, zera zutenak, esto, ibiltzen zienak lanian itturriyak-eta konpontzen ta itturri berriyak eitten ta hango puskakin itten zuten. Gizon bat bazen Irunen eitten zuena beruna.

-Beruna urtu eta...?

-Urtu eta gero eitten zuten beruna, eitten zuten beudek. Bai.

-Eta hemen bertan ez zuten iten?

-Gero, ein zuten, ikasi ein zuten, ta gero eitten zuten, nonbait gizonak

eitten zuenak ematen zioten zerak, puska horrelakuak eta eitten zuten beudek. Asko kentzen, diru asko kentzen zuten, ta gero eitten zuten xaiatan, norberak eitten zuten, zera, nagusiyak, ta bere ondokuak bizi[...] itten zuten zerakin, beruna [...] zuen, niño kortxuak ekartzen ziren kanpotikan. Gaixki ibiltzen zien kortxo zerak, algodoizko hori behintzat pues kortxo [zarpa...], zeraguak, biñon gero nylonezkuak asko baliyo izaten zuten kortxuak.

2.18. Sareak hornitzen

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:20:59. **Bukatu**: 00:23:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Sarea nola armatu. Ehun metroko piezak etortzen ziren, lau braza zabalerakoak. Maila eginda zegoen. Hornitu egin behar izaten zuten sarea, luze eta zabalean. Buruak maila txikia du eta lodiagoa. Gaur egungo kontuak.

Transkripzioa

-Ta zuek iten zenuten, saria armatu?

-Bai, bai.

-Ta nola etortzen zen? Algodoizko saria piezaka? Zatika etortzen zen?

-Bai, zera...

Zuek juntatu?

-Bai, juntatu, bai, juntatu. Mixi etortzen zien ehun metrokuak, ehun metrokuak, ehun metrokuak... eta zabalera, pues lau braza. Biño uan itten da berrehun metro, esaten diozu fabrikari egin nazu berrehun metrokuak hainbeste zera, ta zabalera pues igual, zer, hogeitau braza zabalera bai. Lan gutxiyago horrela inta. Bestela, banaka egittiakin, zen lan asko, biñon horrela ekartzen zutenian lana gutxiyo izaten zen guretzat.

-Ta ya etortzen zen malla-eta inda, saria, ta gero in bihar zenuten zuek zatiyak lotu?

-Bai, ta gero hornittu're bai, e! Hornittu're bai gero beste piezak, segun zenbat braza bihar duten zabaleran, pues hainbeste zuk, pues gehiago hornittu, ta luzian, pues berriz ere atzetikan dena luzatu, berriz ere.

-Ta sariak ze eukitzen zun, malla diferentia?

-A, bai. Denak [balde] diferentia. Biñon itten zigun eskatu, sare bat egitteko, pues honelako numeroak. Izaten zittuten numeruak. Berri bat itteko, hainbestekua. Biño gero ya, zu lehen saria [bazuzun] ta hautsita asko galtzen zen gero, igual; sari asko galtzen zen, ta beste numerua, haren numerua batere ez eta beste numerua ekartzen zigun.

-Ta sare bat bazen, hola, malla txikiya zuna ta arraia han geratzen zena, gero, despeska...

-Buruia izaten da malla ttiki-ttikiya. Eta gero izaten da haundixogua. Biñon burua beti izaten da malla txikixogua ta loriyagua. Biño uan jartzen ttuzte denak loriyak, den-denak loriyak.

-Baiña lehen diferentia izaten zan, burua ta...

-Buruia ta gero ya, buruan ondolik jartzen zen pixkat mehexogua, ta gero

ya mihiagua, miñon uan bezelako kargak ez zittuzten hartzen. Gutxiyo ekartzen zuten ta, miñon uan ez, uan itten dute, txoill loriyak jartzen.
 -Klaro, lehen saria eskuz, jaso're, ez? Eskuz...
 -Uan itten dute, zerak, uan katxarro asko ttuzte zerak itteko, miñon lan haundiyak hartzen dittuzte, e! Hautsitzen badute, saria atetzeko, lan izugarriya zuten gizonak. Botzen ttuzte kamionara, gero kamionatikan, uan jarri ttuzte kai berriyan, in ttuzte leku politak sariantzat-eta. Ta hara sartzen ttuzte eta han ibiltzen dire josten.

2.19. Sareko orratzak

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/012
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:23:26. **Bukatu**: 00:26:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Hamabost bat urterekin hasi zen sarea josten. lan gutxi zen, eta interina hasi zen bañistekin. Gero, sarera bueltatu zen. 75 urte arte ibili zen. Taulazko orratzak, plastikozkoak eta hezurrezkoak. Tamainak.

Transkripzioa

-Eta zuk, hasi ziñenian, zenbat urtekin hasi ziñen sariak josten?
 -Nik ez dakit hamabost urte edo zenbat nittuen. Ta gero lan gutxi zen, egunian egun batian lan egin ta hurrenguan deus ez, ta gero hasi nitzen hor goian bañistakin, itxe batera juaten nitzen lanera, udan. Ta gero ya hasi zen barku zera gehiogo, arraia gehiogo ekartzen ta gauzak, barko gehiogo in zuten, ta ya lajatu nuen bañistak ta hasi nitzen ya sarian. Urte asko eman ttut. Hirurogeita bost urte arte mixi egondu nitzen. Ta gero, jublatu. Ta bakizu, gu han egotia, jublatzen den andria, pues bestiak ez ziren konten egoten. Ta horrela in giñan, ni juaten nitzen, beste hiru bat urte in nittuen, bai. Esaten nion nik jefiari: zuk lan asko duzunian niri deittu, biño lan gutxi duzunian niri ez deittu, zertikan ez naute ondo beiratzen ta. Bai.
 -Orduan, hamabost urtetatik sariak josten...
 -Bai, bai, hamabost-hamasei urte, bai.
 -Ta zu hasi ziñenian, orratzak...
 -Ez dut aleik ere, e! Ez dut aleik-aleik ere.
 -Ez?
 -Aleik ere! Ahizpak bai badittu, gure ahizpak, hor Bar Rafaelen goian. Nik aleik [ere]. Ez guraize ta deus, deus, deus ere! Ez dut. Esan [...]: ez dut gehio deus ere jakin nahi sariana.
 -Ez?
 -Ez gero miñez egondu nitzen eta [...] esan zin fateko pixkat laguntzera beste hiru gaztiari, ta hark ematen zien guraiziak. Ta bestela ya gehio ez nitzen fan. Gero izandu nuen zera bat, petxuan, eta in ziaten operatu, ta gero ya ez nitzen gehiogo fan. Biño ondo banitzen, Jesus Maria! Fango nitzen, sarera! Askok gustatzen zien. Askok, askok, askok.
 -Ta nolakua zen orratza lehen? Plastikozkuak izaten dia baiña lehenago?
 -Mixiko zugun taulazkuak, biñon txoill aguro hautsitzen ziren. Ta gero

ekartzen zittuzten plastikuan. Ta gero bazen gizon bat, ondarrutarra, hark itten zuen ez dakit zer ekartzen zuen ta harek itten zuen, orratzak itten zuen. Ixurrezkuak itten zittuen. Fuertiak.

-Hezurrezkuak?

-Bai. Fuertiak, bai. Ondarrutar bat etorri zen honara neska, hemengo neska batekin esposatu zen, ta andria zuen, pues, sarian ibiltzen zena, ta hark, hasi zen zeak itten ta oso fuertiak izaten zien haiek.

-Hezurakin?

-Bai. Oso fuertiak.

-Ta ze hezur erabiltzen zun? Animalin batena?

-Bai. Zera izaten zuten, nola ibiltzen zien han, zera joka mendiyan, zera, tutua joka-ta ibiltzen ziela ta... Ez duzu behin'e sumatu hori? Mendiyan ibiltzen zen, zera, agarra batzuk bezela ziren. Hemen ikusten dire uan [...]. Haiekin egitten omen zuen. Ez dakit. Kurioso gogorra zen alde-aldez, e! Bai.

-Bai. Ta bestiak, taulazkuak, e...

-[Aldiro] hautsitzen ziren. Biñon uan dire denak plastikua. Bai. Uan denak, e!

-Zer zeuden, tamaiña diferentetakuak?

-Honelako ttikiyak, gero haundixoguak, ta gero haundiyaguak. Eta armatzeko izaten ziren haundiyak. Haundiyak. Hoinbeste bai. Honela. Bai. Bai.

-Eta nola dute izena? Orratzak?

-Orratzak, bai. Orratzak.

-Sarerao orratzak?

-Sareko orratzak.

-Sareko orratza.

2.20. Iparraldera sareak jostera

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/014
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:30:19. **Bukatu**: 00:31:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Iparraldera joaten zen sareak jostera. Deitu egiten zieten, eta taxian joaten ziren lau lagun. Askoz gehiago ordaintzen zuten. Hendaiera batelean joaten ziren. Han ez zegoen itsasontzi asko. Hango saregileak edadetuak ziren. Gaur egungo kontuak.

Transkripzioa

-Frantzira juaten nitzen sari konpontzera.

-A bai?

-Bai, bai, bai, bai.

-Hendaiera?

-Hendaira ta San Juan de Luzera, fabrikara faten giñen.

-Fabrika han izaten zen?

-Bai. San Juan de Luzen bai. Han saltzen zittuzten piezak eta ordun juaten zien hemendikan hara piezak erostera.

-Eta lanera ere bai?

-Gu faten giñen. Bai.
 -Hango sariak jostera?
 -Lan asko zutenian itten ziuten deittu. Ta hara joaten giñen. Taxis bat jartzen ziguten hemen ta faten giñen lau lagun hara, jositzera.
 -Hemen baiño gehio pagatzen zuten?
 -Bai, askoz, honbre! Askok gehiago! Deseatzen handik deitzeko! Biñon, hemen lana bazigun ez zigun posible fatia hara.
 -Klaro...
 -Mixi in bihar zigun hemengua josi.
 -Ta hango... Zer zen, fabrika baten?
 -Bai. Ta gero, [...], Hendaian zen zera haundi bat, xaia haundi bat berriya in zuten, eta hara juaten giñen Hendaira. Batelian juaten giñen, e! Hendaira batelian faten giñen, biñon San Juan de Luzera kotxian faten giñen.
 -Eta zenbat barkutako sariak o ze izaten zian?
 -Han, han barko asko-asko ez ziren. Biño [...], deitzen zigunian, pues, nola gehiago irabazten zigun, denak konten fateko hara.
 -Ta han ez zegon rederarik?
 -Bai, baziren, bai, baziren, baziren. Bai.
 -Bertakuak baziren?
 -Bai, baziren, bai, edadezkuak, gaiñera. Gaztiak ez ziren orduan. Gutxi.
 -Ez zuten jarraitu gero gaztiak lan horretan?
 -Ez, ez, ez, ez.
 -Hemen, berriz, bai.
 -Hemen bai. Hemen bai. Nere illoba bat, ez dakit zenbat urte, berrogei urte? Ez. Hogeita hamabi-hamalau urte izango dittu. Bestiak berrogei urte. Bestia, hura, [zeharo] txintxuagua da. Oso abilla atera da. Bai. Gure Mari Jose saria armatzen-ta hor ibiltzen da hori.

2.21. Eskabetxean lanean, atunarekin

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/021
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:52:46. **Bukatu**: 00:55:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Etxea 25.000 pezetatan erosi zuten. Eskabetxean hasi zen lanean gero; 5.300 pezeta kobratzen ditu handik. Ahizpa hotel batean ibili zen. Eskabetxerian emakumeak ziren gehienak; hotza pasatzen zuten, beti bustita. Olio makinak botatzen zion atunari. Sardina.

Transkripzioa

-Gero itxia in zuten saldu. Gure amak pagatu zuen hoge milla pezeta, itxi hau, ta goi... hogeita bost; ta goian pagatu zuten hoge milla pezeta. Ta gero ya hasi giñen, ni juaten nitzen gero, hemen lanik ez zugunian, juaten nitzen San Juan de Luzera eskabetxera, "fabrica de pescado"ra, hara juanketu naiz.
 -Eta ze...
 -Arraia, atunan lanian.
 -Atuna?
 -Atunakin ibiltzen nitzen.
 -Ta nola izaten da atunan...

-Itten zigun, ekartzen ziguten egosiya, ta itten zigun axala kendu, ta beltza nola izaten ttuzte beti atunak, hura dena kendu, garbi-garbi egin ta guk, nik behintzat, latatan jartzen nuen. Ni gutxi, ibilli nitzen gutxi. Beste batzuek ibilli zien gehiogo ta kobratzen dut "cinco mil trescientas pesetas". Frantzikua. Paperak in ziguten ta nola soltera nitzen, ta gutxi. Ta en kanbio nere ahizpa, Nati, zittuen lau seme-alaba ta ni miñon denbora gutxiyo in zuen, harek ere lanik ez zuen sarian, ta hura're juaten zen, ta harek kobratzen zuen hogeita bat milla peseta. Bai. Zeatik lau seme-alaba zittuelakotz. Zeatik ni soltera nola nitzen, tan ere beste ahizpa, "cinco mil trescientas". Nere beste ahizpa ibilli zen hotel baten urte askuan lanian. Hemen ez zigun lanik sarian, ta hark ere kobratzen du "cinco mil trescientas".

-Hotal batian, baiña, Hendaian o...

-San Juan de Luzen.

-A, San Juan de Luzen.

-Bai.

-Ta han, eskabetxe fabrikan, emakume asko zebillen lanian?

-Asko, asko, frantsesa asko, asko. Biño hemendik ere juaten zien, e!

-Emakumiak, denak?

-Bai, gehienak. Gizonak itten zuten lanak zeranak, porejenplo, zera, katxarro haundi batzuek zittuzten ta hara botzen ttuzten lata denak, ta gero zerakin eitten zuten goittittu ta suan gaiñian jartzian ta... lanik fuertiena. Guk ez. Guk hotz askua pasatzen zigun. Neguan. Hotza.

-Zuk latetan jartzen, oliyuakin ala oliyua gero?

-Ez. Guk ez. Gero oliyua botzen zun, makina batek itten zun oliyua bota. Hankatan honela ta pasatzen zigun hortikan ura. Ta hemen gaiñetikan uste gabe eitten zigun ura erori eta beti bustiya. Hotza. Beti hotza. Biño, zerbait bihar zigun! Ta aukesea, pues Frantzira juanta han zerbatte dirua irabazteko, hemen ez zigun ta!

-Eta hori, atunana, izango zen garai batian bakarrik, ez?

-Bai. Garai batian.

-Urte sasoi baterako...

-Ez, urte askuan izaten zen! Hemendik juaten ziren bastante, zerak, neskak eta andriak ere juaten ziren zerara, atun lanera, biño gu, nahiago, nik nahiago Hondarribian geldittu sarian. Ta gero ya hasi zen barkuk gero ta gehio, ta lana, ta lana, ta ya hemen geldittu giñen.

-Ta hor, eskabetxerian, atunaz aparte, antxua ta...

-Ez, ez. Antxua ez. Zera, txardiña noizian behinka txardin pixkat. Burua kendu eta garbittu pixkat eta latatan jarri. Gero beudek itten zuten oliyua-ta bota. Biñon gehienian ni ibili naiz sarian.

2.22. Hondarribiko kontserba lantegietan, antxoa

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/022
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:55:44. **Bukatu**: 00:58:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Hondarribian ere izan ziren bi lantegi. Antxoari burua kendu eta gatzetan jarri. Salmuera eta pisua. Atunak lan gutxiago du. Ez daki kontserbak nora eramaten zituzten.

Transkripzioa

-Hemen ere bazien bi...

-Bai! Bi fabrika. Bai. Ta amore eman zuten. Ez zuten denbo askorik egin.

-Hor ibilli zea, sekula?

-Batian ibilli naiz. Nere ahizpa Ines ta biyek. Zertik gure koñadua patroia zen, ta lagunak bihar zirela fabrikara fateko, laguntzera, ta jua giñen gu, bi ahizpak eta beste [...], biñon denbo gutxi in zigun. Aguro amore eman zuen.

-Han ze? Antxua ala...

-Antxua ta... Antxua! Antxuantzat, bai.

-Ta ze iten zen? Burua kendu...

-Bai. Burua kendu ta gero lajatzzen zigun zerian, gero handikan hartu, eta zeratan jarri [latatan]. [Nik latatan], gu gehiena ibilli ginen, gehiena ibilli naiz burua kentzen.

-Burua kentzen?

-Burua kentzen. Bai. Guri ematen zigun beti lana burua kentzen. Ta beste batzuk, haiek, urte askuan ibiltzen zieneki beste gauzak, fiñaguak itten zuten. Bai, bai.

-Ze iten zen? Burua kendu ta jarri ta gero gatz...

-Gatza, ta gatz berriz jarri dena taka-taka, gero berriz gatz bota, uan gure illobak eitten duen bezela. Gero itten du, pasatzen denian denbora, ekartzen du beste itxetikan ta itten dittu denak garbittu, ta itten ttu oliyotan jarri. Lan asko du, e!

-Salmueran ittiak?

-Bai. Lan asko, bai.

-Klaro. Ta hori ordun, burua kendu ta osorik?

-Bai, osorikan, bai, osorikan. Itten zuzun mixi jarri gatz pixkat. Latak.

-Latan?

-Bai, latan.

-Lata haundiyak?

-O ttikiyak, o ttikiyak igual. Uan itten ttuzte kantinatan. Kantina plastiko horiyetan. Jarrizu gatz pixkat, itten dute antxua jarri. Mixi montoika, miñon gero itten zuten kendu ta [garbi] denak banaka, banaka, banaka, jarri ta bota gatz pixkat, gero berriz ere dena antxuak ondo, ondo, ondo jarri, bota gatz pixkat, [gottiño], ze gero itten zuten, salmuera botatzen zuten eta jartzen zuten pisua, zerak itteko, bettigo zerak itteko.

-Harriyak ala zer?

-Bai, harriya o horrela. Taula bat jartzen zuten kantinan zera, ta gero harriya jartzen zuten.

-Gero zanpatu...

-Bai. Ta gero ekartzen dugunian, lan asko du, biño abiyuan jaten dire. Bai. En kanbio atuna ez. Atunak lan gutxiyogo du, atunak pototan jartzian.

-Ta gero nora saltzen zuten, badakizu?

-Zein, antxua ta horiyek?

-Bai.

-Eman itten zittuzten hemendikan.

-Kanpora? Italira ta?

-A, ez dakit nora eramaten zuten.

-Ez dakizu?

-Ez, ez.

-Orduan zu lan askotan ibili zera: sarian ta...

-Fabrikan ta eskabetxian.

-Ta bañistekin ere bai, pixka bat...

-Bai, pixkat. Arraia partitzen ere ibilliketu naiz bañistekin'e bai, udan. Ta

horregatik beti pobre. Beti pobre.

2.23. Arraina kubiarta gainean, eta lo kuluxka ere bai

- **Hizlaria(k):** Iriazabal Oronoz, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-054/005
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- **Laburpena:** Ontzietan ez zuten izotzik eramaten. Arraina kubiartan ekartzen zuten. Arraina deskargatzean, panelak garbitu, eta bertan egiten zuten lo. Motorista azkena iristen zen beti, eta lekurik ez; ilunpea baliatuta, hark behin zer egin zuen.

Transkripzioa

-Ez zeon jelik, antxua konserbatzeko-ta?

-Ez. Orduan jelak ibiltzen zian barra holakuak, bañon barrak, bañon ez orduan barkutan ez zan jelik ematen e? Ekarri ta saldu, abiyen. Barkua, ta gañea arraia ekartzen genun kubiartan, lo itteko leku berian. Barkuak ttikiyak zien. Eta rantxuan zien lurrian lo, ta panela gañian. Eta antxua harrapatzen genunian, nola barku ttikiyak zian itten genun dena kubiarta berera bota. Ta gero arrai hura atetzen genun, gero in behar zen hura dana garbittu, zera, lurreko panelak ein behar zien dena garbittu, dena lehortu, ta gero itsasora faten giñenian, eitten genun bela bat bota lurrian, panela hain gañian ta han gañian, igual bi-hiru orduko bidia in bihar genun martxan, gabaz ta han gañian lo. Ta bihian argirik ez ta azkena jotzen zeneako, [...] “hi zein yaiz” ta “hi zein yaiz” ta hola, leku guzian billatuik, hola ukittu ta “hemen tarte”, ta han gorde. Eta nere lagun batek ein zuen, eun batian, bera zen motorista, ta behin, nola azkena faten zen beti, behiñ’e lekurik ez. Denak han, batzuk hola, bestiak honela-ta, ta argirik ez. Harek ez zakin non [...], esan zun ta juan zen betti, goian, hartu zuen parera, bakizu, denbo haitan parerak azpiya nola zuten zikiña hura, dena erriana, harekin atzaparrak zikindu, dena beltzutu, eta fan eta [...] ta “hi zein yaiz?”, ta arraska hareri; “hi zein yaiz?” ta arraska hareri. [...] Denen patroia eguna argitzen zenian: “Altxa!” [ta hor ta] deitu zion batek patroiar: “Jose!” “Zer? ta “Beltzak baittuk barkon barrenen.” “Beltzak? Nola... Nungo beltzak? Herritarrak ttuk danak!”, “[...] beltza duk hori!”. Bitartian motoristak pareran atziakin dena. Berak ez zuen ikusten bere arpegiya zikiña zula, biño nik bai ikusten bestiai, ta holako [...].

2.24. Baporeetako ikatza; fogoneroaren lana

- **Hizlaria(k):** Iriazabal Oronoz, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-054/009
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:25:01. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

- **Laburpena:** Baporeek ikatz asko behar zuten. Briketa. Kamioietan ekartzen zuten, eta katea egiten zuten itsasontziraino. Fogoneroak ordubete lehenago joan behar zuen, ura berotu eta presio egokian jartzeko. Batelean joaten zen sua piztera. Makinista.

Transkripzioa

-Baporetan bezela, baporiak ere ikatza asko jango zun, ezta?

-Bu, Bai! Ikatzak asko. Astero-astero horko, bada kai xahar bat hor. Kai zaharreko [...], hor arrimatzen zien zien barkuak, baforiak, eta etortzen zien kamionak, zerakin, ikatzakin. Ikatzak ordun izena zun [brigeta]. Etortzen zen hola kuadrúa ikatza. Kuadrún, piezak. Eta, jo, jarri hiru-lau lagun ta “Aiba!”, “aiba!”, hola, zu, nik zuri, ta zuk bestiri, ta bestiak bestiri, barkoaiño, ulertzen?

-Katia inda?

-Bai, Katia inda. Ta joaten zien barkoaiño, kaldera, ta, ba, barkuan bere deposituan, bete arte ikatzakin, ta bueno, “handixkua, a, bueno, ondo zio”. Geo beste barkuak, denak arrima, hola, ta ikatza harekin gero juaten zien fogoneruak, patroiak deittu baiñon igual ordo bete lehenotikan, ein bihar zun faforian, lehemixi martxan, kaldera piztu, presiyua in, gero etortzen zienian patroia bere kuadrillakin itsasoa joateko, orduko behar zun presioa iña; ya kaldera berotua. Ta bere presioa iña, zertikan bihar zun ordo bete. Ta hura, ta fogoneroa jotén bazen patroia ematen itsasora, ta maiñelak ematian, haik danak ezin zuten deus’e in, han [...] motorra berotu arte...

-Ordu bete bai, e?

-Ordu bete, bai, presiyua itten. Ikatzak su hartu ta gero, su hartu ta gero hangua dena berotu orduko ta igual izango zian han igual milla litro ur, kalderan barrenan, ta hura dena han bero, hura, ur harek irakindu ein behar du, presiyua itteko, ta hura dena berotu arte, horreatikan han zian fogoneruak, “Bueno, bihar bostetan” esaten zion patroiari, bueno, “bihar ze ordutan dugu martxa?” ta bueno, “bihar bostetan”, ta hura itten zen labetan jeki, patroia, ta bazun bote txar bat, bera bakarrik juateko barkora, faten zen ta bere baforian, bere sua pixtu baforiari ta presiyua in ta...

-Fogonerua zure atta?

-Bai.

-Ta fogonerua ze izaten zen, bakarra?

-Bai.

-Edo txandaka...

-Ez, ez. Barko bakotxian bat. Ta makinistak izaten zien orduan, bazian makinistak, biño makinistak zian barkuko nagusiyak. Barkuko, osea, etxeke andrian, igual, atta ta ama nagusiyak, zera, armadoriak, baiño semiak patroiak eta makinistak-eta, ta fogonerua fogonero beti.

-Fogonerua lan okerragua.

-Lan okerragua.

-Ez? Zikiñagua ta...

-Bai, zikiñagua. Ta etortzian, makinistak lagunak ematian, itsasora, goxo-goxo ontziya, ta “ze, presiyua in duk?” ta “Bai, baforia listo. Baforia prest zio”. “Aber”, probatu ta “bueno, dena ondo zio”. Patriak’e: “listo zio, listo.” Brum. Itsasora.

2.25. Aitonak amuak egiten zituen

- **Hizlaria(k):** Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-059/012
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:22:48. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Aitonak amuak egiten zituen, Donibane Lohizunen saltzeko. Beruna urtu eta aguarinak egiten zituen aitak ere.

Transkripzioa

-Joaten ziren, bueno, itsasora joaten ziren ta nere attonak iten zuen amuak. Askok iten omen zuten horrela, baiña, uain ikasi dut jende askok itten zula, arrantzale askok.

-Amuak, nola?

-Amuak, amuak, zera, arraia harrapatzeko.

- ...

- Atuntzakotz o ez dakit, amuak, amuak, eta zera, este, saltzen zittuzten San Juan de Luzen. Hango Xindikakotz, edo ez dakit. Xindika zen hemengo hermandadia bezela. Eta behintzat...

-Ze iten zun urtu ta berak moldiekin ta in, amuak?

-Bai, bai... Nere attak txipiroitako zerak iten zittuen hola molde batekin, txipiroitako, nola izena dute zera hoiek... aboraiñak, aboraiñak.

Berunezkuak, bai, beruna urtu eta han, ez dakit nola zen, bi zera ziren ta beuden xoluak, aboraiñan... zera, biek juntatu ta...

2.26. 13 urterekin itsasora

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:22:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- **Laburpena:** Hondarrez beteta zegoen Hondarribia. 13 urterekin hasi zen itsasoa, sardinatan. Donostiara joaten ziren saltzera. Hondarribira ezin sartu, itsasbeheran. Aitak ez zion utzi nahi.

Transkripzioa

-Hau, lehen Hondarrabiya zen dena beteta hondarra. Igual ez duzu /eztuzu/ sinistuko, baiño gure gazte denboran, esto, ni hamahiru urtekin hasi nitzen itsasuan, eta juten giñen txardiñetara, Pontisea ta Mimizañea-ta, baporiakin. Eta juten, harrapatzen genun txardiña orduan hemen berta ez zuen sustantzikuak zertik ez baizen kamioyik eta ez baizen uain bezelako adelantoik eta juten giñen Donostira, lehemixiko. Han saltzen genuen arraia, etorri zea, gabaz igual, arratsian zortzitan igual etorri itxea, itxea ez, aillegatu zeara, barra, barra da, ura izaten zen bihian, ura izaten zen behe-behe-bihian, ta barkuak ezin zien igo gotti. Ta hantxen egoten giñen zea ba, batzuk beti fan ta lo, patroia eta makinista erne, ta ura pixkat hasitzen zenian gotti, gora, ordun etortzen giñen zea. Ni hortan gutxi ibillia

naiz, bai, gutxi, nere aurrekuak bai, denak, baiño, baiño ni ere ibilli naiz hola. Bai.

-Hori, baporiakin?

-Baporiakin, bai.

-Ala arraunian?

-Ez, ez, baporiakin, baporiakin.

-Baporiakin. Ya hamahiru urterako baporiakin?

- Bai, bai. Hamahiru urtetan sartu nitzen. Attak ez zian utzi nahi. Ta gue patroia zenak, bueno, hark “bai, ekatzak, Juanito, ekatzak semia, ekatzak”, eta attak ez zian utzi nahi, biño, ta nik nahi nuen ta...

2.27. Baporeen kalderak

- **Hizlaria(k)**: Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-069/013
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:26:27. **Bukatu**: 00:29:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena**: Baporeen kalderak, bi mota: etzanak eta tenteak. Etzanak lehertu egiten ziren batzuetan. Bati hanka moztu zioten; hil ere egin ziren batzuek. Labea estu samarra zen, eta bera sartzen zen barrura, hodia ondo jartzera.

Transkripzioa

-Kaldera nolakua zen?

-Kalderak ziren, lehemixikuak uste dut “tunbatuak” deitzen zioten. Kaldera tunbatuak. Ta gero jarri zuten kaldera tentia. Ta kaldera haiek uste dut frantsesak ziela. Ta onak, onak zien, ez zien lehertzen. Tunbatuak bai. Hemen lehorrian daoztela barkua juak, gabaz, barkua lanian, legorrian, e! ura betti juna ta barkuaken, hola, buelta emana pixkat, eta lehertu zen hemen aurrian, hor, hemen aurrian lehertu bat. Ta [...] berandu hil zen, zera, hanka moztu zioten, bera frantsesa zen. Ta omen zen ezkondua. -[...] ezkondua?

-Bai, ta hil zien baillara osua! Ta itsasuan’e bai, galduta, zean, lehertu itten zien.

-Orduan peligrasua zen kaldera hori...

-Peligrasua, bai, kaldera hori. Peligrasua.

-Hasierako kaldera haiek...

-Bai, bai. Peligrasuak. Gero jarri zittuzten, zea, denborakin, beste gauzak bezela, tentia hoiek. Ta hoiek ez zien lehertzen. Tubuak lehertzen zittuzten. Ta lehertzen zienian, etortzen zienian kendutzen zuten, bueno, lehemixiko hustu barkua, osea, tal, kentzen zuten tubua, geo ni gazte gazterik juten nitzen taillerrara, attak esanta, beudek jun behar zuten itsasora, ta “Zea, Julian, fan hi, zea, taillerrera ta esaiok zea, soldeatzeko, hola, soldeatu”, ta holako biajiak itten nittun nik.

-Eta, zuk han, lagundu ere bai, ez? Masa jartzen edo ze iten zenun zuk?

-Atta ta fogonerua ziren, gizonak lorixoguak, badakizu? Eta ikatza botatzen zen tokiya, labia, labia zen, isto xamarra, ta eudek ezin zien sartu, eta bira, gerran, zean, hamahiru urte biño lehen, ni hamaika-hamabi urte ta edade hoitan, attak esaten zian, gero berakin faten ziñen, haiek bi zea ta ni. Ta

sartzen, han sartzen ziaten eta attak esaten zian: “Julian, kalderan, zeran, hartu tubua, tubua hartu ta jartu tente hola ta nik emango diat masa”. Ta ematen zian esku batekin masa, ta jartzen nuen masa, dena, ondo-ondo jarri, hola, ta hola bai, hola ta hola. Ta neuni juaten nintzen. Akaso nik ez dakit, biño dozena erdi bat aldiz, aixa, o gehio.

-Ta masa hori zer izaten zen? Ze masa?

-Porlana.

-Ze?

-Porlana.

-Porlana. Hori zen tapatzeko, edo?

-Ez. Bai, gogorra irukitzeko. Tubua, nola uraz betia egoten zien,

-Ta ez muiltzeko?

-Ez muiltzeko. Bai. Bai.

2.28. Fogoneroaren lana

- **Hizlaria(k)**: Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-069/015
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:29:26. **Bukatu**: 00:30:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- **Laburpena**: Fogoneroa eta makinista. Fogoneroak sua pizten zuen, eta baporea prest jarri. Kalderaren presioa. Su baxuan jartzen zuten gauez. 15-18 bapore zeuden. 12 zaldikoak. 20 zaldikoak gero.

Transkripzioa

-... fogoneroak itten zuen, zera, barkora jun eta barkua pixtu, sua pixtu ta listo iruki.

-Lehen? Askoz lehen?

-Ez dakit, ordo bete lehenago, ordu erdi bat o, bai. Hor. Ta atta zen makinista.

-Orduan, atta faten zenerako ya sua, dena piztuta egoten zen?

-Bai, bai, bai. Dena pixtua. Pixtua, bai. Behar zun iruki bere presiyuak, kalderak bere presiyua, nahi bazenun barkua ibilli.

-Klaro.

-Bestela ezin zen ibilli. Bai.

-Ta gero bueltan ere, itzali noiz iten zen kaldera, iritsitakuan itzali ta...

-Ez, ez, han jartzen zuten sua bajo-bajuan, sua bajo-bajuan ta itsasoa joan behar bazen, sua, bazuten sua. Eoten zen. Bai. Bai.

-Orduan beti listo.

-Ez zen beti pixtutzen ai biharrik. Bai.

-Ta hemen bapore asko zeon?

-Ni, zenbat izango zien ba, nik ez dakit ba, hamabost-hemezortzi bat zea? Ez dakit. Bazian bi edo hiru ttikiyak, zortziña, ez dakit zortziña zaldi edo, hamar zaldi edo, zerbait hola. Denak zaldiyak “caballos” deitzen zioten. Ta gero jarri zittuzten, no... hamabi, hamabi zaldikuak o holako zea bat. Ta gero jarri zittuzten hoge zaldikuak. Hoge zaldikuak, bai. Hoietan sartzen nitzen, zea, kaldera hoietan sartzen nitzen barrenian, bai.

2.29. Hondarribian egindako baporeak

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/016
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:30:53. **Bukatu:** 00:32:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena:** Hondarribian eginak ziren bapore gehienak, egurrezkoak. Ontziola. Donibane Lohizunerako ere egiten zituzten ontziak. 15 bat lagun ziren.

Transkripzioa

-Ta baporiak egurrezkuak izango zien?

-Egurra, egurra, bai.

-Ta nun indakuak zian, badakizu?

-Hemen Hondarrabiyan.

-Hemen bertan?

-Bai, bai, gehienak bai. Gehienak bai. Bakarren batzuk akaso izaten da, Pasaian egiña o ze, biño gehienak, orduan, hemen. Xenenek eitten zittuen. Xenen [...].

-Jende asko zebilen hortan lanian?

-Bai, ibiltzen zien gizon franko ibiltzen zien, bai, bai. Gizon franko ibiltzen zien, bai.

-Ze egur izaten zen barkuak egiteko onena?

-Ez dizut hori... ez dizut esango hori. Piñuak, piñua ibiliko zen ordun gehiena. Ez dakit, e! Baiñon...

-Zuk ikusi dezu barkua iten?

-Bai.

-Nola iten zuten ta...

-Bai, bai, bai. Gu jutun giñen, orduan, etxian sua piztutzeko loria billa, bere, nola seitzen dute rrrrr...pasatzen dute zeakin ta...

-A, bai, bai, bai...

-Biruta, biruta!

-Bai.

-Ta jutun giñen zakukin biruta billa, ze, itxian gero sua piztutzeko.

- Hara? Hara faten ziñeten?

-Bai. Bai.

-Ta ze ibiltzen zian haiek, garlopakin? Egurra-ta lisatu nola iten zuten?

-Bai, bai, bazuten ze, e! Katxarruak bazittuzten ondo jarriyak, e! Holako zera haundiyak eta pasa, rrrrr...

-Ta zerra ere eukiko zuten?

-Bai, bai, bai, bai! Tente, zera, zerra tentia ta bihian'e bai... Bai, bai, bai! Ondo, ondo.

-Bai. Gero San Juan de Luzeko hura in zittuzten. San Juan de Luzekotz ere itten zittuzten barkuak. Bai. Barko asko itten zuten orduan, bai, bai.

-Ta zenbat langille izango zen hor? Berrogeita hamar bat?

-Ez, ez, berrogeita ez, ez ez. Nik ez dakit, baiño hamabost bat gizon edo? Ez dakit. Ez dakit. Hori fijo ez dizut esango.

2.30. Gerra garaian arraunean arrantzan

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/017
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:32:46. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Arrantzale asko arraunean ibiltzen ziren arrantzan, gerra ondoan. Hendaiara joan ziren, eta hiru urte egin zituzten han. Gerra hasi zenean, sirena jo zuten. Gerra garaian ez zieten itsasora joaten uzten; iparraldean bai, txipiroitan ibiltzen zen aitarekin.

Transkripzioa

-Ta baporiez aparte, asko arraunian, arrantzan asko arraunian?

-Arraunian? Bai, bai. Jo! Hori, bueno, gero. Hori ni, gaztetan, hamahiru urte biño lehen ez. Gerra etorri zenian, gerra etorri zenian jarri zen jendia, ez zien, juan giñen Frantzira, gero Frantzitik etorri zen jende asko. Guk egin genittun hiru urte Frantziyan. Alemanak sartu zienian Parisen etorri giñen honea. Itsasuan, itsasuan giñen, zea, frantsesak esan ziguten, bueno, gerra hasitzen baldin bazen sirena joko zutela. Sirena. Eta heldu giñen itxea ta iya itxea allegatu aurri hortan ia zean, berrehun metro falta genittula itxea, sirena joka. Ta hara! Gerra hasi da. Bira. Ta oain ere jotzen dute sirena, e! Astian jotzen dute sirena, astian behin, frantsesak.

-A bai? Ta ze esan nahi du horrek?

-Nik esan nahi du... Denbora haietakua zer ote den, ez dakit. Baiño beti jotzen dute sirena, bai.

-Orduan, gerra, esan duzu arraunian hasi zela jendia gerra ondoren?

-Bai. Gerra zela ere bai. Ta gero in zuten, hemen geatu, ez zioten utzitzen itsasora juten, ta gauzak, eta lehorrian jendia, ta gu juaten giñen itsasora. Iñor ez zen joaten. Gu San Juan de Luzkuk eta Hendaiakuak juaten giñen, ta txipiroia nahikua harrapatzen genuen. Ni allegatu naiz attakin, batian, milla atzamaten. Bi txandatan. Milla. Bi txandatan millana. Txipiroia han, jo! Ur txiki-txikian, hor, gemelos irago, gemelos pasa ta hor, bertan-bertan.

-Ta zuek etxeko barkua zenuten?

-Bai. Ttikiyak ziren, abantian ibiltzeko barkuak, bai. Ez! Frantsesa genuen. Hendaiakua. Hendaiakua. Bagenuen guk hemen, bai, biñon gero ez dakit ze in zen.

-Baiño baporía ala...

-Ez, ez. Lantxa, zea, arraunian ibiltzeko.

-Arraunian ibiltzekua.

-Bai. Bai.

-Ta orduan zu hasi ziñen baporian baiña...

-Bai. Gero geldittu nitzen zean, klaro, gerrakin.

-Gero arraunian.

-Gero arraunian. Zenbat biaje in ttuten nik San Juan de Luzera, zea, atta ta biyek...

-Ta zuek ezautzen zenuten aurretikan Hendaian-edo norbait?

-Ez. Bueno, amak bai

2.31. Almejak, muskuiluak, tretxuak

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/020
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:42:11. **Bukatu:** 00:44:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- **Laburpena:** Hendaian egiten zuten arrantza. Almejak eta muskuiluak. Tretxuak nola ateratzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta ze... lehen esan dezu sardiñak harrapatzen-ta ibiltzen ziñetela. Gero ere bai? Hendaian ziñatenian?

-Bai. Ez, ni ez naiz ibilli Frantzian hortan. Ez naiz... Hemendik bai. Hemendik ibillia naiz, bai.

-Hor, ixkirak, e...

-Hemen ixkirak eta almejak, hemen ibiltzen zienak bazien, xoloka, almejak eitten zittuzten, ta hola, hola bizi zen jendia! Jendia hola bizi zen, bai.

-Zu ere ibili zea, almejatan?

-Ez, gutxi ibilli naiz. Ez. Zerakin, lau hortzekuakin, zera horrekin pixkat ibilli naiz; txoloka ez. Xoloka bihar da ikasi lehemixiko ondo, harri asko da, zolo asko da... Bai.

-Eta muskuillua?

-Muskuillua bai. Gutxi. Muskuillua in zen hemen, peñon aurrian, pixkat harrapatu zen, gero ura haunditu ta gauzak in zien, ta dena galdu zen. Bai.

-Eta trotxua? Tretxua?

-Tretxua bai. Tretxua da zanpatu... Nik, Frantzian bizi giñela, hola zanpa hanka ta zolua, iup! Atetzen zien. Ta sartzen ziren holako guardasolan zerak...

-Barillak?

-Barillak. Jartu muturrian zerak, balakin iñako, balakin iñako puxka batzuek, bala bezela, ...

-Balak, balak, benetako balakin?

-Ez, ez. Bestela iñak, apropos egiñak. Ta bihan xorrotx-xorrotxa ta goian xabalagua. Eta hola sartzen zenuen ta raaaas, atetzen zenuen. Asko zen orduan zera.

-Ta hori goxua izango zen jateko...

-E? Bai, bai, bai, bai.

-Hori ere saldu ala etxerako izaten zen hori?

-Ba, saltzen zuten'e bai. Saltzen zuten ere bai. Ta itxerako askotan. Bai. Arrozakin-ta itten zittuzten, ta ordun uain bezela ez baizen, zera.

-Klaro.

-Haragirik ez zen ta... Haragiya.

2.32. Lanpernatarako salabardoa

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/022
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:50:13

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza motak » Harrialdeko arrantza
- **Laburpena:** Lanpernatarako salabardoa. Arriskutsua da. Suhia sartzen zen zolora, eta berak esaten zion noiz atera. Beheko lanpernak dira onenak, itsasoak gogor jotzen duen tokikoak. Egosi, gatz pixka batekin. Lanpernak saltzen tabernatan.

Transkripzioa

-Ta lanpernatarako ze erabiltzen zenuten salabardo espezial bat?

-Salabarduan, batzuk... bai, hemen puntan jarri zea, ezkizala bezelako burni batzuek, ta leku onatan handik arraskatu, bestela eskuakin.

-Eskuakin?

-Bai. Eskuare, beti zera, eskua bazenuen, zera, trentxa bat bezela izaten zen bestela, biño bestela, salabardukin, hemen burniyak jarriyak, salabardu azpiyan, ta tiratzen zeniyon gotti ta hola atetzen zien.

-Ta gero barrura?

-Barrura erortzen zien, bai, bai, bai.

-Hori peligosua izango zen...

-Peligosua, bai. Hori... bai. Ez nuke nehi nere itxetik iñor jutia. Ez. Egiya, e!

-Zu ibili ziñen apurotan, han, olatua etorri ta...?

-Bai. Ta ni, zea, nere suia, uain, uain bertan, uan dela urte batzuek, uain ezin du, baiño... Juten giñen ta bera sartzen zen zolora, ta itsasua bastante, eta sartzen zen ta nik esan behar niyon noiz atera. Ta nik esaten niyon, zea, "Jabier! Atea, atea, atera!" Ta harek atera ta brou!... gañin [...]. Peligosua da, peligosua da.

-Ta lanpernak izaten die batzuk beste batzuk baiño hobiak? Eta zer dia hobiak goikuak ala behealdian daudenak?

-Behekuak, behekuak, behekuak. Ta gaiñea, itsasuak nun jotzen duen, non jotzen dun fuertia, han jaiotzen da zea, lanperna.

-Hangua onena, oduan?

-Bai. Lanperna ederra han jaiotzen da, itsasuak, gutxi, jendea gutxi ibiltzen den tokiyan, han izango die lanpernak. Bai.

-Ta lanpernak, geo saltzeko egosi-edo iten zen?

-Egosi auro iten die, e! Egosi, ura jarrizu irakitten, bota iozu /boiozu/ gatz pixkat, bota iozu /boizu lanperna, ta hasitzen denian pil-pil-pil-pil-pil, pixkat zera, zera pixkat, zikin pixkat hasitzen denian [...] ta atera.

-Ya esta?

-Segittuan itten da. Segittuan.

-Ta lanperna berua saltzen ibiltzen zen jendia?

-Ez, ez, ez. Berua ez. Ez. Lanperna hotza ona da. Lanperna haundiya!

-Gordiñik ere bai?

-Ez. Gordiñik? Ez.

-Ez. Hori beti egosita?

-Bai, bai, beti egosita. Egosita bakarrik.

-Zuek saldu iten zenuten ala etxerako izaten zen?

-Ez, gu billa jun giñenian saldu. Itxerako bai, lajatu pixkat, ... saldu egiten genuen.

-Eta nun saltzen zen hori, kalia?

-Bai. Tabernatan.

-Tabernatan?

-Jakín nun hartzen zuten ta hara juaten giñen.

-Jende asko ibiltzen zen lanpernatan?

-Ez, ez. Jendia gutxi, hola saltzeko-ta gutxi, gutxi. Bai, ibiltzen die, baiñon...

-Lehen baserritarrak...

-Baserritarrak, bertako baserritarrak, bai, bai, itxian jateko ta bai, bai, bai. Biñon, uain ez da baserririk, ordia! Uain ez da baserririk! Leheno dena baserri zen ta uain ez da baserririk.

2.33. Baporeetan, karburoarekin; konpasa eta kordela

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/024
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:20. **Bukatu:** 00:52:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena:** Lehengo baporeek ez zuten argirik; karburoa. Tximiniarekin, aurea ezin ikusi. Konpasa erabiltzen zuten norabidea jakiteko. Kordela, berunarekin.

Transkripzioa

-Lehengo baporiak ez zuten sonarrik eta radarrik eta...

-Ez. Ezer ere. Ez. Eta argirik ere ez! Argiya karburuakin! Karburukin, holako zea batzuk, izenak ahantzi nau, holako poto batzutan. Hura piztuta. Ez zen deus ere. Hemendik atera ta patroia jartzen zen zean, bazen kubiarta, hola, kubiarta bazen, eta ixex..., bira nola zen: ixertzen, kubiartan ixertzen zen ta konpasa hantxe, aurreko aldian jartzen zun, atzera ze, burni haundi bat, zea, timoia, eskutan. Ta baporiak tximinia haundiyakin ta aurea ez zen ezer ikusten. Ez zen ezer ikusten. Ta hala, hala juaten zien. Fuaten giñen. Gu lotara betti eta patroia bakar-bakarrik, ta makinista. Beste denak lo, faten zien.

-Eta ez zen ikusten, tximinyakin?

-Ez, ez, ez zen ikusten deus ere, deus ere, zetik bihian zagozten hotzan kontra, erdi girixian, eta ez zen barkorik ibiltzen! Barko gutxi. San Juan de Luzekuak eta gu ibiltzen giñen.

-Ta ordun, konpasakin?

-Konpasakin.

-Hori norabidia jakittek, nora...

-Bai, bai, bai. Bai. Hartzen zittuzten ordua, ze ordutan atera zen hemendik, badakizu hara ze ordu diren, eta ematen duzu martxa bera, ta holako kontuak.

-Eta jakittek noiz geratu, eta zenbat millatara...

-Bai, bai, bai, bai...

-Hala iten zuten? Konpasakin...

-Ta gu ordun ibiltzen giñen, zeak, sokak, brazak, hemen hari txuriya [...], gorriya, hemen hari berdía jo, brazak, ta botatzen genuen berun bat behetti, zenbat braza zien ikusteko, zenbat brazatan giñen. Ordun galeziya zen hiru millatatik barrenea galeaziya genuen. Ta ikusi behar zen zenbat brazatan (gaztia nintzen, biño!) zenbat brazatan, zea, giñen. Barrenea atetzeko o kanpora atetzeko, o pixkat barreneo juteko-edo... Brumatan. Brumatan.

-Beruna? Beruna jartzen zen orduan...

-Betti fateko karga.

-Betti fateko...

-Bai.

2.34. Manterolaren kontserba lantegian lanean

- **Hizlaria(k):** Gonzalez Oiarbide, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-077/021
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:45:49. **Bukatu:** 00:50:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Manterolaren kontserba lantegian ibili zen lanean. Zerbitzatzen ere bai. Antxoak garbitu eta barriketan jartzen zituzten, salmueran. Emakumeak ziren gehienak. Atuna egosi egiten zuten.

Transkripzioa

-Gero fabrika hasi zen, fabrika, arraiana, hemen, fabrika, hor'e ibilli giñen, hor, lanian. Hor ibiltzen giñen.

-Kontserba fabrika?

-Bai, kontserban. Hori bakarra...

-...

-A, "Patxi duke"! Hori neskame, interina faten nintzen hor, hemen, "Patxi duke", jende aberatsa. Amezketan dute hoiek fabrika de papel o zer dute? Fabrika de papel. Hoiek fuerte ziren. Famili haundiya. Asko ta...

-Hoi etxera faten ziñen zu?

-Bai. Zergatik bera bizi zen nere itxe onduan, lehengo xaharran, biek onduan bizi giñen, andri hori ta ni. Bai.

-Ta orduan, ezaguna zen.

-Bai, asko. Mucho.

-Ta konserba fabrikan, hor, egongo zen lana antxua garaian...

-Antxua, ta atuna ere bai iten genuen. Atuna're inketu dugu.

-Ta nola itten zen? Ze iten zenuten?

-Antxua?

-Bai. Antxuai...

-U! Lehenbixi gatzatan jartu, bueltak eman, tripak atera, gero garbittu, gero trapukin grabittu banaka-banaka ta bua! Lan haundiya.

-Zabaldu? Zabaldu iten zenuten?

-Zikiña. Lana zikiña. Usaia...

-Ta bata bestian gañian, kapak...

-Hoi mahai gañian jartu eta hartu bat eta ra-ra-ra-ra, garbittu ta ra-ra-ra-ra... Trapukin denak, horrela, pasa, pasa, pasa, pasa, ta jartu eso, ta [bestia etortzen zuten, ta eraman], ta horrela, goiz guziya horrela. Horrela, horrela iten genun, horrela, antxua horrela da, horrela, ya esta.

-Ze, gero nun jartzen zenuten?

-A, beudei... Bidoietan.

-Bidoietan...

-Bidoietan gero barrenen sartzen zuten almazenan ta...

-Bidoietan kapak jarrita?

-Bai.

-Gatza ta gero...

-Bidoi haundiyak, e! Gero ematen zuten bidoiak, eta...

-Salmueran?

-Bai.

-Hori salmueran da, gatzakin?

-Bai.

-Ta orduan hori lan zikiña.

-O, txoil zikiña. Ta antxua garbittu, hori're bai. Hori jartzen genuen latatan, biño guk asko-asko, horrela latatan ez zen, gehiago ematen zen barrikatan, barrika batzutan, gatzakin.

-Bete, dena bete, antxuaz, barrika, ta biali.

-Bai. Salmuerakin, e! Ta gatzakin [...] ta

-Eta han emakume asko ibiltzen zen lanian?

-Bai. Hura bakarra zen lana iteko-ta. Dena emakume.

-Nola zuen izena horrek, fabrika horrek?

-Fabrika? Ordun Manterola.

-Manterola.

-Donostikua zen bera. Ez dakit hilla den o ze in dun. Gizon bat... Ona zen.

-Ta dana emakumiak lanian, ala gizonak ere?

-Gizonak ere bazien. Ez asko, biño mutil batzuk bazien, bai. Faten zena! Faten zena, lana bazen.

-Eta atuna, berriz, nola? Atuna nola iten zenuten?

-Atuna in, gutxi in genuen atuna. Prejittu.

-Prejitu ala egosi?

-Ya ez naiz oroitzen ya... Ze iten genun atunakin?

-...

-In genuen, bai. Gutxi, biñon... Egosia zen o prejittua? Ez naiz oroitzen ondo. Nik uste dut egosi. Ta gero xerratu iten gendun horrela. Gutxi in genuen. Atuna gutxi in genuen. Gutxi.

-Ta gero gorde, oliyotan, atuna? Atuna, gero, oliyotan jarri?

-Bai. Jartzen zuten bidoiak, bidoi batzuetan sartzen zuten ta ospa.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Ur hotza eta beroa lortzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Lizarraga Peña, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-016/004
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:18:51. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Lehen urik ez zuten etxean eta errekatik ekartzen zuten ura. Ur beroa, berriz, labearen bazterreko depositu batean berotzen zuten.

Transkripzioa

-Ta zuek, orduan, hemen, baserri batzutan urik ez zeon garai batian, baiña zuek hemen ur faltarik ez zenuten eukiko?

-Errekatik. Bueno, orduan errekek garbiyak zien. Oain ez. Oain dana zea, hor'e zalditokiyak-ta eondu die ta dena mangerakin ta goian'e zakurtokiya dago ta [dena mangerakin [...]] dena erre kara, oain dena kontaminatua do, biño gu gaztiak giñen denboran? Adelantuak bazien orduan! Hemen karrua eoten zan, ta mutil kozkorak eskolatik etorri ta hiru milla litroko uran depositua, uralitakin, zea bat, katxarro bat, karro [baten] gañea igo bihar izaten genun ura botzeko. Hortikan hartu bi baldekin eta ura bete. Eskolatik etortzekuan hala izaten izaten zen. Ta orduan, katxarruk garbiotzeko-ta sukaldian ura eukitzen genun. Platerak garbitzeko ez, baiño... Ur berua, berriz, zuk ez duzu ezautua izango, labiak bazterrin zuten deposito bat ta han ura berotzen zen ta kanilla zakan, zean, ura

hartzeko. Ta ura berua, handik. Ta egunero sua piztu, hala iten genun, egunero sua piztutzen zen. Ta handikan, ur berua.

3.2. Igandetan jai eta mezara goizean goiz

- **Hizlaria(k)**: Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-018/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:16:38. **Bukatu**: 00:18:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Eskolara egunero joaten zen, etxean lanik ez bazegoen. Igandetan bakarrik izaten zuten libre; orduan mezara joaten ziren goizean goiz Iruna izebarekin. Harainoko bidea nola egiten zuten azaltzen du. Etxean bazuten erlojua ordua jakiteko.

Transkripzioa

-Zuek, eskolara, zu ze juten ziñan, aste, astian egunero?
-Bueno, bai, ez baldin bazen igual behian aurrian ibilli behar o hemen lanian, pues egunero juten giñen eskolera, egunero juten giñenez, bai.
-Ta larunbatetan ere bai?
-Bai. Uste dut baietz. Ordun bai. Bai. Bai. Ordun bai. Bai. Bai. Igandetan ez, biño...
-Eta igandetan?
-Ez. Igandetan libre. Libre izaten giñen.
-Igandetan mezetara?
-Bai. Ta oso goiz. Hemen, esan zattut, nere izeba bat bagenun, [Sorosketako] bat, pues seitako mezea Irunea. Juaten giñen. Ta ez zeon uain bezelako biderik ta zea, argiya, farola, zea, kandela bat jarri farolan, hura pixtu, zapatak boltsa batian, zetik bide txarrak zien, hor Anakaiño, frentian, han zapatak kanbitu, sasi bazterrian gorde, farola itzali, han gorde, ta seittun mezea goizian, faten giñen. Biaje asko. Biaje asko, bai.
-Orduan oso goiz jeikitzen...
-A, bai, bai, seitun. Harek, hua ez zen deskuituko. [...] seitako mezea fateko.
-Eta erlojurik bazenuten, zuek, etxian, ordua jakiteko?
-Bai. Bai, uain'e badago hor, uaindikan'e, eakutsiko zattut geo, hor, relojo haundi bat, dena tan-tan! Nola jotzen zuten? Uaindik hor, ez da martxan, miño kotserbatzen dut, hor. eakutsiko zattut geo, bai, relojua.
-Ta horrekin?
-Bai. Horrek jotzen zun bi bider. Kan, kan, tan, orduak jotzen zittun. Hori salan.
-Ta izeba, orduan, egongo zen...
-A bai, bai, izeba [...],ez zen deskuittuko, ta guri eju in ta "benga, mui-ta, beandu da-ta..." Aide! Bai.

3.3. Bañistak aberats, portuarrak pobre

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes

- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-050/018
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:44:18. **Bukatu:** 00:48:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin
 harremana
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Ez da arraina saltzen ibili, beti sarean. Gaztetan ibili zen arrandegi batetik arraina bañisten etxeetara partitzen. Bost pezeta ematen zizkieten. Portuan pobrezia handia zegoen. Arropa ere ez zuten nahi beste. artilezko tokillak. Igandetako arropa diferentea. Maindireak nola aldatu. Urik ez zuten etxean, eta iturrira kantinarekin, baina neguan ura izoztuta egoten zen. "Txol hurbil".

Transkripzioa

-Ta zu sariak konpontzen ibiltzen ziñenian, gero, arraia saltzeko denborarik ez zenun eukiko...

-Ez. Ni ez naiz behin'e, ez naiz behin'e arraia saltzen ibilli.

-Ez? Umetan igual, pixkat?

-Ez. Behin ere ez naiz ibilli.

-Laguntzen ere ez?

-Ez. Arraia saltzen ni ez.

-Ta ama ta ahizpa?

-Ni ibiltzen nitzen peskaderi batian, kastillana zen ordun ere, arraia ematen zigun bañistako itxetara. Peskaderi bat zen ixkin hortan, eta horrara joaten nitzen udan. Ematen ziaten duro bat, atsaldia, arraia partitzeko billetara juaten nitzen. Biño bestela ez. Uda pasatzian pues deus ez. Biñon uda, bi-hiru hillabetiak, ematen ziaten egunian bost pezeta ta ibiltzen nitzen billetara, ze billa ziren, hara, hara. Jartzen ziaten arraia paperetan ta ze billa, izena, ta hara ematen nuen.

-Ta ze, orduan, ze harreman eoten zen bañistekin?

-Nola harremana?

-Ondo konpontzen ziñeten bañistekin?

-Ez zigun behin ere kasurik itten behintzat. Ni ibiltzen nitzelako arraia partitzen, horrek bai, bestela, ez zigun... Hemen baziren [...], oso jende ona ziren. Oso jende onak. Hoiek asko laguntzen zioten orduan pobreki.

-Bai, e?

-Bai. Ta gero hil zen zera, señora, ta dena, markesa ta hil ziren ta akabo gero.

-Ta hemen, portuan, bizimodua...

-Oso triste izaten zen orduan. Denbo batian, ez zen dirorik eta! Ez zen dirorikan! Oan bezela bizi? Ezta, bueno! Uan erregiñak biño hobeto bizitzen gera! Esatetikan, e! Bueno, lan eitten da, biñon askoz asko hobekiago bizitzen gera.

-Lehen bazen nahikua arropa ta...

-Arropa? Zera, uan bezela erosi? Uan bezela! Uf! Mantala pixkat hausiya ta pixkat [paxaratu] ta gona pixkat zera egin ta hura... Gero tokilla asko ibiltzen zigun. Tokilla, lanazkuak, hemendikan amarratzen zigun, uain ez du iñork ematen. Eske uan faten dien tokira zerak ttuzte, gasakin zerak ttuzte jarriyak, biñon gu, tokillakin ibiltzen zigun beti.

-Neguan tokilla?

-Tokilla, bai, bai, tokilla. Uan iñork ez du ematen. Uan. Uan faten dianak elegante faten dire emakumiak.

-Eta umetan soiñekuak-eta ze izaten zen, soiñeko bat aste barrurako ta beste bat elizara fateko?

-A, guk hala izaten zigun, hala izaten zigun, astegunetan arropa bat ta igandekotz beste bat. Bai. Ta denbo batian ohiak itten zigun aldatu, goiko maindiriak kendu ta azpikua goian [...]. Ta uain, berriz, astero biyak kendu. Bi mainddirez osatzen zigun hura, ze, lehendik honara bai, dena diferentzia, bai.

-Eta klaro, lehen dutxarik-eta ez zen izaten, ezta?

-Ez. Dutxa? Ezta... Guk ez zigun, hara, esango dizut egiya: urik ez zigun itxian. Ez. Gure itxian egondu da urte asko urik gabe. Ta goian'e bai. Ta hemengo auzoko goi-goiko itxian ere bai. Ta hor zen itturri bat, "una fuente", eta neguan, hotzakin ez zen urik atetzen. Ta nire attak, hor bazuen xai bat, errentan, ta itten zuen, gasolio zikiña-ta ekartzen zuen barkotikan, ta tela zahar batzukin, piztu, ta itten zuen hura jarri horrela, ta berotzen zunakin eitten zen ura atera. Bai. Biño faten giñen beti kantinakin, itxeko lanak itteko, platerak-eta garbitzeko ta lurra, beti kantinakin ur eske kanpora. Ta gero itxia in zigun, erosi in zuten gurasuak, merke, ordun ere, ta ordun jarri zuten ura goikuak-eta . Ta esan nion egun batian goiko andriari: "Florentxi, nora faki zera kantinakin?" ta "ur eske", ta "ura jarriya duzu ta goian!" "Ai!"-ta, "egiya!". Hainbeste urtian faten zen kostunbre, ta gero egun hartan ere hartu bere kantinakin ura ta, oso andre on-ona zen gaixua.

-Ta orduan iturriya bertan zenuten?

-Bai, txoill hurbil, bai, txoill hurbil. Oso diferentatu da. Hau? Jesus!

3.4. Urik ez eta argindarra eskasa

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/020
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:50:29. **Bukatu**: 00:52:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Gorputza garbitzeko, ura iturritik etxera eramaten zuten, eta berotu, neguan. Komuna nolakoa zen. Argindarra: sukaldean argia piztuz gero, salan argirik ez, indarrik ez. Kontagailua eta kobratzailea.

Transkripzioa

-Ta zuk, garbitzeko-ta ze iten zenuten, ura etxera ekarri?

-Bai. Ta itxian pixkat garbittu.

-Ta berotu iten zenuten ura?

-Bai. Udan ez. Biñon neguan bai. Kaxo baten jarri ura, eta han pixkat komunera juaten giñen, komunik ez zigun, ez zigun zerarikan ere, bonbik ere ez zigun!

-Ez, e?

-Kondizio honetan ez zen bonbik eta deus ere. Ixkin hortan zigun komuna, ta deus ere!

-Ta zikiña nora faten zen?

-Zer?

-Horko zikiña, nora?

-Botatzen zigun, hor gero bazen zera haundi bat, [xarra], ta hortik joaten

zen ura eta zikiña, gure gorputzeko zikiña denak-eta. Gero, itxeko baje-
eta itteko ere ura beti pixkat berotu. Uan igual grasa pixkatekin o nola
izaten den, o illaskua jaten bazigun urtian behin edo horrela ta, ura pixkat
berotu ta horrela. Ura, oso ur gutxi. Gu kanpora juaten giñen ur eske, esan
dizut ba, gero ya jarri zuten; uan! Gehiegi ura! Pixkat ireki orduko ura
ballaran etortzen zugun!

-Eta argiya?

-Bakizu? Esango dizut. Argiya, guk zugun pasillo hau dena, pasilluan erditik
juaten ziren gotti, gure goiko jendia, bigarren bizitzako hura. Ta guk
sukaldia zugun haundiya. Honañoko zugun sukaldia. Honañoko. Hau dena.
Ta hemen kumuna. Ta sukaldian [argiya piztua]; sukaldian argi piztua, ez?
Ta salan zigun haundi bat, beste sala haundi bat. Salara juaten bagiñen
zerbaitera, han argiya piztutzen bazigun, sukaldian ez zigun argirikan.

-Ez?

-Ez, ez, ez. Horrela bizituketu gera gu.

-Bonbilla bakarrantzat.

-Bonbilla han bat, ta gero zera itteko guri, ez zigun indarrik ere ez, ta hura
piztutzen bazigun, sukaldian argirik ez, ta hemen piztua bazigun, salan ez
zugun argirikan.

-Baiña argiya beti ezautu dezu etxian...

-A, bai, bai, bai. Beti. Beti.

-Ta kontadoria izaten zen?

-Bai.

-Etortzen ziren begiratzera?

-Bai, etortzen zien, bai.

-Batzuk tranpak ere bai, ezta?

-Ez zera. Oi! Askok egitten zuten. Guk ez zakiguten iten ta! Gizon bat
etortzen zen, txoill salau zen ta "Segunda Iriazabal!" ta "hara! Uan'e
argitakua hor duzu, ama. [Fan nahi ez baduzu...]" Orduan kobratzera
etotzen zien. Beidatu ta kobratu ere itten zuten. Ta ez zigunian, gure amak
esaten zion: "heldu den hilliakin pagatuko diet", ta "Bueno... heldu den
hillabetian etorko nan". Horrelako kontuak.

3.5. Portuko eta kaleko giroa

- **Hizlaria(k)**: Gonzalez Oiarbide, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-077/023
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:50:14. **Bukatu**: 00:53:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak
(kokapena)
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Lanbideak » Udal langileak
Itsasoa » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Emakume portuarrak arraina saltzen ibiltzen ziren denak.
Irunera ere joaten ziren. Kaletar batzuek ere ibiltzen ziren. Kanean ere
bazen sagardotegia. Tabernak eta dendak, kale nagusian. Zapata
konpontzaileak. Serenoa.

Transkripzioa

-Saltzen, arraia saltzen-ta jende asko ibiltzen zen, emakume asko arraia

saltzen?

-Denak!

-Hemen ingurukuak denak? Portuarrak?

-Hemenguak, portuarrak, denak arraia saltzen. Itxetik ekartzen zutena, saltzera.

-Ta kalia ere ibiltzen zien saltzen?

-Klaro!

-Zuen etxe aurrera-ta etortzen zien?

-O! Aurrera, ta kanpora, ta Irunera oinez, otarra hartuta: antxu “frais”! ala, arrut! [...] Ni ez naiz han behin ere fan. Behin’e ez naiz fan, biño ibiltzen zen.

-Eta kaletarrak ere ibiltzen zien saltzen? Ez...

-Batzuk tartian baziren jendiak, lana itten zutenak, hola lana... Nik ez. Guk ez genun itxian. Bueno, anaiak bagenun, arrantzan ibiltzen ziren, biño itxekotz.

-Ta kalia bazen sagardotegirik?

-Baita.

-Bai? Ze tokitan?

-Gure itxe onduan, Kalle Ubillan, bazen, han eiten zuten, hor, hemengo “Kuluxka” nola, restaurante hori, terraza baidu, horren attak uaindik gure itxe onduan han du bere tolaria.

-A bai, e!

-Eta sagardutegia, han, kalle ubillan.

-Hantxe bertan iten zun orduan sagardua ta hantxe saldu?

-Bai.

-Eta tabernarik bazen, kalia?

-Kale?

-Lehen, kalia...

-Taberna? Sagardua? Ez. Bai. Bat egoten zen. Bat edo. Biño beste... tabernak bai, baziren. Kale Nagusiyan bai. Kale Nagusiyan, esango nuke, bi-hiru bai.

-Eta dendak?

-Dendak’e bai.

-Komenstible dendak eta?

-Bai. Kale Nagusi dena.

-Orduan zuek han dena iten zenduten?

-Bai. Denatatik.

-Ez zenuten beste toki batzutara joan beharrik, eroatera?

-No, ez. Ez, ez, ez, ez. Kale Nagusiyan dena. Denatatik.

-Eta negoziyoak-eta bazeuden? Ba zapata konpontzailliak eta

-A, baita. Zapateroa. Badire. Baziren. Bi. El andaluz y el otro. Bai.

-Bai, bat andaluz?

-Gizajua. Gizon onak ziren. Ordun gaztia, ta badakizu, beti illia hartzen ta, andaluzak ziren ta...

-Eta bazeuden arotzak?

-Baita. Denatatik. Uain ere badire. Dena.

-Baina kalia bertan?

-Kalia, bai, bai, bai, bai. Bazen, uaindik, ez dakit irekiya den, han, Gerizpen onduan bazen bat, Sagarzazukuak, hoiek denak, familia dena ziren. Bazen.” Ya había”.

-Eta serenua?

-Serenua ere bai. Serenua bai.

-Ze iten zun serenuak?

-Ibilli atzetik, arratzian, hamaikatan jotzen zien atia: “Hamaikak dire”. Itxitxeko sadardutegiya.

-A bai?

-Eta giltzak ere eukitzen zitun, etxetakuak eta?

-Ez.

- ...

4. Politika

4.1. Gerra ostean janaria lortzeko ezkutuan ibili behar

- **Hizlaria(k)**: Lizarraga Peña, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-016/006
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:21:12. **Bukatu**: 00:23:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Arrebak taberna izan zuen, baina garai batzuetan irinarekin arazoak izaten zituzten. Orduan errotara joateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Lehen txekorra hiltzea ez zen libre, eta ezkutuan egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Taberna, ta jaten ematen zuten?

-Bai, bai. Bai. Ta geo gaiñea [ogiya ez] talukin'e gaizki ibiltzen omen zien, garai haitan iriña jartzea hola, hemen bazien auzuan errotak, biño prezintuak jartzen zittuzten. Ez zuten libre. Ta hemendikan Irunea, Ibarla juaten giñen ta gaiñea zeozer pariente genun, Ibarlan. Ta aurreneko biajia, astuakin, artuakin ni ta hemengo, hemen bizi zen beste neska bat, ni biño bi-hiru urte zaharragua, harekin jua nitzan aurreneko aldiyan, errota harte. Ta han, [...] o zeozer familikuak nola giñen, [hala zen], seittuan iriña in, han zai eon ordu bete edo ta preparatzen, ta geo ya etxeakuan kargatuta etortzen nintzen. Bestela utzi, etorri, ta berriz jua behar izaten gendun. Bentaja hori bagenun. Zea attan aldetik lehengusua edo attan lehengusua edo zen, han errota zuna.

-Ibarlakua?

-Ibarlakua, bai.

-Hori ze izaten zan izkutuan in biharreko lan bat, errotara jutia?

-Ez, ez. Hoi libre. Haik libre zuten. Biño, hemen, hura bat, ta hemen ingurun aleik ez. Ta geo zean, Beran. Beran, ze, Naparro aldea zubiya sartzen dena eskubita hartu ta [...alletu naiz], perretxikotan ta jua naiz ni hara. Han, ta gu ez, gu biño zaharraguak, horko baserrikuak-ta, zeakin, astuakin hara errota, eta ze, aguazillak o paperak eskatu. Ta paperik ez. Eta hemen, Pasionista onduan, Irunen, eta mekaue, azkenian, iya nearrez jarri omen zuten gizona, ze, pues bueltatzeko, "con intereses"-ta. Eta azkenian negar batzuk in omen zittun ta, bueno-bueno, pasatzeko ta pasatzeko. Utzi omen zioten. Hola, lapurretan bezala. Ta txekorra hiltzia ez zen libre. Itxiatan-ta ez zen libre. Ta hor Erdiko Errota-edo bazen baserri bat, ta karnizero baten bazun han tratu pixkan bat, txekorra hartu ta han hil, ixilka, ta dena kontrabanduan bezala.

4.2. Bere baloiaren historia

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/009
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:24:54. **Bukatu:** 00:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Bere baloiaren historia. Milizianoek kamioia kendu zieten, gerra garaian. Erreketeak sartu zirenean, kamioia berreskuratu zuten, eta bertan zegoen baloia.

Transkripzioa

-Zure baloia zuk indakua zen?
-Nere baloia zun istori bat. Nere baloia zen, guri, gero etorri zen, “el año treinta y seis, la guerra”, bakizu etorri zela gerra bat, ez?
-Bai, bai, bai.
-Bueno. Ta guri kendu ziguten los... eon, los...
-Frankistak? Ez...
-Gerran, hemen zen, hemen, “los rojos” y “los blancos” ziren. Hala deitzen zen. Eta kendu ziguten guri kamiona. “Requisau”.
-Republikanoak ala gero?
-Lehenogokuak. Franco ta etorri biño lehen. Los blancos etorri biño lehen.
-Bai. Republikanuak.
-Los rojos. Guk esaten genun los rojos. Bueno. Gorriyak. Kendu ziguten kamiona, guri. Eta klaro, ibiltzen zien eudek, “milicianos”! Esan nahi nuen. “Milicianos” zien, eskopetak ere dena in zuten kendu, hemen. Ehiztari denakeri kendu eskopeta. “Requisau”. Kamionak, nere atta, Hondarbiyan zien kamioi bat o bi o hola zien, ta bi kamionak ere fuera, “requisau”. Eta hoiek ibiltzen ziren eskopetakin, “los milicianos”, kamionan gaiñian eskopetakin danak Hondarbiyari bueltaka, bueltaka, ta ibilli zuten kamiona zortzi o hamar egunian o hamabost egunian o eztakit zenbat, hola, gutxi gorabehera, ta gero etorri ziren “los requetés” ta hoiek, “los de la derecha”, sartu ziren Hondarbiyan ta gero Irunen ta hola. Ta klaro, lajatu zuten kamionak “abandonau” ta “los milicianos” hoiek in zuten denak eskapo, “por el frente”, aurrea, Bilbao aldera joan ziren. Eta kamionan gaiñian azaldu zen baloi bat, milizianon batek han hartua, nonbaittik eta han zuena, o ez dakit zer izango zen, ta hura, baloi hura hartu nuen nik gero, zertik kamiona ekarri genuen etxera. Ta baloi hura nuen nik horregatik. Ta baloia ez zen asko. Gutxi.

4.3. Kanoikadak eta metraila

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/010
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, herrian geratu ziren. Portura joan ziren, beraien auzoa arriskutsua zelako; kanoikadak botatzen zituzten. Metraila etxe barruraino sartu zitzairen. Aireplanoek bonbak botatzen zituzten.

Transkripzioa

-Orduan, gerra hasi zenian zuek ez ziñeten fan kanpora?

-Ez. Gu ibilli giñen hor bertan. Gure barriyotik juan giñen portura. Zertik portun attak zuen beste itxe bat, han, beria, alkilata zen, biño hango itxe kuak joan ziren Frantzira eskapo. Ta itxia zen hutsa. Eta attak bazuen giltza, etxekua, ta klaro, iñor'e portuan, ez zen iñor portuan, denak eskapo Frantzira juanak ziren, ta baserritarrak itxetan, bakotxa bere ta atia itxiyakin, beldurrik eta hola, ta gu, gabaz, juaten giñen arratsaldian hara, lotara, beste itxera, biño gure barriyotik aterata, biño ez giñen kanpora, Frantzira juan. Eon giñen hemen.

-Zuen barriyua peligrasua zen?

-Bai, zergatik tiratzen ttuzten San Martzialdik kaiñoaik. Guadalupera. Zeatik Guadalupen zen soldaduak. "Había un fuerte" hor.

-Bai, fuertia, bai.

-Bai. Bueno. Pues handik, San Martzialtik, gorriyak, botatzen zuten kaiñoakin, "cañones", horkukeri. "O no, los blancos", kaiñoiak, bazekiten hor ziela, zerak, "milicianos", gorriyak, " los rojos", ta kaiñoiak botatzen zuten hara. Haiek botatzen zuten kañoiak honara, ta gu beldurra, nola zen han hori, bihian, parian, hor, egunen batian etorko zala kaiñoian bat gure, zertik, gure itxe ondotara, o lehertu, lehertzen ziren, kaiñoiak, hor, aidin bota ta ez ziela alleatzen, igual, hara. Bide erdiyan erortzen zen ta bua! Ta kriston zuluia iten zuten, lurrian.

-Zuk ikusi zenun hori?

-Bai, bai, bai.

-Bonban...

-Zoluak bai. Ta metraillak. Guk bagenun etxian, armaio luna bat, txehetua, eskiñeko kristala, leihotik sartu metrailla, han kaiñoi bat lehertu atzeko zelaian, nonbatte botako zuten hemendik o handik, eta hor, bide erdiyan erori, bua! Ta leihotik sartu, metrailla, ta armaio luna, jo izkiña ta armaio luna txehetu ta lehertzen ziren.

-Bildurrik pasa zenuten?

-Ez asko, biñon bai. Zertik gero etortzen ziren aeroplanuak ere bai, ta botatzen zittuzten bonba txiki batzuek, hor, botatzen zittuzten. Porejenplo eskola batian o kalia o zera bat, garaje haundi batian, o zera, trabetan bertan, ez ibiltzeko tranbiak ta hola, aeroplanotik botatzen zuten bonbak, bonba txikiyak ziren, biñon bakizu, orduan nahiko ziren zolua iteko kamiyuan.

-Orduan gerra garaian eskolarik eta ez zen izango?

-Ez. Deus'e. Dena parata zan. Ez zan eskolik. Ez zan eskolik.

4.4. Erreketeak eta falangistak

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:35:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

- **Laburpena:** Aita karlista zen, baina ez zuten biltzeko tokirik. Gerra ondoan falangisten zentroa ireki zuten. Mutikotan "pelayo" moduan desfilatzen ibili zen, txapel gorriarekin eta egurrezko eskopetekin. Falangistek beraien taldea zuten.

Transkripzioa

-Zure aitta politikan ibili zen? Bazen edo karlista edo nazionalista...

-Bai, bazen, tiratzen zuen, nere attack, ziren, karlistak ziren hoiek. Karlista hemen asko zen. Portun'e bai. Portun zen karlista asko. Asko.

-Ta bazen Hondarbian "Círculo Carlista"? Toki bat karlistak biltzekua?

-Ez. Ez. Hemen eendu zen gero, gerra onduan, batzuk ziren falangistas.

Haiek ziren Mirentxuko, Mirentxu da gu uain nola eendu gean, elizan ondu hortan, hor, Irun alderago, hor zan eskola bat, eta zine eta ez dakit zer, ta han juntatutzen zien falangista denak. Eta Miramarren, beste txalet haundi bat zen hor, beste aldian, haren, horretik hurbil, bertan, Miramarren sartzen ziren denak reketiak. Ta gu juaten giñen mutil kozkorretan, esaten zuten "los pelayos", reketes jantzita, hara, ta itten genun desfilia ta dena itten genun guk, igual berrogeita hamar mutiko txiki, denak txapel gorriya, kamisa kaki, galtza kaki, eta eitten genun eskopeta genittuen egurrazkuak, ta desfilia, de rekete jantzita, ta bestik, falangistak, jantzitzen ziren de falangista, opuestos totalmente.

-“Flechas”?

-Bai, fletxak hemen.

-“Flechas” y “pelayos”?

-[...] fletxak, falangistak fletxakin, ta gu juaten giñen igandero-igandero hamabitako mezara desfilando. Denak jantzita, desfilando. Elizara.

Igandero-igandero hamabitako mezara. Konpañia osoa. Etortzen zan un sarjento o un halako bat, de ley, eta sarjentu horrekin gu joaten “venga, a la izquierda, a la derecha” ta harek gidatzen zigun ta elizara joaten giñen. Meza entzun, ta berriz, desfilando, berriz Miramarrea gu, ta falangistak ere bere lekura, aparte.

-Ta hori gerra ondoren?

-Gerra ondoren.

4.5. Irun sutan ikusi zuen, etxetik

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzaia, Fermin

- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

- **Erref:** HON-046/014

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:35:57. **Bukatu:** 00:37:47

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

- **Laburpena:** Bost urte egin zituen La Sallen, gerra ondoan. Irun kiskalita zegoen. Etxetik ikusten zuten sua. Berria egin zuten dena. Tranbiak geratu egin ziren. Amuteko zubia bota egin zuten, dinamitaz.

Transkripzioa

-Bost urte ein nittuen nik La Sallen. Pixka bat gerotxo hasiko nitzen La

Sallen. Pixka bat gerotxo. Biñon Irun dena zan kiskaldua, orduan. “Paseo

Colón” ez zan etxe bat tente. Gorriyak, martxan, ein zuten itxe deneki sua eman. Nik ikusi dut “Paseo Colón” dena sutan. Dena. Buru batetik bestera arte, dena. Dena kiskaldu zen. Dena.

-Zuk ikusi zenun hori?

-Bai. Gabaz. Gabaz, gure itxetik, beiratu Irun aldea ta bua! Dana sutan, egunetan eon zan, etxe danak erre zien ta erori zien, betti. Gero dena in zen berriya berriz.

-Ta jua ziñen ikustera? Nola zeon eroria?

-Ez. Ez. Keba. Ez giñen, ezin leiken joan, zergatik tranbiak, baziren, biñon ez zuten funtzionatzen, zertik ziren postiak, argitako postiak denak botata. Amuten da zubiya, pasatzeko erriyua, ta hori, zubi horri’re in zioten sartu dinamita ta dena bolatu in zuten. Endarlatzako zubiya’re, ein zuten dena sartu dinamita ta dena bolatu, kendu ya, apurtu in zuten, dena txikitu. Zubi denak ziren ausita, denak.

-Ordun ezin zen fan, hara.

-Ezin zen. Ez kotxetan, ta ez zen ezer, juteko. Kotxeik ez zien ibiltzen.

-Orduan pasako zen denbora zu La Sallera fan aurretik edo hori dena arreglatu bitarte...

-Bai. Bai, klaro in zuten zubiya segituan, pasua, tranbiak hasi ziren martxan, ta orduan ni jua nintzen Irunera, La Sallera. Ta juten nitzan eunero tranbian. Baiño berandutxuo.

4.6. Bisigua Hendaiara eramaten, ezkutuan

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzai, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/025
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:52:07. **Bukatu**: 00:56:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Bisigua eta atuna. Itsasoan saltzen zuten atuna arrantzaleek. Getaria eta Orioko bisigu dena Donostiara eramaten zuten kamioian, eta berak Hondarribira eramaten zuen. Guardia erosita egoten zen.

Transkripzioa

-Bixigua ematen zen, atuna ere eon zan, tenporada batian, biño atuna saltzen zuten Hondarrabiko arrantzaliak, eurek, itsasuan, saltzen zuten frantsesakeri atuna. Zertik hemen hartzen zen bastante atun, eta Frantziyan baliyo zuen diro gehiogo. Ta hemengo arrantzaliak itten zuten, hartu atuna ta saldu frantsesakeri. Ta gero, bixigua ere hemen bastante hartzen zen, Hondarbiyan, eta Getarin’e bai, Oriyon’e bai, Donostiyan’e bai ta Pasaian ere bai. Bixigua. Asko. Hori dena ematen zuten Frantzira, dena. Miño klaro, kamion batek ekartzen zuen Getaria ta Orioko bixigu denak Donostira. Ni juaten nitzen Donostira, hartzen nuen kamion horrek ekartzen zuena ta gero Donostiyan eta Pasaian hartzen zutena ekartzen zuen beste kamioi batek “al puerto de”, Donostiko puertora. Kargatzen nuen Getaria ta Oriokua nere kamionin; Donostikua ta Pasaikua nere kamioian ere bai; ta hoiek denak, ta gero Hondarbiyan zienak denak ere, denak, preparatuta eoten zin, motor bat eoten zen, barko bat, haundi samarra, han, bihian, nola egondu gera, a, gu ez gara egondu han bihian, zure osabakin, han ez gara egondu, kotxin onduan, zure osabak...

-Bai, bai.

-Han zen zera bat, molla bat, barkuak arrimatzeko, uain da kotxian aparkaderua. Bueno.

-Bai, eliza onduan.

-Etortzen zan, ta guardiya zen erosita. Guardiia hartzen zuten mariñelak, lehenagotik, zera, bixigu nagusiyak, "oye, tú, tengo que cargar dos mil kilos de besugo al barco (o tres mil, según). Y esto qué...", "Va, dos mil pesetas", eskatzen zion guardiyak. "No, hombre, no, dos mil cómo te voy a dar, que no, joe...", "No, no, ¿dos mil pesetas!", "¿que no, coño! El otro día te dí mil y ya que...", "Bueno, bueno, vale". Ta ematen zion milla pezeta. Bale. "Yo estaré ahí, con vosotros, al tanto, por si viene el cabo". "Vale". Zertik kabo bat bazen, ibiltzen zen, klaro, bazekiyeen "que había algún movimiento", biño ez zuen billatzen. Ni alleatzen nitzen, kamionakin, kargatua, kajatan, etortzen zin, ta barkua hor, jotzen nitzan ondoa, hasten giñen deskargan, kamionetik barkora. Jartzen giñen denak "en fila", aiba, ta, ta, ta... Guardiia gure onduan, ta, ta, ta, ta... Ta handik puska batera guardiyak esaten zuen: "¡Eh, cuidau, cuidau!, ¡que viene el cabo!, ¡que viene el cabo!". "Vale. ¡Tranquilo!". Kamionetik barkora bota beharrian, kabua heldu zela, hasitzen giñen barkotik kamionea atetzen. Aldrebes. Tortzen zen kabua, "Que hay, buenas noches, que, ¿mucho pesca?", "Sí, bastante...". Ta benga, kajak, kanpora, kamionera, "Sí, hemos cogido...", arrantzaliak esaten zion, "Sí, hemos cogido, no sé, dos mil kilos o así...", kamiona kargatzen. Guardiia han, ta kabua han. "Bueno, buenas noches, ¡eh!", agur. Juaten zen kabua, ta guardiya berekin. Gu begira, atzetik, eta klaro, uaintxe kaboa mollara alletzen zenian, saludatzen zion, klaro, zerak, guardiyak, "al cabo", kabua joaten zan ronda ittera, porai, Amute aldera, [...] juaten zien atzetik bijilatzen, aber porsikaso bueltatzen zen, edo hola. Hura alde itten zuenian, berriz'e hartu kamionetik, berriz bixigua barkora. "Y venga", pon, pon, pon, pon... hustutzen genuen kamiona, ta ni arrut! Eta bixiguan kabua etortzian, deskargando, barkotik. Ta harek alde ittian kamionetikan bixigu botzen, benga, benga... Ya bukatzen zenian motorra martxa eman, ni kamionakin arrut, ta gero barkua're arrut, bixiguz kargatua.

-Nora eramaten zuten?

-Hori, Hendaia.

-Hendaia?

-Hendaian hori kargatu ta hori eamango zuten, buf!, San Juan de Luz, Baiona, Burdeos arte, igual.

4.7. Kontrabandoko angulak

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/027
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:57:49. **Bukatu**: 01:01:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Kontrabandoa. Angula ekartzen zuten, batelarekin, eta xaietan gordetzen zuten. Kamioiarekin joaten zen bera. Karga etxera eraman zuen behin; angula jana egin zuten. Donostiara eraman zuen karga beste kamioi batek.

Transkripzioa

-Hondarbiyan beti izan da kontrabandoa, ez?

-Bai. Beti. Beti. Angulakin ere, kriston, handik ekartzen ta, Frantzitik ekartzen genuen pilla osua, pilla osua, e! Angula, Frantzitik.

-Nola ekartzen zenuten?

-Batelakin. Ekartzen zuten batelakin ta sartzen zuten igual garaje batian, baten, nagusi baten garaje batian, igual, milla kilo angula. Zakotan denak etortzen dire, zako ttiki batzuek, zertik pisu haundiya jartzen bada itten da lehertu dena, istotu dena, ondatu. Ba zako batian, igual, bost kilo o, bakotxak, o hamar, gehio ez. Eta igande asko, batzutan, igual deitzen ziguten guri telefonotik, angulan nagusiyak. "Hi, Fermin!", "Zer?" ta "Etorri aguro, aguro etorri!", "Nora?" nik banekiyen angula zala, "nora?" ta "Portuko eliz ondora, hor, xaian", xaia da garajia, xaia esaten da; arrantzaliak esaten dute xaia. "Xaia, hau, zera, Sorondon xaia", hor eliz onduan bertan. "Etortu. Gu hemen gaituk eta etorri". Igande arratsaldian. Juan kamionakin, jarri ipurdizka garajera, ta kargatu kamiona, ta nik esaten nion: "Nora eaman behar da?" "Nahi duken tokira! Fuera! Fuera! Fuera! Alde in zak aguro, aguro!", zertik ikusi zuen guardiyak paisanoz zabiltzala han bueltaka. Norbaittek [...] emana, sospetxa o hola bazuten, goardiyak, ta igande arratsaldian paisano ibilki ziren, han barna, aber zerbatte ikusten zuten o hola. Ta klaro, kargatu kamiona ta nik: "Nora eman..." ta "nahi duken tokira". Ta ni nora? Ba nere itxera. Dena sartu kamionan, etxera eramane, ta bueno, iñulabarrian esango nun: "bueno, igual etorko dire honara guardiyak, ta dena emango ditek guardiyak..." amari: "ama, badakizu ze ingu dugun? Angulak afaldu denak, benga." Hartu zako bat, ireki, ta hartu angula pilla bat, garbittu, angulak jarri ta denak angula afaldu earki etxian, gero berari esan nion, klaro! Esan nion, joe, angula "cara y cruz", haiek, guardia haiek ikusi bazuten kamiona o baten batek esan bazuen, akabo, angula denak galduko ziren! Afaldu eta hurrengo goizian etorri zen nagusiya. "Angulak zer?" ta "hor ttuk, han garajian", "bueno, uain etorko duk..." , bazeen beste kamioi bat, Donostikua zen, toldo haundi batekin etortzen zen beti, eta "uain etorriko duk" hori, fulano hori, eta "bera sartuko duk atzeka", nere garajian, eta "kargatu eta emango ditik seittun". "Bale". Nik kentzen nun kamiona, neria, ta etortzen zan bestia, jartzen zuen han atzeka, ta dena, ta, ta, ta, ta, karga ta ematen zuen Donostira, nunbait hola ematen zuen. Igual partittu eingo zittuen leku batzutan. Pues hola, angula hemen asko etortzen zen.

-Angula nun harrapatutakua izaten zen?

-Frantzitik ekartzen zuten. Frantzian asko hartzen zuten. Asko. Angula, ba, angula beti hazitzen zen Frantziyan, beti. Frantziyan.

4.8. Zapaten kontrabandoa

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/030
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 01:09:42. **Bukatu**: 01:14:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Zapatak ere eramaten zituen, Irungo lantegi batetik, bestaldera. Zaku batean eskumako hankakoak jartzen zituen, gabarran

kargatu, eta bestaldera. Hurrengo bueltan, ezkerreko hankakoekin gauza bera egiten zuten. Subastan erosten zituzten guardiek kendutako zapatak.

Transkripzioa

-Zapatak.

-Zapatak ere bai?

-Zapatak eraman.

-Eraman?

-Bai. Zapatak nik ekartzen nuen Irundik. Irunen bazen hor, Beraun, goi hortan. Mendibil. Hor, goi hortan. Edo "Chocolates Elgorriaga" nola zen lehen, fabrika, hor onduan. Hor zen zapata fabrika bat. Eta frantsesa etorri zen hemengo zapatero horrena, ta hola, nahi zittula, porejemplo, claro, horrek ematen zuen, igual, Burdeosera, ta dena, zapata pilla bat. Biño kamiona Beteta, zakotan, e! Dena. "Bueno, tantos pares de zapatos de tal número, tantos pares de zapatos de tal...". "¡Ojo! Una cosa", ta zer, tan hola, bueno... "Zuk prepara zapata denak iskin batian. El par de zapatos". Kajatan ziren. "Denak eskin batian. Nik pagatuko dizut zenbat den". "Bale". Ta ehun pare, berrehun pare zapata hor dire. Kontatu, bale. Pagatu. Bueno. "Uain laja neri la maniobra". Kargatzen nittuen zako batian, zera, holako zako batian, zapatak. Miñon, eskumak bakarrak. Hanka bateko zapata. Zapata dena, han zen pillari, eskumak kendu, zakotara, zakotara, zakotara... bete zakua, lotu ondo, hartu kamionakin, ta e maten nuen...

4.9. 200 pezeta ordaintzen zuten kontrabando gaua

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzai, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/033
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:21:58. **Bukatu**: 01:24:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: 200 pezeta ordaintzen zuten kontrabando lana egiteagatik. Santa Engraziatik Jaizkibelera igo, eta handik arroketa. Paketeak non gordetzen zituzten: iratze eta inaurkin artean; sega eramaten zuten.

Transkripzioa

-Ordun pagatzen zuten berrehun pezeta. Dirua zen. Klaro, hartu behar zen hor karga, barrio Santa Engrazia badakizu non den, ni, hor, gure etxetik, bueno, gure etxetik askotan juan dire, askotan. Hortik Jaizkibel igo gotti eta arroka arte, e! Biño [de] berrehun peseta zen diru asko, orduan! Berrehun peseta zen diru asko.

-Jende asko zebillen kontrabandoan?

-Asko. Ordun kontrabando asko itten zen. Asko. Asko.

-Arroketan hartu paketiak ta gero gabian ezkutatu ein biharko zian...

-Ez segidun etortzen ziren etxera. Igual, akaso, batzuek izan dire gorde ttuztenak, han, mendiyan, biño ez ziren fiatzen zertik gero egunez ere guardiyak ibiltzen ziren, eta han gordetzia... Nahiago izaten zuten deskarga, hartu segiduan ta behera.

-Ta etxetan gorde, lehen esan dezu, lasto artian edo nun?

-Bada belarra, zera, mendiyan da iratzia ta iñaulkiya. Iñaulkiya da behian

azpitako ebakitzen dena mendiyan.

-Ta horrekin tapatu?

- “Helecho” da bat. Iratzia. Ta bestia da iratzia. Bata da iratzia ta bestia da iñaulkiya. Hoiek dire, hemen belar asko dago mendiya. Beti. Ta badire holako baguadak, zoluak eta erreka haundi batzuk eta dena, han bada denatatik. Hor dabillena badakite dena. Nik ere bai, biño haiek gehiago.

-Ta gorde, bestela, zer iten zen, tapatuta?

-Klaro. Tapatzen da errax. Zertik baduzu duda, ematen duzu sega bat ere bai. Sega desmonta, ta guardak ematen du eskutan sega o hemendik zintzillik, sokakin jarrita. Kenduta, segari, punta, zea kenduta, “el corte”, ta ematen da dindilizka hemendik kiderra ta sega. Ta gero, hara juatian, behar bada, ebaki iñaulkiya, botatzeko gaiñera ez da komeni asko ebakitzea, zertik ikusten da gero ebakitakua ta hola, biñon ebakita ta itten da, biñon gutxitan lajatzen dute. Zerbait ukerra bada, mendiyan, orduan eitten dute gorde. Miñon ez dute... Nahiago dute eon, zaindu, aber nola diren biriak ikusi, ta “hi, hor ez duk”, “Juango gattuk aurrera?” o ikusi juan diela, ta berriz hartu ta ekarri.

4.10. Paretan zuloa, paketeak gordetzeko

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/035
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:24:52. **Bukatu**: 01:26:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Etxean tranpak zituzten eginda paketeak gordetzeko. Zuloa (tunel bat) armairu batekin estaltzen zuten.

Transkripzioa

Etxian bagenittun egiñak tranpa batzuek. Tranpa batzuk baziren egiñak. Gure etxian bazen sarrera bat kamiyoetik, egiña tetxo bat “de hormigón”, ta gero eskaillerak, hola, gotti. Ta bajuan leku bat zen, “uno veinte” o hola altura, ta zabalera “uno cincuenta” o hola. Pues hoiek zien bi aldiak itxita denak, eta gero eskaillera hola itten duen lekuan, han topia’re zen itxita, biño zen lajatuta erdi-erdiyan bire bat, “sesenta” o hola zabal, ta “uno cincuenta” o hola alto. Ta han jartzen genuena armario bat. Armario bat bere atiaikin ta estanteriekin ta dena. Hola, zera batzuk jarri, gantxo batzuek, ta han hartu eta ttak, zintzillik gelditzen zen. Ta armario barrenen baziren botilla hutsak, eta betiak ere bai, botil zaharrak, ardua o pitarra o sagardua o hola, ta armaio hura, tira ta ez da atetzen. Ein bihar duzu altxa gotti ta gero atera. Ta hara joan ta atia ireki, ta ikusten duzu armaiua han dala, ta ematen du han, hura bakarra dala, biñon gero altxatzen baduzu gora ta kentzen baduzu armaio hau, barrenen du tunel bat bastante luzia. Igual daude sei metro luze, lau metro, bost metro. Ta genero heldu denian, iten zen kendu armaiua, ta ekarri ahala ra, ra, ra, sartu [...]. Ta gero ipiñi atia, hori, armiua, ra, ta itxitzen du “el hueco”. Dena ikusten da, buelta guztin, pareta.

4.11. Bateletako tranpak

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/037
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:27:07. **Bukatu:** 01:28:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Bateletan eta gabarretan ere baziren tranpak. Pareta faltsua egiten zioten. Ogiak sartzen zituzten zuloan.

Transkripzioa

-Batelakeri, batelakeri ere, bazen tranpak. Gabarrakeri ere bai. Gabarrak ta batelak dute aurrian, du hola, branka, ez? Porejenplo, batela.

-Bai.

-Aurri badakizue nola den, aurri, hola, pues barrenen eiten zioten beste pareta bat, egurrakin, igual-iguala, bestia bezala, faltsua. Txikiyagua. Ta gero gaiñetik kentzen zioten tablilla bat, ta hor gelditzen da, aurri, "hueco" bat. Ta horrek emaki dittu /emakittu/ "unos pasadores", sartzen die iltziak. Tiratzen baduzu ez da atetzen egur hoi. Ez da atetzen. Ta kentzen zien, iltzi haiek kendu, goiko tabla kendu, bi tabla hola dijuana, eta nola bat da branka beria, du hola, kanpua. Bestia nola txikiyagua den, enteitzen nazu, ez? Bat hola, ta bestia haundiyagua, hola. Hor, tarti hori, dena beteta ekartzen zen. Dena. Rodamentu ta hola zen, gauz txikiyak, bua, han kabitzen da! Ez asko... Ogiyak-eta ekartzen nittuen ere bai han, zoluan sartuta, guardiyak utzitzen ez ta, han sartuta, biñon beste genero asko, han barrenen. Ta beiratu, ta ez da ikusten, da barru dena hola, ondo da, ta klaro, kanpua're bai, ez daki, ez dakizu, "so pena que" metro batekin neurtzen baduzu barrena, a tope, ta beste barrua igualakin kanpua, kanpua da luziagua. Pues hor barrenen asko ekartzen zen. Gabarretan'e bai. Ask.

4.12. Gerra hasi zenean, Hendaia

- **Hizlaria(k):** Birto Sorondo, Murtxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-059/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, aita eta beste bi gizon guardiak egiten jarri zituzten kai zaharrean. Batelak hartu, koltxoak eta umeak barruan sartu, eta Hendaia joan ziren. Handik Ziburura. Ama Hendaia joaten zen arraina saltzera. Tiro-hotsak.

Transkripzioa

-Ta gero, pues, klaro... Gerra hasi zenian, pues jarri zuten hura ta bera bezela ibiltzen zena beste bi, pues guardiyan, kai zaharrian bazen kaxota bat erdi hartan, kaxota redondo hura, ta han egoten ziren guardiyan gerra hasi zenian. Ta esan zuten, hasi ziren Irungo bonbardeu o ez datik

zergatikan zen, ba behintzat hartu bere guardapeskako bere batela, Bidasoa izena zuena, ta bere batela Marisol izena zuena, hartu itxeko koltxoi denak, ume denak, arropa denak, eta bi batelatan han joan giñen. Hendaiaño jun. Eta Hendaiaiko zerian, kamioi bat guri begira. Ta han dena kargatu ta Ziburura joan giñen. Kamioi bat guri begira zertikan, klaro, izeba, aman ahizpa, Ziburun bizitzen zen, gu joan giñeneko zera, bizitza bat alkilatua, ta gañera ama're joaten zen Hendaiaira arraia saltzera, eta nik ez dakit: amaren lagunak batek egiña zen o izebak egiña zen o... Behintzat, kamioi bat guri begira. Ta goatzen naiz, ni gottika lehertua, kamioian atzian, hola, zera, toldukin ta horrelakua izango zen, eta hor gottika lehertua ta ziun! ziun! ziun! Soinu batzuk eta... Ta esaten zuten San Martzialtikan bala galduak zirela. Pentsazu!

-Haraiaño iristen zien...

-Frantzira joan giñenian.

-Hendaiairaiaño iristen zien balak?

-Bai, bai, bai, bai... Ta gero joan giñen Ziburura, ta han eskolara.

4.13. Eskolan frantsesez ikasi, eta bueltan erdara jakin ez

- **Hizlaria(k)**: Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/004
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:06:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan ibili zen umetan; baina idazten eta irakurtzen frantsesez ikasi zuen, Ziburun. Bueltan ez zekien erdaraz. Gurutzeko mojekin ibili zen gero.

Transkripzioa

-Hara jun aurretik hemen eskolan ibili ziñen?

-Bai, biñon, señorita Julikin, parbulitosekin. Han ikasi nuen eskribitzen, leitzen ta denak, danak han ikasi nittuen. Ta etorri giñenian pues ez nekin, klaro, euskeraz hitz egiten genuen itxian ta gañea auzoko askokin ere bai, bertan [...], biñon etorri nintzenian ez nekiyen kastellanoz. Ezta hitzikan ere! Eta beti oroitzen naiz, mezara joatian, hamarretarako meza izaten zen, meza nagusiya, eta ni, pues, hango kanta berak, latinez, kantatzen nuen, besteen tartian... Eta ikusten nuen hola, zera iten, "kantarika, hara, hara, hara," beste neskak harrittuak. Eta bueno, batian joaki nitzela, ez dakit, eskolara o noa joango nitzen, mixiko zerara, egin nuen, colegio San Jose, Hijas de la Cruzen, mixikoz urte bat ein, bueno, zera bat. Eta... A, batian, hara nijuala, eskolara nijuala, neska batek atzetikan: "oye, chavala!" deitu zian "oye, chavala!", nik uste nun zerbait gaizki esaka, gañea fuerte esan zian, ta nik ez dakit, zerbait insulto zela, hasitzen naiz martxa osuan, korrika ez, biño martxa osuan bai, harrapatzeko beldurrak, biñon in zidan /intzian/ zera bat! Susto bat eman zian! Ta gero, noizpatte, konturau, o vamos, esan, enteratu nintzen ze esan nahi zuen! Pues sartu zion halako errabi bat neska hari, gelditu zion halako... Ikusten nuenian gero, ez dakit Prisea o nunbaittera desagertu zen, biñon ikusten nun bakotxan... Ze gauza... Jakin ez [...]

4.14. Etxean tokirik ez, eta izebarenean lotan

- **Hizlaria(k):** Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-059/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Guraso biak ziren portuarrak. Jatorria. Birto abizena nondik datorren. Corellan den jauregia: Birto de Bera. Bederatzi senide izanda, lo egiteko nola konpontzen ziren. Ziburun, izebaren etxean. Bueltan, Santiago kalera joan zen beste izebaren etxera; biak ohe bakarrean. Etxera bueltatu zenean, bera etxeko lanen kargu.

Transkripzioa

-Ta bueno...

-Ordun ama ta atta, biak zian portuarrak...

-Bai, bai, bai, bai, bai. Ta beuden attona ta amona... Nere... ez dakit, attonan atta, uste dut, edo attonan attona, ez dakit, Corellatik etorriya. Ta hemen esposatu, hemengo batekin ezkondua. Gure apellidua, Birto, heldu omen da, batzuk esaten dute Beratik, ta bestiak esaten dute Biriaturtik heldu dela. Ta zeran, nola izena du... arestian esan dut... Corellan! Izan bihar du palazio haundin bat, zaharra, oseake antiguakua ta abandonatua omen dago, eta emen da, izena emen du "familia Birto de Bera". Familia Birto de Bera. Oso hondatua dagola biño ze, beti joan behar, joan behar, behinpin ez gera behin ere joan ikustera, gure attak ere bazun ilusiyo bat, biñon, hura ezagutzeko, ta ez dugu ezagutu.

-Ta zuek beatzi senide, ta lo iteko-ta nola konpontzen ziñeten?

-Ni, Frantziyan giñela, joaten nintzen, onduan bizitzen zen izeba hori, alaba bat zuena, pues hara joaten nintzen lotara. Eta hemen, etorri giñenian, pues nere tia bizitzen zen, badakizu, kalle Santiagon, este, Bar Hondarribi ta Bar nola... Maite ta hoieken atzian etxe txiki bat zen. Orain botatu ta haundixio iña da. Eta hara joaten nintzen izebakin, bera goian ta ni bihan, biek ohe berian lo iten genuen. Zenbat urtian! Eta gero, pues, anaiak hasi zirenian bat ezkondu dela ero zerbiziora joan direla edo, ordun ya xoko bat noizpaittere tokatu zian ta itxian lo iten nuen. Oseake, zeran, Frantziyan, izeba baten itxian, ta hemen, beste izeban itxian, ta attona.

-Ta lehenoko koltxoiak nolakuak izaten ziren?

-Illezkuak, zeranak, bildotsan illiak. Bildotsan illiak. Eta egunero in bihar zenun buelta eman, buo!, uain ohiak ittea ta ordun [...], ohiak ittea ta, itxian egunero banittuen bi, hiru, lau, bost ohi egin bihar nittuen egunian. Ama gero gerra ondoren joaten zen Nafarrora. Mugaire, ta Oronoz, ta Nabarte, Oieregi... Eta...

-Arraia saltzera?

-Arraia saltzera. Ta ni gelditzen nitzen, pues, itxian, kontu iten, ihesi joan gabe.

4.15. Bueltan, ume denak frantsesez

- **Hizlaria(k):** Birto Sorondo, Mertxe

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/022
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:54:38. **Bukatu**: 00:56:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Madalen karrikan bizi izan zen urtebetez, Ziburutik bueltan. Izebarekin egiten zuen lo, ohe berean. Ume guztiak frantsesez hizketan aritzen ziren kolean, hiru familia bateratsu bueltatu zirelako. Daniela laguna.

Transkripzioa

-Madalen karrikan etziñeten egon?

-Bai. Urte bat egondu giñen han, ta niretzat tokirikan ez zen lotakotz, ta tia Zelixanian. Ta buruz buztan lo iten genuen biyek.

~...

-Bai, hori. Lau famili bizitzen giñen, ta labatikan hiru etorri berriyak, ta denak, ume denak dena frantsesez hizketan ibiltzen giñen. Eta total ke Daniela, Daniela beti ikusten giñen, hori bai gogorra zela, eskolara juatezkuan ta mezara juatezkuan, igandetan, beti ikusten giñen, beti topatzen giñen: bera alde hartatik eta gu hemendikan, biñon gero frontoienetik barrena leku beratik. Ta beti bat bestiri begira ta sekulan, hainbeste denboran, sekulan hitzikan egin ez. Beti bata bestiri begira ta arrut norbere aldera. Ta ni beti pentsatzen: "hau Hondarbikua dun ba, hau Hondarbikoa dun ...", gero lagunak. Etorri giñenian, gu biñon egun batzu lehenogo etorriyak, eta etxe berian. Gero launak ein giñen ta uaindikan, gaixua, uain ez da atetzen ere... Biñon denek, zera, denak frantsesez hizketan eta famili bat bakarra, batere [...] ta erre-erre iñak beti. Ta klaro, ume asko giñen, hiru familiyatan, ume asko giñen, ta haieken beharrik ez guk! [...]. Zera ta, zure lagun hura nola izena zuen, Ama Maria Dolores, Niko! Nikon ama ta, Nikon ama ta, zera. [...] Eta gero, pixkan-pixkan, pues... Bueno, nik ez dut ahantzi, behintzat! Danielak ez dut uste hitzik iten duenikan ere. Ta guriak, pues, Fermiñek bai, egiten zuen. Klaro, denbora gutxi diferentzia genuen, biñon beste denak, bueno, anai zaharrenak bai, entenditzen zuten, ta han, hok bezela, esaten zittun gauzak, eta, biñon ni ez.

4.16. Anaien alde otoitz egiten

- **Hizlaria(k)**: Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/027
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 01:13:03. **Bukatu**: 01:15:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Ziburun ermita batera joaten ziren, gerran zituzten anaien alde otoitz egitera. Ziburun goserik ez zuen pasatu, umeak pozik bizi ziren. Amak bazituen hartzaileak, eta ondo saltzen zuen.

Transkripzioa

-Erreka bat zen gotti, Madalenguan bezela, ta kabailleran, han, zera,

kastillo baten torre handi bat. La torre... “Le donjon” esaten zuten frantsesak, “la torre más grande del castillo”

-Hori Ziburun?

-E? Ziburun, bai. E... Bordagain. Eta bueno, nik ez dakit zenbat denboratara uaindikan agertzen ziren zerak, harriyak eta [non igo zen ta]. Hura zen torre bat bakarra, ta zera, de la Edad Media kapilla bat zen han bertan, preziosua, bueno preziosua, antiguokua, ttikiya, ta bueno, “Notre Dame de Bordagain”. Ta zera iten zuten, nitxo bat zen paretan, eta zera, pila bat usmal haundi bat, kopa bat balitzake bezela, harrizkua, dena harrizkua, harri mimarriya dena. Eta hara. Umiak’e, umiak! Joaten giñen neska-mutillak, barriyokuak, eta errezatzen, gure anaia gerratikan etortzeko. Pentsazu. Beatzi urtetan edo zortzi urtetan... Hura gogorra zen gero! Ta bueno, etorri zen behintzat, eta han ibiltzen giñen, zera... Malda betti ta dena margarita haundi-haundiyak eta denak han, lurrian jarri ta bueltaka, bueltaka-ta, han, gure jostaiera guztiyak han ziren.

-Zuek han goserik eta ez zenuten pasatu... Goserik eta ez...

-Guz ez, nere. Nik beti pentsatzen dut: gu felices! Gure gurasuak ze pasa ote zittuzten... Biñon gu felices! Eskola ta jostatu, besterik ez genun pentsatzen edade horretan. Ez giñen deusez konturatzen. Eta bueno, amak ere bazuen bere lan hori, lehengo zera guztiyak, lehengo famili [...], Hendaiaiko alkatia zela, ta hotelak zirela, ta bere...

-... hartzailleak? Erosten ziotenak arraia?

-Bai, bai ba! Eta bueno, segitzen zioten haiekin ta graziyak hareri! Gero atta joaten zen bere batelakin arrantzara, ta gero amak salduko zittuen, noski! Ez dakit. Bueno, ni ez naiz oroitzen. Ni oroitzen naiz bakarra gauz hori: “Que eramos muy felices.”

4.17. Hendaiaira ihesi, koltxoiak hartuta

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/018
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:35:39. **Bukatu:** 00:37:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Hendaiaira joan zirenean, koltxoi bila bueltatu zen, eta ama bere bila. Hondarribitar asko joan ziren ihesi.

Transkripzioa

-Orduan denak fan ziñeten hara?

-Bai. Ta jua giñenian, ni gaztia-ta, ama nere billa, nere billaka Hendaian, ezin billaturik, ta ni eta beste gazte bat etorri giñen honea, barkukin, arrimatu zerian, muellian, ta jua nitzen [etxea] ta hartu nuen koltxoi bat. Bira, koltxoi bat hartu nuen, maindire batekin zera in, ta bestik ere eman zuen, beste lagunak, ere bai, eta biyek, zeara, Hendaiaira, koltxoi batekin. Bueno, bat o bi o... Bai.

-Orduan bueltatu ziñeten koltxoi billa?

-Bai, ta amak ez zakin ezer’e! Ta nere billaka, zera, gaztia ta. Bai.

-Ta han, orduan, arrantzan ibilli ziñen, aittakin?

-Bai, bai. Arrantzan.

-Ta bere barkua, bere barkua, hemen zuna, ez zun hara eraman?

-Zeiñek?

-Attak ez zun barkurik, aurretik?
 -Ez. Baporian ibiltzen zen ba! Bapori hoietan.
 -Baiño bere barkurik ez...
 -Ez, ez, ez... Orduan zien nor beriak zuen barku haundiya bakarren bat o beste. Beti kanpoko jendiakin ta...
 -Ta txaluparik-edo bazun, aittak?
 -Txiki hori ba! Arrauneko zera hoiek...
 -Eta horrekin jua zen Hendaia?
 -Jun giñen.
 -Denok? Horretan?
 -Bai. Bai. Nik goizian urera saltatu ta uretik igerika jun ta hartu dut barkua ta ekarri lehorrea ta denak han sartu ta eskapo jende guziya jun zen. [...] badakizu ze eskandaloa zen hemen! Sartzen ai ziela ta! Ta geo ni oaindik etorri honea ta koltxoia hartu ta...

4.18. Bueltan, etxeak hustuta

- **Hizlaria(k)**: Gonzalez Oiarbide, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-077/009
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:24:42. **Bukatu**: 00:27:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Bueltan, etxeak erdi hustuta zeuden. Emakume bati ilea moztu zioten. Desfileak izaten ziren. Falangistak eta erreketek.

Transkripzioa

-Ta pasatu giñen itxia, itxe denak irekiyak, mueble denak erdi kanpuan ta, bua..., ke era akello, terrible!
 -Ta zuen etxian ere bai?
 -Irekiya dena. Bihian militar bat bizi zen. Fuerteko nagusiya. Fuerte, badakizu zer den?
 -Guadalupeko fuertia?
 -... Hango nagusiya, Santillan, hor, gure bihian bizi zen. Ta hura eman zuten dena, azkeneko, oroitzen naiz, aurreko egunian eman nuen tela bat polita, amak erosi zian, ni, "Carmen, Ritak in behar din soina" eta nere soinak ilusiyuarekin, ze, akabo nere soina! Han eman zuten! Soñik gabe geldittu nitzen! Etorri giñenian atera zuten muebliak, onduan'e bazen markes de Inestrillas, markes... que era jefe de eso ta, nahi zuten gauzak hartu, ikusi zutena hartu, kargatu kamioiak eta pa Madrid.
 -A bai? Orduan etxiak hutsik, batzunak, batzun etxiak hutsik?
 -Bai, etxiak, gauz asko eaman zuten. "Requisar".
 -"Requisar".
 -"Requisar". Harrapatzen zenun kalia, denatatik.
 -Ta hemen, Hondarribian, zuk ikusi dezu emakumiai illia moztia?
 -Bai. Zeiñi ein zioten, oduan? E, me parece ke ueberari, txurrerari. Si, Nieves. Batei bai, ikusi nuen.
 -Bai, Illea moztu zioten?
 -Bai, bai. Kendu ziotela.
 -Bai.

-Castellana bat zen. La huevera. Denda zuten haiek, bai
-Senarra izango zuen frentian.
- Ez, ez dakit senarra, ez naiz oroitzen. Bera bai, Nieves bai, goatzen naiz, Nieves zela. Eta...
-Hemen iten zen desfilerik eta, herrin bat hartutakuan ta iten zen, manifestazio, desfile...
-Bai!: “Un, dos, tres, España nuestro es”. Han, denak konten!
-A bai?

5. Ohiturak eta bizimodua

5.1. Eskolako oroitzapenak

- **Hizlaria(k)**: Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-018/004
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:11:54. **Bukatu**: 00:14:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Txakolako eskola nolakoa zen azaltzen du. Cara al Sol abestera behartzen zituzten eskolan. Garai hartan ez zekiten erdaraz, baina moldatzen ziren. Flora izan zuen maistra. Neskek eta mutilek elkarrekin ikasten zuten. Eskolan oinarrizko gauzak ikasi zituzten.

Transkripzioa

- Ta Txakolako eskola nolakua zen?
-Uf, pues, holakoxekua, nola esango nizuke, lau teillatutea hola muttur bat lau teillatu o bi muttur, bi kaidakin holako... ta aurretik honen posturea aldean leiyuak-eta (a! eskuak ez da posible ibilli? Ez? Ez) hola, honen posturea hola leiyuak eta komei, bai, ta eskolan, hor ibiltzen giñen gu, hor kantatzen genun Cara al Sol. Etortzen zen maistra kastillana bat. Ez zuen lajatzten euskaraz mintzatzen, garai hortan. Ta denak kantatu behar izaten genun bandera española jarri, zerian, atian, ta Cara al Sol. Bai.
-Ta zuek erderaz bazenekiten?
-Bai zea! Uain ez dakigu-ta, ordun gutxigo! Biño hala in bihar izaten zen, ez zuen, euskaraz, gue artian, gu beti euskaraz, zea, ta beti galezi itten zun. Beti galezi itten zun. Bai.
-Ta zuk esan dezun maistra hori, donostiarra zena, Juanita?
-Hori ez zen...
-Hori aurrekua
-Ez. Hori, hura nere aurretik.
-Aurretik.
-Geo, nere denbun, Flora. Hil zena, hua're. Nere, ni, Florakin ibilli nitzen. Juanitori lehenotik esan... Hemen bizitzen zen. Hor eskola eman ta gure aita-ta zenakin. Ni ez naiz ondo oroitzen hori, hura hemen bizittua, Juanita hori, bai.
-Eta gero Flora hori euskalduna zen?
-Ez. Flora hoi kastillana. Horrek ez zuen lajatzten euskeraz mintzatzen. Ta Cara al Sol-ta kantatu bihar izaten genun.
-Ta nun bizi zen hori?
-Hori hor, Irunen, Anakan. Anakan, bai. Handik etortzen zen eskola ematea horrea.
-Ta ze eoten ziñeten, neskak eta mutillak elkarrekin?

-Bai, bai. Danak zea, mixto, danak alkarrekin. Bai.
 -Eta edade aldetik ere, edade askotakuak?
 -Bai, klaro, hamabi urte bitarte, hemen baserriko jendia ya hamabi uztez gero ya danak gue lanea juten giñen, beuden aurea tal anea ta bai, bai, adin hortan, hamabi urte bitarteko adin hortan.
 -Ta ze ikasi zenun eskolan?
 -Ui, pues lau regla hoiek justu-justuan, besteik ez, hoi justu-justuan ibiltzeko, ba dibidir'e oso ondo ez, biño hoi justu-justun, sumar, multiplicar, restar eta dotrina.
 -Dotriña hor eskolan ikasten zen?
 -Hor ematen zuten dotrina, bai, Flora horrek komuniyua itteko ta komei, hamabi urtetan itten zen komuniyua. Bai.

5.2. Eskolako materiala

- **Hizlaria(k):** Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-018/005
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:15:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Eskolako mahaiaik nolakoak ziren azaltzen du. Klariona eta arbel-ziria erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta mahaiaik-eta nolakuak zian?
 -A, bueno, pues holako mahai batzuek, asientuk beudei pegatuak, holako batzuek, zea, hola bajatu ta ixeita, hola mahaiaik, ta beste batzuk bankuak. Bankuak izaten zien. Bai.
 -Ta bakoitzak bere mahaia ala biñaka?
 -Biñaka. [...] biñaka izaten giñen [...] biñaka izaten giñen. Bai.
 -Ta ordun boligraforik ez zeon ta ze erabiltzen zenuten?
 -A, pues bai, bolígrafo, bazien horrelako bolígrafo zea, bai, biño lapitza, ta zea, tablerua, klera o esaten... klera o horrekin egiten genun.
 -Pizarriña?
 -Ta pizarra, pizarra asko. Pizarriña asko. Eta geo lapitza, ta pizarriña. Pizarriña asko. Pizarraikin, denak pizarra eramaten genun eskolara.
 -Bakoitzak beria?
 -Bakoitzak beria. Bai.
 -Eta kuadernorik-eta bazenuten?
 -Bai, bueno, bai, zerbaitte bai, zea, kuaderno zea, zerbaite bazen, biño oso gutxi, e! Oso gutxi. Gehiena pizarra ta tableru hortan eite genun. Altxa ta zea, klera horrekin fan ta han eite genun. Bai.

5.3. Eskolako kontuak, gerra aurretik

- **Hizlaria(k):** Oronoz Salaberria, Eleuterio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-037/003
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:10:38

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskola. Lehenengo portuan ibili zen, Julia maistrarekin, eta gero Donostiako Etxaniz maisuarekin. Erdaraz ikasten zuten eskolan. Apaizak joaten ziren dotrina ematera, euskaraz. Maisua gogorragoa zen haiek baino. Nazionalista zen, baina erdaraz erakusten zien.

Transkripzioa

-Maixtra batekin. Maixtra batekin portuan. Han, harek in zigun maixtra batekin eskola, ta gero pixkat haunditu giñenian etorri zen maixtro bat Donostitik. Donostitik etorri zen, Donostiko semia, gure eskola maixua.

-Eskola berrira?

-Eskola berrira.

-Eta nola zun izena bestiak? Maistrak?

-Maistrak uain e... Señorita Julia!

-Eta nungua zen?

-Hura ez dakit! Ez dakit nungua zen, urte asko hemen eman zittuen.

-Hor neskak eta mutillak elkarrekin eoten ziñeten, eskolan, señorita Juliakin?

-Ez dut uste. Mutil hutsak uste dut. Ez naiz oroitzen hori. Hori ez naiz oroitzen. Orduan ttikiya nintzen, e! Zenbat urte izango nittuen? Lau-bost urte?

-Ta euskaraz ala erdaraz ikasten zenuten?

-Erdaraz.

-Erdaraz?

-Haunditu... zera, Donostikuakin ere erdaraz eitten genun. Ta bera euskalduna zen, maixua. Baiña erdaraz itten genun gehiena. Ta gero etortzen zen apaiz bat, egun...,astian bi..., dotrina ematera. Harek bai, harek euskaldunez.

-Dotriña euskalduna?

-Bai.

-Ta nola zun izena maisuak, Donostikuak?

-Etxaniz.

-Etxaniz?

-Etxaniz.

-Eta apaizak?

-Apaizak baziren lau edo bost baziren. Bat etortzen zen, hurrun bestia igual, Don Antonio, Don Pedro, Don Juakin... etortzen zien apaizak diferentiak. Tarteka diferentiak, apaizak.

-Ta apaiz batzuk, esaten dute, gogorak zirala. Dotriña ez zekiñari egurra ematen ziotela...

-Apaizak? No.

-Ez?

-Egurra eman? Ez. Ez zigun guri... dotrinaik ez bagenun ikasten... Maixuk bai! Eskua hola jarri ta hola jarri ta... maixuk bai!

-Apaizak ez, orduan...

-Apaizak? No. Apaizak ez dire, ondo portatzen zien.

-Ondo... Eta maixua gogorra?

-Apaiza, maixua, eskolatik ez zen atetzen mutil bat "sumar", "restar", "multiplicar" ta "dividir" ikasi gabe. Ez zuen nahi eskolatik iñor atetzia hori ikasi gabe, maixu harek.

-Eta kastigatu iten zun?

-O! Ta nola gaiñera! Eskua hola jarri ta liburuin, liburuin jarrita...

-Belauniko?
 -Belauniko. O! A! Jo're bai, e!
 -Bai?
 -O!... Bai. Hortako ona, eskola erakusteko ona zen. Ta bera euskaldun haundiya zen, e! Bera nazionalista izugarriya zen, Euskadikua.
 -Baiña...
 -Erderaz erakusten zigun.
 -Erderaz erakutsi beharko zun...
 -[Erakutsi] hala in beharko zuen!

5.4. La Sallen eskolan, Irunen

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzuaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/007
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:18:23. **Bukatu**: 00:21:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena**: La Sallen ibili zen eskolan, Irunen. Gutxi joaten ziren Hondarribitik, tranbian. Hamabi urterekin ez zuen joaten jarraitu nahi, eta lanean hasi zen. Arbola ureztatzen jartzen zuen fraide batek, eta bera gustura. Zigorak.

Transkripzioa

-[...] ni eskolan ibiltzen nitzan, Irunen, e! Kolegio La Sallen. Hondarribitik joaten giñen bi o hiru bakarrik.
 -Nola joaten ziñen?
 -Tranbian. Zen tranbia Hodarribitik Irunea, tranbe bat. Han, tranbian joaten giñen.
 -Han ermanuak?
 -Bai. [Hermanos de] babero txuri hoiek, hoiek ziren, onak, maisu onak ziren, fuerte. Biño ni hamabi urtetan ya ez nuen nahi eskola Joan. Ez nuen nahi. Ta ez, ta ez, ta attak "baiño, jo, oaindik gaztia yaiz!" Ta ez dakit zer, ta "segi beste pixka bat gehio, eskolan" ta ez dakit zer, ta "ez, ez dut nahi joan" ta "ez dut nahi" ta ez, ta ez, ta ez ... Ta azkenian eskolan ere ez nuen eitten gauza asko, maisuak deitzen zien ta "Fermin!" "Zer da?" "Zertik ez duzu itten?" ta koño, "ez dut nahi ein" ez dakit zer, ta jo, "Bueno, nahi duzu /nahizu/ jun arbolak...", han aldatzen ttuzten, eskolan, patiyuan ta hola, arbolak, "nahi duzu /nahizu/ jun arbolak regatzera?" ta "Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai!" Listo. Eskolatik alde ittetik. Ta "han duzu regadera, zeran azpiyan" banakiyen non zen, han, zeran, komunaken onduan, "hartu regadera, itturiya badakizu non den, bete, eta arbolari bota bueltan denakeri biña regadera ura". Pues eoten nitzan arratsalde guziyan ura botzen arbolakeri, "más contento que pancho", bai. Eskola ez joatetik. Eskolan ez eoteatik.
 -Ta kastigatu-ta eiten zuten?
 -Bai, asko. Bu! Asko.
 -Ze izaten zen kastigua?
 -Joe! Ematen zuten igual a kopiar, eitten bazenun letra txarra, gaixki, letra bat, "un escrito de lo que sea", eitten bazenun gaixki, beidatzen zuen, ta koño, "Esta palabra, "la montaña"", ipiñi duzu "eme, muy feo. La ene

también. Cien veces montaña.” Ein bihar nuen, zerin, blokin hartu, ehun bider “montaña”, “montaña”, “montaña”, “montaña”, “montaña”... [...], ta ematen nion ta “bueno, vale.” Ta hura kastigo. Ta gero, eskolan, denak itxera ta ez banakin leziyuak jakin, “hoy te vas a quedar a estudiar”. Denak etxera ta los, “el pelotón de los torpes”, “yo el primero”, han, “a estudiar lecciones”. Bi orduan, igual. Bestek bost terditan itxera ta ni zazpi terditan. Benga, leziyok hartu ta benga, ta benga, ta benga...

-Ta kastigatzen zuten, belauniko jarrita ta...

-Ez, ez, ez. Hori ez. Hori ez zen.

-Ta kaskarrekoak eman ere ez?

-Orduak han eduki bai. Eta esaten dizut, “a repetir cien veces la palabra montaña, o el tren, o la casa o lo que sea”. Ehun aldiz eskribitzera.

-Erdaraz ikasten zenuten? Ikasi, erdaraz?

-Bai. Bai. Bai. Orduan euskara... Bazakiten haiek euskeraz, biño beti, klaro, jende asko zen ez zakittenak erdera, euskeraz. Beti erderaz.

5.5. Eskola eta umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/008
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:21:41. **Bukatu**: 00:24:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: La Sallera joan aurretik, Hondarribian ibili zen maistra batekin, portuan. Neskak eta mutilak aparte, baita jolasteko ere. Balo gutxi zeuden. Trapu zaharrekin pilotak egiten.

Transkripzioa

-Ta zu, aurretik, La Sallen ibili aurretik, ez zinen ibili Hondarribian eskolan, umetan?

- Bai. Ibili nitzen. Ibili nitzen maestra batekin, urte batzutan. Nituela zazpi urte o zortzi urte o hola. Zertik gero ibili nitzen bost urtian Irunen. Hamabi urte arte.

-Maestra horrek ze ematen zun, eskola partikularra ala...

-Bai, bai. Partikularra ematen zuen.

-Bere etxian?

-Ez, zuen alkatua lokal bat. Ta jendia juaten zan, baserritatik etortzen zan jendia asko. Zan hori moja bat, han, izan zen mojan kolegiyotan, juan zen moja, ta gero ez dakit zerta etorri zen bueltan, ta hola, eta bazakiyen bastante, eta in zen, jarri zun eskola.

-Nola zun izena maistra horrek?

-...

-Ta ze tokitan zen lokal hori?

-Portun. “En la calle San Pedro”.

-Ta neskak eta mutillak elkarrekin?

-Bai, bai. Bueno, neskak ez zen orduan, gurekin.

-Ez?

-Ez. Mutillak bakarrik. Neskak ez zen aleik’e. Ordun zan “chicos con chicos y chicas con chicas”.

-Aparte?

-Bai.
 -Jolasteko ere aparte, ala jolasak elkarrekin?
 -Baita're, baita're, baita're, baita're. Neskak neskeakin ta mutillak mutillekin. Zan...
 -Tan jolasak diferentia?
 -Bai, klaro. Guk, guria zan "más salvaje". Guria zan, zera, al potu-potua, ostiko jo ta potua bota ta bat joan behar zuen billa, ta bestiak eskapo gordetzen ziren, ta gero denak "uno a uno" billatzera, hala ibilli behar zuen, ta neskak ibiltzen ziren al kuku, hola jarri ta beste... soka saltuan, ta beste, beste jokua zen.
 -Zuek baloiakin?
 -Gu baloiakin gehio.
 -Ba ziren baloiak lehen?
 -Gutxi. Nik banuen bat. Biñon baloiak gutxi ziren. Gutxi! Joe! Oso gutxi.
 -Zuek ibiltzen ziñeten iten, baloiak iten edo...
 -Onbre, baita're! Trapo zaharrak amari kendu ta hartzen genuen ta itten genuen pelota bat. Hari atera tirak, egin pelotak, ta gero amari kentzen nion nik holako orratz haundi bat, soka mehe bat pasa, listaiya izena zuen horrek, sokak, listariya. Hura pasa ta josi, hola, pelota bat. Ta geo berriz gaintik beste illera, benga, ta benga, ta benga, ta benga, beste pillota haundiyagoa, hola, berriz josi dena, orratzakin. Ta geo berriz, benga, gehiyo, ta gehiyo, ta geldittuko [...] hola, pillota bat. Hua josi, fuerte, fuerte, ta harekin ibiltzen giñen baloika. Ondo!

5.6. Gerra hasi zenean, jan falta

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/011
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:30:10. **Bukatu**: 00:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, janik ez zen. Anaia zaharrena Loiolan zegoen soldadu, baina gorriekin joan beharrean bestaldera pasatu zen, erreketeen aldera. Hark eramaten zien janaria: esnea, irina... Ogi falta.

Transkripzioa

-Eta problemarik bai, jana ta lortzeko?
 -Ez zen janarik. Ez zen janarik deus ere. Nere anaiak, zaharranak, zittuen hogeita bi urte orduan. Ta claro, hura zen lehenbixikua hemen, gorriakin, zergatik nere anaia zen, tokatzen zion jutia "a la mili", ta zen Loiolan, gorriakin zen hor. Ta klaro, gorriyak alde in zutenian hemendik nere anaiak ez zuen juan nahi gorriakin hara. Bazakiyen hemen ziela bestiak, "los blancos", zera, Franco ta kuadrilla, reketiak eta hoiek hemen ziren, ta nere anaia hara juan biharrian eurekin, in zen honea etorri. Pasa zun frentia, hitz einta, zeatik nere Anaya eon zan "vestido de", jantzi zan "de requeté". Ordun zen reketia hemen asko, eta horrek ekartzen zigun jana, denatatik. Dendak ziren atia denak hautsita, sakeatua denak, biño beti eoten zen zerbait jateko, lata o hau o hori, eta juten zan'e bai baserritara, eta hango gizona ezagunak eta hola, eta esaten, bueno, behiak bazittuen,

etxian, ta esaten, bueno, gu txikiyak, nik zortzi urte nittuen orduan, ta Mertxek izango zittuen sei edo hola, eta beste anaiak ere gaztiak ziren, ta behiakeri esnia, ta igual ematen zioten bi botila esne o, orduan baziren botilla haundi batzuek, pitxer erdiko botillak ziren, izena zuten, bi litro ta gehio bazuten botillak; ekartzen zuen esnia horrek, anaia horrek, hor barrena ibiltzen zen, zertik ibiltzen zen “vestido de requeté”, ta bazuten, bazuen kotxiak eta dena baziren orduan, denak zien herrikuak, biñon denak ziren rekisatuak... Ta ekartzen zun esnia, ekartzen zuen iriña, talua itteko, arto iriña, taluak eiteko, ta itten genun, amak itten zuen taluak, ta esnia, eta gero zerbaitte, txerriya hilla o txokorra hiltzen dutela, jateko, baserriyan, handik ematen zioten puska bat, eta hola. Jateko sortzen genun hola, biño ez, nahi genuna ez. Lata asko jaten zen, lata asko zen, atun lata zen asko.

-Ahal zen bezela, orduan.

-Bai. Ahal zen bezela.

-Ogiya ere bai, ogiya ez zen egiten zertik ez zen iriñarik eta ez zen, ez zen posible! Ta ogiya ekartzen zuen, pues igual panadero batek itten zion hamar ogi, eta handik ogi bat, militariak iten zuten ogiya eudentzako, handik ere atetzen zuen txusko bat o beste, ta ekartzen zuen etxea, biñon nahi genunik, jana, ez. Orduan jana triste zan.

5.7. Labaderoan kantari

- **Hizlaria(k):** Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-050/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:48:21. **Bukatu:** 00:50:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Lekua hartzera, goizean goiz. Kantari egoten ziren, elizako kantuak eta denetik. "Markesaren alaba". Borrokak ere izaten ziren labaderoan.

Transkripzioa

-Ta hemen, labadero bat ere bazen...

-Bazen, hor goian, horrara juaten giñen arropa garbitzera. Bai. Juaten ziren goizian goiz, lekua hartzera, zertik jende asko faten zen, ta jende asko juaten zen lekua hartzera. Biñon, hainbesteko ordutan hor, igual zazpitan ura botako zuten, biñon igual seitakoz listo han egon. Bai.

-Ta txanda hartu ta “hurrengua ni” ta...

-Bai. Ta han ibiltzen zien, ibiltzen giñen kantarika ta dena, denak kanta klase guziyak in ta horrela.

-Bai? Ze kanta?

-Oi, denbo bateko kanta ibiltzen giñen kantarika! Hor, labaderu hortan? Jesus Maria! Horrek jakin baluke kontu denak...

-Ta ze kantatzen zenuten, elizako kanta?

-Orduan asko. Asko. Elizako kanta asko kantatzen zigun, bai.

-Ta bestelakuak ere bai?

-Bai. Ta denatikan. Denatikan.

-Bertso zaharrak eta?

-Ez horrela ez. Bertso zaharrak ez. Hemen lehengo txandan baziren, bai, hemen bertsuak, bi, neskak ta mutillak ta esan zuten oso polita zela. Ni

itxera etorri ta ez nuen aittu, behintzat. Euskara ez dut ondo entenditzen, beste euskara hori. Euskara, gu, kastillanoz ez dakigu. Erdipurdi. Biñon euskara, gure euskara, oso diferentia omen da, ta telefonotikan norbaitek deitzen badu, ez dakit, neskakentzat, illobantzat, esaten diot: “Oye, por favor, habla en castellano porque no te entiendo”. Askotan esaten diot.

-A bai?

-Bai.

-Ta zuk, “markesaren alaba” ta...

-A! Kanta horiyek! Horiyek! Horiyek! Jesus Maria! Askotan, askotan kantatzen [ziogun]. Kanta politak ziren, e! Orduan! Bai. Ahantziyak. Uan ya ez diu kantatzen.

-Ta “Boga-boga mariñela” ta holakuak?

-Bai, bai, bai, bai. Sobre todo bodatan-ta, badakizu, pixka bat jan ta edan ta kantarika.

-Baiña labaderuan ere bai.

-Ui! Labaderuan? Iñor ez zen egoten hizketan, denak kantari ibiltzen ziren. Gehienetan kantarika.

-Orduan giro politta zen han...

-Bai, bai. Batzutan! Beste batzutan ez dakit zein zela ta “hi miño lehen eorri nan ni honara!” ta “aska hau niri tokatzen zian!” ta han badakizu. Zera ta.

-Burruka pixkat ere batzutan...

-Bai, bai, bai.

5.8. Jaunartzeko opariak

- **Hizlaria(k)**: Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/020
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:52:42. **Bukatu**: 00:54:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
Ohiturak eta bizimodua
- **Laburpena**: Jaunartzea egitean bazkaria etxean. Tarta polita egin zioten. Meza liburua oparitu zion izebak; Jaunartze Txikia egin zuenean, bi San Marcos opila oparitu zizkion, baten lekuan.

Transkripzioa

-Eta Jaunartzia in zenunian, gero iten zan ospakizunik, bazkaririk, bazkari espezialik?

-Ez... Itxian iten genun, orduan? Jesus! Oillaskon bat edo oillon bat edo saltsan egin ta gero, hori bai, tarte oroitzen naiz, tarta bat oso pollita, redonduan, ta xago bat, xago bat eskin batian ta bestian ez dakit zer zen, pastelazkua, oso gauz pollita zen! Eta tia Sebastianari bidali zuen zera, beste bat. Tia Sebastiana, gizon hau zan Fermin, attan anaia. Benardinon atta, ama, bueno, haiki. Eta haiei ez dakit zer zen... misal bat, misal bat, txol relijiosuak ziren ta, zera, pastela, tarta, biñon horrela, librua irekiya, ebanjelioa baziren bezela, horrela, oso gauz pollita hareri, beste iñori ez. Attona eta osaba Elias ta tia Zelixa itxera etorri ziren ta... Hori bakarra oroitzen naiz. Ez naiz geyo oroitzen. Ta komuniyo txikiya in nuenian, pues, nere maidiya zen ba, zera, tia Zelixa hori, eta klaro, zera bezela, San...

Nola da? Tartako eguna... A bai! San Markos! San Markos egunian nere urteko tarta, ta gañera eman bihar nion berari, eta hartzen zin puska haundi bat, laurden bat beudentzat ta beste hiru laurdenak itxera. Eta egun hartan, urte hartan ein zittuen bi. Bigarrena oso ederra ta izan bihar zuen... Ni esaten jo, aurten bi tarta, klaro, nere komuniyua zelako, regalua hura izango zen. Komunio ttikiya. Ez naiz oroitzen nere komuniyo ttikiya non izandu genuen ere.

5.9. Portuko eskolan, euskaraz

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/006
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:14:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Portuko eskolan ibili zen, goiko aldean. Behean atuna garbitzen egoten ziren, benta zelako hura. Benta berria egin zuten gero, eta eskola beheko aldean jarri zuten. Etxaniz zen maisua, donostiarra; euskaraz ikasi zuen. Ez zen asko joaten, beti lanpetuta.

Transkripzioa

-Bueno, zu lehenengo eskolan, nungo eskolan ibili zifien?

-nun?

-Bai. Portuan bazen eskola bat...

-Portuan bai. Bakizu hemen nola den Itsas Etxia? Bai, hau. Orduan zen, sartu bettik ta "derecha izquierda", zera, bi eskol ziren. Biño eskola, gu ibiltzen giñena, bestia goian zen eskola, e, bi leku ziren, hau hemen ta bestia hemengo aldian, bi leku ziren. Biñon gu goizetan juten giñenian, zeara, eskolara juaki, ta bihian, atuna garbitzen aitzen zien, atuna, zera, lehenengo, bueno, arraiak, dena atunak hor. Benta zen orduan hor. Beste lekuri ez zen. Benta.

-Eskola azpiyan?

-Eskola azpiyan. Eta ni, gu, juaten giñen gotti. Eskillerak igo ta gora. Eta gero, noizbait, jarri zituzten, bueno, gero, denbora aurrera, in zuten benta bat hor, benta berri bat ein zuten, eta gero, benta, eskolan, zein, bihi hartan, dena garbittu ta jarrita, in zittuzten eskolak jarri. Ta bentak in zittuzten beste lekuan jarri. Bai?

-Eta eskola hartan, zuek zer zenuten, maisua ala maistra?

-Maisua, maisua. Donostiar bat. Etxaniz.

-Etxaniz?

-Bai.

-Ta horrekin euskeraz? Euskaraz iten zenuten?

-Castillanoz ez degu ikasi-ta! Euskeraz izango da...

-Zuek eskolan, ordun, euskaraz...

-Dena euskeraz. Hemen ez zen kastellanorik, ordun.

-Eta eskolan ere ez zen erdaraz ezer'e?

-Ez, ez, ezer'e, ezer'e. Hemen giñen gu ordun gu, ordun, esaten zuten bost milla persona giñela, o sei. "Lo más, lo más" sei, esaten zuten. Ta guk ez dugu mintzatu zera...

-Dana euskeraz.
 -Dena euskeraz. Dena. Itxian ta kanpua ta dena euskeraz.
 -Ta eskola zenbat urtekin hasten zinen?
 -Hori ez dizut esango. Gazte xamarra. Gaztiak. Uan bezala ttikiyak ez, biñon...
 -Sei bat urtekin, igual?
 -Bai, zerbait hola. Zazpi urte o hola. Bai.
 -Tan han neskak eta mutillak elkarrekin ala aparte?
 -Lehemixiko uste dut ibiltzen giñela, ttikiyak giñela, zea, elkarrekin. Gero pixkat haunditzean apartatu, baiñon bai, bai.
 -Ta eskola ze ikasten zenuten?
 -a,e,i,o,u. Holako gauzak. Sumar pixkat eta, restar pixkat eta, holako gauzak, zea, asko ez deu ikasi, baño! Ez baigea ibili!
 -Zu askotan ez zinen fater, orduan...
 -Ta ni bezela...
 -Beti bazen lana...
 -Bai, biñon ni bezela bazian ez zienak fater asko, e! Eskapo iten zutenak. Bai.
 -Zuk eskapo iten zenun?
 -Eskapo ez dakit, ingo nuen akaso, biñon ez, nik lanian asko ibiltzen nitzen, zean, ta gero berandu juten nitzen igual ta, bai. Egingo nuen, nik ere...
 ~...
 -Zuk etxian lan asko zenun?
 -Bai, bai. Nahikua. Zazpi anai giñen!
 -Klaro, ta zu zaharrena.
 -Ni zaharrena.

5.10. Eskolako giroa

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/007
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:14:32. **Bukatu:** 00:16:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Mahaietan binaka eserita. Tinta erabiltzen zuten. Batak zituzten. Zigorak: erregelarekin jotzen zieten esku puntetan. Euskalduna zen maisua.

Transkripzioa

-Ta eskola zenbat, orduan, zenbat zeundeten klasian? Edade diferentetakuak batera?
 -Bai. [...] hoietakuak. Bi, mahaia batian bi giñen beti. Mahai asko ziren, denak biñaka giñen, bai.
 -Ta tinta edo ze erabiltzen zenuten?
 -Tinta, bai, tinta.
 -Tinta?
 -Tinta, bai. Aurreko aldia bazien zea ttiki batzuk eta, bai.
 -Eta zuek, jantzi, batarik edo erabiltzen zenuten?
 -Baita're, bai, ibiltzen genuen, bai, batak ibiltzen genittun, bai, bai. Batzutan bai, bestetan ez. Biñon batak ibiltzen genitun, bai. Bai. Gero gehiogo. Berandura gehiogo. Orduan gu gaxtik giñela, bestela, arropak,

geude arropak, batik gabe. Biño gero ibiltzen genitun bata batzuk ere bai.
 -Ta maisu hori, Etxaniz, zer zan oso gogorra ala...
 -Zerbait gaixki itten bagenuen, jartu behar zenuen hola, potto hola, ta
 reglakin ematen ziguten ederrak. Hola, hola jarri...
 -Bai?
 -Bai. Bai.
 -Ordun bildurrez eongo ziñeten?
 -Euskaldun haundiya zen hura, e! Euskalduna. Bai, beldurra bai, bai, biñon
 beti bazen, nola asko giñen, beti jotzen zittuen bat o beste o beste, bai.
 -Ta belauniko jarri lurrian?
 -Ez. Belauniko ez. Ez. Belauniko ez, ez. Ez.
 -Ta beti biurriyak eongo zian batzuk, bestiak baiño bihurriaguak zienak, eta
 haiek...
 -Klaro, klaro, klaro. Alde guzitan bezela.
 -Esan dezu euskalduna zela. Zuek kantatu eta, eskolan, iten zenuten?
 Euskerazko kanturik? Euskal kanturik?
 -Ez, ez. Ez genun itten, ez. Ez. Kantatu ez.
 -Gehio zen leitu, ta numeruak, ta...
 -Pizarra haundi batea jua ta zerbaitte eskribittu ta holako gauzak.

5.11. Dotrina eta mezak

- **Hizlaria(k)**: Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-069/008
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:16:34. **Bukatu**: 00:19:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Dotrina etxean ikasten zuten. Elizan ere bai, apaizarekin.
 Dotrina ikasi behar zen Jaunartzea egiteko. Don Migel. Elizara umetatik.
 Arratsaldetan bezperak izaten ziren. Luistarren kongregazioa.

Transkripzioa

-Ta dotriñara ere bai...
 -A, bai, dotrina bai, bai, bai.
 -Hori nun izaten zen?
 -Dotrina itten genun itxian ikasi. Bo, bazien itxiak ikast..., pagatuta ikasten
 ibiltzen zienak, eta bestela elizara joaten giñen, gero apaizak hartzen
 zigun, elizara joaten giñenian, goizian, hamaiketan ta hola, ta apaizak
 hartzen zigun zea...
 -Leziyua?
 -Bai.
 -Ta inportantia zen orduan dotrina jakittia...
 -Bai, bai. Denak ikasten genun orduan, e! Denak, orduan. Ez zen iñorr'e
 geatzen. Denak ikasten genun dotrina.
 -Dotrina ikasi gabe e zzen posible jaunartzia eitia?
 -A, bai, bai. Hori bai. Bai, bai.
 -Komuniyua iteko...
 -Komuniyua? Lehemixiko klaro, lehemixiko in bihar duzu /inbihauzu/
 komuniyua. Komuniyo haundiya. Lehemixiko iten da komuniyo ttikiya ta
 gero haundiya. Bai.

-Ta inporta, e, dotriña jakin beharra zegoen hori iteko...

-Bai, bai, bai...

-Ta, apaiza, erakusten zuna, dotrina hartzen zuna, zein, nor zen?

-Don Migel. Gizon haundi bat.

-Hoi ze, apaiza.

-Don Migel, ze...

-Ez, ez naiz oroitzen apellidua. Ez, apellidua ez.

-Ayestaran...

-Igual da.

- Ta Don Migel hori nolakua zen? Ondo portatzen zen zuekin, ala gogorra zen?

-Ez. Ondo portatzen zen. Bai. Bai.

-Han ez zuten, apaizak-eta ez zuten errieta itten eta ez zuten jotzen?

-Ez, ez, ez. Jo ta hori behin ez. Ez.

-Ta zuek elizara ume-umetatik joango ziñeten asko...

-Asko, bai, bai. Ta arratsaldian, hirutan ta, juaten giñen, bezperak, bezperak bakizu zer dien? Bisperak? E...

-Errosayua ta...

-Arratsaldian ematen zuten bezperak, zea, elizan, ta jende asko faten zen, gure denboran, arratsaldian, hiruak, hiru terdittan, ta juten giñen denak elizara, denbo haietan.

-Baiña ze izaten zen hori, arratsaldero? Arratsaldero, arratsaldero?

-Ez, ez, ez. [igan] jaietan.

-Jaietan.

-Jaietan, jaietan.

-Eta jaietan, goizian ere bai, orduan, goiz eta arratsalde, batzutan?

-Goizian San Luis [...] giñen. San Luisko mutillak. San Luis...

-Kongregaziyua?

-Kongregaziyua. Bai.

-Eta hori zer zen, illian behin? Kongregaziyua?

-Bai, bai.

-Baiña hori mutikotan? Ez. Gero izango zen...

-Bai. Haundi, pixkat koxkortzera. Bai. Ttikiyak giñala ez. Gero, ez dakit ba, akaso dozena bat urte, ez dakit ba, hamaika urtetik o hola, o... Bai. Komuniyo haundiya in ta gero izango da. Handik, ez naiz hori ondo oroitzen.

5.12. Lanpernatako pasadizoa

- **Hizlaria(k):** Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-069/021
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:44:09. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- **Laburpena:** Lapak eta lanpernak, arrokatan. Anekdotak: zakurrek jan zizkieten ogitartekoak eta elastikoa apurtu.

Transkripzioa

-Ta lapa billa-ta zu ibili izan zea sekula?

-Zein?

-Lapa, lapa billa ta...

-A, bai! Gutxi fan naiz, biño ibilli naiz, bai. Ta lanpernatan'e bai.

-A, bai?

-Bai.

-Arrokatan?

-Bai. Egun batian jun giñen hemendik, zean, iya Pasaiko... iya Pasaiko mugaraiño ya, zea, uaindik bizi da gizona, juan, uain operatu dute, fan den astian o, bihotzatik, Frantziyan. Juan giñen biyek. Nik eman nuen zea, holako txusko bat, zean tortillakin, ta hark eman zuen beste txusko bat haragiyakin. Ta jun giñen hara ta arrokatan sartzeko denboran sumatzen genittuen zakurrak sangaka, zakurrak sangaka sumatzen genittuen, ta sartzeko, han, in genuen hemezortzi kilo, ez dakit, hoge kilo lanperna. Ta xesto haundi bat bagenuen, ta igo, gero igo bihar zen Jaixkibelko malda, zera hori, e! Mendiya igo bihar zen goitti. Eta lanperna bana hartu aban, lanperna bana, eta hura, hura txupa-txupatzen txandaka gotti igo giñen. A! esango dizut /esangoizut/, hasi giñen, zea, billatzen gure janak, ta elastikua're bai, elastikua han genuen, eta besti horrek sartu zuen elastiko batian zera, jana. Ta elastikua lajatu genuen han, ta neria ere bai, ta jun giñen lanpernetara, ta handik gero, denborakin, zea, hemezortzi kilo lanperna o hoge kilo ez da erraxa bat'e egitten, e!

-Ez!

-Eta hartu genittugun xestuak, bueno, zea, allegatu giñen xestukin, betiak, ta allegatu giñenian falta zien zeak, elastikuak-eta falta. "Ui! Ez tiuk hemen elastikuak. Ui! Nun dire? Ui! Ui! Zakurrak eondu dituk hemen zangaka... la... Ui..." Ta hasi giñen billatzen, nik esan ziot "hi hua hortikan ta ni juango nak hemendik". Hasi giñen billatzen eta neunik, nik harrapatu nittuen. "Gabino, hemen ttuk hator, hator". Elastiko berri-berriya hemendikan dena txehetu, elastiko berriya, e! Loriya! Hemendik dena txehetu, eta zea, gure, hartu, bueno, esan genuen: "hok zakurrak in ttik, zakurrak" ta zakurrik ez zen orduan han, badakigu, ta biyek igo giñen gora, handik etorri giñen kantina, hor [...] kantina bada, hor jan genuen, ez dakit ze lata zan, latak jan genittuen, txardiña edo antxua edo... Ez naiz oroitzen, biyek, eta ardo pixkat ean ta itxera gure zea harekin. Holako gauzak.

-Ta ez zian agertu?

-Keba! Zakurrak han besten batekin hurbillian zien, ta zakurrak usaia sumatu zutenian, jan in ziguten. Bai. Bai. Ta uaindik bizi da gizon hori!

-Gabino?

5.13. Eskolan mojekin eta Biterin

- **Hizlaria(k)**: Gonzalez Oiarbide, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-077/006
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:10:21. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola. Gurutzeko mojetan ibili zen lehenengo, eta gero, ama Biteriko eskola garbitzen hasi zenean, han hasi ziren eskolan. Senide bat Segurara joan zen, amonarekin bizitzera. Oso bihurria zen. Kaletarren artean asko egiten zuten erdaraz, eta eskolan dena.

Transkripzioa

-Lehemixi faten giñen monjatara, monja [...], Hijas de la Cruz. Lehenbizi hor, faten giñen. Ta gero, oroitzen naiz, ayuntamientuak eman zion lana gure amari, Biteriko eskola, Biteri badakizu nun den, eskola Biteri, bueno: eskola haiek garbitzeko. Hartu zioten eskola hoiek garbitzeko eta gure ama, pues, bizittu da beti, pues horrekin, eskolakin.

-Ta orduan aldatu in ziñeten, mojetatik hara, zuek?

-Gu? Aldatu. Klaro, ama han ezkerro, dena! Pues hiruak! Hiru: Juanito, Ramon, yo... Ahaztutzen da. Hiruak. Hiruak ta alaba: Lau, lau, lau. Zergatik gero laugarren hori fan zen amonana, Segurara. Denbora bastante in zuen. Urtiak in zuen amonakin hura. Biño etorri zen ta ezkondu zen ta ya, uain hilla da.

-Ta eskolara, orduan, lehelengo, Hijas de la Cruz, mojetara.

-Gu de la Cruz.

-Ta zer moduz han?

-Ondo. Ttikiyak giñen ta libre. Biño ni txoil gaixtua nintzen.

-Bai?

-Bai. Zeatik, esaten zien, oroitzen naiz monja, Sor Maria, gaixua, que Dios la tenga en la Gloria. Dientes postizos zuen. Eta hainbeste eju iten zian: "Carmen, que me vas a matar un día!" Beti esaten zin, gaixua! Eta...

-Hortzak eroitzen!

-Hori oroitzen naiz beti! Gaixua, Sor Maria.

-Ta ze iten zenun ba zuk?

-Gaixtua nintzen ta trabiesa. Muy trabiesa. Ze nahi zu? Zortzi o beatzi o hamar urtekin ze nahi dezu izatia? Orduan dena libre zen ta korri hara ta korri honara ta... Gotti eliza garbitzera, kapilla garbitzera... "¡Castigau! ¡A limpiar la capilla, arriba!"

-A bai?

-A frotar. Frotatzera pasillo dena, iten genuen.

-Askotan eoten ziñen zu kastigatuta?

-U! Galdetu bihar, eta egiya da...

-Zuk erderaz iten... Umetan erderaz bazenekiye? Mojekin-eta, erderaz iten zenuten?

-Bai, bai, baita. Bai, bai. Nik gehiago in dut erdaraz, zergatik gure kalia ta lagunak eta denak giñen kalitarrak. Kalekuak.

-Bai. Ta han gehio erdaraz?

-Gutxi iten zen... Euskaraz itten ziren ba si, batzuek, familian nere amak, porejenplo, bere lagunak ondokuak, euskaldunak, biño gu gaztiak heldu giñen ya kastellanukin. Eta gero eskola ere bai, kastellanua zen.

-Biterikua ere bai?

-Biteri bai.

-Mojekin kastellanoz ta Biterin ere bai.

6. Baserria

6.1. Txerriei ematen zieten jana

- **Hizlaria(k)**: Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-018/010
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:22:54. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Esnea saltzera joatean, batzuek txerri-jana hartzen zuten trukean, baina beraiek ez. Beraiek txerriei zer ematen zieten jaten azaltzen du. Anbulu-porruari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Txerri-jana hartzen zenuten?

-Ez, ez, ez. Ez genun... batzuek hori're itten zuten biño gu ez giñen alletu hortara. Ez genun zerriyik asko. Garai batian, ni oso ttikiya nintzenin bai. Zerrikumiak-eta itten genittun. Eitten genittun. Biño bestela, beste baserrikuk artua ta anbulu-porrua, ez dakit badakizun zer den; mendiyan atetzen da holako berde bat. Ni asko billua nago, gue izebantzako, osea, zakukin fan ta bete, ta harek kaldera batian eosi, sua izaten genun bajua holakua, leatza badakizu, zintzillik jartzeko baldia, sukaldian, han zintzilik jarri ta eosi han, dena, ta zerriyantzako itten genun jatekua. Bai. Bai.

-Anbulu...

-Anbulu-porrua. Hori uan ere urtero atetzen da. Uan ya ai da gordetzen. Holako tontor bat itten du, biño atetzen denian zerian, primaberan, guri-guriya izaten da, azpiya hola txuri, porru bat bezala. [...], anbulu-porrua, tak! Hautsi, tira ta hautsi ta holako gauzak asko ekarriya nago ni mutil kozkorretan.

-Ta anbulu-porruak nun eoten zian?

-Hemen, mendiyan atetzen da hori. Mendiyan atetzen da hori. Bai. Uan'e atetzen da, akortzen naiz, bai, zenbat billua nintzen ni, bai.

6.2. Gurdi motak eta haien erabilerak

- **Hizlaria(k):** Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-018/011
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Etxe inguruko larrean behien azpietarako belarra eta garoa biltzen zuten; gurdia eramaten zuten hartarako. Gurdi motei buruz eta haien zatiei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Ta menditik beste zerbait ekartzen zenuten? Iratzia ekarriko zenuten...

-Bai, bueno, mendi-mendira fan gabe, gu hemen, larriak bazien, hemen golfeko eremua, eremua esaten dizut finka haundiya zen ta hemen bertan larriak bazien ta hortik biltzen genun garua ta azpitakua ta belarra-ta, bai.

-Ze juten ziñeten gurdiyak?

-A bai, klaro, ta gurdiya ta uztarritu behiak o iriyak ta klaro, ez zagon besterik! Besteik ez zeon, ta gaiñea, gurdiya, gomazkuak ez, beste llantazko burnizko zea hoik. Bai.

-Gurdiyak zenbat klase zeuden? Ze...

-Bueno, bat izaten zen hola radiyukin bezela, karrua deitzen zion, zea, radiyukin bezela, karrua. Gurdiya, berriz, izaten zen hola egurrezko llanta, burni batekin, gurdiya. Harei gurdiya deitzen zion. Karrua, berriz, hondarra-

ta ibiltzeko, hola, radio batzuk, radio batzukin. Bai.
 -Eta gurdiyan zatiyak? Partiak? Egitura...
 -Eurra, eurrakin.
 -Kurtetxia?
 -Kurtitxia! Kurtitxia, bakizu zuk, kurtitxia. Gue aita zenak berak itten zun.
 -A bai?
 -Bai, bai. Berak itten zun, erdi arotzian nola aitzen zen, hemen bagenun, zea, txabola bat, han bazittun erramientak eta berak itten zun kurtitxia, berak itten zunez, bai.
 -Ta ze egurrakin iten zun?
 -Haritzakin, general. Bai. Bai.
 -Ta ze gehio izaten du gurdiyak?
 -Bueno, badu ruedak, behintzat, ardatza, bi erruedak ta ardatza ta geo dena, txiñela ta hoi dena, dena egurra, dena egurrakin. Bai.
 -Ta pertika?
 -Pertika haritz bat, hola, basuan eskojitzen zen, xuxen bat, harekin itten zen pertika. Bai.
 -Ta erruedak, gurpillen gaiñian...
 -Bai. Falka. Falka. Egurrezko falka bat.
 -Falka...
 -Falka bat jo ruedan gaiñian in gabe kargatzian, ruedak jo gabe... Bai.
 -Eta oholak jartzeko, oholak ez erortzeko?
 -Bai. Baita ere, zeak, bai egurrezkuak jeneralian, egurrezko...
 -Nola, taketak ala?
 -Taketak! Taketak! Bai. Taketak. Bai. Bai. Bai.
 -Ta belarreketarako erabiltzen zen gurdiyai astua edo esaten zenioten? Gurdiyan gaiñian jartzen zena belarra gurpilletara ez...
 -Bueno, falkak, falkak, ziren...
 -A, falkak ziren...
 -Hoik falkak ziren, klaro, falka itten zen bi trabesaiñokin, gero hola buelta pixka batekin, egurrakin, ruedak libratzeko.

6.3. Asto-gurdiaren sistema

- **Hizlaria(k)**: Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-018/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:28:01. **Bukatu**: 00:29:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: Asto-gurdiarekin moldatzen ziren beraiek etxean. Astoari bi aldeetan jartzen zitzaizkion saskiak eta nola lotzen zizkioten azaltzen du. Sokak aziendaren larruarekin egiten ziren; aita egiten zituen soka haiek.

Transkripzioa

-Orduan astuakin arreglatzen ziñeten?
 -Bai, gu astuakin arreglatzen giñen.
 -Ta astuak eukitzen ditun saki, jartzen zaion hori nola...
 -Bueno, hori bazan hemen Anakan xestuegillia deitzen zen, harrek eitten zittuen, hola, xestu zea batzuk, harek eitten zun xestua, harrei enkargatzen genion xestua. Bai.

-Zumitzezkua?

-Zumitzakin, bai. Zumitzakin, dena bakizu, uain xestuak dien bezela itten zuen, astuan tipuan, bai.

-Zer zen, biyak bat?

-Bai. Bi aldetea. Bi aldetan marmitak sartzeko, hor, ta bi aldetan. Bi aldetan.

-Ta hori lotzeko ze erabiltzen zen?

-Bai, pasta, pasta, astuari jartzen genion pasta bat, ta geo hori gañian, zea, pasta haren gañian hori ta zintoz pasa hemen azpitik, hori, pasta hori maitu gabe, astuari... Bai.

-Eta soka hori zer zan? Narruzkua ala...

-Ez, bueno, bai, larruzkua're bai, larruzkua're garai batian iriyak'e, uan sokakin uztarten ttuzte; orduan, heria deitzen zen. Larrua, aziendan larruakin eitten zen: heria. Juntak in, aitta, neria aitzen zen hoiek itten, ta kurteria ta hoik denak larruakin, aziendan larruakin itten zien.

-Ta zure aita eiten zun hori, e?

-Hoy, hedia eta, etxian, zen moztu ta eitten zun. Bai. Bai.

-A... Ze, lehenengo lehortzen...

-Bai, lehemixiko lehortu, ondo zabaldu ta lehortuta jarri ta geo regla batekin moztu, hola, [...], ta geo alkarri [iatsi], junta in, hor.

-Eta illiak kendu?

-Bai, pixkat illiak kendu, pixkat, klaro, bai, bai. Illiak kendu, bai. Bai.

6.4. Jaizkibelera inaurkin bila

- **Hizlaria(k)**: Goikoetxea Berra, Joxe Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-065/007
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:15:11. **Bukatu**: 00:18:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Jaizkibelera joaten zen segarekin, inaurkina eta garoa ebakitzen. Gurdiarekin joaten zen. Egun guztiko lana zen. Zakotea. 200dik gora baserri zeuden. Kantinan gurdiak ilaran, eta denak barruan. Behien jatena. Plaiaundira joaten ziren belarretara, Irunera.

Transkripzioa

-Hemen, baserriko lanak behie azpian iteko ta...

-Klaro, mendira. Jaizkibelera. Segar bizkarrian hartu ta martxa, hamalau urtetako bidaltzen ziguten.

-Segar bizkarrian, ordun, Jaizkibelera, ta han nun, ze hartzen zenuten...

-Ui, zera, iñaurkiña're bai ta garua're bai ta danetik; segun, batzutan goian iñaurkiña, hor bihian, beriz, garua ta, zagona!

-Kantina inguru hortan?

-Bai... Aurreko! Pasaiko mugaiño joaten giñen. Pasaiko paretan kontrara iya gurdiya kargatzeko. Hango muga. Tokitan dago hemendik, e!

-Eta gurdiakin haraiño joateko...

-Bai. Hor bada, hor bide txarra da baiño, bai, bai. Kantinatik sartu, ordun ez zan bide hori, e!, ordun dana gurdi bidia zagon. Hor ibiltzen giñen.

-Lan gogorra izango zen hori...

-Bueno! Egun guziya, [...] ekartzeko.

-Ze eramaten zenuten etxetik, mokadun bat?

-Klaro. Zakotia deitzen genion guk, zakotiakin juaten giñan, [...].

-Ta zakotian zer?

-Ui! Tortillan bat edo, zer dakit ba, sardin zaharrak igual, negua baldin bazen, talo zahar bat, ta ogiya ta, zahato ardua.

-A, ardua...

-Ordun zahatua.

-Ta baserritarrak denak hara joaten zian...

-Bai. Jaizkibel dena iya garbitzen zen-ta orduan, sekatzen zen-ta! Ezin billatuik! Jende asko. Gero, aziendak zien hor, jan itten zuten ta, joe, gurdiyan biltzeko... Orduan hemen dena gurdi bidia baitzen! Zenbat... Hondarbiyan zenbat zien, berrehun ta zenbat baserri, denbo batian? Zer, denak [egualdi txarra bazagon, danak ebakitzea, gero honea ekartzeko]. Hola ibiltzen giñen. Ta geo polita zena, e, kantinako zea hortan, gurdiyak denak illeran, illunabarrian, denak kargatuak. Ta denak traguak ittera, kantinara. Dibersiyo bat zen hura, e! Gu gustura ibiltzen giñen! Sosik irabazten ezer ez, baiño,...

-Baiño lagun artia bai.

-Bai, bai. Hori polita zen, e!

-Ta behiek lana emango zuten-edo, jaten, jatena ta...

-Klaro! [...] bertan! Remolatxak diela ta belarrak-eta bildu, ta hemen, gañea, dena orduan... asko... Plaiaundira joaten giñen gu belarreta hemendik, e! Lehen esan nizun, noski. Ta attak neri, attakin goizin joana ebakitzera, berriz elkartu gera ta nik behiak lotu, gurdiya hartu, "bestaldian guardiak galdetzen baditek, hamalau urte dittukela". Zenbat izango nittun, hamabi urte ez nittun izango! Ta orduko nola jarriyak giñen gu! Mutil koxkorra [...].

-Hamabi urtekin zu bakarrik?

-Zer ba? Nik lotu behiak eta Irunera, kalle Fuenterrabian barrena gora.

-Belarretara?

-Bai. Belarra billa.

-Hemen inguruan ez zen nahikua?

-Bai zea, asko, behi asko zeuden han ta, danak, mutur guziyak, joe, bati bestiri ezin kendurik.

-Dena garbi-garbi.

-Bai, ondo! Uan bezela.

-Ta belarra, zuk orduan segan, hamabi urtekin...

-Dena! Dena! Ui, zer ba?

-Jo, ordun, [gaur] ezer ez nakin, baiño, attakin [ahaleg...] haren atzetik nik'e zerbatte, hola ikasi gendun.

6.5. Belar metak egiten; behien jatena

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Berra, Joxe Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-065/008
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:18:36. **Bukatu:** 00:21:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Erremolatxa eta arbia. Belar metak nola egin. Ziria ondo sartuz gero, ez dago hankarik jarri beharrik. Zakua jartzen zioten gainetik. Gaur egungo kontuak.

Transkripzioa

-Ta behientzat remolatxa...

-Ta arbiya-ta, gero belarra, belar ondua, negurako.

-Ta hemen bazen belar metarik?

-Bai, bai, itten nun, joe... Neonek itten nittuen azken aldera bai hamar meta, ederrak gañea!

-Hamar, e!

-Nik hemendik [...] baserri aurre hori dana nik ibiltzen nuen, ni hura [...] hura're bai, ta gero han kanposantu atzian'e itten nittun metak.

-Ta, nola, meta iteko, lehenengo...

-Ziriya sartu ondo.

-Ziriya? Ta ze egur?

-Ze egur? Alkazia-ta, hola, billatzen zena, alkazia onena.

-Ta gero hankak?

-Gero lau hanka jartzen genittun, baiño gero azkenian batere ez. Zulua in zeakin, taturua mouko zera batekin, ta asko sartu. Ta askoz hobeto egoten zen.

-Hankekin baiño hobeto, hola?

-Haiziakin, hanka berak meta [... itten]. Batek: "biaje ederra eman bihar dik, meta horrek!". Hari bota ez, biño guriak'e ez. Nik ikusi bainun nola iten zan ta: sartu ondo; ziri ona. Asiento earrin. Hola ibiltzen giñen.

-Ta belar meta iteko, gero gañian igotzen ziñeten?

-Bai, klaro!

-Bat gañian ta bestia behetik?

-Behetik bota. Sardiyakin, bai.

-Sardiakin?

-Hola, hola ibiltzen giñen.

-Ta gero? Gañian jartzen zenuten zerbait?

-Zakua. Ondo itxi ta geo gañetik zakua lau harrikin o lau egurkin, zintzillik, [...] gabe. Azkenekuak hemen nittun, bi meta haundi. Ta igande batian norbattek su eman. Oain dela urte gutxi, e!

-Su eman?

-Hoi ejuka, ni siestan ta meta erretzen. Meta erretzen?

-Uste genun itzaliko zala ta [berdiña ez itzali!]

-Ezin da itzali?

-Ezin da itzali. Geo pasatzen zen zera, Lezoko bat, hemen munizipal dagona. Hura baserritarra da, ta... "Ez da itzaliko! Hobe'zu hori bota! Bestela bestia erreko dizu!" Kauen diez! Harek Land Roverrakin sartu zan hemendik, lotu, harek bota. Ta kendu bestiai, bestela, ezpaitzen itzaltzen, itxiya ta sua dana. Hemen ibilli giñen, igande batian. Uan dela dozena bat urte edo. Zazpi urte bada nik utzi nittula. Jo zian, zea, perlesiya edo zera hori, tronbosis ta ordun kendu nittun danak. Geo ya jublatu gaiñez ta...

-Baiña, lehen, hamar meta. Hamar meta.

-Bai, bai, itten genittun!

-Ta arbiya ta remolatxa ta hori noiz ereiten zenuten?

-Hori udan [...]. Martxo-apirillian. Ta arbiya berandugo, abuztuan, arbiya irailan, San Lorenzotan, noiz da San Lorenzo? Abuztun [aurrenien], bai, abuztun, orduntxe, abuztun sasoi ona.

6.6. Txerria hiltzeko garaia

- **Hizlaria(k)**: Lekuona Igos, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia

- **Erref:** HON-069/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena:** Txerri bat hiltzen zuten urtero; urdaiazpikoa ez zen ondo egiten, itsasoko hezetasunarengatik.

Transkripzioa

-Ta txerria hiltzeko garaian, zeñek hiltzen zun?

-[...] saldu iten giñun, biñon bat, bat hiltzen genuen itxeko, ta zea, bat hiltzen genuen itxeko.

-Ta hortxe bertan hiltzen zenuten?

-Ta etxian bartan, bai. Ta gero, begenuen garaje, garajia o xaia esaten genion, bagenuen zea, jartzen genuen urdai axpikuak-eta zintzilik, biño ez zian egiten. Arra sortzen ziyoten. Urdaiari sortzen zion arra, ta esaten zuten hori zela itsasuak, itsasuakin, itsasuan salmurak o egitten zula. Bai.

-Hezetasuna, umedadia...

-Bai. Umedadia o zeak. Barren hoietan egiten da, biñon hemen beti hori esaten zuten. Ez zela egiten itsasuan salmura o zeak.

-Ta txerriya hil zeñek iten zun?

-Hemen gizon haundi batek hiltzen zuen. Gizon haundi bat bazen. Berak saltzen zuen, bazuen komestible bat, bera saltzen zuen txorixuak eta odolkiyak eta gauzak. Tife.

-Ta berak iten zitun odolkiyak, ala zuek etxian? Odolkiyak-eta zuek etxian iten zenituen?

-Bai. Uste dut egiten genula, bai. Egiten genula, bai, bai. Usted ut egitten genula, bai. Bai.

-Baiña, zuek txerria euki arren ta, arrantza zen zuen etxian bizimodua ateratzeko bidea...

-Bai. Arrantza. Gaztiak giñan, biñon... gaztiak giñela, orduan.

7. Aisia

7.1. Perretxiko bila joateko ohitura

- **Hizlaria(k):** Manterola Zabala, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-018/018
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:40:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Perretxiko bila joateko ohitura bazuen umetan. Onddo beltzak eta zuriak, gibelurdinak, ziza horiak... ekartzen zituzten. Itxura onena zeukaten perretxikoak saldu egiten zituzten.

Transkripzioa

-Eta perretxikotara juten ziñen zu?

-Bai, bai, bai. Hemen atetzen zien perretxikuak hemen, ohian, uain golfa den oihan hotan. Bua, gue ama, ni amakin, ni mutil koxkorra, amakin, xestua beteta ekartzen genun. Bai, bai.

-Ta ze ekartzen zenuten, onddoa?

-Ondduak, ondduak, bai.
 -Onddo beltzak?
 -Onddua beltza, hemen, [...]. Ta geo, gaztaiñetan, onddo txuria. Baiño hemen, haritza hotan, onddu beltza. Bai.
 -Eta beste perretxikorik hartzen zenuten?
 -Bai. Gibelurdiña, bakizu zer den? Ta xixa, hori batzuk izaten dia, hoik'e bai. Uain'e ni faten banaiz hoiek hartzen dittut /hartzeittut/, nik, uain, juan ezkerro. Bakarrik hanka dut gaizki, ta bestela, badut'e! gaur afiziyua'e!. Bai.
 -Ta zer, hori gero saltzeko izaten zen ala etxerako?
 -Bueno, ba itxerako ere bai, itxian'e jaten genun, ta saltzeko ere bai, biño, hola, pixkat itxura txarrekuak baldin bazian, haiek itxian jan, ta polittak baldin bazien, hola, haik saldu, dirua bihar zen ta!
 -Tortillan jateko ala bestela, bakarrik?
 -Baita, ez tortillan asko; rebueltuan'e bai, rebueltuan asko, bai.

7.2. Frontoi zaharrean pilotan

- **Hizlaria(k)**: Arbelaitz Arozena, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-021/012
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:23:31. **Bukatu**: 00:24:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Atano III. ikusi zuenekoa; hiru pilotariren kontra partida jokatu eta irabazi zuen. Pilotarien izenak. Frontoi zaharrean ibiltzen ziren pilotan, mutikotan.

Transkripzioa

-Ari ziñen esaten Atano hirugarrena...
 -A, hori, hori ikusi dutela frontoi hortan... Bo, frontoi zaharra zen.
 -Hirun kontra...
 -Hirun kontra irabazi zuen orduan.
 -Ta zer zien, hiru hoiek herrikuak?
 -Bat ez, bat Nafarroik etorriya zen, izena ere badakit harena: Gaztelurrutia. Gaztelurrutia. Ta beste bat Hondarribikua zen, Ventura. Eta bestia ez dakit Zoilo ez ote zan. Seguru ez dakit biño uste dut Zoilo. Bi Hondarribikuk zien ta bat Nafarra. Biño Nafarra bastante ona zen e!, Atzelari ona zen e! Ta ba... Harek hiru jartzen zien, bat iskin batian, bestia erdian ta bestia atzian; bat zokuan, zabalian, ta atzian. Pero nada...Eiten zun tanto nahi zun tokian. Ta geo, hola, jaitan ta etortzen zien. Ta geo gu han aritzen giñen /aitzen giñen/, mutil koskorak, beste afizioik ez, ordun ez zegon futbolik, ez ginen aritzen ordun futbolian; neri ez zin gustatzen futbola. Ez zin gustatzen zertik futbolian egur asko ematen da elkarrerri ta...
 -Ta pelotan zu ondo moldatzen ziñen?
 -Bueno, lagun artian bai biñon geo denborakin, hamasei urte arte ya, ikusi nuen pues hortatik ez nuela /enula/ deus'e itekorik, ez? Zertik hor dotiek behar die, lehenbixiko gauza behar da ya gorputza ta golpia, ta dena behar da.

7.3. Bidasoan arrantzan

- **Hizlaria(k):** Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-046/002
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:03:37. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Bidasoa ibaiko izokinak eta arrainak. Gainbehera nola etorri den. Batelarekin joaten zen arrantzara. Lupia. Arrantzarako aparejua. Beita bezala, erriko zizarea.

Transkripzioa

-Erriyuan bazen beste arrairik?

-Porejenplo, rio Bidasoan, esaten duzu? Bai! Hor hartzen zen ere bai, salmon. Eta gero, maria heldu dela, gottitzen, itsasotik, maria heldu da gotti, gotti, gotti, hor hartzen da arraia, klase guztiyak.

-Izokiña?

-Erlas, salmonetes, korrokones, denatik etortzen da arraia. Uain ez asko, zeatik dena, arraia da mermatua asko. Ein dire, ein ttuzte "muchos artes". Aparejoak...

-Pelajikoak ere bai...

-Pelajikos, zerrieki hoyekin, ta botatzen ttuzte, este, sariak eta hola, botatzen ttuzte, inten ttuzte, hartzen da arraia, hartu dute pilla bat. Ta uain arraia in da mermatu asko. Zeatik ein da abusatu arraiakin. Hil dute arrai pilla bat. Jateko, klaro, biño...

-Zu mutikua ziñela arrai asko zegon erriyuan?

-Bo! Askok! Askok. Denatik. Denatik. Arraia denatik. Ni juaten nitzen, uain dela berrotamar urte. Banuen batela, ta igandetan ta fiestatan juaten nitzen, [...] puntan, aeroportua den lekuan uain, horrea, bare puntan, hor atetzen genun arraia, balde baten erdiya beti arraiakin. Lupiya, lubina, uain lubina da pizifaktoria egiten da hori. Eta lubina hartzen genun asko ere bai. Aingira, xabalu... Xabaluak dire platuxak. Eta...

-Kañabelakin?

-E?

-Kañabelakin?

-Ez. Mar de fondo, o pesca de fondo. Dute beruna, ta hola hartu ta estilo oeste botatzen da fiii... Juten da aidian, beruna, ta muturrian dittu metro t'ardi o hola bi nylon, saliente, ta hoiek dute puntan amua jarrita. Ta beruna, pixu bastante duena, zertik hola hartuaz [xoko-xokotik] ta hola jotzen da, fiii... aidian, igual jotzen da zortzi metro, o hamar metro. Ta hura gero erortzen da uretara, ta joaten da lurra jo arte. Ta beruna geratzen da lurra jotzen, eta bi punta haiek, "de ochenta centimetros" o hola bat, eta bestia "de un metro". Biyek ez dire jartzen parian, bestela eitten dire nahasi ta hola. Bat beti izan bihar du luziagua, etortzen bada porejenplo arrai batek hartzen badu, bestia geldi zala libre, ta batek du metro bat luze ta bestiak otxenta o hola. Jana, betta. Betta izena da, betta da "carnada".

-Karnata ze...

-Guk jartzen genun beti, ta onana zen, "lombriz".

-Txitxaria?

-Bai. Xixaria "de ría", e!

-Errekako txitxaria diferentia da?

-Bai! Jendia horrekin joaten da, ta billatzen dutela esaten da, biño hor onena, onena, demostrau, "lombriz". Xixaria.

-Xixaria.
-Bai.
-Ta non egoten da?
-Hori Hondarbiyan zen pilla bat, Amuten, porejenplo. Eta beste erriyotan ere.

7.4. Hondarribiko zinema aretoak; orduko pelikulak

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzuaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/017
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:38:20. **Bukatu**: 00:41:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zinema aretorik ez zegoen umea zelarik, baina apaizek ematen zituzten pelikulak, igande arratsaldetan. Gero bi jarri zituzten: Marina eta Mirentxu. Zentsura. Debalde joaten ziren, aretoa aitarena zelako. Prezioa. Charlot eta Tarzan.

Transkripzioa

-Zinerik bazen?
-Ez. Ordun bazen hor zera bat, apaizak zittuzten, lokal bat, ta han ematen zuten zine, [...] izena zuen horrek. Ta hoi zen, apaiz batek zuen hori, eta harek ematen zuen, ematen zuen, itten zine, igandetan, arratsaldetan, eitten zuen zine bakarra. Ta gero, falangistak eondu zien leku hortan, hor jarri zuten, zine bat ein zuten, zeatik zen edifizio haundi bat, hori. Hori zen kasinua o hola, uste dut zela, lehena. Eta hor ein zuten zine bat. Eta gero, ein zuten beste gure itxe batian, attan itxe batian, horko portun, ein zuten barrena dena hustu, itxe haundiya zen, barrena dena hustu, ta ein zuten tribuna, bueno, zera, sillak jartzeko ta dena, hor beste zine bat. Gero eondu ziren bi zine.
-Nola zuen izena zine horrek?
-“Salón cine Marina”.
-Ta bestiak?
-Mirentxu.
-Mirentxu?
-Bai. Biño guriak izena zuen “Salón cine Marina”.
-Ta ze izaten zen zinia, igandetan?
-Bai. Igandetan ta lanbat arratsetan. Igandetan. Launbatero orduan lan eitten zen, egun guztiyan.
-Ta zentsurarik izaten zen? Pelikula batzuk ezin bota?
-A, bai! Bo! Terrible! Pixka bat berdía bazen, “y cortes”! Eta hori, etortzen zen “la esto de la religión” ta ikusten zuten ta bu! “Imposible de hechar” ta galezi ta. Pixkat berdía bazen, jode! “Por una tontería”, klaro. Gaurko pelikulak ikusiko baluteke holako, orduan, bueno!
-Eta ez zuten uzten sartzen, baldin bazen hola, pixkat, e...
-Gaztiakeri?
-Bai, gaztiakeri.
-Bai. Jartzen zuen, han bertan, sarreran, “película tal y cual, no apto para menores”.
-Ta zu juaten ziñen zinera?
-Bueno, ni jartzen nitzen, ni ordun nuen debalde, zine, zertik nere attana

nola zen edifizio dena, pues guk genun ya kontratua iña ya nagusiakin, familiyak libre genuen. Ta ni juaten nitzen, barrenera, ta no pasa nada.

-Ta, bestela, zenbat baliyo zun, badakizu?

-Gutxi.

-Gutxi?

-Klaro! Orduan, hiru pezeta o.

-Ta oroitzen zea ze pelikula ikusi zenitun?

-Orduan Txarlot, asko. Charles Chaplin. Txarlotena, bueno! Ta bestia tarzan. Tarzan asko ikusten zan orduan. Polita zen tarzan.

-Ta oesteko pelikulak ere bai?

-Bai! Honbre! "Los hermanos Marx en el oeste". Oain ez naiz oroitzen izenak, baiñon, oeste asko. Trena...

7.5. Zinema aretora neska-lagunarekin

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/020
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:43:10. **Bukatu**: 00:44:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Pelikulak jartzen Julian izeneko bat ibiltzen zen. Aurelio donostiarra zen zinemako arduraduna. 17 bat urte zituen ireki zituenean. 19 urterekin andregaiarekin joaten zen zinemara.

Transkripzioa

-Pelikula botatzen ibiltzen zan, izena zuen Julian. Hori zen "sobrino del", abizena, esplotatzen zegoena, zine, zine esplotatzen zeguan Aurelio. Donostiarra. Horrek zeukan tailler bat "de calefacción" montatzen zeban. Ta horrek in zun hartu zine hori "pa explotar" ta bere hilloba bat etortzen zen Julian izena zegoena, zan operador, ta botatzen zuen pelikula, zinen.

-Ta pelikulak nundik ekartzen zian ta badakizu?

-Hok ekartzen zuten seguramente Donostitik, beste zea horko zinetik, Donostiko zinekin zuten kontaktua iña, ta...

-Orduan han botatzen zien pelikulak, gero Hondarribian ere bai?

-Bai. Hortik ekartzen zuen, Donostitik ekarri, ta gero hemen botatzen zuten bi-hiru egunian, ta gero hemendik emango zuten Irunera, o emango zuten "a Lesaka" o, bai.

-Ta zine hori jarri zutenian zuk zenbat urte zenitun?

-Nik, hori, zine jarri zenian? Joe, gutxi, joe... hamazazpi urte o... Zertik gero juaten nitzen andregaiakin horrara, zinera, zetik nik banuen hemeretzi urtetan andregaia ya. Uaingo andre hau.

-Bai.

-Hemeretzi urtekin. Ta juaten giñen biyek zinera.

-Nun ezautu zenun andregaia?

-Hau, Hondarribian. Esan zattut etorri zela fabrikara...

7.6. Zinemara Irunera

- **Hizlaria(k)**: Gonzalez Oiarbide, Carmen

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-077/019
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:45:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zinemara, Irunera. Hondarribiko zinema aretoak; Elizalderen eskola. Pelikulak ematen zituzten han, baina Irunen aukera gehiago zegoen. Tranbian edo oinez joaten ziren, diruaren arabera.

Transkripzioa

-Ta zinera bai?

-E?

-Zinera joaten ziñen zu?

-Bai.

-Zinea ikustera, pelikulak.

-Bai. Ya behin koxk... behin haunditu ezkerro ya bai, faten giñen, Irunera.

-Irunera?

-Irunera. Baziren hiru o lau zine. Bat, bi, hiru, lau... Lau zine baziren. Ta faten giñen.

-Eta hemen, Hondarribian?

-Hondarbiyan ez zen. Geo jartu zuten ttiki bat itxe bat azpian, hortan. Ta gero, eskola dagon toki hortan, Maria Elizalde, la señorita Maria Elizalde, neska zahar bat, elizakua, txoil elizakua, horrek in zuen itxe hori, esto, eskola. Eskola pobrekentzat, haurrak-eta. Eta gero in zuten, hortik in zuten, hura pasatu zenian, zine. Eta zine giñun hor. Eta botatzen zuten pelikulak. Ta Eskola ere ematen zuten, goian.

-Ta zu joaten ziñen hora, pelikulak ikustera?

-Bai. Ikusiki dugu. Gutxi, biño, hor motelak ziren hoiak eta. Bestiak hobiak.

-Zensuratu iten zuten? Bestiak, Irunguak hobiak?

-Hombre, pelikulak. Hemen kasi umiak...

-Umiendako?

-Bueno, pelikula polittak, biñon, gauz ttikiya ta no? "con poco no se puede".

-Klaro, Irunen aukera gehio.

-Onbre! Baziren bat, bi, hiru, lau, bost ni oroitzera, pelikulak, o zine. Bost bai, baziren.

-Ta, nola, zuek tranbian joaten zineten Irunera?

-Tranbian. Ta sosik ez genuenian, korrika. Allegatzeko pelikulantzat. Amak juxto ematen ta... Gorde, ta korrika, ale!

8. Lanbideak

8.1. Guarda lanetan frontoian

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-028/011
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:28:42. **Bukatu**: 00:30:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak

- **Laburpena:** Etxean geratu zen lanean gero. Lorezain hasi zen, eta frontoiko guarda gero, 50 bat urterekin. Frontoiko ordutegia. Ireki-itxi, garbitu... Erretiroa hartu arte.

Transkripzioa

-Ta gero itxian geldittu nitzenian, itxian geldittu nitzenian, attak, behin soldauska in, behiak eta hau, etorri zien, hau, itxia in zuten saldu, itxia saldu, eta erosi gendun, eendu giñan hamar urtian, ez hara ta ez honarako, gero esan ziaten ia nahi nun geldittu hemen jardinetakotz, bale, ta gero frontoian ia geldittu nahi nun guarda, o horko lanak eitteko, eta bale. Eta ordun geo geldittu nitzen biyekin, gero jardinak lajatu nittuen, frontoia jubilatatu nitzen, eta nere mutur honekin, “aquí sigo”.

-Zein zen frontoiko guardan lana?

-Guardan lana? Guardan lana, hor goizez zortittan hasi ta arratseko hamarrak arte irekiya zen, ta bi lagun bihar zuten egon. Ta batek bazuen ofizinako lanak, hura “como oficinista, y yo como peón, pues tenía que tragar ahí”. Ta hori. Ta bertan nola bizi nitzen, pues hemendik konpontzen giñen. Ireki, itxi, garbitasuna ein bihar baida, ze jende den, nola den, zaindu!

-Jende asko ibiltzen zen frontoian?

-Bai, bai. Joe! Balonmano, baloncesto, eta deporte guziyak. Eskolako umiak, eta denak. Eun guziya...

-Ze urtetan hasi ziñen guarda lanak iten hor?

-Ze irtetan hasi nitzen? Jode, pues hori, “cincuenta años ya tendría yo. Sí. Sí.” Bai, bai. Berrogeita hamar urte izango nitun nik hasi nitzenian. Bai. Ta gaiñera, esan ziaten, gaiñera, gero hor sartu nitzenian, ez dutela posible neri hor jartutzia horko lanak eitteko, zergatik nitzen ya bastante aurreratua ta seguruk eta gauzak, seguruk eta gauzak, asko pagatu bihar ziela, “era viejo, y que no se podía, tal”, eta orduan esan niyon nik: “Ez. Ni seguruak eta gauzak pagatzen ttut”. “A, bai? Bale”. Orduan. Hola geldittu nitzen. Jubilatatu arte. Ta hogeita bat urte badire jubilatutik.

8.2. Amona Estefanaren arrandegia

- **Hizlaria(k):** Oronoz Salaberria, Eleuterio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-037/002
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Itsasoa » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Amona Estefanaren arrandegia zuen, San Pedro kalean, beste bi emakumerekin. Bentan erosi edo Pasaia ekartzen zuten arraina. Legatza. Eguneko arraina. Jela-tokia; jela Irundik ekartzen zuten. Lehendabiziko benta eskola bihurtu zuten.

Transkripzioa

-Eta zure gurasuen lana? Amak ze ite zun?

-Amak ezer ez. Itxian. Amona... zuen arrandegia, amonak.

-Nun zuen arrandegia?

-Itxian bertan, beheko... entresueluan.

-Ta nola zun izena arrandegi horrek?

-Izenik ez zuen.

-Ez zuen? Ta nola esate ziyoten?

-Arrandegiya!

-Arrandegiya. Bakarra zen orduan Hondarribian?

-Ez, ordun baziren... gehio izango zien, noski! Baiña, gure amona ta, amona ta beste bi lagun, hiru lagun zien parte zutenak arradei hartan.

-Nola zun izena amonak?

-Amona Estefana.

-Estefana. Amona Estefan ata bestiak ze zian, beste bi emakume?

-Bi emakume, soziyo zien, bi-hiruken artian irukitzen zuten.

-Ta ze itten zuten, bentan erosi?

-Bentan erosi edo Pasaitik ekarri. Arrastero gauzak, hemen ez zen ordun leatzik eta hola ez zeon orduan. Dena ekartzen zen Pasaitik. Hemen bertakua zen txardiñak, antxua, berdela, txitxarrua, bertakua. Leatza ta hoiek denak, arrosela ta hoiek denak Pasaitik ekartzen zien honara. Hemen atzamaten zen, [...], arrosela, biño gutxiyo.

-Orduan, amonak ite zun erosi eta gero arraindegian saldu.

-Bai.

-Eta jende asko ibiltzen zen?

-Bai, jendia ibiltzen zen. Jendia... Beste bat zen... Ez naiz oroitzen. Bestia baizen... Amonana bai, amonana badakit.

-Ta arraia fresko eukitzeko, jela, izotza...

-Ez, ez, ez. Dena frexkua zuten. Dena Pasaitik ekarriya, egunekua. Gero, ez bazen saltzen, orduan jelan tokiyan sartzen zuten hurrungo egunekotz. Sobrantia.

-Jela nundik ekartzen zuten?

-Irundik. Zugasti. Jela Irundik ekartzen zen. Ez zen hemen eitten. Gero [...], urte asko pasa ta gero hasi zien jela eitten.

-Ta arraia ekartzeko Pasaitik?

-Kamiona.

-Kamiona?

-Bazen kamionakin ibiltzen zienak, arraiak ekartzen-ta. Juaten zen lagun bat ta Pasaitik, ba, kamiona ekartzen zuten.

-Eta bentatik arraia eramateko zer zuten gurdin bat ala...

-Nun? Han, Pasaian!

-Bai baiña hemen bertan erositakua?

-Hemen bertan erositakua? Eskuz.

-Eskuz?

-Eskuz.

-Karron batekin ala...

-Klaro, karron batekin. Hemen antxua ta berdela ta horiyek eskuz ekartzen zen gehiena. Zertik hemen bertan baitzen kaia. Ez oain bezala han urruti. Hemen bertara ekartzen zen dena. Hemen bertan itten zen benta, hemen eliza nola dan portuan? Hor?

-Bai.

-Hor onduan itten zen benta arraiana. Mixiko benta zen, gero jarri zuten benta hartan gure eskola. Mixiko bentan, mixiko benta zena, jarri zuten gero gure eskola. Ta gero in zuten eliza onduan beste benta.

-Eta lehenbixikua nun zen? Ze tokitan?

-Lehemixikua... Oan bakizu non den zera, anbulatoriyua?

-Bai.

-Hor zen.

-Hor zen?

-[Anbulatorixa], hor zen gure eskola.

-Ta zuk ezagutu zenun eskola benta bezela? Benta... eskola jarri aurretik?
-Ge... Eskola aurretik zen benta. Ta eskola zen, mexiko eskola nun...

8.3. Sardinak saltzen, Irunen

- **Hizlaria(k)**: Sorondo Iriazabal, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-050/008
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:14:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Itsasoa » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Motor txikiek sardina ekartzen zuten. Arraina merke saltzen zuten. Amak, eta ahizpa biek ere bai. Kiloka edo dozenaka saltzen zuten, Irunen. Pisua ere eramaten zuten, otarre batean.

Transkripzioa

-Ta orduan zure attan garaian, batelian ibiltzen zenian, esan dezu txardiñak ere...

-Motor ttikiyak, beste barkuak, ekartzen zuten txardiñak, ta gero nere atta hasi zen beste barko batian, ta hura're etortzen zen, txardiña ekartzen zuten, biño merke itten zuten. Ordun biziya zera zen, biño arabeharan'e arraia merkiyo itten zuen.

-Txardiña saltzen ibiltzen zen zure ama?

-Bai. Irunera juaten zen.

-Ta nola, badakizu ze preziotan saltzen zuten?

-Ai... Hori bai ez dakitela! Ni're juanketu naiz nere ahizpakin Irunera. Itten zuten repartittu arraia, gizon baxotxik hainbeste, ta hura nola ez zigun posible itxian, jan ingo zigun biño ez zigun sosik gero, ta juaten giñen Irunera saltzera gero diru harekin ogiyak eta gauzak erosteko etxeko.

-Ta dozenaka saltzen zenuten?

-O bestela kiloka.

-A, kiloka.

-Dozenaka, o bestela, kiloka.

-Eta platera ez? Txardiña platera hainbestian ez?

-Ez, ez, ez, ez.

-Zuek beti dozenaka edo...

-Dozenaka edo bestela kiloka-edo, libra bat edo horrela. Uan hor aurreko aldian saltzen ttuzten bezela. Antxuak. Ez duzu behin'e ikusi hor?

-Bai.

-Ta zuek pisua eramaten zenuten?

-Baita're, bai.

-Zuekin?

-Bai. Otarre batian, pisua, o bestela, mas bien, pues dozenaka.

-Dozenaka errexagua...

-Erraxagua dozenaka.

8.4. Dendan zorra izatea normala zen

- **Hizlaria(k)**: Birto Sorondo, Mertxe

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-059/014
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:25:41. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Dendan zorrak izatea normala zen. Arrantzaleak ezin ordaindu. Izotza falta, eta arraina hondatu egiten zen. Aitonaren denda 32.000 errealeko zorra izatera heldu zen.

Transkripzioa

- ...zor. Orduan izaten zen, pues, arrantzaliak, bueno, miseri gogorra izaten zen. Ez zutenian arrantzaliak eta, pues, dendara joaten ziren, pues, zorretan. Euden kuadernukin ta zorretan. Eta jende asko zen gero, pues, irabazten hasitzen zirenia, pues pixkan pixkan pagatzen juango ziren, biñon ez zuten, behin ere ez zuten dena pagatuko, zertikan orduan ez zen jelikan, eta zeatzen zuten, zera iten omen zen: antxuak-eta gatzakin jarri, ta Irunera eraman ta Irunen bertan usteltzen, trena, trena, zera... nola dire...

-Mercancias.

- Merkantziyako tranak etorri artian ta, eguzkitan han, askotan [egondauak], ondatzen omen zen arrai guztiya. Eta, bueno, pues miseri izugarriya. Ta klaro, az baziote dendakuaki, ez baziote pagatzen, dendakuak ezin zuten pagatu eudeki saltzen zionaki, eta allegatu ziren ke tenian treinta y dos mil reales. Treinta y dos mil realezko...

-Zorra?

-Zorra. Dendak.

9. Natura

9.1. Txorikumeak etxean hazten

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-028/014
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:35:03. **Bukatu**: 00:38:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Eskopetarekin ez da ibili izan, balinekin bakarrik. Txoriak hezi ditu: zozoak, birigarroak, enarak... txikitan hartu eta jaten eman. Deitu eta eskuetara joaten zitzaizkion. Enarak joan, eta ez ziren bueltatzen. Katuek ez jateko, txoriak ezkutatzen. Txorien jatena.

Transkripzioa

-Ta eskupetak ibili izan zea?

-Bai, [balin], ez, kartutxoko eskopetak ez tut. Ez naiz behin ere ibilli...

txoriyak asko gustatu, baiño ehizan, tiroka-tiroka, ez naiz ibilli. Ni txoriyak jaio ezkerotikan, hemen. Eskutara enarak, domatu, xoxuak, billigarruak, enarak, pinpin-garratxak eta txori asko eskutan iduki dittut domatuta. Ttikitan hartu ta jaten eman; ta eskutara. Hori. Biño, denbora asko galtzen da. Eun guziya haren atzetikan.

-Nola domatu?

-Domatu oso gauza erraxa da. Jaten emaiouzu, ta ez eskutan hartu, ta ez gaitzik in, eman jaten, leku goxogua, eman, eman, ta berak hartuko zaittu atta ta ama bezela, igual-igual. Ta zure jestuk, zure mobimenduak, denak hartuko dittu berak, ta ez eskutan hartu ta estutu... No, no! No, no... Laja eskuan gaiñian. Bihatza jarri, pasa, hola, eman jaten, ta zuri, deittu hari ta eskutan; kalian ikustian, bizkarrera. Hola. Biño ez eskutan ibilli ta “oi!, pobre...”, ez. Laja.

-Enarak ere bai?

-Enarak? Deittu ordurako eskutara. Biño, enara nei pasatzen zian, hemen lo itten zuten enarak, ttikitan hartu ta, euliyak harrapatzen eun guziyan, harrapatu, eman, martin-xaltuak, euliyak, eman. Biño gero sasoia etortzen denian, “octubre”, “setiembre”... joan eitten dire. Nik ez dakit zer pasatzen den hor. Ez dire etortzen. Biño nik aittu nuen “ave que vuela, a la cazuela”, hor, Aljeziras aldian-ta, sariakin denak harrapatu eta pintxotako tabernetan saltzen ziren. Eta eitten zittuzten jan. Ta txoriyak ez ziren etortzen. Biño nik urte askuan in dut. Eta lehen urte asko txoriyak aittu naiz [katxetaka], domatu, biño, banittun nik kontraiyuak itxian: katuak. Amigo! Hoi ez zien lagunak eitten. Ta rak!, rak! Ta nik katuak ez nittula ikusi nahi! Attak, berriz, “katuak, ez zakela hil katorikan! Xaguak jango gattuzte itxian!”, xagua harrapatzen, biño xagu hoiek nahio zuten, katuak, txoriyak. Ta ni txoriakeri, eltzian barrenian sartu, txori-kumiak, eltze baten barrenen, ta ni etortzeako, katuak, eskolara joan hemendikan, “katuak jango dittik / jangoittik/ hoiek”, eltzian sartu, lurpian sartu heltzia, harri bat jartu, ta rekreatik eskapo in, hor bainun eskola, txoriyai jaten eman, berriz’e eskolea juan, etorri itxera, txoriyak, eskolan... Holaxe txori-kumiak hazi dittut nik itxian. Lapurak bezela. Biño denbua asko galtzen da. Oso polita da. Enara oso polita, [...], eskutan nola jartzen den ikusi orduko, joe!... “Una cosa increíble. Paciencia”. Biño denbora asko.

-Ta jaten emateko euliyak?

-Enarantzat euliyak. Martin-xaltua, xaltamontes, harrapatzen nittuen, mariposak, euliyak. Biño arraultze prejittua’re igual jaten zuten.

-A bai?

-Bai, bai, bai. Hemen ibiltzen zien gurekin. Ta hementxe, tximiniya zen ta hortxe lo itten zuten. Paper bat jarri kaka itten zueneako, eguna argittu zenian, kanpora. Ta arratzian, itxera. “Ai! Txoriya falta. Ez da etorri. Aaaaaii... joan da”. Ez ziren etortzen. Hurrengo urtian berriz eitten nittuen. Biño, gauz bera pasatzen zien.

10. Euskara

10.1. Hondarra, azpitarako eta obratarako

- **Hizlaria(k)**: Larrarte Zuzaia, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: HON-046/031
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 01:14:14. **Bukatu**: 01:17:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Euskara » Lexikoa
 - Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena**: Gabarra, hondarra eramateko. Baserritarren azpiak egiteko erabiltzen zuten, eta obratarako ere balio zuen. Porlanarekin nahasten zuten, eskuz. Pala eta paleta. Artesa.

Transkripzioa

-Ta gabarra erabiltzen zan, bestela, hondarra eramateko. Nundik nora?

-Bai. Hondarra hartzen zuten, hor, hortik, Frantziko playa nola da?

Hendaiako playa, badakizu non den, han, atzian... Hendaia playa izena du horrek. Handik hartzen zuten hondarra ta ekartzen zuten honara, Espaiñira. Baserriyantzako, baserritarrantzako, behiari botatzen zaio azpiyan, zera, pixa itian ta hori, iten du hondarrak txupatu ta lehorra beti. Obratara'e bai, obratako ekartzen zuten, ta gero guk ematen genun kamionakin obratara, baserritara ere bai, hondarra.

-Zuek erabiltzen zenuten obratan hondar hori?

-Bai.

-Ze iten zenuten horrekin?

-Horrekin, pues, raseuak eta paretak ta altxatzeko, ta blokiak jartzeko, ta adrilluak jartzeko ere nai, ta...

-Nahastuta?

-Porlana, zementokin, klaro.

-Porlanakin nahastuta. Zenbat porlan ta zenbat hondar?

-Botatzen da balde bat, guk bagenun neurriya, "balde de plástico", balde batek du "la tercera parte de cincuenta kilos". Hura, "pa doce paladas".

Hormigonerara, hamabi palada onak, hondarra, ta balde hura porlan. Balde harek dittu "quince kilos dieciseis kilos" o hola.

-Ta ura?

-Ura, klaro.

-Zenbat ur?

-Ura, balde bat ur o hola.

-Ta nahasteko, garai batian eskuz...

-Eskuz! Gu urte, ia, urte askuan eskuz ibilli gera, gero bagenittun ormigonerak eta gruak eta denak, biñon eskuz, masa iten genun guk beti eskuz, lehenogo, lehenogo.

-Ze erabiltzen zenuten, ze erramienta?

-Pala.

-Pala?

-Bai. Palakin.

-Buelta ta buelta...

-Bai. Biñon gero ya ormigoneran errazagua da, ura bota ta bota, ta dena nahasten da ta listo.

-Palakin buelta eman ta ze ontzi-edo erabiltzen zenuten, masa iteko?

-Lurrian.

-Lurrian?

-Zergatik in behar da masa, itten da, ez da itten guriya, eitten da sekua, zertik gero ein behar duzu paletakin hartu ta iduki paletan, pillota, ez da, guri-guriya iten bauzu, jartzen da paletan ta itten da dena eskapo. Pues pala lurrian, honek izena du, lurrian bada buztiña edo zikiña, lur txarra bada, zelaia batian o, izena da artesa. Txapa, bi txapa, hau bezala, alfonbra hau bezalakoa bi txapa, o bat, hau bezalakua ya bat, hor botzen da erdiyan hondarra, ta txapan, dire, txapan, ta hor gaiñian itten da masa nahastu. Zementua ta gero ura ta hor bertan itten da pilla bat. Horrek izena du artesa. Masa ittekua.

11. Ekonomia eta industria

11.1. Kofradiak ateratako dirua

- **Hizlaria(k):** Birto Sorondo, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** HON-059/016
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:39:58. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- **Laburpena:** Kofradiak ateratako dirua, arrantzaleek erabiltzeko. Aita gerra ostean bentan hasi zen lanean eta kofradiako bulegoan ere bai, paperak egiten. Estufa azpian agertu zen kofradiako dirua; behar zutenean jakin izan balute...

Transkripzioa

-Gero, kofradiyak, klaro, hainbeste zorratan ta zorratan ta kofradiyak ein zuen diru batzuek zera, beudek, nunbait, bideratu zuten o atera zuten halako diro illun-illun batzuek, batzuk kuadratuak, bestiak trianguluak, ez esateko, bestela esango zuten, pues, klaro, dirua zera iña izango zela, ez? Eta bueno, diferentiak. Izar zerakin-ta, ta horrela denak. Eta hayekin, jendia, hayekin, diru hayekin erostera joan dendara, eta gero, pues kofradiyak emango ziotela, diru haiek eman kofradira ta kofradiyak emango ziotela. Ta sekula sos bat'e kobratu ez. Nola ez ziren mando joango ba! Neskamiakin bizitzen zirenak gero neskamia, zera, itxekoandre ta... Iloba bat berekin neskame... Asi son las kosas. Total ke, denborakin, klaro, urte asko da, kofradiyan attak gerra ondorian nola aduanak itxiyak ziren ta ez zuen lanikan, ta hasi zen itsasuan. Eta gero, pues, laja zuen itsasua ta bentan, arraian bentan, ta gero ofizinanatan papera, zerako, kofradiko ofizinan, paper denak garbitzen ta ibiltzen zen, garbitasuna, klaro, bentan iten zuten paper bat, zera, erosten zuenantzatzat, bestia, pues, zerantzatzat, jabiantzatzat, emakumiak ziren erosten zutenak... Bestiakentzatzat! Se ke Barzelonara ta Madridera ta arraiak emateko ta. Eta bestia kofradikotz, eta bestia barkukotz, asiske lau zera ein bihar zittuen. Eiten zuen bat apuntatu azpiyan zera jarrita...

-Kalkua.

-Bai, axul zera horrekin, eta gero, pues ofizinan zera garbitasuna jartzen-ta ibiltzen zen. Eta ofizina hori zen kai zaharreko onduan, Dorotea Enean. Eta gure itxe hoiek in zutenian, pues ixkiñean jarri zuten ofizina bat, ta joan ziren haruntz. Eta hasi zirenian estufa, estufa eskoletan-ta genun bezela, redondo hura, haiek, hura atetzen hasi zirenian, haren azpiyan monedak harrapatu. [...]. Eta ekarri zun itxera. "Bidazu Lore zer harrapatu ttuten". Ta gure ama: "Ai, kendu nazu neri aurretik.... Gure itxia arruinatu zen diruk horiyek dire. Kendu nazu nire bistatik, kendu'tzu". Horregatik dakit nolakuak ziren, zerak, trianguluak eta hain zaharak bezela ta kuadratuk eta horrela. Ta illun illun illunak ziren.

-Kofradiak ateratakuak?

-Bai, bai. Oseake estufan azpiyan zagoztenak, oindaño han geldituak.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Marta, etiopiarra (101-138/002)

Marta Etiopiakoa da. Amharera hizkuntza hitz egiten du.

2. Amharerari buruzko datu batzuk (101-138/003)

Amharera hizkuntza batez ere hiriburuan hitz egiten da. 7 dialekto ditu hizkuntza horrek.

3. Maitasunak ekarri zuen Hondarribira (101-138/004)

Bere senagarrarengatik etorri zen Euskal Herrira.

4. Hasiera gogorra Euskal Herrian (101-138/005)

Lehenengo hilabeteak gogorrak izan ziren Martarentzako. Ingeles apur bat bazekien.

5. 7 urte Hondarribian (101-138/006)

Duela 7 urte etorri zen, eta pixkanaka ikasi zuen gaztelania jendearekin.

6. Jende atsegina Hondarribian (101-138/007)

Jende oso jatorra dago Hondarribian, oso atsegina Martaren esanetan.

7. Atsegina izan behar da jendearekin (101-138/008)

Oso harreman ona dauka euskal herritarrekin; atsegina izan behar dela eta bertako jendea ezagutu behar dela dio Martak.

8. Gaztelaniaz bai, euskaraz ez (101-138/009)

Euskarari buruz ezer gutxi daki. Gehienbat gaztelaniaz aritzen da.

9. Ostalaritzan lanean (101-138/010)

Integrazioa erraza izan da Martarentzat. Ostalaritzan lan egiten du; lan gehiena udaran izaten dute.

10. Amhareraz ahizparekin eta semearekin (101-138/011)

Bere ahizparekin eta semearekin hitz egiten du amhareraz. Ez du etiopiarrik aurkitu bere inguruan Euskal Herrian.

11. Dena faltan ematen du Etiopiatik (101-138/012)

Kultura, familia, bizilagunak... dena faltan ematen du Martak Etiopiatik.

12. Asko gustatzen zaio Euskal Herria (101-138/013)

Euskal Herriko gauza gehienak gustatzen zaizkio Martari: herria bera, jendea... Euskal Herriko negua ez zaio gustatzen.

13. Amhareraz oinarrizko hitzak (101-138/017)

Oinarrizko hitzak esaten ditu amhareraz.

14. Gustuko hitza amhareraz (101-138/018)

Martaren gustuko hitza amhareraz.

15. Euskaraz hitz batzuk (101-138/019)

Martak dakizkien euskarazko hitzak: eskerrik asko, egun on, kaixo...

16. Amharerazko aho-korapiloa (101-138/021)

Amharerazko aho-korapilo bat esaten du.

17. Antxoa eta harea soroetarako (HON-001/005)

Antxoa saldu ezin zenean baserritarrek eramaten zuten soroetarako, ongarria egiteko. Eguraldi txarra zenean txoriak zelaietako antxoak jatera joaten ziren. Hondarra ere eramaten zuten baserritarrek lurrari botatzeko.

18. Txingudi inguruan karramarrotan; arrain klaseak (HON-001/008)

Inguruetan gehienbat antxoa eta atuna harrapatzen ziren. Hala ere, Frantzia aldera arrain klase asko zegoen: aniolea, zapataria, txitxarroa, mujoia... Karramarroak ere harrapatzen ziren neguan. Karramarroak harrapatzeko katua hil eta zatituta botatzen zuten Txingudi inguruan eta karramarro ugari harrapatzen zuten. Nola banatzen zitzairen karramarroei azala eta oskola.

19. Berdela amuarekin harrapatzen zen (HON-001/009)

Neguan, inauteri inguruan, berdela harrapatzen zen. Gaur egun, sarearekin harrapatzen den arren, lehen amuarekin harrapatzen zen. Txitxarroa ere harrapatzen zen neguan eta udan.

20. Mutikotan itsasoan gertatutako anekdota (HON-001/010)

Mutikotan itsasora eraman zuteneko anekdota.

21. Brojuak eskopetarekin hil eta saldu (HON-001/011)

Brojuaren inguruko kontuak. Handia zenez, eskopetarekin hiltzen zuten. Larrutu eta saldu egiten zuten gero. Potorroak ere saldu egiten ziren. Honen inguruko kontuak. Arrantzako beste zenbait kontu.

22. Sareen inguruko azalpenak (HON-001/012)

Sareak harizkoak izaten ziren eta tintatu egin behar izaten ziren. Sareen inguruko azalpenak. Sareak nola tintatzen ziren.

23. Bapore zaharrak ikatzarekin zebiltzan (HON-001/013)

Bapore zaharrak ezagutu zituen. Kaian ikatza eta ura hartzen zituzten. Nola funtzionatzen zuten. Baporeak gerra baino lehen hasi ziren desagertzen. Emakumeak arrain-freskoa saltzen ibiltzen ziren kalean.

24. Bisigu ugari zen inguruetan (HON-001/015)

Bisigutan asko egiten zen Hondarribian, inguruetan bisigu asko zen eta. Arrain zuriak (legatza, mediana) ere arrantzatzen zituzten inguruetako kalean. Bermeotarrak etortzen ziren bisigutara. Bisigutako arrantza.

25. Bisigutako arrantza (HON-001/016)

Bisigutako arrantzaren inguruko azalpenak. Lehen zenbait ontzi harrapatutako bisigua beste norbaitekin lehorrera bidali eta antxoatara (ardoran) joaten zen.

26. Herri guztietako arrantzaleak nahastuta; bermeotarrak aurreratuago (HON-001/018)

Lekeitio inguruan ibiltzen ziren arrantzan eta Elantxobeko eta Mutrikuko lagunak egin zituen. Zenbaitetan Castrora joaten ziren arraina saltzera, handik hurbil zuten eta. Herri desberdinetako arrantzaleak, bestela, nahastuta ibiltzen ziren. Bermeotarrak beti aurreratuta joaten ziren eta besteek haiengandik ikasten zuten. Iparraldeko arrantzaleekin ere bazuten harremana, baina mugak ondo zaindu behar izaten ziren.

27. Txori-klaseak; martinak (HON-001/020)

Txori-klaseak. Martinak 3-4 klase zeuden; bakoitzaren inguruko azalpenak. Jan egiten ziren. Beste klase batzuk (papagaiua, potorrúa...) eta hauen inguruko azalpenak. Jateko estimatuak ziren eta saldu egiten zituzten.

28. Lija eta loma arrainak (HON-001/021)

Lija arraina jan egiten zen. Azala fabrikara bidaltzen zen lija-papera egiteko. Loma ere saltzen zen jateko eta gibelarekin olio ere egiten zen. Nolakoa zen eta nola harrapatzen zen. Lomaren bihotza jan zuen behin erreta.

29. Arrainbeltz klaseak (HON-001/022)

Tiburoiaren antzeko arrain beltza. Klase desberdinen ezaugarriak.

30. Izurdeek laguntzen zieten arrantzaleei antxoatan (HON-001/024)

Izurdeak arrantzan laguntzen zien arrantzaleei. Itsasontziak izurdeen atzetik joaten ziren. Saltoka hasten zenean jaten ari zen seinale izaten zen eta horrela jakiten zuten han arrainak zeudela. Izurdeak antxoak beldurtzen ditu eta bueltaka hasten dira noraezean. Arrantzaleek orduan sarea bota eta antxoak harrapatzen dituzte.

31. Izurdeak, putzuak, moxkoteak... (HON-001/026)

Izurdeen antzeko arrain-klaseak eta bakoitzaren ezaugarriak (putzuak, moxkotiak...).

32. Ezpalartak atunak eta izurdeak jaten ditu (HON-001/028)

Ezpalarten inguruko azalpenak; atunak jaten ditu eta baita izurde txikiak ere.

33. Arrain klase bati tamainaren arabera hiru izen (HON-001/029)

Arrain klase bati tamainaren arabera 3 izen ematen omen dizkiote: "muxarra", "xartobikoa" eta "doala". Pertsonen etapa desberdinetako izenekin lotzen du.

34. Atunaren antzeko arrain klasea: "koreanoa" (HON-001/031)

Atunaren antzeko arrain klasea, "listau". Beraiek "koreanoa" deitzen diote. Honen inguruko azalpenak.

35. Hondarribi inguruan ikusten diren txoriak (I) (HON-001/032)

Txori-klaseak; izenak eta ezaugarriak.

36. Arrantzale batek botatako bertsoa (HON-001/033)

Txori klaseak; marlaskak. Arrantzale batek besteari, txorien izenak aipatuz, itsasoan zeudela botatako bertsoa.

37. Hondarribi inguruan ikusten diren txoriak (II) (HON-001/034)

Txori-klaseak; izenak eta ezaugarriak.

38. Lehengo itsasontziak; baporeak eta txanelak (HON-002/002)

11 metroko itsasontzian 16 lagun ibiltzen ziren. Baporezko ontziak. Ikatzezko briketak. Txanelekin joaten ziren sardinetara. Gerra aurrean korrokoitan ere ibiltzen ziren punttetan.

39. 11 urterekin hasi zen arrantzan, "txotxo" (HON-002/003)

11 urterekin hasi zen itsasoan, "txotxo" bezala; urtebete ezer kobratu gabe. San Antonio baporean, ardoa partitzen. Garbiketak eta mandatuak. "Irago" aditza darabil. Yeregui motorrak. Erlojua eta iparorratza.

40. Sardinatan eta antxoatan (HON-002/005)

Atuna eta sardina. Bost orduko bidean joaten ziren sardinatara. Eskalaproiak. Egunean bertan bueltatzen ziren. Gauez arrantzan. Donostian saltzen zuten asko. Antxoatarako sarea nolakoa zen. Txoriak harrapatzen zituzten amuekin, martinak. Onak ziren jateko.

41. Antxoatan, ardoran; lantzoia harrapatzen (HON-002/006)

Antxoatan, ardoran. Begiz ikusten zituzten. Harriak botatzen zituzten, arrainak saretik ez ihes egiteko; haizearekin ezin zen. Lantzoia harrapatzen, txanelekin.

42. Mutil asko ziren aitaren familian (HON-002/009)

Ezizena: Katxarros. Familiako denak dira Hondarribian jaioak. Aita-eta 13 mutil eta bi neska ziren. Lehenengo neska jaio zenean, Bienvenida jarri zioten izena.

43. Legatzetan eta bisigutan (HON-002/011)

Legatzetan 29 itsasontzi handi eta ia 100 txiki ibili ziren, neguan. Exkoterak eta Gaztelura joaten ziren. Sei aldiz hartu zuten preso, ur frantsesetan ibiltzeagatik. Amuekin hasi ziren, eta gero kainaberekin.

44. Lupitan gauetz, zizareekin (HON-002/012)

Lupia harrapatzen zuen gauetz, bera bakarrik joanda. Zizare handiekin.

45. Txori, bale eta izurde motak (HON-002/013)

Txori motak. Martinak, brojuak, kaioak, marloiak, marikuak, marlaxkak, ttirritarrattak, barkatzak... Bale motak: potzua, seria, loma... Gibela kentzen zioten lomari, saltzeko. Izurde motak. Esplarta. Marrajoak.

46. Errioko txoriak (HON-002/015)

Txorien marrazkiei begira. Errioko txoriak. Gabrasa eta bolborinak.

47. Txoriak: martin motak (HON-002/018)

Martin motak: txikia, legekoka eta zuria.

48. Txori motak (HON-002/020)

Martin ontza. Karabana, kuluxka, antzara, potorroa, papalaioa... Marloia gaztetan kaioa da.

49. Marloiak eta izurdeak (HON-002/022)

Marloiak arroketan egoten ziren, eta antxoa segituan ikusten zuten. Baina izurdeak ziren argienak antxoa jateko garaian. Haiei segika ibiltzen ziren arrantzan. Izurdekumea hiltzen bazuten, ama negarrez joaten zen atzetik.

50. Ume-umetatik lanean (HON-003/003)

14 anai-arreba ziren. Ume-umetatik hasi zen lanean, gurasoek dirurik ez zutelako. Gutxi joan zen eskolara. Jaunartzea egin aurretik besteentzat arropa garbitzen aritu zen.

51. Gazterik ezkondu zen, 21 urterekin (HON-003/004)

Gazterik ezkondu zen, 21 urterekin. Etxean asko ziren, eta ez ziren kabitzen. gainera, anaiak biriketako gaitza harrapatu zuen; gero, ahizpa bat kutsatu zen. Etxea desinfektatu zuten udaletxekoek.

52. Angulen kontrabandoan: 15 kilo sabelaldean (HON-003/005)

Angulen kontrabandoa. Sabelaldean 15 kilo ezkutatu, eta Donostiara eta Aginagara eramaten zituen. Mutikoa eramaten zuen disimulatzeko. Hendaiatik senarren gurasoek ekartzen zituzten. 800 kilo Irunera eraman, eta 20 ogerleko eman zizkieten.

53. Arraina saltzen kalez kale (HON-003/006)

Emakumeak beti lanean, eta beti dirurik gabe. Etxeak garbitzen ibiltzen zen, eta etxekoek arrantzatutakoa saltzen ere bai. Kanean bertan, bentan eta Irunera joanda ere bai. Txipiroiak. Antxoak dozenaka.

54. Antxoa ezin saldu, bota beharra (HON-003/007)

Antxoa asko botatzen zuten, ezin saldurik. Baserritarrek zelairako eramaten zuten.

55. Antxoa salmueran; kontserba lantegiak (HON-003/009)

Antxoan garbitu, gazitu eta salmueran jartzen zituzten, kontserbatzeko. Atuna egosi egiten zuten, oliotan jartzeko. Manterola kontserba lantegiraino eramaten zuten antxoa.

56. Alamedan dantzan; zinema (HON-003/011)

Alamedan dantzan ibiltzeagatik kongregaziotik bidali zuten. Dena bekatua zen. Igandetan izaten zen dantza, udan, txistuarekin. Anaiaitsuak ere ikasi zuen pixka bat akordeoia jotzen. Zinemara gutxi joaten ziren.

57. Sei duro irabazi, eta amari eman (HON-003/012)

Hilabetea sei duro irabazten zituen, etxeak garbitzen, eta amari ematen zizkion aitari tabakoa erosteko. Hala ere, beste ahizpa begikoago zuen aitak.

58. Aitaren zezena (HON-004/009)

Lau-bost behi zituzten, eta zezena. Aitak zezen suitzarra nahi zuen, eta Diputazioak oparitu zion, lehen txekorra entregatzearen truke. Caballero diputatua.

59. Eskola garaia eta lehenbiziko lana (HON-004/010)

Eskola publikoan ibili zen, Lizarazu maisuarekin, eta gero Don Anbrosio Sasetarekin. Etxanizekin ere ibili zen; mutil asko kolokatu zituen aduanan. Dotrina euskalduna egin zuen, eta banda atera zuen. Arrebak plantxa lantegia zuen Hondarribian, eta bera ibiltzen zen arropa partitzen.

60. Lehenengo Biteri eskolan, gero Etxanizekin (HON-004/012)

Biteri eskolan ibili zen. Gero, Etxanizekin; arma plazan ematen zuen eskola hark hasieran eta gero portuko eskolan. Jaunartzea egindakoan, lanera. 17rekin hasi zen lanean, nekazarien sindikatuan, Irunen.

61. Tabernako lana, Irunen (HON-004/016)

Tabernan zerbitzatzen zutena. Igandetan baserritar asko joaten zen, meza ondoan. Urdanibia plazan zegoen. Ruedako ardoa edatera joaten ziren trenbideko buruak. Mus jokalaria. Serenoak atea jotzean, bizikletan joaten zen Hondarribira. Emakumeak senarrekin joaten ziren, urtean behin.

62. Dotrina eta kalabazak (HON-004/023)

Dotrina etxean ikasten zuten, eta parrokiara joaten ziren astean bitan. Euskaldunak Migel Maria Aiestaran apaizarekin. Jaunartzea egiteko dotrina ondo jakin behar zuten. Eskolan erdaraz, baina Etxaniz maisua euskaltzalea zen.

63. Eskolako kontuak (HON-004/026)

Eskolan neskak eta mutilak aparte. Gurutzeko mojetan ibili zen lehenengo, eta gero joan zen eskola publikora. Enziklopedia zuten. Ez zen boligraforik. Zigorrak. Ordutegia.

64. Baserriko lanak: berdura, saltzeko (HON-004/027)

Baserriko lanak: belarra biltzea, baratzeko lanak. Anaia gerrara joan zenean jetzi zituen behiak, baina bestela ez. Baratzean zer zuten. Tomatea eta lekak. Berdura tranbian sartu, eta arrebak bata Irunera eta bestea Errenteriara joaten ziren.

65. Esnea amak partitzen zuen (HON-004/028)

Amak esnea partitzen zuen, Hondarribian, Maria Magdalena plazan eta etxez etxe. Arreba bat Irunera joaten zen, beste arreba bat moja joan zen.

66. Baratzea nahiago ganadua baino (HON-004/029)

Berak nahiko zuen baratzeko lana ganadua baino. Behien lanak aipatzen ditu. Uztarrian lotu, eta hondar bila joaten ziren benta zaharraren ondora, azpiak egiteko.

67. Ilargiari eta itsasoari begira (HON-004/030)

Ilargiari asko begiratzen zioten, oiloak loka jartzeko ere bai. Ilbehera zen ona.

68. Umetatik txoritan (HON-004/032)

Txoritan ibiltzea gustuko zuen. Ilarra bota, eta txoriek jaten zuten. Haria jartzen zuten, eta ispilu puskak. Kearekin izutzen zituzten. Erreklamoa, sarearekin.

69. Gerraontziak Guadalupe bonbardatzen (HON-004/039)

Gerra hasiera. Anaia soldadu joan zen. España eta Cervera gerraontziak Guadalupera bonbak jaurtitzen ibili ziren. Mendira joaten ziren ikustera. Miliziano asturiarrak. Ihes egindako presoak; Barandiaran.

70. Gerra garaiko arma eskasak (HON-004/041)

Fronte Popularrekoek nazionalistek baino indar handiagoa zuten; bertakoak eskopetekin eta milizianoak fusilekin. Gerraontziak abuztuan hasi ziren bonbardatzen. Guadalupeko gurutzea bota zuten milizianoek.

71. Arrantzaleak sagarrak lapurtzen (HON-004/044)

Etxean arrosarioa errezatzen zuten egunero. Guadalupera nobenetan joaten ziren. Torre baserritik barrena joaten ziren arrantzaleak; sagarrak lapurtzen zituzten bueltan. Sagarrondoak eta sagardoa.

72. Aitak kantatzen zituen bertsoak I (HON-004/046)

Aitak kantatzen zuen bertsoa kantatzen du, Iparragirreri buruzkoa.

73. Aitak kantatzen zituen bertsoak II (HON-004/048)

Aitak kantatzen zituen bertsoak kantatzen ditu.

74. Ur bedeinkatua eta erramua (HON-004/053)

Aste Santuan soldaduak lurrera erortzen ziren. Gero ur bedeinkatua hartzen zuten. Ekaitza zenean erabiltzen zuten, etxean. Kandela bedeinkatuak eta erramua erretzea.

75. Ferrantxiki baserrian jaioa (HON-005/002)

Ferrantxiki baserrian jaioa. Hogei urte zituenean bota zuten, villa bat egiteko. Guarda lanak egin zituen bere familiak. Guraso biak Hondarribikoak zituen.

76. Aita serenoa zen (HON-005/003)

Baserrian bizi ziren, baina aita serenoa zen. Ez zuen aterik irekitzen, udaltzain modukoa zen. Uniformea eta porra. Tabernak itxiarazten ibiltzen zen. Lehen isuna koinatari jarri zion. Bar Emilion eta beste taberna batzuetan bezeroek gonbidatu egiten zuten. Estimatu zen herrian. Arraina oparitzen zioten.

77. Isilka arrautza jaten (HON-005/004)

Hiru behi, txerria, untxiak, oiloak... antzarak ere izan zituzten. Antzara arrautzak etxerako ziren, besteak saltzeko. Gurasoak belar txarrak ateratzen ari ziren bitartean arrautza jaten zuen berak, ezkutuan baita errapetik esnea edan ere.

78. Untxia eta katua, jateko antzekoak (HON-005/006)

Urtero hiltzen zuten txerria, baina etxean ez, hiltegira eramanda. Txerri-jana biltzen zuen eskolatik bueltan. Katua jan zuen behin, untxia zelakoan. Burua kenduta ez da erraz igartzen diferentzia. "Erreginaren mokadua", oilaskoaren ipurdia. Etxetik saltzen zituzten untxiak. Behin bakarrik hil du animalia bat.

79. Esnea partitzen; ilar zakuekin Erreteriarra (HON-005/009)

Esnea partitzera etxez etxe; udatiarrei saltzen zieten esnea. "Porróna". Txerri-janarekin bueltatzen zen etxera. Eskolarakoan berdura plazara eramaten zuen, gero amak saltzeko. Amaren gaixotasuna. Ilar zakuekin Erreteriarra joan zen behin, saltzera.

80. "Txorizo frantsesa" eta kroketak (HON-005/011)

Hondarribiko berdurak fama ona zuen. Irunen saltzen zuten baserritar askok. Azenarioa saltzen zen asko, batez ere frantsesen artean. "Txorizo frantsesa" deitzen dio. Kroketa jan zuen lehen aldia aipatzen du; kroketak egiten erakutsi zion.

81. Udatiar aberatsekin harreman ona (HON-005/012)

"Bañista" madrildarrak, aberatsak. Edadeko mutilak lagunak zituen. Valladolideko mutil batek esan zion neskamea gehiago maite zuela ama baino. Neskameak eta txoferrak zituzten.

82. Soldadutza Madrilen I (HON-005/013)

Soldadutzan almirante baten etxean egon zen, Madrilen. Hondarribitik ezagutzen zuen emakume aberats bat ikusi zuen han; almirantearen etxean lotan eta gainera soldatarekin. Ministroaren txoferra laguna zuen, eta hark erraztu zion bidea. Sukaldari lana egiten zuen.

83. Soldadutza Madrilen II (HON-005/014)

Almirantearen etxean egon zeneko kontuak. Hondarribira joan zirela behin senar-emazteak, bere gurasoak ezagutzera. Etxera joateko baimena eman zionekoa. 22 urterekin hasi zuen soldadutza.

84. Udatiarrak eta bainuak; arrainak (HON-005/016)

Udatiarrei "bañista" deitzen zieten. Bainua hartzeko laguntzailerik ez zegoen, hondartza ere ez zelako oraingoa. Aldagelak non zeuden. Non bainatzen ziren. Igerian 14 urterekin ikasi zuen. Muskuiluak zeuden han eta karramarroak. Arrainak: korrokoia. Kanabera. Izkirak.

85. Arroketan arrantzan; lapa bila (HON-005/017)

Arroketan harrapatzen zituzten arrainak eta olagarroak. Orduan ez zen oso preziatua, eta bota egiten zuten. Gero bai; taberna askotan ibili da lanean, eta orduan bai. Autonomo moduan ibili da lanean. Lapak gordinik jaten zituen, gosaltzeko. Aita oso eskuzabala zen. Lanpernak.

86. Mutikotatik lanean eta mandatuak egiten (HON-005/018)

Ez zaio txalupan ibiltzea gustatu, nahiago ditu baserriko lanak. Lorezain eta tabernari ibili da. Mutikotatik egin du lana, esnea partitzen eta mandatuak egiten. Goxoak erosteko dirua aurrezten zuen.

87. Mila pezetakoa ezagutu zuenekoa (HON-005/019)

Mila pezetakoa ezagutu zuen eguna. 17 seme-alaba zituen familiari esnea eta barazkiak eramaten zizkion. Mila pezetakoa galdu zuen jolasean. Linterna eskatu zion aitari, esanez barraskiloak topatzeko zela.

88. Erregetako opariak; gose garaia (HON-005/020)

Erregetako oparia arropa izaten zen, eta pazientzia katilukada. Beti pilota bera jartzen zieten. Jaterik nahi ez zutena berriro ipintzen zieten. Gose garaia zen. Taloak. Errotara aita joaten zen. Baratzeko lanak.

89. Lurra nola goxatu; gorotza (HON-005/021)

Gorotza nola lortzen zuten. "Iñaurkiña" ekartzen zuten, hondarra eta zaborra ere bai. Saltzen ez zen antxoa ere botatzen zuten, gurdiaekin joanda. Gurdia nolakoa zen. Goldea, area, aitzurra...

90. Haziak, barazkiak, belar lanak (HON-005/022)

Haziak erosi egiten zituzten; patata eta babarruna etxean prestatua batzuetan. Pentsu dendan erosten zituzten. Sasoian sasoiko barazkiak aipatzen ditu. Belarretan ibili ondoren, aita eta osabak emandako diruarekin pozik San Martzial jaietan.

91. San Martzial jaiak; bertsolariak (HON-005/023)

San Martzial jaiak. Alardea. Sokamuturra, pilota, aizkolariak. Ekainaren 28an hasten ziren eta 30ean zen alardea. Feria. Musika. Dantza ikustea gustatzen zitzaion, baina dantza egitea ez. Bertsoak. Lazkao Txiki. Elizarako jaiera izan du umetatik.

92. Elizarako jaiera nondik datorkion (HON-005/024)

Elizarako jaiera familiatik datorkio. San Luisen kongregazioan aita zen burua. Aitona itsua bisitatzera joaten zen Don Pedro, eta mutikotatik zuen harremana harekin. Kongregazioan zituen ardurak. Mezak. Txokolatea hartzen zuten.

93. Hondarribiko apaizak; dotrina erdaraz (HON-005/026)

Jaunartze Handirako dotrina ikasi beharra Don Pedorekin; neskek Don Eugeniorekin. Beste apaiz batzuk aipatzen ditu. Sei ziren lehen. Zigorrak. Dotrina erdaraz ikasi zuen, eskolan ere hala ikasi zuelako irakurtzen.

94. Biteriko eskola eta La Salle ikastetxea (HON-005/027)

Biterin ibili zen eskolan. Buru gainean zakua jarrita, euria baldin bazen. Ikasi zuena. Maistrak eta maisuak. Falangeko kantak. La Salleko ikastetxera bidali zuten gero. Letra txarra zuen eta geografian ere gaizki, baina kontuak ondo. Jo egiten zieten, erraz. Zigorrak.

95. Neska-mutilak aparte eskolan; euskara galarazita (HON-005/028)

Señorita Pepitarekin ez daki ziur, baina bestela neska eta mutilak aparte beti, eskolan. Neskak mojatara. Euskara galarazi zuten eskolan eta kalean. Euskara galdu zuen koinatuak. Ikastolak. Kalean euskaraz egiten zuten beraien artean.

96. Igeltsero baino nahiago lorezain (HON-005/029)

Igeltsero ikasten, 17 urterekin. Ez zitzaion gustatzen. 17 pezeta eguneko. Berdurarekin ere irabazten zen hainbeste. 20 urte arte etxean egin zuen lana, baratzean. Lorezain lanak, villetan. Segan ikasi zuen. Belarra mozteko makinak. Lanbideei buruzko txisteak, erdaraz.

97. Koroak egiten kanposanturako (HON-005/031)

Lorezain lanetan, villetan. Kanpoko loreak. Koroak egiten zituen kanposanturako, krisantemoekin. Irungo plazan saltzen zituen. Koroa nola egiten zuen, iratzea menditik ekarrita. Krabelinak.

98. Lore saltzaileei zerga berezia (HON-005/033)

Lore asko saltzen zuten Irungo plazan, lore dendarik ez zegoelako. Luxuzko zerga jarri zieten lore saltzaileei. Donostiako Villa Maria Luisa denda. Ahalik eta gutxiena ordaintzen zuten, baina gero erretiroa ere txarra.

99. Balkoiak alokatzen, alardea ikusteko (HON-007/003)

Kale Nagusiko balkoiak alokatu egiten zituzten frantsesek, alardea eta prozesioa ikusteko. Hogeia duro.

100. Aita bestaldera joan zen gerra garaian (HON-007/009)

Aita bestaldera joan zen gerra garaian, eta bueltan kontzentrazio-esparrura eramango zuten beldur ziren, baina libratu egin zen. Igeltsero lanetan ibili zen.

101. Telegramak partitzen (HON-007/011)

Umetan telegramak partitzen ibili zen, gero postari. Bost pezeta eman zizkioten behin propina bezala.

102. Legatzetarako txibiak (HON-007/030)

Legatzetarako "txibia" erabiltzen zuten lehen, beita egiteko. Erraz gogortzen zen, baina.

103. Kofradiako bentan eta subastan (HON-007/037)

Kofradian hasi zen bentan, gero subastan. 138 itsasontzi zeuden. Hotza pasatzen zuten. Erdaraz izaten zen benta.

104. Irunen berdura eta esnea saltzen (HON-008/002)

Muñoa baserrian jaioa, jaitzubian. Ama bertakoa zen, eta aita Arkoia auzokoa. Baserritik ateratzen zuten bizimodua, esnearekin eta berdurarekin. Irunera joaten ziren saltzera, gertuago geratzen delako eta plaza hobea zuelako.

105. Ezkonduta ere esnea partitzen (HON-008/003)

Baserria ez zen beraiena. 35 urte egin zituen aduanan lanean. Emazteak esnea partitzen zuen kalean; aitona hil zenean, bera hasi zen, motoarekin. 1965ean erosi zuten kotxea; gidabaimena atera zuten biek.

106. Hamabi lagun bizi ziren baserrian (HON-008/007)

Baserriaren errenta urtean behin ordaintzen zuten, Gabonetan, dirutan. Nagusiak 80 bat etxe izango zituen. Hamabi lagun bizi ziren baserrian: gurasoak, zortzi senide, amona eta osaba. Ama 48 urterekin hil zen, eta arreba zaharrenak asko lagundu zuen; josten bazekien.

107. Anaiaren heriotza (HON-008/009)

Anaia zaharrena tetano gaitzarekin hil zen, 23 urterekin, 1952an. Arrebarekin joaten zen kalera zaldi-karroan, kura egitera. Bost urtean etxeko lau hil ziren: ama, anaia, amona eta osaba.

108. Amona oso elizkoia zen (HON-008/010)

Amonaren kontuak: oso elizkoia zen eta Santu Denen Egunak zekizkien. Irratia sorginen kontua iruditu zitzaion, bertan arrosarioa entzun zuen arte. Kantatzeko zaletasuna zuen. Nola ibiltzen zen jantzita.

109. Txakolako eskolan, 6 urtetik 14ra (HON-008/011)

Txakolara joan zen eskolara, hamaikak arte, eta gero osabari bazkaria eramaten zion lanera, Irunera. 14 urte arte ibili zen eskolan. Askotan joan gabe geratzen ziren, baserrian lanean. Maistra erdalduna. Dotrina erdaraz ikasi zuten. Neska-mutilak elkarrekin.

110. Gerra osteko eskola (HON-008/012)

Liburuak bazituzten: historia sagrada eta enziklopedia. Tinta erabiltzen zuten. Pizarran egiten zituzten ariketak. Cara al Sol kantarazten zieten. Euskaraz aritzen ziren kanpoan. Gerra aurrean, dotrina euskalduna.

111. Jaunartzea Irunen egin zuen (HON-008/015)

Irunera joaten ziren mezara, igandero, pasionistetara. Dotrina ere ematen zuten han. Jaunartzea Irunen egin zuen; Hondarribira astean bitan joan beharra zegoen, eta Irunen bi hilabete aski ziren.

112. Guadalupeko nobenak; baraurik (HON-008/017)

Guadalupera joaten ziren nobenetan, zortzietarako. Leihotik ikusten zuten. Nobenako kantzak eta salbea. Baraurik joaten ziren Jauna hartu behar zutenean; ezin zuten Jauna hortzekin ukitu.

113. Bedeinkazioak eta Pazkoakoa (HON-008/018)

Pazkoatan bedeinkatzen zuten ura, San Blas egunean jana eta kandelak Candelaria egunean. Pazkoakoa egiteko txartela.

114. Ezin elizan nolanahi ibili: emakumeak mantilarekin (HON-008/019)

Emakumeek ezin zuten buruan mantila jarri gabe elizan sartu. Gaupasa eginda joan, eta bidali egin zituzten. Apaizek bizkarra emanda ematen zuten meza, latinez. Meza-liburuak. Gizasemeak eskuman eta emakumeak ezkerrean.

115. Bileretara dantzara; duelua (HON-008/022)

Auzokoekin ibiltzen zen jolasean. 14 urterekin hasi zen bileretara joaten, lagun zaharragoekin; berandu bueltatzen zenez, amak galarazi egin zion. Gero adinekoekin hasi zen. Dantzarako zaletasuna. Ama hiltzean, urtebete dantza egin gabe. Lutua.

116. Bilerak, musika eta dantza (HON-008/023)

Bileretara Anakara eta Kateara (Ventas) joaten ziren. Gehienek egiten zuten dantza. Soinu-jotzaileak. Bolaño inauterietan ibiltzen zen. Hondarribiko musika. 18 urte izateko gogoz, helduek bezala dantza egiteko. Musu ematea bekatua zen.

117. Kongregazioa eta misioak (HON-008/024)

Ez zen luistarren kongregaziokoa izan, ez zuelako Jaunartzea Hondarribian egin. San Jose eguneko sermoiak; etorria zuten fraideak baziren eta badira.

118. Aduanako lanak I (HON-008/025)

Aduanako lanak. Kaxak ireki, ikusi eta itxi. Makinen piezak. Langile asko ziren, karga-deskargan 30 bai.

119. Angula eta sakarina kontrabandoa (HON-008/028)

Kontrabandoa angulekin. Ventasen zegoen kontrola. Gaintxurisketako Martinen kontuak: sakarina zakua pasatu zueneko.

120. Aduanako lanak II (HON-008/029)

Aduanako kontuak. Santiago zubian guardiak egiten egon ziren. Kendutako gauzen subasta egiten zen. Lan baldintzak. Ondo irabazten zuten; propinak.

121. Aduanako lanak III (HON-008/030)

Inguruko lantegiak. Portzelana lantegia, Palmera, bagoi lantegia. Kamioi asko ibiltzen zen Irunen, baina karga ez zen bertarako izaten.

122. Umetako lanak baserrian (HON-008/032)

Baserriko lanak umetan. Su baxua zuten, eta erremolatxa sutan jartzen zuten arrebak eta biek, txerrikumeentzat. Platanoaren egurra. Txerri-porrona.

123. Kanilako ura eta zaldi-karroa, aurrerapen handiak (HON-008/033)

Beti ezagutu ditu argia eta ura etxean. Ura bera jaio zen garaian jarri zuten. Aurretik arrebak ekartzen zuen iturritik. Zaldi-karroa ere orduantxe jarri zuten; aurrerapen handia zen. Behorra.

124. Zaldi-karroa eta gurdiak (HON-008/035)

Zaldi-karroa aurrerapen handia zen, astoarekin parekatuta. Dozena erdik bakarrik zuten. Gurdiak eta karroak. Behiak lanerako hezten. Gurdien egitura.

125. Baratzean, sasoian sasoikoa (HON-008/036)

Baratzeko lanak. Udazkenean landatutakoak gehiago balio zuen plazan (ilarra, baratxuria, babarruna...). Patata otsailean, eta hazitegiak. Udan letxuga. Tomatea, piperra.

126. Ilargiari begira, hazia ereiteko (HON-008/038)

Lehen etxean egiten zituzten landareak, elkarri eman edo plazan erosi. Ilargiari begiratzen zioten. Ilbeheran bota behar ziren haziak. Ilberrikoak. Irratian ematen dituzten aholkuak.

127. Ez zeuden ondo prestatuta negurako (HON-008/039)

Eguraldi aldaketa. Lehengo neguak gogorrak ziren; horma-ziriak. Ganaduen berotasuna. Berogailurik ez zuten, ezta arropa aproposik ere. Iltzedun botak eta abarkak. Argindarra askotan joaten zen, eguraldi txarrarekin.

128. Arriskuak lanpernatan nahiz errepedean (HON-010/002)

Baserritik bizi ziren. Aita lanpernatan ibiltzen zen arrokatan, salabardoarekin. Arriskutsua zen. Hiru lagun ibiltzen ziren. Istripuz hil zen aita, kamioitik erorita, gerra garaian, Baleares ontzia hondoratu zen egunean.

129. Ama Irunera joaten zen saltzera (HON-010/004)

Aita lanpernatan ibiltzen zen eta amak saltzen zituen, Irunen: txikiak egosita eta handiak gordinik. "Lanperna beroa". Berdura eta loreak ere saltzen zituen. Zazpi senide ziren. Behi gutxi zituzten, eta oiloak. Ama zazpi urterekin hasi zen plazan.

130. Iturrira ur bila; arropa garbitzen (HON-010/005)

Baserrian argia beti ezagutu du, baina ura ez. Iturrira joaten ziren, eta bidean berriketan geratzen ziren baserri batean. Arropa hankak putzuan sartuta garbitzen zuten. Buru gainean eramaten zuten.

131. Orduko komuna eta garbitasuna (HON-010/007)

Komuna egurrezkoa zen; han izaten zituzten zigortuta. Komuneko papera. Dutxarik ez zen, eta iturrian garbitzen ziren. Ez ziren arroketara joaten, ez zuen igerian ikasi.

132. Biterira eskolara (HON-010/008)

Biterira joan zen eskolara. Catalina maistrak kaskarrekoak ematen zizkien. "Pottoak". Urrutikoak izaten ziren maistrak. Cara al Sol abesten zuten eskolan, baina bera ibili zen garaian ez. Francoren emaztea auzora joaten zen, markesa batengana.

133. Dotrina, Don Emiliorekin (HON-010/013)

Dotrina ikastera elizara joaten ziren. Ikasten ez zutenean, kalabaza ematen zieten. Batzuk Guadalupen egiten zuten, berak parrokiari. Don Emilio apaiza. Euskaraz eta erdaraz ikasten zuten dotrina. Arrosarioa, etxean.

134. Goizeko bostetarako mezetara (HON-010/015)

Etxeko otoitzak. Goizeko bostetarako joaten ziren mezetara. Gurasoak ere bai, gero lana egiteko. Komentura joaten zirenean hiru sos ematen zieten, eta igandero sos bat. Tranbian jartzen zuten dirua. Terexa kale saltzailea.

135. Aita hil zenean, etxeko kargu (HON-010/016)

Ama plazara joaten zen eta berak amona zaintzen zuen, eta haurrak. Orduan 60 urte asko zen. Jale onak ziren. Gerra garaiko kontuak. Aita bizi zen artean ondo, baina gero etxeko kargu egin behar.

136. Karga buru gainean (HON-010/018)

Amak Santa Engraziara eramaten zuten berdura, oinez, eta han tranbia hartzen zuen Irunerako. Astorik ez zuten. Auzoko batek karga bere asto gainean jartzeko esan zion behin, eta aitak ez zion utzi.

137. Esnea partitzera kalera (HON-010/020)

Esnea partitzen ibiltzen zen, marmita buru gainean jarrita. Bezero onak zituen. Egun normal bat nolakoa zen: gosalduta eta esnea partitzera herrira. Bueltan bazkaria prestatu behar, potajea. Berdura gutxiago jaten zen lehen.

138. Baserriko lanen ordutegia (HON-010/022)

Arratsaldeko lanak baserrian. Baratzean eta hurrengo egunerako berdura prestatu. Gizonen lana zen basora joatea eta belar metak egitea. Sukaldea nolakoa zen: lurreko sua zuten. Laratza. Eltzeak.

139. Neskame bidali zuen aitak (HON-010/024)

Aitak neskame bidali zuen. Mutilak, berriz, eskolara. Butron pasealekuko etxe aberats batean egon zen. Dontzeila zen, eta sukaldaria ere bazuten.

140. Gerra hasi zenean, Hendaiara ihesi (HON-010/026)

Gerra egun batzuetako kontua zela esaten zuten, baina ez. Orduan ez zuten politikaz ulertzen. Senarra 18 urterekin eraman zuten gerrara. Hendaiara joan ziren, beldurrez. Aita geratu egin zen, behia ume egiteko zegoelako. Guadalupetik ihes egindako preso bat salbatu zuen. Hilketak.

141. Hendaiara joan zirenekoa (HON-010/027)

Hendaiara joan zirenean, ondo egon ziren; aita han lanean ibilia zen aurretik, 12 urtetik 28ra arte, ardo-biltegi batean. Egun batzuk egin zituzten, eta gero buelta. Hilketak. Gurutzeko arroketara joaten ziren ezkutatzera.

142. Arto irina patatarekin nahastuta (HON-010/030)

Gerra garaian goserik ez zuten pasatu, baina gero bai. Arto irina patatarekin nahasten zuten, taloak gehiago irauteko. Errotara nora joaten ziren esaten du. Ez du gogoan babarruna entregatu behar izana; Kontrakoa: udaletxeko lehengusuak lagundu egiten zion amari.

143. Olio botilaren disgustua (HON-010/032)

Pasadizo bat kontatzen du. 70 pezeta ordaindu zuela olio litroa, eta botilari gaizki heldu eta dena erori zitzaion. Disgustua.

144. Amona Angelitaren erremedioak; sendabelarrak (HON-010/034)

Sendabelarrak. Bere amak, Angelitak, zer egiten zuen kontatzen du, haurrei ahoko granoak kentzeko. Gingilak. Ukendua ere egiten zuen, "kontsurtarekin". Berbena. Pasmo belarra. "Sangrinariua".

145. Baserriko tresnak; bedeinkazioak (HON-010/036)

Baserriko tresnak: goldea, area, aitzurra, laia... San Isidro egunean apaizak Guadalupetik debeinkatzen zituen lurrak. Gurasoek errezatu egiten zuten hazia "ifintzean". Erramua, bedeinkatzeko. Ur bedeinkatua.

146. Txerria hiltzean, "txerrimoniyak" (HON-010/037)

Etxean txerria hil zuten behin. Hendaian bizi zen osaba joan zen hiltzera. Patea ere egin zuten, baina ez du gogoan nola. Odolkiak. "Txerrimoniyak".

147. Bataioa eta elizan sartzea (HON-010/039)

Umeak etxean edukitzen zituzten. Praktikantea joaten zen berarengana. Emakume bat joaten zen laguntzera egun horretan. Azkar bataiatzen zuten haurra. "Elizan sartzia". Buruan teila jartzeko esan zioten.

148. Berorika, hika, toka eta zuka (HON-010/041)

Apaizari ez zion berorika hitz egiten, ordurako ohitura galdua zen, baina bere gurasoek bai. Anaia-arreben artean hika eta toka. Gurasoei zuka. Gaztelaniaz ez zekielako errieta egiten zioten Gurutzeko mojek.

149. Eusko Nekazarien Bazkuneko banderarekin gertatu zena (HON-010/042)

Gerra ondoan, euskara galarazi zuten. Batzokiarekin ez da gogoratzen. Aita Eusko Nekazarien Bazkunekoa zen; bandera batekin joaten zen ospakizunetara. Bandera harekin bi soineko egin zituzten. Etxean baziren josten zekitenak, jostunak.

150. Arrantzalearekin ezkondu zen; baserritik portura (HON-010/043)

Baserrira ezkondu zen. Senarra portuan ezagutu zuen. Arrantzalea zen. Sei seme-alaba izan zituzten. Kalera joan ziren bizitzera gero. Senarra egunero bueltatzen zen etxera normalean. Arraina saltzen ibilia da bera ere, "partia".

151. Baserritik kalera joandakoan, interina (HON-010/045)

Senarra patroia zen. Itsasontzia, bigarren eskukoa: Olga Nieves. Baserritik kalera joatea ez zen erraza izan. Artola familiak lana eskaini zion, interina. Aurretik ere egin zuen udan. Zenbat ordaindu zion. Alabak bordatzen ikasi zuen.

152. Gerrako kontuak: osaba Pepe (HON-010/053)

Gerran, Baleares ontzia hondoratu zenean, Hondarribiko bat nola salbatu zuten, Rematxe. Osaba Pepe (senarraren anaia) miliziano ibili zen, eta gero preso hartu zuten. Baratzera bonba erori zenekoa kontatzen du. Peperen ibilerak. Bere senarra nolakoa zen, "putzukoa".

153. Bentan arraina pisatzen eta Sokoan kontserba lantegian (HON-010/057)

Ilobak gogorarazten dio bentan egon zela lanean, arraina pisatzen. Eta Sokoan ere egin zuen lana, kontserba lantegian; horregatik jasotzen du pensio hobeagoa. Bentako beheko aldean pisatzen zuten arraina, erosleei emateko.

154. Sokoako lana (HON-010/059)

Kontserba lantegiak. Sokoako lana: ondo ordaintzen zuten. Asteburuetan normalean libre, baina ontziren bat arrainarekin iristen bazen, lanera joan behar.

155. Zinema, kongregazioa eta nobioak (HON-010/061)

Portuan Marina zinema aretoa zegoen. "Don Quintin el amargado" pelikula ikusi zuenekoa. Behin joan zen Irungo Fantasio diskotekara, eta kongregaziotik bota zuten. Nobio kontuak.

156. Baserri handia, baina errentan (HON-011/002)

Baserria nolakoa zen. Bi bizitzakoa zen eta lur asko zituen. Berdura asko zuten. Zazpi senide ziren. Baserri jabea militarra zen. Errenta nola ordaintzen zuten. Baserria noiz desagertu zen.

157. Bizimodua baserritik (HON-011/003)

Umea zenean, baserria eta inguruak nolakoak ziren. Behitegi bat zegoen. Gurasoak nongoak zituen. Baserritik bizi ziren. Morroia izan zuten. Ahizpak kanpora atera ziren lanera, bera ez.

158. Goizean ezin eskolara joan, lanean (HON-011/004)

Ahizpa gazteek gehiago ikasi zuten. Goizean etxeko lanak egiten zituen eta esneak banatu, eta ez zen eskolara joaten; eguerdian partikular ematen zuen maisuarekin. Ama plazara joaten zen. Eskola publikoa. Txoriak bidaltzen, ilar denboran.

159. Eskolan erdaraz, kalean ere bai (HON-011/005)

Eskolan ikasten zutena. Matematikak gustatzen zitzaizkion. Maistrak esan zion balio zuela. Erdaraz eskolan eta etxean euskaraz. Kalean ere erdaraz gehiago. Umetako jolasak.

160. Hondartzan bainatzeko ohiturarik ez (HON-011/006)

Bainuak. Amarekin joan izan dira hondartzara, baina gutxi. Ez zegoen ohiturarik. Lagunekin ere errazago mendira. Eguzkia hartzen ez ziren egoten. Hotel Peñon. Bainujantzirik ez zuten. Ez zuen igerian ikasi.

161. Lapa gordinak jaten; txirletara (HON-011/007)

Umetan lapa bila joaten zen farora bizilagunekin, eta gordinik jaten zituzten. Txirletara joaten ziren hondartzara. Koilararekin.

162. Ilar zakuekin Donostiara (HON-011/008)

Hondarribiko lurra gozoa da, ona. Berdurak aipatzen ditu. Ilar zakuekin joaten ziren, tranbian eta topoan, Donostiara. Bretxara. Tomatea, piperra. Patata. Frantsesek ilarrak aletuta erosten zituzten.

163. Postua Irunen; erosleak (HON-011/009)

Irunera joaten ziren saltzera; amonak ere postua zuen han. Hilabetean ordaintzen zen postua. Erosleak. Frantsesak duela 50 urte hasi ziren etortzen eroatera. Etorkinak.

164. Garraioak: tranbia, autobusa, topoa, zaldi-karroa (HON-011/010)

Irunera tranbian, eta Donostiara topoan joaten ziren, eta autobusez ere bai gero; kamioietan eramaten zuten tratua. Igandetan Errenteriara joaten ziren. Zaldi-karroa beraiek ez zuten plazara joateko erabiltzen.

165. Esnea partitzen Marinan (HON-011/011)

Eskolara joan aurretik partitzen zituen esneak, Marinan. Karrotxo batekin. Udan gehiago saltzen zuten. Kolonietan ere bai. Beti kargatuta. Ezkondu ondoren ikasi zuen behiak jezten; gizonen lana zen.

166. Behiak gobernatzen; jatena eta azpiak (HON-011/012)

Dozena erdi behi. Aitak gobernatzen zituen. Jatena. Pentsua. Erremolatxa eta arbia. Igitaiarekin txikitu. "Iñaurkiña", azpiak egiteko. Belar meta.

167. Odolkiak eta txerri-muinak (HON-011/013)

Komuna nolakoa zen. Txerria hiltzen zuten. Auzoko bat joaten zen hiltzera. Odolkiak egiteko modua. Labaderoa zuten etxean. "Txerri-moniyak". Txorizoak egiten.

168. Urdaiazpikoa ganbaran zintzilik (HON-011/014)

Urdaiazpikoa gatzetan jartzen zuten. Gainean karga jartzen zuten, harriak, odola ateratzeko. Lehortzean, piper gorria eta ozpina ematen zieten. Ganbaran zintzilik.

169. Eguneko otorduak (HON-011/015)

Berdura eta babarrunak, garbantzua, arroza... "Leikua". Gosaltzeko, esnea txokolearekin. Taloa ez zaio sekula gustatu. Udan goiz jaikitzen ziren, tratua prestatzeko. Ogitartekoa plazan bertan hartzen zuen. Erosketak Marinan egiten zituen amak.

170. Errazionamendua; ogia eta olioa (HON-011/016)

Errazionamendua. Kartilarekin joaten zen ama dendara. Ogia nolakoa zen. Hendaia joaten ziren ogi zuri bila. Olio osabak ekartzen zuen, eta komunean ezkutatzen zuten. Ezkondu ondoren, kooperatibara.

171. Josten ikasi zuen; tabernan zerbitzen (HON-011/017)

12 urterekin hasi zen josten ikasten, mojekin. Etxeko arropa berak josten zuen. Tela lrunen erosten zuen. Josteko makina oparitu zion amak ezkondu zenean. Bordatzen. Trabajo Social ez zuen egin berak, baina pasaporte ateratzeko beharrezkoa zen. Bizikletan ibiltzen. Izebarekin lanean, jatetxean. Baserria non zegoen. Edariak saltzen ere ibili zen. Orduko edariak.

172. Igandetako dantzara; neska laguntza (HON-011/019)

Igandetako dantzara joaten zen lagunekin, udan alamedan. Neguan txandaka, lrunen eta Hondarribian. Bileretara ez ziren joaten. Dantza lotua. 18 urterekin hasi zen mutil-lagunarekin. Etxera laguntzen zieten, baina arrimatu gabe.

173. Mezetara fin-fin; diru gutxi poltsikoan; arropa (HON-011/020)

Elizaren indarra. Dena bekatua zen. Apaiza. Seietarako mezetara joaten ziren askotan. Bezperak, arratsalde; gozokia erosi eta etxera. Kale saltzailea. Diru gutxi zuten, eta inbidiaz begiratzen zieten pastelei. Arropa ere emandakoa zen askotan; neguan bat eta udan bestea. Igandetako arropa. Oinetakoak. Hanka hutsik ibiltzeko ohitura. Amak bai, baina berak ezin zuen.

174. Garbigailurik gabeko garaia (HON-011/022)

Arropa etxeko labaderoan garbitzen zuten; ezkondu zenean, baina, urik ez zuten. Arropa garbitzen. Garbigailua. Dutxa.

175. Markesaren etxean errentan (HON-013/002)

Bere jaiotetxea markes batena zen eta errentan bizi ziren; urtean behin ordaintzen zuten arrautza eta kapoiekin.

176. Dantzatzeko trebea (HON-013/009)

Jaietan dantzara joaten ziren Irungo "Xorrua" tabernara. Han Valentin eta Sebastian ziren soinu-jotzaileak. Irungo dantza-lehiaketetara eraman nahi izan zuten, baina Ebaristak ez zuen joan nahi izan, baserritar trajea egitea oso garestia baitzen. Behin, hala ere, lehiaketa batera aurkeztu eta irabazi egin zuen. Dantza soltea eta lotua dantzatzeko zituen Ebaristak, biak libre baitziren.

177. Aita hil ostean, anaia gauzain-lanetan (HON-013/013)

Barazki asko egiten zuten etxean. Aita Sagarzazu alkatearekin aritzen zen lanean. Gerora, aita hil egin zen eta alkateak Ebaristaren anaia zaharrena sartu zuen gauzain. Gauzainak zer zeregin izaten zituen azaltzen du.

178. Anaia gerran hil zeneko nahigabea (HON-013/014)

Anaia gauzaina gerran hil zen, bera zegoen barkua hondoratu egin baitzuten: Balears gurutze-ontzian zegoen. 17 urte zituen anaiak gerrara joan zenean. Anaiaren heriotzaren berri eman zieten, nahigabe handia hartu zuten etxean.

179. Herria gerratik ihesi (HON-013/016)

Gerran, Hondarribiko 18 mutil hil ziren, soldadu joanda. Jende askok ihes egin zuen herritik, frontera ez joatearren. Ahizpa zaharrenak eta anaia gazteak lortu zuten Iparraldera ihes egitea, eta han gelditu ziren gerra bukatu arte.

180. Gerra bukaerako zigorrak eta liskarrak (HON-013/019)

Gerra bukatutakoan, Hondarribian emakume askori moztu zieten ilea zigorgisa, nazionalistak izateagatik. Botoa nori eman erabakitzeke izandako arazoak kontatzen ditu.

181. Aita hargina zen (HON-013/020)

Aitak etxeak egiten egiten zuen lan. Gaur egun ez du inork nahi hargina izan, harriak sortutako hautsak birrikak hondatzen baititu. Aitak egindako obrak aipatzen ditu. Aitona langileburua izan zen, eta harekin ikasiko zuen aitak hargin-lanbidea.

182. Mendian iratze bila (HON-013/027)

Ebarista joaten zen iratze bila mendira. Segan ere aritzen zen, eta anaiaren laguntzarekin kargatzen zuen gurdia iratzez.

183. Errotan lo egin behar izaten zutenekoa (HON-013/028)

Arto asko landatu izan du Ebaristak. Gerra ostean, errotara ezkutuan joaten zirenean, han bertan lo egin behar izaten zutenekoa gogoan du.

184. Behiak zaintzen (HON-013/029)

Amak jezten zituen behiak; 14 behi zituzten baserrian. Behiei belarra, artoa, erremolatxa, arbia... ematen zieten jaten. Jatena nola prestatzen zuten azaltzen du.

185. Etxeko komuna eta ura (HON-013/031)

Baserriko komuna non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du. Etxean urik ez zutenean, ondoko baserrira edo errebara joaten ziren bila. Bazegoen iturri bat ere, ura Guadalupetik zetorren eta ona zen. Ura uztarrian ekartzen zuten etxera.

186. Lapak biltzen zituzten (HON-013/034)

Lanpernak nola biltzen zituzten aipatzen du. Harrapatutako lanpernak saldu egiten zituzten. Lapak gordinik edo saltsan eginda jaten zituzten.

187. Txori batzuk entzuteko eta besteak jateko (HON-013/037)

Txoriak harrapatzen zituzten lehen, txolarreak hain zuzen ere. Zer teknika erabiltzen zuten azaltzen du. Txori batzuk jan egiten zituzten, eta beste batzuk abesteko izaten zituzten etxean.

188. Umeak jaiotzen laguntzeko teknikak (HON-013/041)

Umeak jaiotzen lagundu izan du Ebaristak. Orduko teknikak aipatzen ditu.

189. Abarkak eta galtzak beraiek egiten zituzten (HON-015/005)

Autoen pneumatikoekin egiten zituzten abarkak; eta zakuekin galtzak.

190. Gazta nola egiten zuten (HON-015/007)

Gazta lehen nola egiten zuten azaltzen du. Hartarako egurrezko ontziak erabiltzen zituzten.

191. Maisuak eskatutako makilaren bila... (HON-015/010)

Txakolan ibili zen eskolan. Garai hartan oso inuzenteak ziren, eta ez ziren konturatzen noiz nahi izaten zituen zigortu maisuak.

192. Trenbideko lana (HON-015/014)

Trenbideak konpontzen egin zuen lan Zelestinok. Zer lan eta tresna izaten zituzten azaltzen du. Lanean gosaltzen zuten eta bazkaltzera etxera joaten ziren. Beraiei zegokien trenbide zatia Hendaia eta Errearteria bitartekoa zen.

193. Hargin-peoi lanetan ibilitakoa (HON-015/015)

Hargin-peoi lanetan aritu zen, eta handik morroi joan zen baserri batera. Harginekin zer lan egiten zituen aipatzen du: masa egiten zuen, besteak beste.

194. Gran Solen eta Ternuan izandakoa (HON-015/017)

22 urte zituela, itsasoan lanean hasi zen: Gran Sol aldera joaten ziren, eta gerora Ternuara. Ternua, baina, ez zitzaion gustatu eta beste barku batera joan zen lanera.

195. Begia galdu zueneko gorabeherak (HON-015/018)

Gran Solen zebilela arrantzan, begia galdu zuen. Istripua nola izan zen azaltzen du. Gerora arazoak izan zituen kalte-ordainak jasotzeko eta ezer gabe geratu zen.

196. Itsasontziko bizimodua Gran Solen arrantzan zebiltzala (HON-015/021)

Pasaian lan egin zuenean, Gran Sol aldera joateko itsasontziko bizimodua nolakoa zen azaltzen du: oheak, komunak, otorduak, sukaldaria...

197. Legatza harrapatzen (HON-015/023)

Legatza nola harrapatzen den azaltzen du: sareak, poleak...

198. Itsasontziko jorнала eta gastuak (HON-015/026)

700 pezetako jorнала izaten zuen itsasoan zebilela, baina barkuan jaten eta edaten zutena beraiek ordaindu behar izaten zuten.

199. Bakailaoa kontserbatzeko moduak (HON-015/029)

Bakailaoa nola kontserbatzen zuten azaltzen du. Orduan hotza pasatzen zuten, eta hartarako erabiltzen zuten arropa aipatzen ditu.

200. Jeneroa entregatzeko komeriak (HON-016/007)

Lehen janaria gorde egiten zuten udaletxean entregatu behar ez izateko. Beste batzuek, ordea, jeneroa erosi egin behar izan zuten eskatutakoa entregatu ahal izateko.

201. Hondarribiko gabarren erabilera (HON-016/010)

Garai batean, Hondarribian gabarraren bidez husten zuten hondarra baserrietan, behien azpiak egiteko. Pako bera aritu zen lan horretan. Gabarra nolakoa zen azaltzen du. Hondarribiko hondartzan biltzen zuten hondarra.

202. Soldadutzako anekdota (HON-016/017)

Soldadutzan zegoela, guardia egitea tokatu zitzaion batean gertatutakoa kontatzen du.

203. Beheko sua eta hartarako egurra (HON-018/015)

Beheko sua nolakoa izaten den azaltzen du: hauspoa, sutarako egurrak.. Egurra inguruko oihanetatik ekartzen zuten.

204. Sukaldeko tresneria (HON-018/016)

Taloak egiteko pala bat erabiltzen zuten. Platerak portzelanazkoak izaten ziren; pitxerrak aluminiozkoak. Ama arduratzen zen sukaldeko lanez.

205. Lehen babarrunak eta gaztainak ugari (HON-018/017)

Babarrunak jaten zituzten lehen ia egunero. Postrea oso gutxitan jaten zuten: urtean bitan izaten zuten arroz-esnea. Oilaskoak hazten zituzten, baina saldu egiten zituzten diru harekin arraina eta errenta ordaintzeko. Gaztaina asko jaten zuten.

206. Belarren onurak (HON-018/019)

Kamamila bila ibili izandakoa da Bixente, baina ez zuten saltzen, etxerako izaten zen. Berbena-belarrak beti izaten zituzten, zauriak sendatzeko onak baitziren. Pasmobelarraren erabilerak aipatzen ditu.

207. Urik ez etxean (HON-018/022)

Etxean lehen ez zuten urik. Edateko ura inguruko iturri batetik ekartzen zuten; gerora konturatu ziren ez zela edangarria. Arropa garbitzeko erreka joaten ziren. Garbigailua asmakizun handia izan da.

208. Angula bila aitarekin (HON-018/026)

Aitarekin joan ohi zen umetan angula bila; nola harrapatzen zituzten azaltzen du. Hartzen zutena etxerako izaten zen.

209. Amute inguruko lantegiak (HON-020/002)

Ama baratzean ibiltzen zen. Aitak atxikoria lantegian egiten zuen lana. Rafael Ezkerra zen nagusia. Kontserba lantegia eta dolareak. Mendeluko sagardotegia.

210. Bainujantziak sutara (HON-020/010)

Igandero Guadalupera joaten ziren kamamila bila. Arrokatara ere bai. Ama mendizalea zen, eta ondo iruditzen zitzaion, baina dantzara joatea ez. Fraideei jaramon eginda, amak bainujantziak sutara bota zizkien.

211. Ardoa azukrearekin (HON-020/013)

Izeba Francisca, amaren ahizpa, Irundik Hondarribira joan zen bizitzera. Ama harengana joaten zen igandetean, mendi buelta eginda; ardoari azukrea botatzen zion. Pilotazaleak ziren biak.

212. Amuteko tabernak; emakumeak tabernan (HON-020/017)

Erosketak egitera beti Irunera joaten ziren, baina Amuten bazen janari denda ere; taberna ere bazen. Beraiek sartzen ziren tabernan, baina emakume bakarrak ziren.

213. Alamedara dantzara eta mendira (HON-020/025)

Hondarribiko alamedara joaten zen beti, igandero. Mendira joaten ziren, eta gero arraina tabernan jan. Dantza gutxi egiten zuen, ama begira egoten zelako. Kongregazioa.

214. Labaderoa eta koltxoiak (HON-020/028)

Amuteko labaderoa. Arropa garbitzea. Koltxoiak jotzea.

215. Irungo tela denda batean lanean (HON-020/032)

Bazkari berezia egiten zuten festetan. Zer jaten zuten normalean. Arrain saltzaileak etxeraino joaten ziren. Amuten tranbia ez zen geratzen batzuetan, beteta joaten zelako. Irungo tela denda batean egin zuen lana.

216. Gurasoak baserritarrak, kalera ezkonduak (HON-021/002)

Biteri eskolaren ondoko etxean jaioa, tranbiaren kotxeren ondoan. Frontoi zaharra. Ama Etxanea baserrikoa zen eta aita Martitxenea baserrikoa. Kalera ezkondu ziren; aita tranbian egiten zuen lana.

217. Aitak tranbia bideak konpontzen zituen (HON-021/004)

Aitak tranbia bideak konpontzen zituen. Irun-Hondarribia. Tranbia kendu zutenean, Irunen hasi zen lanean, obretan. Tranbiaren ibilbidea. Tranbiaren erremolkea, berdurak eramateko.

218. Mutikotan karramarroak harrapatzen (HON-021/005)

Hondarribiko erriberak: aireportua den tokian dena baratzeak ziren. Igeri egitera eta karramarroak harrapatzea joaten ziren. Plaiaundi. Igeri egiten non ikasi zuen, kolpera. Hondartzara joateko ohiturarik ez zegoen. Karramarroak nolakoak ziren.

219. Almeja biltzaileak eta gabarrariak (HON-021/006)

Makilak jartzen zituzten, amuekin, baina ez zuten arrantza egiten. Adinekoek bai. Lupiak eta izokinak. Almeja biltzaileak. Dena dragatu zuten, eta horrela

bukatu ziren almejak. Gabarrarien lana: hondarra eramatea. Amuten eta Santa Engrazian husten zituzten gabarrak. Obretarako erabiltzen zuten hondarra.

220. Txoritan, erriberan (HON-021/007)

Txori asko ibiltzen ziren erriberan, eskopetarekin. Euria egiten zuenean, ehizara ateratzen ziren. Tiragomarekin, erreklamoan eta sarearekin. Txori motak: hegaberak, ahateak, giroi-erreala...

221. Txoritan, Jaizkibelen (HON-021/008)

Usoak. Jaizkibel erre zenekoa. Birigarroak eta oilagorrak. 70 birigarro harrapatu zituenekoa kontatzen du. Saldu egiten zituzten. Txori txikitan ez da ibili.

222. 13 urterekin behizain, 14rekin kordelak egitera (HON-021/014)

Biteri ondotik amaren baserrira joan ziren bizitzera, eta gero Kosta auzora. Ezkondu arte bizi izan zen han. Mugarrieta baserrian zituzten osabak; 13 urterekin behizain joan zen hara, urtebeterako. Ondoren kordeleria batean hasi zen lanean, Hondarribian, Garcia anaiekin; sokak, arrantzarako. Juanito Alonso futbol jokalaria.

223. Igeltsero lanetan, soldadu joan arte (HON-021/015)

Igeltsero peoi hasi zen, Joakin Manterolarekin. Soldadu joan arte ibili zen han. Tresnak. Sabaia nola egiten zituzten. Igeltsua. Bueltan, ez zen lanik.

224. Coloniales janari biltegian lanean (HON-021/016)

Coloniales janari dendan hasi zen lanean, biltegian. Bizikletarekin egiten zuen banaketa hasieran, gerora furgonetan eta kamioiarekin. Lan gogorra zen, pisu handiekin ibiltzen ziren.

225. Biterin eskolan I (HON-021/018)

Biterin ibili zen eskolan. Bigarren mailan 5.000 pezetako saria eman zioten. Don Jose Berenguer eta Don Regino maisuak. Erdaraz ez zekien hasi zenean. Neska-mutilak aparte; señorita Pepita. Zigorrak. Maisuak esne bila bidaltzen zuen.

226. Biterin eskolan II (HON-021/019)

Ez da gerrarekin asko akordatzen. Tunel batera joan ziren ezkutatzera. Eskolan Cara al Sol kantatu behar izaten zuten. Ez zioten euskaraz egitea galarazi.

227. Pilotan eta igelak harrapatzen (HON-021/020)

Jolastorduan pilotan aritzen ziren frontoi zaharrean. Merche dendan erosten zituzten pilotak. Kanikak. Igelak harrapatzeko tresna; igel hankak jateko goxoak ziren.

228. Diru gutxi eta gose handia (HON-021/021)

Gose garaia zen. Aitak 10 pezeta irabazten zituen. Ama berdurak saltzera joaten zen Irunera. Ogia lapurtzen. Baserri handietan hobeto ibiltzen ziren. Taloak. Aitak txekor bat hazi eta hiltzen zuen urtero.

229. Errazionamendua eta eskasia (HON-021/022)

Errazionamendua. Ogia. Sardina-zaharrak eta potajea. Lehengusu arrantzaleek arraina ematen zioten aitari. Pagarik ez zieten ematen, eta erregetako oparirik ere ez zuten. Oinetakoak. Neguan ere alpargatekin.

230. Aitak ardiak eta betizuak zituen (HON-023/002)

Arkoila auzoko Endanea baserrian jaioa da. Aitak Jaizkibelen betizuak eta artaldeak zituen; betizuak Aralarra eramaten zituen udaberrian. Belar metak, patata eta arbia. Arkumeak. Ardi esnea eta mamia saltzen zuten. Baratzak ere bazuten.

231. Mamia eta gazta nola egiten zituzten (HON-023/004)

Mamia nola egiten zuten, "gatzaria"-rekin. Gazta nola egiten zuten. Eskuz estutzen zituzten. Gatzura.

232. Arreba itsu geratu zen gerra denboran (HON-023/005)

Arreba zaharrena itsu geratu zen gerra denboran. Logroño okulista batengana eraman zuten, baina ezin izan zuen sendatu. Ondo moldatzen zen etxeko lanetan eta umeak zaintzen. Zazpi seme-alaba izan zituzten.

233. Berdurarekin 34 dendatara (HON-023/007)

34 dendatara eramaten zuten berdura egunero, Irunen eta Hondarribian. 110 dozena letxuga, porrua... Sasoiz kontrako porrua nola atera aurrera. 2.000 metro koadro porru. Zaragozako feria batean erosi zen makina, porruak dozenaka lotzeko. Astean behin egiten zituzten kontuak dendariekin. Zaldi karroa.

234. Zaldi karroan berdura banatzen (HON-023/008)

Umetatik hasi zen zaldi karroarekin berdura banatzen. Avia kamioia erosi zuten gero; kartolekin. Bueltan, jan soberakinak jasotzen zituzten tabernetan. Berdura nola prestatzen zuten, letxuga eta perrexila goizean. Txandaka egiten zuen, Irundik ala Hondarribitik hasi banatzen.

235. Laia; txerri haztegiko lanak (HON-023/009)

Laiarekin ibiltzen ziren hasieran. Udan lau letxuga uzta egiten zituzten eta neguan eskarola. Ongarria. 50 txerri gizentzen zituzten eta behiak ere bazituzten. Txerri jana. Jatetxeetan jasotako soberakinak eta ogia. Txerri haztegia nolakoa zen.

236. Txerriak eta behiak hazten (HON-023/010)

Txerriak hazi eta saldu egiten zituzten. Etxean hiltzen zituzten bi. Nafarroara joaten zen "kuttinak" erostera, txerrikumeak. Udan gehiago hazten zituzten. Behi suitzarrei txuleta ematen zien jaten, jatetxeetan sobratutakoa. Esnea hoteletara eramaten zuten.

237. Behi suitzarrak (HON-023/011)

Sei behi zituzten. Udaberriko umatzen ziren. Txakarranean zezena zuten, eta hara eramaten zituzten behiak. Uztarrirako ere onak ziren. Esnea holandarrek baino gutxiago baina lodia ematen zuten, eta haragia ere hobe zuten.

238. Gazta egiten II (HON-023/012)

Gaztak zintzilik izaten zituzten. Bere sasoikoa izan behar du gaztak, bestela harrak jaten du. Gazta nola egiten zuten. Goierrin erosten zituzten zurezko ontziak; gainean trapua jarri, eta zapaldu. Lehortzeko modua.

239. Gazta zaharra eta gaztanbera; artaldeak (HON-023/013)

Gazta zaharra, lau-bost hilabetekoa. Teilatupean izaten zituzten gaztak. Eskuekin nahasten zuten. Gatzura bildu eta egosi egiten zuten, gaztanbera egiteko. Gazta-ontzia. Hondarribian zeuden artaldeak aipatzen ditu. Belazeari txori-gorotza botatzen zioten. 140 ardi inguru. Arkumeak etxetik saltzen zituzten.

240. Betizuak Aralarrera eramaten (HON-023/014)

Aitak jarri zituen ardiak. 30 betizu; haiek Aralarrera nola eramaten zituzten. Aurretik behorra, farolarekin. Gerra garaian arazoa izan zuten, betizuek Aralarrera alde egiten zutelako. Hala, trenak hiru betizu harrapatu zituen. Amezketa bazkaltzen zuten, bidean. Betizuen haragia.

241. Hiltegiraino oinez (HON-023/016)

Betizuak saltzen. Oinez eramaten zituzten, hanka lotuta. Hondarribiko eta Irungo hiltegirira eramaten zituzten. Pasadizo bat kontatzen du. Ferratokiak.

242. Iratze bila Jaizkibelera; zakar metak (HON-023/017)

Iratze bila Jaizkibelera joaten ziren. Lehenengo sega makinak iskanbila piztu zuen. Hiru kamioi kargatu zituzten, eta baserritarrak kexu. Herri lurak. Pasaiaiko guarda. Zakar metak egiten zituzten. Gurdiak.

243. Bizikletan sega hartuta (HON-023/018)

Segarekin ebakitzen zuten iratzea. Euri denboran joaten zen mendira, bizikletan Jaizkibelera. Aise egiten zuen buelta, aldapan behera. Bizikleta beti ezagutu du.

244. Behorrarekin errotara (HON-023/019)

Behorrarekin joaten ziren errotara. Goiko errota, erdikoa eta behekoa. Ibarlara joaten zen. Nafarroara ere bai, Gipuzkoan errotak itxita zeudelako. Irina ohe azpian sartzen zuten, ez hondatzeko.

245. Ama tratuarekin plazara, Irunera (HON-023/020)

Umea zela, ama tratuarekin joaten zen plazara. Tranbian Irunera. Berak ematen zion abixua. Buruan eramaten zuen berdura. Bagoia zuen tranbiak, berdurarentzat. Postua zuen azokan. "Zizerua".

246. Txoriak harrapatzen, gero saltzeko (HON-023/021)

Esnea, barraskiloak eta txoriak ere eramaten zituen amak plazara. Artotako harrak erabiltzen zituzten txoriak harrapatzeko. Txori batzuk aipatzen ditu. Eskolara joan aurretik jartzen zituen zepoak. Pospolo kaxan izaten zituen zomorroak.

247. Lanpernak, txirlak eta almejak (HON-023/022)

Arrokatan ere ibiltzen ziren, lanpernatan. Ilargia kontuan izaten zuten, itsasoa ere bai. Errioan almejak hartzen zituzten. Txirlak, tretxua... gabarrarekin ibiltzen ziren. Erriorako baimena behar zen, eta Komandantzian ez zuten erraz ematen. Osabak lortu zion.

248. Gabarrarekin hondar bila eta kontrabandoan (HON-023/023)

Almejak nola aldatu eta nola atera. Gabarran gauzak nola ezkutatzen zituzten, bestaldera pasatzeko. "Eltzetzuak". Hondarra ekartzen zuten ganaduaren azpitarako eta lurrarentzat. Baratzearentzat oso ona da.

249. Hondarra nondik ekarri (HON-023/024)

Hondarra nondik hartzen zuten kontatzen du. Gabarra batekin bi karro betetzen zituzten. Gabarra etxekoa zuten. Arrantza lehorretik egiten zuten.

250. Hendaiatik Hondarribira buelta, bost urterekin (HON-026/004)

Hendaiako oroitzapenak. Domingo Ospital. Hendaiako kasinoaren azpian egiten zuen lo. Goserik ez zuen pasatu. Bost urterekin bueltatu zen Hondarribira. Amak bentan egiten zuen lana. Ama portuarra zen, aita Elgetan jaioa, baina arrantzalea; aitona mikeletea zen, Eskoriatzakoa berez.

251. Amak arraina eta karrakelak saltzen zituen (HON-026/005)

Amak arraina saltzen zuen. Erreenteriara joaten ziren, aita itsasoan zen bitartean. Izeba bere "maidiya" zen. Amak buruan eraman zuen otarra, eta oinez joaten zen Irunera. Behin lorito batekin gertatu zitzaiona. Benta. Karrakelak ere saltzen zituen, San Pedro kalean.

252. Benta Zaharrear lanean I (HON-026/006)

Amari buruzko oroitzapenak. Benta Zaharrear atunaren gibela erosten zuten, saltzeko; karroarekin joaten zen, 13 urterekin. Irunera joaten zen eskolara. Gibela medikuei saltzen zieten.

253. Benta nola egiten zuten (HON-026/007)

Rufino Amunarriz zen benteroa. Euskaraz izaten zen benta. Arroa zen neurria: 10 kilokoa eta 20 kilokoa ere bai; Hondarribiko berezitasunak.

254. Benta Zaharrear lanean II (HON-026/008)

13 urterako bentan ibiltzen zen lanean; karroarekin atun gibelak hartu, gazitu... Hegalaburra. Amak Orlando italiarrarentzat hartzen zuen arraina. II. Mundu Gerran sardina asko harrapatzen zuten.

255. Arrantzaleen semeak arrantzale izaten ziren (HON-026/009)

Itsasorako zaletasuna eta ohitura. Semeek aiten ofizioekin segitzen zuten, lantegirik ez zegoen eta. Anaia kapitaina zen 27 urterekin. Aita Pasaian ibili zen arrantzan, eta ondoren Hondarribian. Zimarroia edo hegamotoza. Aitona Terranovan ibilia zen, arraunean.

256. Legatzetan hasi zirenean, ontzi kopurua gora (HON-026/010)

Aita inguruan ibiltzen zen arrantzan, urrutira gabe. Itsasontziak txikiak ziren, eta egunero bueltatzen ziren etxera. 1955. urtetik aurrera egon ziren ontzi gehien, 1980 bitarte. Legatza harrapatzen orduan hasi ziren. Neguan, txipiroiak.

257. Txipiroiak; norberak egindako aguarinak eta berunak (HON-026/011)

Txipiroitara nora joaten ziren, motor txikiarekin, gauez. Aguarinak etxean egiten zituzten. Beruna urtu egiten zuten. Sarearen berunak ere etxean egiten zituzten. Moldea. Amu onenak Norvegiakoak ziren.

258. Atunetan txurikinarekin, kazan (HON-026/012)

Atunetan txurikinarekin egiten zuten, arto azalarekin egindako aparejuarekin. Etxeko andreak tindatu egiten zituzten. Orraztu egiten zuten azala, eta amuaren bueltan jarri. "Kazea". Alanbrea Eustakio Berrotaranek egiten zuen, lodiera ezberdinetakoa.

259. Atunetan kanaberarekin, biberoarekin (HON-026/013)

Gero biberoarekin hasi ziren, kanaberarekin. Atuna ontziratzea. Aitak izan zuen istripua. 25 urterekin hasi zen bapore handian. Biberoarekin atuna nola arrantzatzen den.

260. Atunetara nora joaten ziren (HON-026/014)

Atunetara gertu joaten ziren hasieran, gero urrutiago. Lau gau eta lau egun, urrutien. Azores aldera ere joan izan dira. Arraina bazegoen.

261. Eskolan, 14 urte arte (HON-026/016)

Eskolara 14 urte arte joan zen. 13 urterekin Irunera joaten zen, partikular. Biterin eta portuko eskolan ibili zen. Mutilak bakarrik zeuden gelan, maisuarekin. Hipo deitzen zioten maisua. Umetako jolasak: treneko txartelak, kanikak, baloia... Jaizkibelera egur bila. Ikatza.

262. 14 urterekin hasi zen arrantzan (HON-026/018)

14 urterekin hasi zen arrantzan. Aurretik, osabekin joaten zen batzuetan, laguntzera. Aingirak, zakaraioak... Palangrea. Motor txiki bat zuten, eta aitonarekin joaten zen. Neguan, txipiroiak. Donostiara saltzen zituzten asko.

263. Zaldi ilearekin egindako pita (HON-026/019)

Pita nolakoa zen lehen, zaldien buztaneko ileekin egina. Arraunean egiten zuen arrantza hasieran, aitonarekin eta osabarekin.

264. Sasoi bateko estropadak (HON-026/021)

Berandu arte ez zuten txaluparik izan. 2.000 pezetarekin erosi zuten. Aitonak bazuen. Arraunean. Oriotarrak ziren nagusi estropadetan. Hogei eguneko entrenamendua eta estropada gutxi, sasoi batean. Batelak.

265. Arrantza nagusiak: antxoa, atuna eta legatza (HON-026/022)

Antxoa eta atuna ziren arrantza nagusiak. Gero, legatza ere bai neguan. Atunaren kanpaina bukatzean, legatzetara; batzuek urte guztian ibiltzen ziren legatzetan. Bisigua. Hotza. Oinez joaten ziren kaira.

266. Itsasontziak eta patroia lana (HON-026/023)

Zein itsasontzitan ibili izan den azaltzen du. 1967an egin zuten bat. Ondarroan erosi zuen azkena. Makinan ibili da. Lehen ontzian osaba zen patroia, eta gero bera. Patroiaren lana.

267. Patroi batzuen trebetasuna (HON-026/025)

Patroien arteko lehia. "Bilaba". Batzuek oso trebeak ziren arraina topatzen. Eskolarik ez zuten, baina asko zekiten. Radarra 1973an jarri zuten. Aurretik, begiz ikusten zuten. Batzuek ikusten zutena besteek ez.

268. Ontziko bizimodua: zer jan eta nola lo egin (HON-026/026)

Ordu asko pasatzen zituzten ontzian. Jateko nola moldatzen ziren. Sukaldaria izaten zuten. Atuna, oilaskoak, bakailaoa. Zirari olioia ematen zieten. Egurrezko eskalaproiak, gomarekin. Lotarako, katreak. Edateko, ardoa eta ura.

269. Ontziko giroa (HON-026/030)

Ontzian 12-14 lagun joaten ziren. Eztabaidak izaten ziren, baina haserre handirik ez. Eguneroko otorduak. Bera ez da edalea izan, baina baziren batzuk.

270. Arrantzaleen emazteak (HON-026/031)

Arrantzalearen emaztea ama eta aita da era berean. Beraiek ez zituzten umeak ikusi ere egiten. Emaztearen bizimodua. Emakume gogorrak.

271. Umeek aita ez ezagutzea (HON-026/033)

Arrasterotan zebiltzanek arazoak izaten zituzten: umeek aita ez ezagutzea. 1978an Venezuelara joan ziren, sei hilabeterako.

272. Legatzetarako kalak eta aparejuak (HON-026/034)

Legatzetara bi-hiru orduko bidean. Kalen izenak. Amuz egiten zuten arrantza, beraiek egindako aparejuekin. Karnata. Lehenengo izotz-makinak. Aurretik, Pasaiara joaten ziren karnata bila. Arraina kubiartan ekartzen zuten.

273. Bisigu asko zegoen lehen (HON-026/035)

Bisigua nola galdu zen ez daki. Amuz harrapatzen zituzten, Eskote eta Gaztelu kaletan. Bisigu asko jaten zuten.

274. Tximistenea baserrikoa (HON-028/003)

Tximistenea baserrian jaio. Lehen Soroetagain deitzen zen. Baserria erre egin zen. Senide denei "Tximista" deitzen diete. Aita bertakoa zen, ama Goierrikoa. Sei senide ziren.

275. Errenta ordaintzera Irunera (HON-028/004)

Patxo Rodriguezena zen etxea. 1980an erosi zuten. Errenta zenbat ordaintzen zuten. Kapoiak eramaten zituzten Irunera, Gabonetarako. Baserritar gehienak maizterrak ziren lehen. Baserriaren gainbehera nola etorri den esplikatzeko du.

276. Desagertutako baserriak (HON-028/006)

Desagertutako baserriak aipatzen ditu: toki askotan zituzten behiak, orain inon ez. Bota ere asko egin dituzte.

277. Ur bila iturrira; errekan bainatzen (HON-028/007)

Ura eta argia baserrian. Ur bila joaten ziren iturrira. Arropa garbitzera labaderora. Maizterrak zirenez, ez zen erraza etxean obrak egitea. Beraien buruak nola garbitzen zituzten. Txiplau errekan bainatzen ziren.

278. Txiplau erreko fauna (HON-028/008)

Txiplau errekan angulak zeuden, eta arrainak. Gabarrak sartzen ziren. Lurrez betetzen joan da. Txitxarroak, korrokoak, aingirak. Almejak. Ibili izan da arrantzan han, baina arrainek lohi gustua zuten. Izokinak, karramarroak, izkirak. "Pertola".

279. Errementari lanetan I (HON-028/009)

Ez zen arroketa joaten. Gerra ondoren baratzean ibiltzen ziren; ondoren, kanpoan hasi zen lanean. 13 urterako. Seguridade soziala. Lehenengo lana. Errementari. Aingurak, balkoiak... Su-tokia nolakoa zen. Lexikoa. Hauspoa.

280. Errementari lanetan II (HON-028/010)

Hondarribiko errementariak. Erabiltzen zituzten tresnak. Burdindegiko langileak. Gero 30-40 elkartu ziren, Mendelun. Denetik egiten zuten. Patinak egiten ere hasi ziren. Beruna urtzen zuten. Zinka, estainua.

281. Txoriak harrapatzen (HON-028/013)

Txoriak harrapatzen, umetatik. Galarazita zegoen. Sarearekin, ligarekin... txori motak aipatzen ditu. Sarearekin txori txikiak nola harrapatu. Zepoak, zozoak harrapatzeko. Zita da jateko onena, txoka ere bai.

282. Enara da maitagarriena hazteko (HON-028/015)

Enara du gustukoena etxean hazteko. Txantxangorria ez. Beste txori batzuk aipatzen ditu: okil burua handia... Txoritegia. Luartza. "Jardinero jantzailea" deitzen zioten txori bati. Igelak, ttirittak, eta desagertu diren txoriak, pozoia erruz.

283. Igelak eta zapoak (HON-028/017)

Igelak eta zapoak. Igela kolorez aldatzen da. Igelak harrapatzen. Hankak frijituta jaten zituzten. Zapaburuak nola bihurtzen diren igel. Sugeek eta txoriek jaten zituzten. Igel asko zen lehen.

284. Sendabelarrak I: pareta belarra, gibelarentzat (HON-028/018)

Belarrak ere desagertu dira. Alemaniar batek esan ei zuen oso toki aberatsa zela. Sendabelar motak. Nola ikasi zuen bereizten. Infusioa. Berbena. Pareta belarra ona da zirrosia eta hepatitisia sendatzeko.

285. Sendabelarrak II: hainbat belar (HON-028/019)

Berbena belarra. Almorranak kentzeko belarra, bost atzaparrekoa. Iodo belarra. Hagineko mina kentzeko belarra. Ardi mingaina. Tentsioak eragindako buruko minarentzat, belar-mina. Katarroarentzat erremedioak. Haizea atera du begietatik.

286. Sendabelarrak III: iodo belarra (HON-028/022)

Zauriak sendatzeko, pikara belarra, iodo belarra, berbena belarra... Berbenarekin enplastoia nola egiten den, arrautza zuringoarekin, eta zertarako balio duen. Karetzentzat pikara belarra edo iodo belarra.

287. Sendabelarrak IV: ruda, menda eta salikaria (HON-028/023)

Ruda abortatzeko erabiltzen zen, eta zorriak kentzeko ere balio du. Menda-belarra. Belarrak batu eta lehortu egiten ditu, gero erabiltzeko. Salikaria ez du aspaldi topatu; beherakoarentzat da ona. Ginebra ere bai.

288. Errape mina nola kendu (HON-028/024)

Behien errape mina edo "zingriya" sendatzeko, erramua: erre eta errapean jarri, ketan.

289. Txapengoia bizitzera umetan; errenta (HON-030/002)

Txapelin Behea baserrian jaioa, Txapelingoia baserrian bizi da. Umetan joan zen hara bizitzera. Txistea egiten du esanez hurrengo etxea zein izango duen (muinoko etxea, hilerria). Quiroseko markesa zen jabea, eta San Martin egunean errenteroak bidali egiten zituen. Errenta ordaintzera, Donostiara. Kapoiekin lotutako anekdota.

290. Gerra hasi zeneko kontuak (HON-030/005)

Bi hilabeterekin joan zen Txapelingoia bizitzera. Bost senide ziren, eta bat gerran hil zen. Hendaiara joan ziren ihesi, izututa. Bonbak. Guadalupeko gotorlekura joan ziren. Irun sutan; hurrengo egunean joan ziren Hendaiara.

291. Hondarribitik Hendaiara ihesi (HON-030/006)

Hendaiako oroitzapenak. Lasto artean jarri zituzten lotan, pabilioi batean. Arkakusoak zeuden.

292. Hendaiatik bueltan etxera, hurrengo egunean (HON-030/007)

Bartzelonara bidali nahi zituzten jendarmeek, autobusean; ihes egin zuen. Batel batera igo, eta Hondarribira bueltatu zen. Emakume bat uretara erori zen. Villa batera joan ziren bueltan, ganadua hara eramana zutelako.

293. Bueltan, nazionalak sartu zireneko giroa (HON-030/008)

Bueltan, portuko elizako atean bi arrantzale zeuden, zaintzen. Autoak itsasora botatzen zituzten. Hotel batera joan zen bera; soldaduak zeuden han, eta dena hankaz gora. Taka-taka bat ikusi, eta hartu egin zuen. Nola elkartu zen familia guztia. Nazionalak herrira sartu ziren.

294. Hondarribia lehertzeko plana (HON-030/009)

Hondarribia lehertzeko asmoa ei zuten batzuek, kable bidez bonbak botata: artzain bati esker ez zuen funtzionatu. Autoak zergatik botatzen zituzten itsasora. Tiragomak egiteko, kamioiei goma kentzen zieten mutikoek.

295. Bonbak hildako gizona (HON-030/011)

Bonba batek hil zuen gizona, Benjamin. Harrobi zuloan sartzen ziren beraiek. Portuko eliza arrantzaleek defendatu zuten.

296. Parranda utzi, eta esnea biltzera (HON-030/013)

Dantza egitera joaten ziren, baina lana ere franko egiten zuten. Gurasoen esana bete beharra. Aitak-eta Donostiako bandera irabazi zuten eguneko pasadizoa kontatzen du. Goizeko lauretan esnea biltzera joan zen, kofradiako parranda utzita.

297. Eskola garaia; dotrina, baserri eskoletan (HON-030/015)

Biteriko eskolan ibili zen, eta baita maisu herren batekin ere. Baina ez zen asko joan. Dotrina inportanteagoa zen: baserri eskolan ikasi zuen, maistrarekin, eta gero erdaraz. Baina ez du jazarpenik gogoratzen. Baserri eskolak.

298. Dotrina ikasten I (HON-030/016)

Dotrina ondo ikasteko, gogor aritzen ziren apaizak. Belarritik heltzen zien batek; mutiko bati ematen zizkionak.

299. Dotrina ikasten II (HON-030/018)

Aitarekin belarretara joan behar zuelako, ez zen dotrinara joan. Apaizaren zigorra. Apartatuta eduki zuen handik aurrera. Kalabaza ez zuen inork nahi.

300. Apaizaren belarri tirakadak (HON-030/020)

Bihurriak ziren. Behin, elizako atearekin jolasean zebilela, apaizarekin izan zuen ika-mika. Belarritik tira egin zion berriro. Bikarioak ez zuen hori egiten. Neskak bakean uzten zituzten.

301. Argia bai, urik ez etxean (HON-030/024)

Argia beti ezagutu du baserrian, baina ura ez. Beheko errekarra joaten ziren ur bila, porronarekin. Arropa buru gainean eramaten zuten emakumeek, garbitzeko. Esnea partitzea. Berdura saltzera Irunera joaten ziren emakumeak, tranbian.

302. Komuna eta garbitasuna (HON-030/026)

Komuna nolakoa zen. Paperik ez, txurikina erabiltzen zuten. Bainatzeko garaia. Ez zuen igeri egiten ikasi; amak ez zion uzten. Izan ere, anaia Baiaresen hil zen, itota.

303. Arrantzan eta lanpernatan (HON-030/028)

Errekan aingirak egoten ziren; amuarekin harrapatzen zituen. Arroketako arrainak aipatzen ditu. Lanpernatan ibiltzen ziren, egunpasa.

304. Lanpernatan zebilen gizona salbatu zueneko (HON-030/029)

Lanpernatan zebilen gizon bat ia itoan ibili zen; berak lagundu zion irteten.

305. Lapetarako itsasoa (HON-030/033)

Lapa bila joateko, itsasoari begiratzen zioten.

306. Goizean goiz jaikita, baserriko lanetan (HON-030/036)

Etxean ez zuten arrosarioa errezatzen. Goizean goiz jaikitzen zen, lanerako. Eskuz ebakitzen zuen belarra. Behiak. Arrebak joaten ziren esnea partitzera, ezkondu zen bitarte. Ganaduaren jatena. Erremolatxa eta artoa.

307. Iratze eta hondar bila (HON-030/037)

Iratze eta inaurkin bila Jaizkibelera. Hondarra ekartzen zuten hondartzatik, behiak uretan sartuta.

308. Hondar bila joan, eta karabineroarekin borrokan (HON-030/038)

Hondar bila joan zen batean, karabineroak ez zion pasatzen utzi nahi; kontra egin zion berak. Lagun bat kapitainaren laguna zen, eta horrek salbatu zuen.

309. Guardiaz inguratuta, kontrabandoan (HON-030/040)

Guardia asko izaten zen. Marloiak botatzea ere galarazita zegoen. Kontrabandoa: paketeak arroketan jaso, eta Amutera eramaten zituzten. 50 kilotik gorako kargak ziren. Pisua arintzeko batek zer egin zuen.

310. Ilargirik gabeko gauetan kontrabandoan (HON-030/042)

Gauetz ibiltzen ziren kontrabandoan, ilargirik gabe. Ilunpetan ere ikusten zuten. Guardiak bidean topatuz gero, karga bota eta korrika. Elkarri tiroka ibili ziren guardiak, ilunetan.

311. Hondartza garbitzen ibilia (HON-030/044)

Kontrabando lana: 60 duro ordaintzen zieten. Askok zen hori. Baserriko lanez aparte, hondartza garbitzen ere ibilia da. Bildutako zakarra lurperatu egiten zuten.

312. Familiako kontuak, jatorria (HON-031/002)

Artzu baserrian jaioa. Aitak eresia zen. Aita bi aldiz ezkondu zen; lau seme-alabarekin alargundu zen. Gurutzetik hara joan zen bizitzera. Bigarren emaztea zen bere ama, oiartzuarra; beste bost seme-alaba jaio ziren.

313. Argirik eta urik gabe baserrian (HON-031/004)

Artzu baserria nolakoa zen. Argirik eta urik ez zuten. Kinkeak, karburua, kandelak. Berandu joaten ziren ohera, beti lanean. Txikiena zen bera. Zelaitik bueltan, taloa jaten zuten. Esnea saltzen zuten, baina ez zen dirurik etxean. Ogia igandetan bakarrik.

314. Txerria hiltzean, "txerri moniyak" (HON-031/005)

"Txerri muinak" partitzeko ohitura. Lau bizitza zeuden Artzun. "Amautxiaren" etxera asko joaten zen; Bedaiokoa zen, Kontxesi. Asko laguntzen zien. Urdaiazpikoa gatzetan jartzen zuten. Berrotaranez hiltzen zuen txerria. Odolkiak. Hesteak garbitzera iturrira. Gibela jateko ohitura.

315. Senideen bizimodua; kanpora joan beharra lanera (HON-031/006)

Ahizpa bat moja joan zen, bestea neskame Donostian. Zerbitzen oso gutxi irabazten zuten. Bartzelonara joan zen gero ahizpa, eta bertako sukaldariarekin ezkondu zen; jatetxea jarri zuten elkarrekin. Anaiak itsasora joan ziren, arrasterotara. Bat geratu zen etxean.

316. Arropa ote gainean zabaldua (HON-031/007)

Iturria non zegoen, Artzuko errekan. Hasieran hankak uretan sartuta garbitzen zuten arropa, gero ez. Ote gainean zabaltzen zuten arropa, lehortuta etxera arinago eramateko. Buru gainean eramaten zuten, baita astoan ere. "Burukiya". Xaboia.

317. Gobara egitea (HON-031/008)

Gobararik ez zuten egiten, baina Artzuko emakume batek egiten zuen. Hura ez zen iturrira joaten; arropa egosi egiten zuen. Sutako hautsa erabiltzen zuen.

318. Arropaz aldatu, astean behin (HON-031/009)

Astea behin aldatzen zuten arropa, ez egunero. Gorontza erabiltzen zen, ez zen sostenik orduan. Kuleroak bazeuden. Gona luze-luzea. Auzoko emakumearen bizimodua, oso lasaia.

319. San Marcos opila eta postreak (HON-031/010)

Amautxiak San Marcos opila oparitzen zion urtero. Belarritakoak ere bai. Erosi egiten zuen opila. Oso sukaldari ona zen, baina orduko postreak arroz-esnea eta natillak ziren, tartak ez. Garirik ez zen ereiten inguruetan.

320. Neska bakarra izaki, norekin jolastu ez (HON-031/011)

Marinan partitzen zuten esnea. Gazterik hasi zen. Neska bakarra zen Artzun. Ez zuen norekin jolastu, ezta eskolara nora joan ere. Damu jokoa eta kartetan. Aita igandero joaten zen amautxiaren etxera, eta musean aritzen ziren.

321. Umetan, jostailurik ez (HON-031/012)

Panpinarik ez zuen izan, eta ezta oparirik ere erregetan. Balorik ez zen izaten; senarrari gertatu zitzaiona kontatzen du. Pilotan aritzen ziren etxeko paretan.

322. Arroketan bainatzen eta lapa bila (HON-031/013)

Arroketara joaten ziren. Anaiek igerika ikasi zuten, erroetan, baina berak ez. Bainujantzirik ez zuen. Berak ez zuen ikasi. Arrantza: amandietak, gabixoiak, sabiya, lapak... Itsasoko harrak. Lapakia. Lapak gordinik eta zopan. Lapa motak.

323. Lanpernatan, salabardoarekin (HON-031/014)

Lanpernatan ez ziren asko ibiltzen. Senarra bai, asko ibili da. Ez zekien igerian, baina zuloetan sartzen zen. Salabardoa husten zion berak. Lanperna asko zegoen, eta saldu egiten zuten tabernetan.

324. Irunera berdura saltzera (HON-031/015)

Berdura ere saltzen zuten, lehenengo amak eta gero berak. Irunen zuten postua. Tranbian joaten ziren lehenengo, eta gero gidabaimena atera zuenean, autoan. Lehenengotakoa izan zen. Aurrerapen handia izan zen. Kamionetan eramaten zuten berdura, eta beraiek tranbian joaten ziren.

325. Behi esnea eta berdurak (HON-031/016)

Sei bat behi zituzten etxean. Haiek jeztea gizonen lana zen normalean. Esnea partitu eta gero plazara; berdura aurreko egunean prestatzen zuten. Amak animatu zuen autoa izatera eta baita garbigailua ere.

326. Mojetara eskolara joateko bide luzea (HON-031/018)

Artzutik kalera azkar joanda hiru ordu laurdeneko bidea zuten. Bideak txarrak ziren. Oinetako zaharrekin ateratzen ziren etxetik, eta berriak gero jantzi. Gurasoak ez ziren eskolan ibili. Bera Gurutzeko mojetan ibili zen, erdaraz. Dotrina euskaraz ikasi zuen, Don Agustinekin.

327. Fedea ez zaio itzali (HON-031/019)

Mezetara kalera joaten ziren, baita Guadalupera ere. Seietako meza. Marinan zortzietako mezetara joaten zen. Orain ere joaten da Guadalupera. Fede handia du.

328. Elizaren indarra eta bekatuak (HON-031/021)

Elizaren indarra. Apaizek benetako fedea ote zuten zalantza egiten du, zorrotzegiak ziren. Jo ez zieten egiten neskei, baina emakumea zen tentazioa. Mutilek etxera laguntzea, musu ematea... bekatu zen. Jantzkerak, dena tapatuta. Beso motzarekin ezin joan elizara, mutilak ere ez. Mantila.

329. Konfesioa eta absoluzioa (HON-031/022)

Bizikletan ibiltzea ez du uste gaizki ikusita zegoenik. Konfesatu beharra izaten zuten, hilabetero. Dantza egiten zuten mutilekin; apaizak ez zion absoluziorik eman. Esan zion emakumeak zuela ardura.

330. Sexualitatea eta hilerokoa (HON-031/023)

Sexualitatea gurasoek ez zuten aipatzen. Hilerokoa etortzean amak ez zion azalpenik eman, baina berak bazekien ordurako. Informazio falta izan arren, baserrietan animaliak ikusita ikasten zuten, eta bazekiten zer ez egin. Hilerokoa: zapiak ezkutuan, anaiek ez ikusteko.

331. Etxean erditzea, baldintza txarretan (HON-031/024)

Jaiotza. Umeak Paristik zetozela berak ez du sekula sinistu. Umeak etxean izaten zituzten. Lehen umea galdu egin zuen; beste biak Irungo ospitalean izan zituen. Emaginak. Medikua joan zen etxera, baina ez zegoen batere ondo prestatuta. Justuan irten zen bizirik. Sei oilo jan zituen.

332. Nobio kontuak; etxe laguntza (HON-031/025)

Senarra nola ezagutu zuen, auzoan. Bidean lagundu zion etxera. Gero min hartuta egon zen, eta hurrengo igandean ez zuen ikusi. Jaitzubiako jaietan egin zuten topo, eta halaxe hasi ziren, 17 urterekin. Lamedara dantzara.

333. Zinema eta zentsura (HON-031/026)

Nobiotan paseatu eta zinemara. Elizalde zinema aretoa. Zentsura pelikuletan: musuak. Kongregaziotik bota ere egiten zituzten, txorakeriengatik.

334. Konfesioan, mutila libreago (HON-031/027)

Konfesatzera joanda, neskei gehiago galdetzen zieten mutilei baino. Bera ez kontatzen hasi zen, mutilak bezala. Tabernetara ez ziren sartzen normalean, ezta mutilekin ere.

335. Emakumeek erretzea eta edatea (HON-031/028)

Ez zen emakume erretzailerik. Edaten zutenak adineko batzuek bai, etxean, baina gazteek ez. Koñaka eta anisa. Zurruterako afizioa bazuten batzuek Marinan, eta baserrietan ere bazen bat edo beste. Arrazoiak zein izan zitezkeen.

336. Harremanak; ateak zabalik (HON-031/030)

Baserritarren arteko harremana. Oinez ibiltzen ziren, eta asko hitz egiten zuten, orain baino gehiago. Etxeko ateak beti zabalik izaten ziren, baita kalean ere, esnea partitzen ibiltzen zirenean. "Txipitxua". Hamar litroko marmitak.

337. Hondarribiko euskara (HON-031/032)

Hondarribiko euskara. Alde handia zegoen baserritarren eta portuarren artean. Bizkaiera ez du entenditzen. Irungo euskara antzekoa, baina Donostiakoa dotoreagoa iruditzen zaio. Ikastoletako euskara.

338. Urik ez etxean, Ballestenean (HON-032/004)

Argia bai, baina urik ez zuten etxean. Errekara joaten ziren arropa garbitzera eta iturrira ur bila. Ura noiz jarri zuten. Baserria nolakoa den gaur egun eta nolakoa zen: makurtuta ibili behar zuten logeletan.

339. Eskolan, bi tokitan (HON-032/006)

Zortzi bat behi zituzten. Lanean hasi ziren gero. Arreba joaten zen esnea partitzera, astoarekin. Tranbian joaten zen Irunera, plazara. Eskolatik bueltan,

baserriko lanetan. Arma plazara joan zen eskolara, eta gero Amuteko eskolara. Dena erdaraz.

340. Artistas Vidrieros enpresan lanean (HON-032/008)

Artistas Vidrieros enpresan hasi zen lanean, Irunen. Kanporako egiten zituzten lan asko, Japoniarako eta. Batzuk kristalarekin eta besteak metalezko egiturak egiten. Nagusiak zein ziren. Prozesua azaltzen du: marrazkia egin, kristala pikatu, pintzelarekin pasatu, beruna jarri, eta labera.

341. Lanera zihoala, tranbian izandako istripua (HON-032/009)

Irungo Artistas Vidrieros lantegiko lana, kristala pikatzen. Japoniarako eta Mexikorako lan asko egin zituzten. Diseinua. Tranbian izan zuen istripua, Amuten. Bost hilabete pasatu zituen ospitalean, Irunen; baserrian egon zen gero, sukaldean koltxoia jarrita.

342. Iratze bila Guadalupe azpira (HON-032/012)

Iratze bila Guadalupe azpira joaten ziren, gurdiaekin. Metak egiten zituzten. Azpiak egiteko erabiltzen zen, eta gero gorotza. Belar metak. Amutera joaten ziren mezara, Guadalupera baino gehiago. Seietako nobenara, ilunpetan. Gomazko oinetakoak.

343. Dotrina, Hondarribiko parrokian (HON-032/014)

Arropa. Galtza motzak, tirante batekin. Galtza luzeak, 13 urterekin. Txapela. Dotrina Hondarribiko parrokian ikasi zuen, parrokiarekin. Zigorrak. Arrosarioa. Bezperak.

344. Soinua jotzeko zaletasuna, umetatik (HON-032/016)

14 urterekin trikitixa erosi zuen. Igandetean lagunekin elkartu Santiagotxo ermitan, eta jo egiten zuen. Baserri batean lanean ibilita atera zuen dirua: 1.400 pezeta. Errenterian erosi zuen. 18-19rekin akordeoiarekin hasi zen. Zaletasuna nondik datorkion. Etxean soinu zahar bat zuten.

345. Aitaren soinu zaharra (HON-032/018)

Zazpi urterekin hasi zen soinua jotzen, bere kasa. Gero, Jose Manuel Azkue organo jotzailearekin ibili zen pixka batean; bere anaiarekin bili zen gero. Irratirik ez zuten. Aitak 100 pezetatan erosi zuen soinua. Ugaldetxon jotzen zueneko kontu gehiago.

346. Infernuko hauspoa (HON-032/020)

Infernuko hauspoa, fama txarra zuen garai batean trikitiak, baina bera hasi orduko pasata zegoen hori. Pieza zaharrak non entzuten zituen. Ezkondu ondoren, Baionara eta Hendaiara joaten hasi ziren jotzera.

347. Lanez aldatu behar, etxea erosteko (HON-032/021)

Hendaian egin zuen lana hogeitaz urtean, arotz gisa. Etxea erosteko dirua behar zuen, eta lanez aldatu zuen. 175.000 pezeta ordaindu zuen etxea. Ikastaro bat egin zuen, arotzeria ikasteko. Gaspar Montesekin marrazketa ikasten ibili zen.

348. Tranbian joaten zen Irunera (HON-032/024)

Marrazketa ikasketak. Tranbian joaten zen: Irun-Hondarribia ibilbidea. Bidegurutzeak.

349. Gidabaimena ateratzea erraza zen (HON-032/026)

Motoa erosi zuen, Mobileta, eta gero Lanbreta. Azterketa eguna nolakoa izan zen, inoiz motoan ibili gabe atera zuen gidabaimena.

350. Soinua jotzen han eta hemen (HON-032/028)

Bilera gutxitan ibili zen jotzen, baina festetan bai. Bestaldera joaten ziren asko. Agirretxe anaiekin hasi zen, baina Eusebio Alkainekin ibili da azken urteetan, hark panderoa eta txaramela jotzen du.

351. Pieza asko galdu dira (HON-032/031)

Lehen askoz pieza gehiago jotzen zirela dio. Berak jotzen ikasi zuen lehena zein izan zen. Eskuzko pianoa erosi zuenean, askoz pieza gehiago jo zitzakeen, eta di-da ikasi zituen pill bat.

352. Gerra osteko gose garaia (HON-032/034)

Gerra osteko gose garaia. Ogi beltza. Hendaiara joaten ziren ogi zuri bila. Txerria gutxitan hiltzen zuten, baina berari ez zitzaion ikustea gustatzen. Txerrikiak partitzeko ohitura.

353. Aspaldiko musika piezak eta arin-arina (HON-032/037)

Pieza bat jotzen du, aspaldikoa, eta ondoren arin-arin bat, berak moldatua. "Pikoketa" jarri dio izena. Beste pieza bat jotzen du ondoren, oso ezaguna, eta Martin Iturbidek jo ohi zuen pieza bat ere bai.

354. Guadalupeko kantinako historia (HON-034/002)

Kantinan jaioa. Ama zen bertakoa. Aita Santa Engraziakoa zen. Hiru senide ziren. Amonak hartu zuen kantina. Gotorlekuko soldaduei jaten emateko 1888an ireki zuten txabola bat. Bi aldiz ezkondu zen amona, bi anaiarekin.

355. Amonak militarrekin zuen harremana (HON-034/003)

Amona ondo konpontzen zen militarrekin. Goserik ez zuten pasatzen: txekorra hil eta trukea egiten zuten. Baina gerra etorri zenean, itsasontziak gotorlekua bonbardatzen hasi ziren eta Justiz baserrira joan ziren. Presoak libratu zituen batek, eta militarrek amona izan zela pentsatu zuten. Arazoak izan zituen.

356. Kantina, basoko babeslekua (HON-034/004)

Kantinan sendatzen zituzten basoan min hartutakoak eta txirrindulariak. Bere amak, Kattalinek.

357. Lurra lantzeko baimena eman zioten aitonari (HON-034/006)

Kantina aitona-amonena zen, baina lurra Udalarena. Aitonari baimena eman zioten lurra lantzeko; harri asko kendu behar izan zituen. Preso egondakoek bazkaria egiten zuten urtero Guadalupen, eta prozesioa.

358. 1964an amonaren lekukoa hartu zuen amak (HON-034/007)

Kantinan jaio, baina kalean bizi izan zen 15 urte arte. Amonaren oinordekoa hartu zuen bere amak, etxea erosita. Amonari etxea egin zioten. 1964an obra egin zuten.

359. Babarrunak, lehengo erara (HON-034/008)

Lehen zer ematen zuten jaten: zopa, babarrunak... Orain gauza gehiago dute, baina babarrunak lehengo erara egiten dituzte. Errezeta.

360. Legatza saltsan, San Isidro egunean (HON-034/010)

San Isidro egunean eta martxoaren 25ean meza entzun eta legatza saltsan gosaltzeko ohitura dago. Ahizpak prestatzen du orain, lehen amak bezala. Etxeko berdurarekin jarraitzen dute.

361. Santa Engrazian bizi ziren (HON-034/011)

Ama herrira ezkondu zen, 18 urterekin, gizonaren amaren etxera. Gosea pasatzen hasi zen, eta amaren etxera joan zen umea izatera. Esnea saltzeko denda bat jarri zuen amak. Aita Pasaian hasi zen lanean. Anaia nola hil zen. Kantina hartu zutenean, motoan joaten zen ama.

362. Familia oso batuta egon da beti (HON-034/012)

Bere ama emakume ekintzailea izan da. Ezkontzeko logela bat prestatu zion berari eta gero beste bat ahizpari. Elkarrekin bizitu ziren bi familiak. Amaren laguntzaz etxe bana egin ahal izan zuten gero.

363. Kantinan denetik saltzen zuten garaia (HON-034/015)

Kantinan telefonoa jarri zuten eta estankoa ere bai. Guardia Zibilaren kuarteletik joaten ziren. Amonak denetik saltzen zuen kantinan: esnea, latak, alpargatak, olio, ardoa... Astoarekin ekartzen zituzten kaletik.

364. Ama lanpernetan eta aita angulatan (HON-034/016)

Ama lanpernetan ibiltzen zen, bakarrik. "Kattalinen arroka". Emakume bakarra zen hala ibiltzen zena. Aita, berriz, angulatan ibiltzen zen batelarekin. 20 kilo harrapatu zituen behin.

365. Kantinako giroa (HON-034/018)

Etxean kontuzaleak dira. Arrosarioa errezatzen zuten. Bazkaltzeko orduan lanean egoten ziren, baina afaltzeko denak elkarrekin.

366. Angulariak eta gabarrariak (HON-034/020)

Aitak anguletan nola egiten zuen azaltzen du. Gabarrarekin hondarra ekartzen ere ibiltzen zen. Santa Engraziako gabarrariak. Hondarra, obratarako. Kontrabandoa.

367. Kontrabandoa: sakarina, angula eta bizikleta piezak (HON-034/021)

Kontrabandoan ere ibiltzen zen aita: bizikleta piezak, angulak... Batelean angula nola gordetzen zuten. Jendarme batek tiro egin zion behin. Gorontza barnean sakarina eramaten zuen amak Tolosara.

368. Guardia zibilekin izan zuten arazoa (HON-034/022)

Artzun txabola bat zuten; aitak han zuen eskopeta, eta kartutxo batzuk falta zirela konturatu zen. Guardia zibilak zirela uste zuten, eta halaxe zen. Kontrabandoa arroketa ere egiten zuten baserritarrek.

369. Josten ikastea eta tximisten indarra (HON-034/025)

Lehen oinez joaten zen josten ikastera kalera. Gidabaimena atera zuen gero. Amak egiten zizkion arropak. Makinan josten ari zen batean tximistak airean bota zuen. Kandela pizten zuten tximista zenean. Santa Barbara ermita.

370. Angulak tabakoarekin hiltzen zituzten (HON-034/027)

Angulak tabakoarekin hiltzen zituzten, Celtas markakoak. Gero, gatzetan egosi eta maindire batean zabaltzen zituzten. Olioarekin eta baratxuriarekin jaten zituzten gero. Portura saltzen zituen amak.

371. Gotorlekuko militarrek eta soldaduak (HON-034/031)

Carrero Blanco sidecarrean ibiltzen zen. Erdi zigortuta egon zen, baina militar inportantea zen. Soldaduekin harreman ona zuten. Senarra ere hala ezagutu zuen. 1.500 soldadu zeuden sasoi batean, barrakoietan.

372. Biteri eskolan ibili zen (HON-034/038)

Biteri eskolan ibili zen 11 urte arte, eta gero partikular Don Emiliorekin. Erdaraz ikasi zuen. Erdarara jotzeko ohitura du, oraingo euskara diferentea delako. Gurutzeko mojetara ere joan zen, baina gutxi. Abestera joaten ziren eta txokolate jana egiten zuten etxean.

373. Portuan jaioa, arrantzale familian (HON-035/002)

Etxean jaio zen, emagin batekin. Portuarra da, bere aurrekoak bezalaxe. Kaleko etxeen izenak. Plazan egoten ziren sareak konpontzen.

374. Sareak josten, kalean (HON-035/003)

Sarea josten nola hasi zen. Egunean zazpi pezeta irabazten zituzten. Kanpoan edo "xaian" egoten ziren.

375. Umetatik zen trebea sarearekin (HON-035/005)

Bere amak erakusten zuen sareak konpontzen. Ahizpa ez, baina bera trebea zen.

376. Bueltan, gazteak kartzelara (HON-035/006)

Hendaiara joan ziren gerra hasi zenean, eta hiru urteren buruan bueltatu. Gazteak Ondarretako kartzelara eramaten zituzten. Izeba Saturrarango kartzelara eraman zuten.

377. Izeba Saturrarango kartzelan (HON-035/008)

Ama Saturrarango kartzelara joaten zen ahizpa bisitatzeraz, eta hark esaten zion alaba ez bueltatzeko. Martxoan bueltatu ziren, itsasontziz. Izeba Tolosara desterratu zuten, eta han ezkondu zen.

378. Hendaiko portuan bizitzen (HON-035/010)

Hendaian garaje batean egin zuten lo, eta gero etxebizitza batean. Amak sareak konpontzen zituen. Batelarekin joan ziren. Laugarren senidea han jaio zen; medikuak (Don Arturo) esan ziena.

379. Eskolan, señorita Juliarekin (HON-035/012)

Gerra aurretik señorita Juliarekin ibili zen eskola publikoan, Artzuko Matxin kalean. Juanitoenean jaio zen bera. Erdaraz ikasten zuten, neska-mutilak elkarrekin. Maistra ona zen.

380. Txirlak, almejak eta tretxuak (HON-035/014)

Hondartzan iltzeekin jolasean. Almejak, txirlak eta txirla potorroak. Tretxuak.

381. Aita, itsasontziko karboneroa (HON-035/019)

Aita ontziko karboneroa zen. Ikatz bila urruti joaten ziren, eta xaian gordetzen zuten. Etxean ere ikatza erabiltzen zuten. Kanpaia jotzen zuten arrantzara joateko.

382. "Txakurrena"; arraina saltzen (HON-035/023)

"Txakurrena" zer den azaltzen du. Bere ama Nafarroan ibiltzen zen arraina saltzen, ezkutuan. San Pedro kalean arraina saltzen.

383. Sarea josteko orratzak (HON-035/025)

Orratzak taulazkoak ziren lehen, orain plastikozkoak. Eustakio Ponpollori erosten zizkioten.

384. Arraina jaten egunero (HON-035/035)

Arrain asko jaten zuten. Lehengusu baten kexuak. Sardinak eta antxoak arrautzan pasata jaten zituzten, legatza saltsa berdean.

385. Tximistene baserrian jaioa (HON-036/002)

Tximistene baserrian jaioa. Aita zen bertakoa. Sei senide ziren. Ama Idiazabalgoa zen; lau osaba Ameriketara joan ziren. Neskame joan zen Hondarribira, taberna batera. Aitak harria garraiatzen egiten zuen lana eta baserrian ere bai.

386. Josten ikasi zuen, eta gero irakatsi (HON-036/004)

Eskola garaia. Neskak mojetan, eta mutilak Biteri eskola publikoan. Josten ikasi zuen, amak hala aginduta, baina berak ile apaintzailea izan nahi zuen. Sor Antoniarekin ikasi zuen josten. Josten irakasten ibili zen.

387. Gaztetxotan egindako lanak (HON-036/009)

Kontserba lantegian ibili zen lanean, antxoei burua kentzen. Madrilgo turistei zerbitzatzen ere bai. Idiazabalen ere egon zen, 12 urterekin, familiakoei laguntzen. Bueltan, josten ikasi zuen.

388. Umetako bizimodua baserrian (HON-036/010)

Umezain ibiltzen zen, anai-arrebak zaintzen. Troza. Baserrian zer jaten zuten: potajea eta arroza. Besoan hartzen zituzten haurrak. Portuko ume bati bere

amak eman zion titia; esnezko anaia. Jostailurik ez zuten. Erregeak ez ziren joaten. Kartoizko panpinak.

389. Kontserba lantegian lanean (HON-036/012)

Orlando kontserba lantegia. Antxoa gazitu egiten zuten. Ondo lan egiten zutenez, lan gutxi zegoenean beraiei deitzen zieten. Lan erraza zen. Idiazabaldik bueltan ibili zen han. Bañistei tea eta pastak ematen ere bai.

390. Eskolan Jaunartzea egin arte (HON-036/013)

Zazpi urterekin hasi zen eskolan, 12 urte arte. Jaunartze handia egin arte. Mojen oroitzapena: Sor Margarita. Zer ikasi zuen. Gaur egungo kontuak. Erdaraz ikasten zuten eskolan.

391. Aitak euskaraz hitz egiteko esaten zien (HON-036/015)

Mojetan erdaraz ikasten zuten. Gerra hasi zenean, derrigortuta. Aitari ez zitzaion gustatzen. Aitaren kontuak: abereak saltzen zituen, eta bazekien pisua kalkulatzeko. Hanka-hutsik joaten zen elizaraino.

392. Ur bila iturrira (HON-036/016)

Urik ez zuten etxean, eta iturrira joaten zen aita ur bila. Iturri ona zen, ez zen agortzen. Ura nolatan jarri zuten, 21 urte zituenean. Argia beti ezagutu du.

393. Labaderoan arropa garbitzen; baporezko plantxak (HON-036/017)

Arropa garbitzera labaderora joaten ziren. Bi labadero zeuden herrian. Kaldera buru gainean. Zelaian zabaltzen zuten, eguzkitan. Xaboia. Idiazabalen bazuten ohitura gobara egiteko. Baporezko plantxak.

394. Beheko suan taloak egiten (HON-036/018)

Beheko sua eta hauspoa. Katetik zintzilik, eltzea. Taloak egiten zituzten, ogirik ez zenean. Artoa errotara eramaten zuten, Irunera eta Nafarroara. Laratza. Lapikoak ez ziren puskatzen.

395. Meriendatzeko, ontza erdi txokolate (HON-036/019)

Zer jaten zuten. Leikua (babarruna) eta zopa. Postrerik ez. Merienda moduan, Elgorriaga txokolatea, ontza erdi. Ardoa gutxi edaten zuten, pitarra asko. Bi barrika ekartzen zituzten urte osorako.

396. Logelak eta artilezko koltxoak (HON-036/020)

Etxeko gelak nolakoak ziren. Nola egiten zuten lo, salako bi alkobetan. Ganbaran makurtuta ibili behar zuten; artoa eta babarruna izaten zituzten han. Artilezko koltxoak jo egiten zituzten urtero. Arto azalekin egindako koltxoia egin zuen amak bisitan etorritako batzuek lo egiteko.

397. Argindarra eta tximistak (HON-036/021)

Argindarra nondik hartzen zuten. Kontagailua. Tranpa egiten zutenei kendu egiten zieten. Bonbillak. Argia noiz joaten zen. Tximisten beldur izaten ziren. Erramua eta gurutzeak.

398. Komuna eta papera (HON-036/022)

Komuna non zegoen azaltzen du eta nolakoa zen. Gorotza. Egunkaria komuneko paper moduan.

399. Bainua eta igeri egiten ikasten (HON-036/024)

Bainatzeko nola egiten zuten, astean behin. Mojekin joaten ziren paseatzera, eta inbidiaz begiratzen zien igerian zebiltzanei. Igeri egiten nola ikasi zuen. Beldurra hartu zion urari, baina ez zuen etsi. Berak egin zuen bainujantzia, gonaduna.

400. Hondartzara bainatzera (HON-036/026)

Kai zaharrean ez, hondartzan bainatzen zen. Korronteak daude kai zaharrean. Ilobei erakutsi zien igeri egiten.

401. Kamamila eta perretxiko bila (HON-036/028)

Gaztetako kontuak aipatzen ditu. Kamamila bila joaten ziren mendira. Guadalupera joaten zen mezara, lagun batekin. Lezora joaten ziren, farolara ere bai. Perretxiko bila Urbanen, lehengusuarekin.

402. Lapa bila arroketan (HON-036/029)

Arroketan lapa bila. Lapa onenak eguzkia gutxi jotzen duen tokikoan, ur azpikoak. Egosita jaten zituzten. Lanpernetan ibiltzea arriskutsua zen.

403. Txirlak, karramarroak; itsasontzian gutxi ibili da (HON-036/030)

Almejak eta txirlak. Potorrua. Karramarroak. Itsasontzian gutxi ibili da (batelean bestaldera joateko, eta estropadetara), baina ez zen zorabiatzen. Igeri egiten ikastea. Marinelek ere ez zuten jakiten denek; gero derrigortu egin zuten.

404. Portuarrak, kaletarrak eta baserritarrak (HON-036/031)

Portuarrekin zuten harremana. Hiru talde ziren, eta hitz egiten moduagatik bereizten ziren. Egoten ziren istiluak. "Caseras burras" esaten zieten.

405. Esnea partitzen kalean, bederatzi urterekin (HON-036/032)

Benta nola egiten zuten; arrain saltzaileak. Bederatzi urterekin esnea partitzera joaten zen kalera; ama Irunera, tratuarekin. Egunko esnea. Bueltan, Rodriguez dendan jasotzen zituen mandatuak.

406. Erditzen ikusi, eta ezkontzeko gogoa kendu (HON-036/034)

Konformidade handiagoa zegoen lehen. Ezkontzen zena ere alokairuan joaten zen bizitzera. Bere ahizpak izan zuen umea. Bera joan zen medikuaren bila (Candido Ostolaza). Erditzea ikusita, ezkontzeko gogoa kendu zitzaion. Pretendienteak.

407. Bataioa eta elizan sartzea (HON-036/035)

Umea jaio eta segituan bataiatzen zuten. Zortzi egunean amek ezin zuten atera, teila buruan jarrita ez bazen. Iloba berak eraman zuen bataiatzera, zortzigarren egunean. Elizan sartzea.

408. Dotrina ondo zekienari, banda (HON-036/036)

Dotrina mojetan ikasi zuen; apaizarekin ere bai, parrokan. Oso inportantea zen. Erdaraz ikasi zuen berak, baina euskarazko taldea ere bazegoen. Etxeko lanak ematen zizkieten. Bandak ematen zizkieten onenei.

409. Euskaraz egitea galarazi zuten (HON-036/037)

Gerra ondoren euskara galarazita egon zen, baina aurretik ere erdaraz ikasten zuten eskolan. Lagun artean bietara egiten zuten. Mezak ere erdaraz egin beharra, gero.

410. Nazionalen sarrera Hondarribian (HON-036/038)

Errepublika garaian, batzokia zegoen, baina ez zen inoiz joan. Tropak nola sartu ziren Hondarribira. Bonbak. Izebaren etxera joan ziren lotara. Guadalupeko gotorlekuan fusilatutakoak eraman zituzten kamioietan. Cervera itsasontzia. Elgorriaga lehengusuak.

411. Idiazabalgo gerra kontuak (HON-036/039)

Idiazabalgo gerrako kontuak. Gauero kamioia beteta joaten zen Urbasara, fusilatzeko jendez beteta. Bizirik atera zen bat. Milizianoak.

412. Aita eramango ote zuten beldur ziren (HON-036/041)

Aitarekin beldurrez egon ziren, karlistentzako botoa biltzen ibilia zelako. Guadalupera eramango zutela uste zuten. Miramarren egoten ziren erreketek. Jostun hasi zenean, lan asko izaten zuen; lutoa.

413. Aitari egindako erretratua (HON-036/043)

Itzaina zen aita, eta Vazquez Diaz margolariak margotu egin zuen. Comas. Diputazioak erosi zuen koadroa, 1910ekoa. Bi-hiru egunean eduki zuten posatzen. Isidoro Sagarzazu.

414. Eskola eta umetako jostaketak (HON-037/004)

Eskola. Tinta, pizarra txikiak. Jolas garaian hondartzara joaten ziren baloiarekin. Paperezko baloia. Jostailurik ez zen. "Nanuak", pospolo kaxak. Hondarrarekin ere jolasten zuten. Nesken jolasak diferenteak ziren. "Patein kaina".

415. Aitona sardinetara traineruan (HON-037/007)

Osabak arrantzaleak zituen, baita aitona ere. Traineruarekin itsasotik bueltatzen zenean, ogia ebastera joaten zen bera. Kontxara joaten ziren sardinetara.

416. Garai bateko arrantza ontziak (HON-037/010)

Aitona ez zen itsasontzi handietan ibili, beti traineruarekin. Ikatzezkoak ziren ontziak, zortzi-hamar. Motordunak gero agertu ziren. Atunetan eta sardinetan ibiltzen ziren. Antxoa ezin saldu. Hondarretara botatzen zuten. Kontserba lantegia.

417. Radarrik gabeko garaia (HON-037/012)

Sardina urte guztian arrantzatzen zuten, antxoa ez. Apiriletik aurrera atuna, gero arrosela... Handiak atunetan ibiltzen ziren. Konpasa erabiltzen zuten norabidea jakiteko. Eguraldiari ere igartzen zioten. Arraba botatzen zuten arraina erakartzeko.

418. Atunetan eta txipiroitan (HON-037/014)

Arto azalarekin atunetan. Orraztu egiten zituzten, gero amuaren bueltan lotu. Txurikina. Txipiroitarako beruna, orratzekin, eta aguarina koloretako hariekin. Txipiroitan goizean goiz edo ilunabarrean.

419. Langostetan I (HON-037/015)

Langosta kaiolarekin harrapatzen zituzten. Arrantzaleek egiten zituzten, egurrarekin. Kaiolak nolakoak ziren. Atun zakatzak jartzen zituzten barruan.

420. Langostetan II (HON-037/017)

Langostetan atunen zakatza sartzen zuten kaiolara. Arratsean bota eta hurrengo goizean altxatzen zituzten. Karramarroak. Olagarroa nola harrapatu, trapu bat botata. Hoteletan saltzen zuten langosta, baita kalean ere. Etxe atarian, San Pedro kalean.

421. Arrain saltzaileak kalez kale (HON-037/018)

Arrain saltzaileak kalez kale eta Irunera. Oinez tranbian baino lehenago iristen ziren. Dozenaka saltzen zituzten antxoak, ez pisura. Platera ez zuten neurri moduan erabiltzen. Garbitu gabe saltzen zituzten. Bentan erosten zuten arraina.

422. Almejak hartzen; txirlak, tretxuak (HON-037/019)

Almejak hoteletan saltzen zituzten. Koilarekin hartzen zituzten. Zuloa ikusten zen. Potorrúa, txirla eta almeja. Potorruak azala koskekin zuen, txirlak lisoa. Kolorea. Tretxuak nola atera, zuloan beruna sartuta. Gordinik jaten zituzten.

423. Arroketan, lanpernak eta muskuiluak (HON-037/020)

Muskuiluak arroketan izaten ziren. Su gainean jarrita irekitzen ziren. Lanpernak. Asko itotzen ziren lanpernetan zebiltzala. Lapak ere makina bat jaten zituzten, labanarekin altxatuta, gordinik. Saltsan hondar asko izaten zuten.

424. Beti uretan; bañistekin zuten harremana (HON-037/021)

Ez da arrantzan asko ibili, esku bakarrarekin ezin zuen asko egin eta. Baina beti uretan zebilen, igerika. Beraneanteek eta bañistek dirua botatzen zuten uretara, eta ur azpira sartzen ziren hartzera. Ministroak, markesak... Madrilgo bañistekin ondo konpontzen ziren.

425. Labaderora arropa garbitzera (HON-037/022)

Etxean ura eta argia bazituzten. Labaderoa non zegoen, Santa Maria Madalena kalean. Arropak baldeetan hartuta joaten ziren hara, amari laguntzera. Baserritarrek errioetan garbitzen zuten. Iturriak. Zinemara joan eta bainatzera, beste zer eginik ez zen herrian.

426. Zinema eta aitaren ile-apaindegia (HON-037/023)

Portuan bi zinema areto zeuden. Bi zentimo kostatzen zen. Aita pelukeroa zen, eta beste batzuek baino diru gehixeago zuten. San Pedro kalean zuten ile-apaindegia. Permanenterik ez zuen egiten, moztu bakarrik. Gizonak eta emakumeak aparte. "Tontorra".

427. San Pedro kaleko sagardotegiak (HON-037/024)

San Pedro kalean sagardotegi asko zeuden, ardoteegiak gutxi. Berdela, txitxarroa eta sardina erretzen zituzten, eta jende asko joaten zen Irundik, jatera. Bertan egiten zuten sagardoa. Kupelak. Sagardo berria probatzen. Kuadrillak. Ondo konpontzen ziren irundarrekin. Basoka eta botilaka ordaintzen zuten. Errondak.

428. Sagardotegietan emakumeak lanean bai, edanean ez (HON-037/025)

Sagardotegietan tokara jokatzeko zuten. Sagardoa saltzen emakumezkoak egoten ziren. Erronda basoka egiten zen; uretan pasa eta listo, garbituta. Dena gizonak egoten ziren sagardotegietan. Tabernetan ardoa eta kartak. Anisa egun berezietan. Oilaskoa ere bai, urtean behin. Igandetan haragia tomatearekin. Hiru harategi zeuden.

429. Janari dendak, oinetakoak eta arropa (HON-037/026)

Janari dendak. San Pedro kalean ere bazeuden. Denetik saltzen zuten, pisatuta. Oinetakoak beste denda batzuetan saltzen zituzten, aparte. Alpargatak, lepotik zintzilik euria zenean; portuarrak hanka-hutsik. Mahoizko galtzak. Igandetan ere urdinez janzten ziren arrantzaleak.

430. Leninenea baserrian jaioa (HON-039/002)

Leninenea baserrian jaioa. Umetatik baserriko lanetan. Belarriko minez hasi zen, eta ebakuntza garestia egin zioten.

431. Itsasoan lehenengo, gero artzain (HON-039/006)

Zortzi behi zituzten. Aita arrasterotan zen bitartean, bera baserriko lanetan. 19 urterekin ebakuntza egin zioten, eta 20rekin itsasora joan zen. Medikuek galarazi egin zion. Ardiak erosi zituen. Basozainaren emazteak gaztak egiten zituzten, eta dirua erdibana zen. Ardiak zergatik saldu zituen.

432. Dotrina eta Jaunartzea (HON-039/009)

Umetan dotrina ikastera joaten zen baserri batera. Jaunartze handia egiteko, elizara joaten ziren. Eskola non zegoen azaltzen du. Lanean hasten ziren segituan. Maistra zuten. Jaunartzeko erretratua erakusten du.

433. 200 ardiren zaintzan (HON-039/014)

Bere kasa ikasi zituen artzain lanak. Asakan izaten zituen ardiak, eta Bekoerrotaraino joaten zen. 200 ardi. Fustino Gonzalezen ardiak ere berak zaintzen zituen. Ardi denak diferenteak dira. Izena jartzen zieten onenei.

434. Gazta saltzen kantinan (HON-039/016)

Gazta basozainaren emazteak egiten zuen, berak ez du ikasi. Kantinara eraman zuen gazta, bertatik saltzeko. Esne ona izateko, ardia ondo zaindu behar da.

435. Ardien jatena (HON-039/018)

Ardiek beraiek topatzen dute jateko ona, baina tokiz aldatzea komeni da. Patata, artoa eta leikua jartzen zituen. Patata eta artoa ematen zien jateko.

436. Arkumeak nola hazi (HON-039/019)

Arkumeak jaiotzean zer egiten zuen azaltzen du. Amaren ondoan edukitzen zituen gauez. Arkumeen jaiokera. Nola lagundu.

437. Ardiak ez duenean arkumea maite (HON-039/020)

Ardiak ez duenean arkumea maite, zer egin azaltzen du. Biak elkarrekin jarri. Errapea osinekin igurtzi. Beste ardi bati berea ez den arkumea nola haziarazi.

438. Ardiak gaixotzean zer egin (HON-039/022)

Ardia gaixo dagoenean, belarritik odola atera behar zaio. Odol kolpea. Errape mina sendatzeko, ur epelarekin garbitu, kamamilarekin. Sendabelarrak.

439. Hogeitertekin itsasora (HON-039/024)

Hogeitertekin itsasora joan zen, Santa Gema Galardi itsasontzian; Afrikan galdu zen. Jose Ramon Lazkanotegi zen patroia; semeetako bat itsasoan hil zitzaion.

440. Elurretako panpina sukaldean (HON-039/030)

Sukaldea behean zuten. Elurretako panpina egin zuten anaiak eta berak, eta sukaldera sartu zuten. Ekonomika zuten.

441. Argindarra bai, urik ez etxean (HON-039/034)

Etxean ez zuten urik, argindarra bai. Urtezahar egunean kantari joaten ziren gazteak, eta argia itzali zuten, aterik ez irekitzeko. Postea bota zuten gazteek, haserre. Ur bila, astoarekin. Iturrira arropa garbitzera.

442. Guardiak egiten itsasontzian (HON-039/037)

Itsasontzian bi orduko guardiak egiten zituzten timoian. Atuna, antxoa, sardina, txitxarroa, legatza, arrosela. Hiru itsasontzitan ibili zen.

443. Legatzetan, amuz (HON-039/038)

Amuz harrapatzen zuten legatza lehenengo, aparejuarekin. Gero, kainaberekin.

444. Itsasontsiko janaria (HON-039/044)

Eguberritan arrantzara joaten ziren. Etiket eramaten zuten jatekoa batzuetan, eta beste batzuetan ontziko arraina jaten zuten.

445. Antxoa harrapatzen (HON-039/046)

Antxoa asko harrapatzen zuten. Sarearekin. Gauetz posible da antxoa ikustea.

446. Atuna nola harrapatu eta nola deskargatu (HON-039/050)

Atuna nola deskargatzen zuten, eskuz. Amuz harrapatzen zituzten, beita biziarekin. Atun handiekin zer egin. "Alamanda".

447. Atunetan txurikinarekin (HON-039/052)

Txurikinarekin (arto azala) harrapatzen zuten atuna sasoi batean. Txapa jartzen zioten, distira egiteko.

448. Bueltan, aitak itsasontzia erosi zuen (HON-040/003)

Ziburun jaio zen. Gerra hasi zelako joan ziren hara. Bueltan, etxerik ez zuten. "Estrella del mar" arrantza-ontzia erosi zuen aitak; uretara nola bota zuten, behiekin.

449. Arraina deskargatzen eta garraiatzen (HON-040/005)

Arraina deskargatzen eta garraiatzen ibiltzen ziren, aitaren ontzia iristen zenean. Antxoa. Benta. Belarra, arraina fresko mantentzeko. Ama sarea konpontzen ibiltzen zen, eta bera anai-arrebak zaintzen. "Konpradorak".

450. Sareak tindatzen (HON-040/006)

Aitaren ontzia nolakoa zen. Sareak tindatzen zituzten arrantzaleek, lan handia zen. Tana-tokia. Kotoizko sareak ziren. Butroi pasealekuan jartzen zituzten lehortzen.

451. Sarea konpontzen eta atunetarako aparejuak egiten (HON-040/007)

Ama eta ahizpa sare konpontzaileak ziren; berak ere ikasi zuen pixka bat. Atunetako aparejua etxean egiten zuten, arto azalarekin, txurikiña. Nola egiten zuten azaltzen du.

452. Sarea nola konpondu eta nola armatu (HON-040/008)

Bere amari Getariako emakume batek erakutsi zion sarea josten. Sarea jostea baino zailagoa da ondo ebakitzea. Orratzak egurrezkoak ziren, eta hautsi egiten ziren. Sarea nola armatzen den. Beruna eta kortxoa.

453. Sareak konpontzen II (HON-040/010)

Neurria braza zen, makila bat. Lan ordutegia sarea josten zutenean. Batzuetan egun guztia pasatzen zuten, bukatu arte. Aulki txikiak. Hanka-hutsik ibiltzen ziren udan. Sarea hanketako behatzekin ondo tenkatzea inportantea da.

454. Kontrabandoa, Hendaiatik batelean (HON-040/011)

Azukrea eta kafea bestaldetik ekartzen zituzten, kontrabandoan. Batelez joaten ziren, eta gona azpian gordetzen zuten. Ogia ere bai, zuria. Frankoetan ordaintzen zuten; dirua nola lortzen zuten. Kontrabandistak. Aitak irratia ekarri zuen, txokolatea trukaturatuta. Plastikozko tapoiak, bizikleta piezak... ekartzen zituzten. Angulak kortsean gordeta ekartzen zituzten emakume batzuek, eta gero Donostian saldu.

455. Bueltan, etxerik ez; Ziburuko bizimodua (HON-040/013)

Bueltan, etxerik ez zuten eta Villa Pepitara joan ziren bizitzera, errentan. Ziburun bizi zirenean, ezinikusiak. Arraina jatetxeetan saltzen zuen amak, plazan arazoak zituelako. Iparraldeko arrantzaleak.

456. Arraina saltzen umetatik (HON-040/014)

Ahizpa eta biak arraina saltzen ibili ziren umetatik, aitak arrantzatutakoa. Irunera joaten ziren oinez, eta etxez etxe ibili. Saskia buru gainean.

457. Antxoa gorotzetarako (HON-040/015)

Antxoa asko ekartzen zuten, eta ezin saldu ibiltzen ziren. Bota egiten zuten, eta baserritarrek eramaten zuten gurdiekin. Gorotzetarako.

458. Atunaren arrantza; benta (HON-040/016)

Kanpaina inportanteena atuna zen. Sardina ere ondo saltzen zuten. Atunetarako aparejua. Broka. Benta nola izaten zen. Benteroa.

459. Benta: erosleak (HON-040/018)

Benta. Antxoaren neurria, 20 kilokoa. Erosleek, bertako emakumeek, kanporako erosten zuten arraina: Bartzelona, Madril... Legatzaren arrantzaren gainbeheraren zergatia.

460. Gizonak sagardotegian, emakumeak etxean (HON-040/020)

Marinako sagardotegiak. Sardinak erretzen zituzten. "Blaga". Gizonak edaten eta emakumeak zerbitzatzen. Emakumeak etxean, haur askorekin. Arrantzaleen emazteak beti bakarrik eta kezkatuta egoten ziren.

461. Irratia, aurrerapen handia itsasoan (HON-040/021)

Sonarrak eta radarrik ezean, brujularekin eta konpasarekin gidatzen ziren. Irratia aurrerapen handia izan zen. Arrantzaleak gertuago ibiltzen ziren lehen. Urrutiena, Coruña aldera.

462. Jornala banatzea, patroia etxean (HON-040/023)

Etxeko itsasontzi zuten, aita zen patroia. Sei marinelekin hasi zen, eta azkenerako 14 ibiltzen ziren. Baporea zuten lehenengo, eta tuku-tuku deitzen zieten horregatik. Jornala patroiak banatzen zuen. Bera joaten zen etxez etxe, diruarekin, astero. Partiya, manta eta txakurrena.

463. Txotxuak, arrantzarako deia egiten (HON-040/024)

Arrantzara joateko deia nola egiten zuten, etxez etxe, ontzietako "txotxuak". Eguraldi txarra bazen, ez ziren ateratzen. Batzuetan buelta bat baino gehiago egiten zuten egunean. Kaian egoten ziren zain. Egunean bertan saltzen ez zutena hondatu egiten zen.

464. Bainatzen eta hondarrarekin jolasean (HON-040/026)

Igeri egiten nola ikasi zuen. Ez zieten uzten bainatzen, itoko ziren beldurrez. Bainujantzirik ez zuten. Hondarrarekin jolasean ibiltzen ziren. Izebak oparitu zion panpina. Txingoka eta bule-buleka.

465. Euskaraz eginez gero, eskolan zaplaztekoa (HON-040/027)

Poartuko eskolan ibili zen. Enziklopedia liburua zuten, denerako bakarra. Ez zieten euskaraz hitz egiten uzten; jo egiten zieten. Gertrudis maistra, Zaragozako.

466. Jaunartzeak eta dotrina (HON-040/028)

Jaunartzeak, txikia eta handia. Dotrina euskaraz ala erdaraz, aukeran. Don Antonio eta Don Carlos. Zigorra: belauniko egotea, ordu erdiz.

467. Mezak eta arrosarioa (HON-040/029)

Mezetara igandero joaten ziren eta dira. Joaten ez zirenean, etxean errieta egiten zieten. Etxean arrosarioa egunero, afaldu aurretik.

468. Labaderora arropa garbitzera; ur berorik ez (HON-040/030)

Amak etxetik kanpo egiten zuen lana, sareak konpontzen, eta etxeko lanak ere egin behar izaten zituen. Beraiek laguntzen zioten: labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Etxean ur beroa izatea gauza handia izan zen. Kantinarekin bainatzen ziren, txandaka. Lehenengo labadora. Labaderoko giroa.

469. Irunera oinez joan, eta buelta tranbian (HON-040/032)

San Pedro kalean gutxitan egoten zen arraina saltzen. Irunera oinez joaten ziren, eta buelta tranbian egiten zuten, azkenengo bagoian. Erreala balio zuen bidaiak, dozena bat antxoak bezalaxe. Parrokiara joaten ziren mezara; Guadalupera, nobenetan.

470. Josten ikasten ibili zen (HON-040/034)

Arropa nola aprobetxatzen zuten. Josten ikasi zuten ahizpak eta biek, Mercedes jostunarekin. Bordatzea. Ajuarraren garrantzia.

471. Arroza egiten ikasi zuenekoa (HON-040/035)

Sukalde kontuak. Bañistek logelak alokatzen zituzten. Madrilgo emakume bati arropa plantxatzera joaten zen bera. Behin arroza egiteko esan zion, baina ez zion urik botatzeko esan. Erre egin zitzaion.

472. Oilaskoa jatea, oso noizean behin (HON-040/037)

Etxean babarruna jaten zuten, eta arraina. Igandetan salda, haragia eta garbantzuak. Oilaskoa oso noizean behin, Nafarroatik enkarguz ekarria; garestia zen. Postrea. Fruta baserritarrei erosten zieten, karrikan.

473. Capbretonen bizi izan ziren (HON-041/002)

Guraso biak portuarrak ziren. Aita arrantzalea zen; zazpi senide ziren, eta bi itsasontzi zituzten. Zortzi senide ziren; gerra hasi zenean, zazpi, Ziburura joan zirenean. Donibane Lohizunen ez zieten arrantza egiten uzten, eta Capbretonera joan ziren.

474. Gerra hasi zenean, iparraldera ihesi (HON-041/003)

Gerra hasi zenean, 10 urte zituen. Aita errepublikanoa zen, zinegotzia, eta ihesi joan ziren. Amak janari-denda zuen. Dena eraman zuten. Bueltan ez zuten dendarik. Aitaren itsasontzian joan ziren. Ameriketara joateko puntuan egon ziren.

475. Amaren janari denda (HON-041/004)

Amaren denda Santiago kalean zegoen. Bera ere egoten zen mostradorean, umetan. Zortzitik hirugarrena da bera.

476. Eskola eta dotrina (HON-041/005)

Eskola publikoan ibili zen portuan. Señorita Isabel. Arratsaldetan laboreak egiten zituen haren etxean. Erdaraz ikasten zuten dena. Dotrina ikastera elizara; emakume batzuk zeuden erakusten, señorita Valentina eta. 12 urterekin egiten zen Jaunartzea; berak Ziburun egin zuen, frantsesez.

477. Umetako jolasak; txirlak eta almejak (HON-041/006)

Umetako jolasak. Txingoan. Itsasoa eskolaraino iristen zen ia-ia. Itsasbeheran soilik zegoen hondartza. Bainatu egiten ziren. Capbretonen bainujantzia zuten. Txirlak eta almejak hartzen. Txirlaren zuloa ikusten da hondarrean. Tretxuak. Arroketara ez zen joaten. 17 urterekin bueltatu zen, senide batzuekin, amonaren etxera.

478. Capbretongo eta Ziburuko bizimodua (HON-041/007)

Capbretonen aita arrantzara joaten zen eta amak sareak konpontzen zituen, izebarekin. Neguan, arrantzarik ezin egin, eta Baionako babeslekura joan ziren. Zer jaten zuten. Ziburun hiru osaba zituzten, baina lanik ez. Eskolara joan zen han, mojetara. Gero Capbretonen ere bai.

479. Capbretongo bizimodua II (HON-041/008)

Aitak Capbretonen arrantzatutako arraina. Zortzigarrena han jaio zen; Irungo emakume bat joan zitzaion laguntzera, etxera. Etxean izan zituen denak. Ama eta izeba saregile bakarrak ziren, eta beraien bi ontziak bakarrak.

480. Bueltan, interina eta arraina saltzen (HON-041/009)

Frantzia aldetik bueltan, dendarik ez zuten, eta etxerik ere ez, alokairuan zutelako lehen. Zazpi urte egin zituzten bueltatu gabe. Altzaririk ere ez zuten. Interina hasi zen lanean, ama-eta bueltatu zirenean. Etxeko arraina saltzen ere ibilia da, otarrearekin; Irunera joaten ziren, tranbian.

481. Arraina saltzen II (HON-041/010)

Etxeko arraina saltzen zuten; beste batzuek erosi egiten zuten bentan. Lagun batekin ere ibiltzen zen hala, kostako arraina saltzen. Irunen eta Mendelun. Benta nola egiten zen. Pasadizo bat kontatzen du.

482. Gerra ondoan, kontrabandoa: ogia, kafea... (HON-041/012)

Goiz joaten ziren ohera eta goiz jaiki. Gosaltzeko, kafesnea zopekin. Ogia gerra ondoan ez zen ona. Hendaiatik ekartzen zuten ogi zuria, batelean joanda. Kafe berde bila Irunera joaten zen; tranbian guardak izaten ziren, eta oinez egiten zuen buelta. Hendaiara eramaten zuen gero kafea. Kontrabandoa.

483. Errazionamendua, baita Frantzian ere (HON-041/013)

Frantzian ere izan zuten errazionamendua, alemaniarrek sartu zirenean. Capbretonen ere egon zen ilaran. Bueltan okerrago ibili ziren. Olioia ere falta zen; trenez ekartzen zuten irundarrek, eta gero saldu. Irungo Terminus hotelean egon zen neskame.

484. Aita Ondarretan preso, hiru hilabetez (HON-041/014)

17 urterekin bueltatu zen. Aita 3 hilabetez egon zen kartzelan, bueltan. Despedida batean Francoren erretratuari zerbait bota zion mutil batek, eta batek Komandantziako bati esan zion; denak preso hartu zituzten. Bisitan joan zenean, izututa. Arrantzan jarraitu zuen irtendakoan. Txipiroiak.

485. Langosta eta atuna (HON-041/015)

Langosta harrapatzeko kaiolak egiten zituzten. Sartu bai, baina ezin ziren atera. Aita ez zen langostetan ibili, txipiroiak, krabak... bai. Atuna amuarekin harrapatzen zituzten. Txurikinarekin estaltzen zuten amua.

486. Arrantza asko aldatu da (HON-041/017)

Orain baino gertuago joaten ziren arrantzara itsasontziak. Ikatzeko ontziak ikusi bai, baina etxean ez zituzten izan. Irratirik ez zen. Kezkatuta egoten ziren; sarrera ez zen ona, eta itsasontziak ere ez.

487. Antxoa saldu ezinik (HON-041/018)

Antxoa ez zen saltzen, eta hondarrera botatzen zuten; baserritarrek eramaten zuten zelaietan zabaltzeko. Ezin zen orain bezala kontserbatu arraina. Asko hurreratzen ziren zapiarekin, antxoa eske.

488. Itsasontzia deskargatzen; benta; legatzetan (HON-041/020)

Itsasontziak deskargatzen laguntzen zuten. Sardinak kai zaharretik Bentara eramaten zuten emakumeek, saskietan. Benta gizon batek egiten zuen. Erosle gehienak emakumeak ziren; kanpora saltzen zuten gero. Legatza eta arrosela asko harrapatzen zen.

489. Arrantzarako deia; manta (HON-041/021)

Arrantzarako deia nola egiten zuten: aurreko egunean esaten zuten ala patroiak deitzen zuen, kaletik. Txotxua. Patroiaren etxean partitzen zuten

"manta". Dirua partitzera bera eta lehengusua joaten ziren etxez etxe. Propina ematen zieten. Arrantzalea pobre bizi zen.

490. Arropa eta oinetakoak; labaderoa (HON-041/022)

Arropa ere ez zuten nahi beste. Askotan hanka-hutsik ibiltzen ziren, bestela alpagatekin eta zapata pare bat. Perkalezko bata adabakiarekin zuen. Elizarako dotorexeago beti. Etxean dutxarik ez zuten. Labaderoa non zen.

491. Dena bekatu zen (HON-041/023)

Plazan musika izaten zen igandetan, baina goiz amaitzen zen. Mutilekin dantza egitea bekatua zen. Dena bekatu. Beso motzetan eta mantelinarik gabe ezin zuten joan elizara.

492. Meza euskaraz Ziburun ere (HON-041/025)

Elizaren indarra. Bezperetara Ziburun ere joaten ziren, eta euskaraz zen meza. Ez du arazorik izan kalean euskaraz egiteagatik, baina erdara gehiago erabiltzen zen.

493. Labaderoak (HON-041/027)

Ura bazuten etxean, baina labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Amonaren etxearen ondoan zelaia zegoen; baratzea, txerritegia eta labaderoa zituzten han.

494. Txerri pareak hazten zuten etxean (HON-041/029)

Txerriak izaten zituzten. Patata azalak batzen zituzten jaten emateko. Bat etxerako hazten zuten eta beste bat Irunera eramaten zuten. Etxean bertan hiltzen zuten. Odolkiak partitu egiten zituzten.

495. Antxoak salmueran (HON-041/031)

Konserba lantegi bat zegoen Alamedan. Ziburun ere baziren. Antxoak salmueran jartzen zuten etxean ere, kantin batean. Jateko orduan gatzak kendu behar zaio. Karga jartzen zitzaion gainean.

496. Erramua, ur bedeinkatua; hiletak (HON-041/033)

Erramua izaten zu etxean orain ere, bedeinkatua. Ekaitz egunetan kandela pizten zuten. Ur bedeinkatua izaten zuten etxean, aitararen egiteko. Gaubeila egiten zuten hildakoarekin. Elizan sartzen zuten gorpua, bizkarrean eramanda.

497. Arroketan, olagarroa, lanperna, lapa... (HON-041/037)

Olagarroak ez zuen estimaziorik. Lanpernak bai, asko hartzen zuten. Portuan saltzen zituzten, egosita. Lapak. Muskuiluak. Ostrak.

498. Ama sagardotegian lanean ibilia (HON-043/002)

Amak sareak konpontzen zituen, eta aurretik sagardotegian ere ibili zen lanean, sagardoa partitzen. Nikolas Txiki. Zaldunbordatik ekartzen zuten sagardoa. Arraina parrilan erretzen zuten. Neurriak.

499. Portuko sagardotegiak (HON-043/003)

Sagardoa nolakoa zen. Edalontzia. Tabernak baino gehiago zeuden. Portuko sagardotegiak. Tokarik ez zegoen. Arrantzaleak joaten ziren sagardotegira.

Emakumea zerbitzatzen eta gizonak edaten. Ramon Rotetaren ama aipatzen du.

500. Sareak tindatzeko lanak (HON-043/004)

Hiru senide ziren. Ama-eta zazpi ziren. Osaba denak arrantzaleak ziren. Amak gaztetatik zekien sarea josten. "Rederak". Sareak tindatu egin behar izaten zituzten, "tanatu". Beti lanean. Tanatokiak. Sareak Butroi pasealekuan zintzilikatzen zituzten.

501. Sareak armatzen (HON-043/005)

Sare motak. Piezak nondik ekartzen zituzten. Nola armatzen zituzten, kortxoa eta beruna jarri. Etxean egiten zituzten berunak, moldeekin. Txikotea.

502. Atunaren arrantza: kasan eta kanaberekin (HON-043/007)

Atunaren arrantza. Txurikinarekin egindako aparejua nolakoa zen azaltzen du, kasan ibiltzeko. Biberoarekin, kanaberarekin arrantzatzen zutenean, karnata bezala antxoa bizia. Matxipeta eta kroka.

503. San Pio Berria; ontziari buruzko azalpenak (HON-043/010)

Atunaren arrantza. San Pio Berria (beraien ontzia) itsasontziaren errepika erabilita, kroka zer den erakusten du, kanaberak eta polea. Salabardoa. Antxoatarako sareak: ardorakoa eta udakoa. Biberoak. Peskanteak. Neberako panelak. Beita eta arraba. Kartolak.

504. 1969an egindako itsasontzia (HON-043/011)

Ontzian 15-16 lagun joaten ziren. Patroia, motorista eta marinela. 1969an egin zuten, Armstrong ilargira iritsi zen urtean. Orion egina da. Hegaluzetara joan ziren, Bordelera; biberoko arraina hil egin zitzairen, ur faltagatik. Biberoaren tapak, radarra, fokoak... Ardoran.

505. Sonarra, irratia eta radarra (HON-043/013)

Itsasontziko puentean anaia eta biak joaten ziren. Radarra eta irrati antena erakusten ditu. Aurretik, irrati seinaleekin jakiten zuten non zeuden. Kartak eta konpasa. Sonarra. Begiz ikusten zuten arraina lehen.

506. Ontziko lo-lekuak eta sukaldea (HON-043/014)

Ontzia 29 metro luze zen. Branka eta popa. Lo egiteko lekua non zuten erakusten du; beroa egiten zuenean zer egiten zuten, barrua haizatzeko. Hiru pisuko literak; goikoa ibiltzen zen okarren, itsaso txarra zenean. Sukaldea; txandaka egiten zuten sukaldari lana.

507. Ontziko janaria eta edaria (HON-043/015)

Ontzia erakusten jarraitzen du. Sarea jasotzeko modua, polea hidraulikoa. Txikoteak eta makinilak. Ur gezaren tankea. Janaria eta edaria non gordetzen zituzten. Ardoa eta ura.

508. Ttotta eta txotxoaren lanak (HON-043/017)

Sukaldariak kafea egiten zuen, eta "ttotta", koñaka, botatzen zioten. "Txotxoa" izan zen, ontziko gazte guztiak bezala. Mutikotan bera ibiltzen zen marinelei

deika, bere aita zelako patroia. Anekdota bat kontatzen du. "Ujuka". Portuan bizi ziren arrantzale gehienak.

509. Katalintxo itsasontzia hondoratu zenekoa (HON-043/019)

Katalintxo itsasontziarekin eduki zuten istripua, berak 15 urte zituela. Ardoran ari zirela, Ondarroako ontzi batek jo, eta hondora joan ziren. 12 urteko laguna lo zihoan barruan, eta eskapada egin zuen.

510. Eskolan Biterin eta Irunen (HON-044/003)

15 urterekin hasi zen arrantzan. Ez zuen eskolara joan nahi. Eskolan non ibili zen, Biterin Hondarribian eta Irunen fraideekin. Enziklopedia. Zigorrak. Tranbiaren atzetik korrika.

511. Tranbian eskolara, baserritarrekin batera (HON-044/004)

Ettxera joaten zen bazkaltzera, eta gero buelta. Tranbian baserritarrekin joaten zen Irunera, eskolara. Jolastorduak. Erdaraz ikasi zuen bi ikastetxeetan.

512. Umetan, beti uretan (HON-044/005)

Mandatuak egiten ibiltzen ziren anaia eta biak umetan, eta jolasean kai zaharrean. Beti uretan, igerian. Bainujantziak etxean eginak ziren. Ez zieten uzten gurasoek.

513. Almejak, txirlak eta tretxua (HON-044/008)

Almejak nola hartzen zituzten, lau-hortzekoarekin. Txirlak, koilareekin. Tretxua. Tretxokak. Txirla pottorroak. Karramarroak.

514. Ogia eta angulak, kontrabandoan (HON-044/009)

Anguletan ibili ez, baina jaten zituzten. Hendaian asko zegoen. Kontrabandoa. Batelean joaten ziren ogi bila. Karabineroek harrapatuz gero, dena kentzen zuten. Emazteari gertatu zitzaiola dio.

515. Arraina Hendaian saltzen, ezkutuan (HON-044/011)

Atuna bentan erosi, eta Hendaian saltzen zuten, gehiago ordaintzen zutelako. Karabineroak. Kapitain bat bazen, eta hura zaintzen aritzen ziren. Itsasoan egiten zuten sal-erosketa batzuetan.

516. Arroketara joateko ohiturarik ez (HON-044/013)

Umetan ez zen arrantzan ibiltzen, eta arroketara ere ez zen joaten. Sabiak. Lanpernak.

517. Itsasontzia margotzeko lanak (HON-044/015)

Itsasoan ez zirenean, lehorrean ere bazen lana. Itsasontziaren azpialdea urtean bitan margotzen zen. Kanpo eta barru margotzen zuten, marinelen denen artean. Karrora eramaten zuten garbitu eta pintatzeko.

518. Partiya, astean behin (HON-044/017)

Astean behin banatzen zuten jornala, patroiaeren etxean. Marinelei etxera eramaten zien dirua, mutikotan, eta propina ematen zioten. Txakurrena. Manta. Partiya.

519. Arraina deskargatu eta bentara; neurriak (HON-044/018)

Ontzia deskargatzeko lanak, kai zaharreen. Antxoaren neurria egurrezko poto bat zen, 12 kilokoa. Atuna eta legatza pisura saltzen zuten. Ontzi bakoitzak bere neurriak zituen. Arrua.

520. Benta nola egiten zen (HON-044/019)

Benta nola egiten zen. Lagin bat eramaten zuten. "Konpradoreak" eta arrain saltzaile ibiltariak. Erdaraz egiten zen benta gehiena. Kontuak eta kofradiaren lana.

521. Benteroaren lana (HON-044/020)

Benteroak. Kandido, Rufino... izenak esaten ditu. Bakarra egoten zen aldiko. Goizean goiz irekitzen zen benta, eta ilunabarrean ere bai. Ontziak lehorreratzen zirenean.

522. Pikeak eta lehia itsasoan (HON-044/022)

Hondarribiko itsasontziak. Baporeak. Hendaiakoekin beti "katxetaka" ibiltzen ziren. Itsasontzien arteko lehia.

523. Antxoa ezin saldu, eta botatzen (HON-044/024)

Kanpaina indartsuenak zein ziren. Antxoa ezin saldu, eta hondarretara botatzen zuten; baserritarrek eramaten zuten. Antxoa non harrapatzen zuten.

524. Sarea nola bota, antxoa harrapatzeko (HON-044/026)

Sarea nola bota azaltzen du, marrazki bat eginaz. Motor txikietako sareen eta sare handiagoen neurriak. Braza. Neurritu. Sarea nola armatzen den.

525. Sarea josteko orratzak (HON-044/028)

Sareak josteko orratzak. Egurrezkoak izaten ziren lehen, orain plastikozkoak. Donostian eta Pasaian erosten zituzten. Sarea nola armatu. Antxoa Baionan harrapatzen zuten, baina berez galarazita zegoen.

526. Bisigutan eta legatzetan, Gaztelun (HON-044/030)

Legatza eta bisigua. Egunero 500 kilo harrapatzen zituzten, ordu eta erdiko bidean joanda, Gazteluan. Patroiaeren lana zen marinelei abisatzea; bera joaten zen, txotxoa zenean. Kanpai jotzen zuten bentarako. Kalak. Kanaberarekin, karnata biziarekin.

527. Neguan arrantzan (HON-044/031)

Neguan, arrantzan. Izotza kubiartan. Esku hotzak. Oinetakoak. Gomazko botak. Eskalaproiak. Egurrezko zola eta larrua. Galtzetak. Lehengo zirak, olio z igurtzita. Arropa aldatu gabe egiten zuten lo. Komuna.

528. Ontziko janaria eta lehorrekua (HON-044/034)

Egunean joan-etorria egiten zutenean, janaria etxetik eramaten zuten, bertan egin ere bai. Zakotia eta otarrea. Gabonetan, bazkari berezia. Oilaskoa ez zen egunero jaten. Leikua.

529. Atunetan, ekainean (HON-044/036)

Atuna ekainean arrantzatzen zuten, zimarroia. Hegaluzea. Ez ziren Baiona aldera joaten, ontzi bat zaintzen egoten zelako. Pikea zuten frantsesekin. Kanariar uharteetara ere joan ziren zimarroitara, bost eguneko bidean. Ontziko bizimodua.

530. Kanpainak eta bisiguaren gainbehera (HON-044/037)

Berdela. Kanpainen ordena azaltzen du. Bisiguaren gainbeheraren zergatia: sare pelajikoak.

531. Igandetan dantzara; parranda gutxi, beti lanean (HON-044/040)

Manta zertan gastatzen zuten. Txikiteoa. Bermuta. Dantzara nora joaten ziren. Tranbia. Emaztea nola ezagutu zuen. Desberdintasunak. Parranda gutxi egiten zuten. Sagardotegiak.

532. Fedea Guadalupeko amarengan (HON-044/041)

Egunero errezatzen zuten portutik ateratzean, Guadalupeko amari. Aita gurea. Guadalupera ere joaten ziren, oinez. Medailak kortxoetan.

533. Eguraldi txarrarekin, bandera (HON-044/044)

Bandera, eguraldi txarrarekin. Kofradian hartzen zuten erabakia patroiek. Askotan zalantzan egoten ziren.

534. Arraina erakartzeko argiak (HON-044/045)

Antxoatan, ardoran. Botea. Arraina hurreratzean, argiak itzaltzen joan. Fokoak nolatan jarri zituzten, 70eko hamarkadan. Isla Graciosa; Lanzarotera joaten ziren lehorrera; whiskya merke zegoen.

535. Mauritanian txipiroitan (HON-044/046)

Mauritaniara joan ziren hurrengo urtean, baina han ez ziren lehorreratzen. Falso Mojador. Txipiroitan. Arrantza arriskutsuena hegamatza da. 320 kilokoa atzeman zuten Tenerifen. Bijia.

536. Atunetan, kazan (HON-044/047)

Atunetan kazan egiteko modua azaltzen du. Banbuzko sardiak. Itsaso txarrarekin anteparak galtzen zituzten.

537. Kontxako bandera eta estropadak (HON-044/049)

Estropadak ikustera joaten ziren Katalintxo ontziarekin. 1948an, Donostiako bandera irabazi zuten. Usuna jarri zieten, animatzeko gehiegi hurbildu zirelako. Estropada gutxi izaten ziren oraingo aldean.

538. Hondarribiko euskara eta ingurukoak (HON-044/051)

Kaletarrek asko egiten dute erdaraz, bere ustez, portuarrekin konparatuta. Bermeoko eta Ondarroako euskara zaila da ulertzeko. Ez ditu hiru euskara bereizten Hondarribian. Bermeotarrekin ez zuten lehiarik arrantzan.

539. Ume asko hiltzen ziren (HON-045/003)

Bederatzi senide ziren. Txikitan hil ziren hiru-lau. Ume asko hiltzen ziren orduan, medikuntza ez zegoen aurreratuta eta garbitasunik ez zen. Ekonomia eta ur beroa. Berogailua.

540. Oheak eta koltxoiak (HON-045/004)

Oheak egurrezkoak ziren. Artilezko koltxoiak. Etxean konpontzen zituzten jergoiak. Espartzua. Noizean behin artilea atera eta jo egin behar izaten zen, makilarekin. Josi egiten zen berriz gero, ez dena toki batean pilatzeko. Ohe bakoitzean bik egiten zuten lo.

541. Familia ugariak (HON-045/005)

12 ume izan zituen amak guztira; bost hil ziren gazterik. Ondoko baserrian, Ilibistietan, 13 ume ziren. Ume pila bat. Baratzea bazuten, baina lau bizitza ziren. Besteak alokatu egiten zituzten. Hiru logela zituzten bederatzi lagunentzat.

542. Arropa garbitzeko tokiak (HON-045/006)

Etxean ura bazuten, baina hotza. Arropa garbitzeko aska zuten batzuek etxe ondoan; beste batzuek errekarara joaten ziren. Zelaian zabaltzen zituzten maindireak. Arraskan ere garbitzen zuten arropa. Labadero publikoak. Arropa buruan hartuta. Xaboa, Donostian egina. Ez du gobara ezagutu.

543. Errioan bainatzen (HON-045/007)

Errioan bainatzen ziren, marea igotzean. Sei ordukoak dira mareak, eta 45 minutu galtzen ditu egun batetik bestera. Ez zuten bainujantzirik, galtza zaharrekin. Flotagailuak kamioien kamara zaharrekin egiten zituzten. Neska-mutilak elkarrekin.

544. Almejatara hondartza aldera; tretxuak (HON-045/008)

Almejak eta txirlak zeuden hondartza aldera joanda. Guardasolen makiletan bala puntak soldatzen zituzten, tretxuak ateratzeko. Balak nondik ateratzen zituzten; moldeak ere egiten zituzten buztinarekin, eta beruna urtu. Almeja txikiak koilarekin aterata. Etxerako ziren.

545. Txirlak eta almejak; karramarroak (HON-045/009)

Txirlak eta almejak. Almejak lau-hortzekoarekin ateratzen zituzten. Txirlak koilareekin. Almejatan jende asko ibiltzen zen. Jaurlaritzak galarazi egin zuen gero. Karramarroak ere asko ziren errioan. Karramatxo txikiak hartzen zituen jendeak.

546. Kamioi piezen kontrabandoa (HON-046/028)

Autoen piezen kontrabandoa. Kamioi amerikarren piezak zeuden Baionan; taxian joaten zen hara, erostera. Gero batelean bestaldera pasatzeko nola egiten zuten. Kamioian bidoiak jartzen zituen. "Angarilla".

547. Gabardinak egiteko plastikoa (HON-046/029)

Kamioi piezez aparteko kontrabandoa: gabardinak egiteko plastikoa. Hondarribiko jostunek egiten zituzten zirak. Donostiara eramaten zuen plastikoa, igeltsu artean ezkutatuta, kamioiarekin. Bufalo.

548. "Kontrabandisten badia", arroketan (HON-046/032)

Arroketatik ere egiten zuten kontrabandoa, baserritarrek. Mendiz mendi joaten ziren, gauzez. Guardiaren kontrolak. Aurretik joaten zen bat. Batela kargatzen ito ere egin ziren batzuek. "Kontrabandisten badia". Lehorretik seinaleak egiten, argiekin.

549. Armadoreak lehorrekoak ziren garaia (HON-048/003)

Aita arrantzalea zen, langostatan ibilia mutikotatik. Gutxik zuten itsasontzia. Armadoreak lehorrekoak ziren. Bera 14 urterekin hasi zen, otarrekin, eta aitaren ontzian gero. Gazteak dirua aurrezten eta ontziak erosten hasi ziren.

550. Nabigazioa, izarrei begira (HON-048/006)

Baporeak eta motorrak. Konpasa eta erlojua. Izarrei begira gidatzen ziren; denek izenak zekizkiten. Gero kartak etorri ziren. Aparatuak. Irratirik ez zuten lehen, komunikatzeko modurik ez.

551. Itsasoa zaintzen ikasi dute pixkanaka (HON-048/008)

Kupoa jartzea ondo iruditzen zaio, itsasoa zaintzeko. Lehen ez zuten atsedenik egiten. Antxoatan, ardoran, ibiltzen ziren larunbatetan ere. Pixkanaka joan dira ikasten. Saldu ezin zen antxoa bota egiten zuten. Baserritarrek eramaten zuten, zelairako. Antxoa kontserbatzeko lanak. Kubiarta gainean eramaten zuten, lau orduan. Izotzik ez zen. Antxoen tamaina.

552. Atunetan, txurikinarekin (HON-048/009)

Atunetan nola ibiltzen ziren. Kazan ibilia da; arto azalarekin (txurikina) egindako aparejuak etxean egiten zituzten. Gero, arrain biziarekin hasi ziren, kanaberarekin. Pelajikoen kontrako iritzia.

553. Alabak sarera, semeak itsasora (HON-048/011)

Umetatik itsasoan, gustura. Portuko eskolan ibili zen, eta Irunen ere bai. Urtebete egin zuen Mendelun. Alabek amari laguntzen zioten sarean eta semeak itsasora. Amari ematen zioten soldata, baita nobio garaian ere. Orain, berriz, alderantziz da. Irratirik, dutxarik eta labadorarik ez zegoen. Bilobek ez diote sinesten nola bizi ziren.

554. Gerra osteko errazionamendua eta estraperloa (HON-048/012)

Gerra ondorengo miseria. Errazionamendua. Lenteja txarra, harriz josia. Ogia eta taloak. Hendaiara joaten zen ogi zuri bila, batelarekin. Ezkutuan azukrea ekarri, eta saldu egiten zuten. Sakarina. Kontrabandoarekin dirua egiten zuten batzuek. Portuges asko itotzen ziren, bestaldera igerian joan nahian.

555. Langostatarako kaiolak egiten (HON-048/014)

Langostatan ibiltzen ziren. Kaiolak edo otarrak nola egiten zituzten, urritzarekin. Zuloan sartu, eta ezin zuen atera. Orain sarearekin egiten dituzte.

Beita. 50 bat otarre erabiltzen zituzten. 18 urterekin atunetan hasi zen. Aitak utzi zuenean, bera patroï jarri zen eta orain semea.

556. Langostatan (HON-048/016)

Langostak harrapatzeko otarreak ur azpian non zeuden nola zekiten azaltzen du. Buiak, banderatxoekin. Erreferentzia moduan, mendiak. Txipiroitara joaten zirenek egiten zizkieten tranpak. Irunen eta Hondarribian saltzen zituzten, jatetxeetan.

557. Aitak egindako aguarinak (HON-048/017)

Txipiroietan, aguarinarekin. Lehen nolakoak ziren, aitak etxean egiten zituen, kantu kantari. Kordela, zaldi isatsarekin egina. Pita.

558. Atunetan, txurikinarekin II (HON-048/018)

Eustakio Berrotaranek alanbrea estainatu egiten zuen, atunetarako. Txurikinarekin egindako aparejuari buruzko azalpenak. Krokarekin igotzen zuten atuna kubiartara, eta kolpea ematen zioten matxapetarekin.

559. Atuna begiz ikusten; txorien laguntza (HON-048/019)

Atuna nola ikusten zuten begiz. "Balbala". Txoriekin ere igartzen da arraina non den. Erne egon beharra zegoen.

560. Antxoatan; izurdeekin eta ardoran (HON-048/020)

Antxoatan, uraren koloreari begira. Maila botatzen zuten garai batean, eta gero despeskatu. Gero izurdeekin hasi ziren. Ardoraren sua, ilargi gabeko gauetan. Botearekin, argia erabilita.

561. Hanka-hutsik baina gustura (HON-048/021)

Arrantzaleak oso pobre bizi ziren. "Barrio txino". Hanka-hutsik ibiltzen ziren, ondo bizkor. Bañistek esaten zieten. Alpargatak.

562. Antxoa deskargatu eta saltzen (HON-048/022)

Antxoaren deskarga. Benta. Ontzikoen emazteak eta alabak ibiltzen ziren deskarga egiten. Lagina eraman behar zen bentara. Erosleekin izaten ziren eztabaidak, ez zelako freskoa izaten. Antxoaren neurria: 22 kiloko potoa, artoa. Gatazkak.

563. Benteroak, pixonerak eta benta (HON-048/023)

Benteroak: Rufino Amunarriz, Candido Diaz... hiru-lau ezagutu ditu. Jenioa behar zuten izan, erosleak kontrolatzeko. Izeba Eugeniren kontuak. Gaztea zelarik, amak egiten zuen ontziko benta, zuzenean. Benta nola egiten zen, botoia zanpatuta.

564. Emakumeak, arraina erosi eta saltzen (HON-048/024)

Erosleak, "konpradorak", emakume gogorak izaten ziren. Saldu egiten zuten gero, kanpora: Zaragoza, Madril... Kalez kale ibiltzen ziren arrain saltzaileak, Irunen.

565. "Desde Santurce a Bilbao" abestia (HON-048/025)

"Desde Santurce a Bilbao" abesten du; Hondarribiko emakumeak ere berdin ibiltzen ziren. Antxoa ez zuten garbitzen, normalean. Dozenaka. Pisua eramaten zuten.

566. Legatzetan nola egiten zuten (HON-048/027)

Legatzetan txalupan ibiltzen ziren sasoi batean; gero berriz hasi ziren, eta asko harrapatzen zuten. Kalak: Exkote, Gaztelu... batzuk aipatzen ditu. Aparejua nolakoa zen, etxean egina. Pelajikoen erruz galdu zela dio.

567. Olioiz igurtzitako zirak eta eskalaproiak (HON-048/028)

Neguan, legatzetan, hotzak. Etxean egindako zirak, linaza olioarekin. Usain fuertea zuen. Hanketan, eskalaproiak edo egurrezko txokoluak. Gaur egungo arrokekin alderatzen ditu ordukoak. Eskalaproiei goma jartzen zieten azpian. Ontziko marinelei deitzen ibiltzen zen, arrantzara joateko, kalez kale. Oinetakoekin ateratzen zuten hotsa.

568. Urik eta garbitasunik ez itsasontzian (HON-048/029)

Arrantzale denek ez zekiten igeri egiten. Gizon asko galtzen ziren itsasoan. Urik ez zuten ontzian, ezta komunik ere. Arropa aldatu gabe egiten zuten lo, motorraren ondoan berak.

569. Ontzian jaten zutena (HON-048/030)

Ontziko bizimodua. Atuna jaten zuten sarri, baita eltzekaria ere, leikua (babarruna). Oilaskoak. Ogia lizundu egiten zitzaien eta berdurak hondatu. Antxoa egosia. Zakutoa.

570. Ontzian, ardoa eta pattarra (HON-048/031)

Edaria: ardoa. Ontziko gazteena, txotxoa. Hark partitzen zuen ardoa. Barrikak. Zorabiatu egiten zen itsasoan. Pottoak eta zahatoa. Kafea, beti pattarrarekin (ttotta). Baratxuri zopa.

571. Lotarako, literak (HON-048/032)

Oheak egurrezkoak ziren. Koltxoiak. Lo falta da arrantzalearen arazoa, gosea baino okerragoa. Erne egon behar zuten beti. Literak.

572. Okerrena: arrainik ez harrapatzea eta eguraldi txarra (HON-048/033)

Eguraldi txarrarekin, nahiko lan. Arraina harrapatu ala ez, jorrala diferentea. Komunik ez, eta kareletik egiten zituzten egin beharrekoak. Baina alde txarrena arrainik ez harrapatzea dela dio, eta eguraldi txarra.

573. Zaharren ezaguera: eguraldia nola igarri (HON-048/034)

Zaharrek nola igartzen zioten eguraldiari, hodeiei, zeruaren koloreari eta ilargiari begira. Esaera zaharrak. Txorien eta arrainen kinadak.

574. Igande eta jai egunetan ere itsasoan (HON-048/035)

Igandetan ere arrantzara. Neska-lagunarekin hasita ere, San Martzialetan itsasora. Orain jai egiten dute. Urte zahar egunean ere sardinetan ibilia da;

afarian, lo hartzen zuen. Udan hondartzara joaterik ez. Neguan Kanariar uharteetara joaten hasi ziren gero, emazteekin; igerian egiten ere ahaztuta.

575. Lehorreko lanak; sareak tindatzen (HON-048/036)

Armadoreak lehorrean ere lana izaten du: ontzia margotu, sareak prestatu... Marinelek lagundu egiten zuten. Sareak tindatzeko lanak; usteldu egiten ziren bestela. Nylonezkoak. Sarea eskuz jasotzen zuten. Izotza Irundik eta Pasaiatik ekartzen zuten. Umeak eta etxea, emazteen kargu.

576. Manta banatzen, etxez etxe (HON-049/002)

Manta, arrantzaleen jorнала. Armadorearen etxean egiten zen banaketa. Partila. Etxez etxe banatzen zuten; batzuek propina ematen zuten. Arriskua zen hainbeste diru izatea etxean. Propina galtzetan gordeta.

577. "Txotxuak" laurdena kobratzen zuen (HON-049/003)

"Txotxo"-ak laurdena kobratzen zuen; 14 urtetatik soldadutza egin arte. Orain gazteek berdin kobratzen dute. "Txotxo"-aren lanak aipatzen ditu. Harriak botatzen, arrainak ez saretik ihes egiteko.

578. "Txakurrena" zer den; hitzaren jatorria (HON-049/004)

"Txakurrena" zer den azaltzen du. Txalupetan legatzetara joaten zireneko kontua da jatorrian; txakurrak ontziratutako arraina aparte banatzen zen. Gero dirutan ematen zen, eskura.

579. Alamedara eta sagardotegira (HON-049/005)

"Txakurrena" kobratutakoan arrantzaleek egiten zutena kontatzen du. Lagun kuadrilla alamedara joaten zen, baina ez zuten dantza egiten. Sagardotegiko giroa. "Blagan". Emakumeak, zerbitzen bakarrik.

580. Kanturako zaletasuna sagardotegian (HON-049/006)

Sagardotegian asko kantatzen zuten, hala gosea ahazteko. "Isil-isilik dago", "Jaiki hadi", "Joxe Migelen batela"... Joxe Migel bere aitona zen. Kantatu egiten du.

581. Gabonetan ere kantuan, etxean; karakolak jateko ohitura (HON-049/007)

Gabonetako kantak. Etxean ez zuten besterik kantatzen Eguberrietan. Zati batzuk kantatzen ditu. Gabon gauean mariskorik ez, karakolak jaten dituzte.

582. Baserritarrekin kaletarrekin baino hobeto moldatzen ziren (HON-049/008)

Harerman ona zuten baserritarrekin, kaletarrekin baino hobea. Borroka egiten zuten haiekin. Irundarrekin ondo. Harrika egiten zieten baserritarrek, neska laguntza egitera joaten baziren. Bikingoak ziren portuarrak.

583. Kofradiako presidente izana urte askoan (HON-049/009)

Kofradiako presidentea izan da askotan. Kofradiako lanak aipatzen ditu. Santiago eguna. Don Carlos bikarioaren laguntza. Ontziak lehorra igotzeko karroa nola jarri zuten.

584. Portua lekuz aldatu zuten (HON-049/010)

Portua lekuz aldatzeko, Danimarkara joan ziren ikustera. Lekuonak egin zituen planoak. Aurretik hartzen zituzten lanak aipatzen ditu.

585. Kofradiako presidentea aukeratzeko modua (HON-049/011)

Kofradiako presidentea nola aukeratzen zuten kontatzen du, zortziren artean. Gero denak botoa ematen hasi ziren, San Pedro egunean. Urtero egiten zuten, gero lau urtero. Bilerak.

586. Kofradiako gastuak nola ordaintzen zituzten (HON-049/013)

Kofradiari arrantzatutakoaren ehuneko bat ematen zioten Hondarribiko arrantzaleek. Presidenteak ez zuen kobratzen.

587. Kofradia, ermandadea eta federazioa (HON-049/015)

Kofradian bilera zailenak soldata igoerei buruzkoak ziren. Gipuzkoako arrantzaleen ermandadea, asegurua. Delegatua izana da bera. Federazioa.

588. Arraunean patroï; Kontxako bandera (HON-049/017)

Arraunean ibili zen bera, aita bezalaxe patroï. Entrenamendua motza izaten zen, eta dieta txuleta jatea. Estropada gutxiago izaten zen lehen. Kontxako banderako giroa. Desafioa egin zuten Pedreñarekin.

589. Arrauna lehen eta orain; estropaden jatorria (HON-049/018)

Lehen arraunak eta traineruak askoz pisutsuagoak ziren. Afizioz aritzen ziren, kobratu gabe. Estropaden jatorria zein den azaltzen du.

590. Franco eta hondarribitarrak (HON-049/019)

Aitari Francok eman zion Kontxako bandera, Konstituzio plazan. Hondarribiko asko egoten ziren haren zerbitzuan.

591. Kontserba lantegiak (HON-049/021)

Hondarribiko eskabetxeriak, kontserba lantegiak. Bertaraino joaten ziren arraina eramatera. Emakumeak antxoei burua kentzen ibiltzen ziren.

592. Sarea josteko haria (HON-050/013)

Hariak sendoera askotakoak zeuden, bakoitza zenbaki batekoa. Kofradian zegoen dendan erosten zuten haria, eta gero Biterin. Haria ez da aldatu. Guraizeak normalak ziren. Amantala, bi poltsikorekin. Aulki txikietan eserita egoten ziren sareak josten. Hankarekin tenkatzen zuten sarea, batzuetan oinutsik. Eguzkitan egoten ziren lanean sarri.

593. Sareak hornitzen II (HON-050/015)

Sarea nola hornitu. Mamiak eta txikoteak. Eskuak minduta edukitzen zituzten, txikotea oso latza zelako. Sareak non eraman ontzian. Hautsitako sarea nondik hasi konpontzen.

594. Sareak josten ikasteko prozesua (HON-050/016)

Lehen lana, sareak josten ikasteko, ezpaina egitea. Golgarria. Maila erdiak, maila eta erdi. Anita eta bera sarean irakasten ibili zen hilabetea. Itsasontzian bertan ere konpontzen zuten sareak. Donostiara ere joaten ziren sareak konpontzera, Carmen Soteroren sarera; hotela zuen, eta bazkaltzen ematen zieten han. Pasaia ere joan izan da.

595. Saregile taldeak eta kobraketa (HON-050/017)

Itsasontzi bakoitzak bere saregileak zituen, orain ez. Lehen, lehenengo etxeko sareak josten zituzten, gero besteenak. Bi talde ziren. Orain denak denenak. Egun bakoitzeko ordaintzen zien patroiak, orain orduka da. Ordutegia. Geldialdirik ez zuten egiten, eta askotan euripean lanean.

596. Arropa eta oinetakoak; eskalaproiak (HON-050/024)

Amak ez zekien josten, jostunari eskatzen zion. Soinekoak urtean behin egiten ziren, tela lrunen erosita. Arropa eta oinetakoak. Eskalaproiak; arrantzaleek goma jartzen zieten. Oinutsik asko ibiltzen ziren.

597. Igerian eta jolasean, umetan (HON-050/025)

Igerian ibiltzen ziren. Bere kasa ikasi zuen. Gona zahar batekin. Kortxo zaharrekin flotagailua eginda. Neska-mutilak elkarrekin jolasean, buleka. Sokasaltoan. "Patakainka" jolasa.

598. Egurretara mendira (HON-050/026)

Fruta lapurtzeko ohiturarik ez du izan. Egurretara joaten zenean, ahizpak sagar batzuk ekartzen zituen. Sukaldea nolakoa zen. Zakutan ekartzen zuten egurra. Ez zuten mendira eta arroketara joateko ohiturarik.

599. Txirlak, almejak, muskuiluak eta angulak (HON-050/027)

Txirletara joaten zen, itsasbeheran; behatzarekin edo koilararekin. Almejak hartzea zailagoa zen; lauhortzekoarekin. Txirlak nola presatzen zituzten. Muskuilutara anaia-eta joaten ziren. Angulak kontrabandoan Donostiara eramateagatik hamar duro ematen zizkieten.

600. Eiger itsasargira, aitarekin kamioian (HON-052/003)

Beraien etxeak izenik ez zuen, abizenetik deitzen zieten: Larrarte. Denek ezagutzen zuten elkar. Hondartza urruti zegoen beraientzat. Aitak kamioiak zituen, eta Eiger itsasargira joaten ziren. Beheko bidea egin gabe zegoen. Kamioi gutxi zegoen herrian. Tranbia hondartzaraino joaten zen udan.

601. Hanka-hutsik ibiltzen ziren (HON-052/004)

Bere aita igeltseroa zen, eta eraikuntzan lan asko egin zuen. Etxeak egiten eta berritzen ibiltzen zen. Baserritarra zen, Nabarroneakoa, itsasargi ondokoa. Oinez joaten zen mezetara handik, alpargatak beso azpian hartuta. Normala zen hanka-hutsik ibiltzea.

602. Anaia zaharrena gerran hil zen (HON-052/005)

Hamabitik zazpi senide irten ziren aurrera. Anaia zaharrena gerran hil zen, Huescan. Berak hiru urte zituen. Dirua ordainduta libratu zuten soldadutzatik, baina gero kintak harrapatu zuen. Musika bandarekin egin zioten elizkizuna.

603. Lehenengo boligrafoa ikusi zuenekoa (HON-052/007)

Bizitza osoa auzoan pasatu du. Umetan pospolo kaxekin jolasten zuten. Jostailurik ez zegoen, ezta boligraforik ere. Lehenengo boligrafoa. Lumak bazituzten. Bidasoa errekan igerian.

604. Etxe gutxi zegoen Kostan; baratzeak (HON-052/008)

Etxe gutxi zeuden Kostan, Amuterainoko bidean. Baratzeak. Artoa eta babarruna; herri lurak ziren, eta ospitalekoek erabiltzen zituzten. Saltzen jarri zituzten gero; aita erosi zituen. Orduan jaten zituzten berdurak.

605. Txerria hil, eta odolkiak egiten (HON-052/009)

Txerria hiltzen zuten etxean. Mezetatik bueltan, kafea hartu eta txerria hiltzera. Odolkiak egiten zituzten. Portuan erosten zituzten espezieak. Txori bat pasatu da. Odola hartzea.

606. Txerriaren odola hartzen (HON-052/010)

Gerra ondoan parte eman behar zen udaletxean, animalia bat hiltzeko. Txerria erosten zuten. Errazionamendua ez kentzeko, isilka hiltzen zuten txerria. "Txerristegia". Mailuarekin jotzen zioten buruan. Porronean hartzen zuen odola.

607. Txerria isilka erretzen (HON-052/011)

Sua ematen zioten txerriari, baina urrutitik ez ikusteko, bidai bat erabiltzen zuten. Zizeroak ibiltzen ziren. Laranja edo ardo lurrik ekartzeko, ordaindu beharra. Txerria garaje barruan garbitzen zuten gero. Artoa kentzen zieten.

608. Txerria zatitu eta gazitzen (HON-052/012)

Zatitu eta gazitu egiten zuten txerria. Hozkailurik ez zen. Odolki asko egiten zituzten, eta berriz egosten zituzten, ez hondatzeko. Listaria, odolkiak lotzeko.

609. Txorizoak egiten zituzten (HON-052/013)

Txorizoak nola egiten zituzten. Txerriaren urdaila urtu, eta lurrezko ontzietan jartzen zituzten txorizoak, ondo mantentzeko. Hesteak garbitzeko ura bazuten etxean.

610. Ohera goiz, eta goiz jaiki (HON-052/014)

Aurreko etxean ez zuten dutxarik. Ilundu orduko ohera joaten ziren, eta goiz jaiki. Amak kafea eramaten zion semeari ohera. Gizonak dena listo zuen etxean. Irratia. Aitaren lan orduak; afari-merienda egiten zuten. Zer jaten zuten.

611. Bakoitzak bere plateretik; ardoa, neurrian (HON-052/015)

Bakoitzak bere plateretik jaten zuen, baina ezagutu du denak batetik jateko ohitura, baserrietan. Ardoa edaten zuten etxean, baina neurrian. Aita eta anaiak ez zituen inoiz mozkor ikusi.

612. Sagardoa egiten zuten, eta botilaratu (HON-052/016)

Sagardoa egiten zuten etxean. Kupelean sartzen zen anaia. Dolareak non zeuden. Garlian ekartzen zuten sagardoa etxeraino, behi parearekin edo kamioiarekin. Botila faltan izaten ziren. Kortxoak egosi egiten zituzten.

613. Sagarrak, sagardoa eta sagardotegiak (HON-052/017)

Sagardoa zernahi sagarrekin egiten zutela uste du. Nafarroatik eta Goierritik ekartzen zituzten sagarrak. Ume batzuk sagarrak ebasten ibiltzen ziren. Etxe askotan zeuden dolareak. Sagardotegiak. Emakumeak ez ziren tabernatarara joaten, elizan ere aparte esertzen ziren.

614. Gerra ostean, diru gutxi eta errazionamendua (HON-052/018)

Etxean beti zuten pilotaren bat, aita ekarrita, baina ez zen normalena. Ez zegoen dirurik, eta gerra ondoan diruarekin ere ezin erosi. Errazionamenduko azukrea. Goizaldean jartzen ziren ilaran, haragia erosteko.

615. Txekorrak isilpean hiltzen, etxean (HON-052/019)

Txekorra isilpean etxera eraman, hil eta partitu egiten zuten fraide eta mojekin. Haiekin harreman ona zuten. Gurutzeko mojekin ibili zen, baina denbora gutxian. Anaietako batek batxilerra egin zuen.

616. Gurutzeko ikastetxean lanean (HON-052/021)

12 urte arte ibili zen mojetan. Ahizpa moja joan zen. Ikastetxean lanean ibili da sukaldari moduan eta umeak zaintzen. Ikasten ibili zen garaiko zigorrak. Mutilekin gogorragoak izaten zirela uste du.

617. Eskola bukatu orduko lanera (HON-052/023)

Lehen, Jaunartzea egin orduko lanean hasten ziren. Mutilak peoi, neskak neskame. Hasieran ez zuten kobratzen. Errazionamenduko tabakoa trukatu egiten zuten.

618. Hendaiatik ogi zuria ekartzen (HON-052/024)

Ogia Hendaiatik ekartzen, isilpean. Karabineroek kendu egiten zieten, harrapatuz gero. Kafea eta garbantzuak. Batelean joaten ziren batzuek. Hendaiako bixintxo festak.

619. Angulak merke zeuden (HON-052/025)

Angulak merke zeuden, eta edozein egunetan jaten zituzten, baita gosaltzeko ere. Eguraldi txarrarekin joaten ziren anguletara erriora, batelekin. Baia. Angulak nola hil. Hendaiara angulak eroatera. Kalamartza (bogabantea).

620. Langosta, kalamartza eta bakailaoa (HON-052/027)

Kalamartza (bogabantea) kaiolarekin harrapatzen zuten. Beraiek egiten zituzten kaiolak, egurrezkoak. Aita kamioiarekin joaten zen bila. Donostiara saltzen zituzten. Langile pobreen jana zen bakailaoa.

621. Antxoa eta arrain saltzaileak (HON-052/028)

Antxoa asko jaten zuten. Painelua betetzen zieten arrantzaleek. Arrain saltzaileak, antxoa saltzen. Txipiroiak, dontzeilak, krabak... Arroketako aingirak.

622. Muskuiluak patatekin (HON-052/029)

Muskuiluak hartzera, arroketara, aitarekin. Muskuiluak nola prestatzen zituzten, patatekin. Ez da lapa zalea.

623. Karakolak jateko ohitura, Eguberrietan (HON-052/030)

Karakolak ez zaizkio gustatzen, baina bazen jateko ohitura Gabonetan. Nola garbitzen zituzten.

624. Katua jatea ohikoa zen (HON-052/031)

Katuak jaten zituzten, batzuek jakinda eta beste batzuek jakin gabe. Langileek jaten zuten, amak prestatuta. Elkarreetan egiten zituzten tranpak. Zaldi haragia ere ez zuten nahi batzuek.

625. Ama arrain saltzaileekin tratuan (HON-052/032)

Amak arraina ondo ezagutzen zuen, baserritarra izan arren. Tramana eta potza oso antzekoak ziren. Arrain mota asko saltzen zituzten saltzaileek etxez etxe, egunekoa. Builaka. Lehenengo iristen zenak gehiago saltzen zuen. Lanperna beroak saltzen zituzten baserritarrek.

626. Gurasoak portuarrak (HON-054/003)

San Pedro kalean jaioa. Gurasoak Hondarribikoak zituen, portuarrak. Aita arrantzalea zen, fogoneroa. Ama etxeakoandrea zen; etxeako arraina ere saltzen zuen, baina herrian bertan. Hamalautik bederatzi senide atera ziren aurrera.

627. Pobre bizi zen arrantzalea: harrapatutakoa ezin saldu (HON-054/004)

Etxean ura bazuten, baina komuna eskaileretan, lau bizitzatarako bakarra; bonba gabea. Argindarra bazuten. Lehengo bonbilek gehiago irauten zuten. Lo egiteko, ohe bakoitzean bi-hiru lagun. Jergoiak. Arraina ugari zen, baina garraioa falta zen, eta ezin saldu. Antxoa hondartzan botatzen zuten, eta baserritarrek eramaten zuten. Trukean patata edo babarruna ematen zieten.

628. Baporeak eta kalderen arriskua (HON-054/006)

Baporeak, ikatzezko ontziak, ziren lehengoak. Tximinia luzearekin. Neguak orain baino gogorragoak ziren. Baporeen izenak esaten ditu. Kaldera motak: etzanda eta zutik. Batzuek lehertu egiten ziren. Aita fogoneroa zen. Hildakoak eta itsututakoak.

629. Hondarribiko ontziola (HON-054/007)

Hondarribiko ontzian egiten zituzten baporeak. Egurrezkoak ziren, haritzekoak eta pinuzkoak. Ondo lehortzen zuten egurra. Forma nola ematen zioten, urtean sartu eta azpitik suarekin berotuta. Arbolak noiz bota. Ontziolako langileak. Kargako ontziak.

630. Lehenbiziko motor txikiak; arrankatzeko moduak (HON-054/008)

Gerra hasi aurretik hasi ziren motor txikiak egiten, hamalau zaldikoak, 10-12 metro luze. Arrankea nolakoa zen hasieran. Metxaren arriskuak. Haizearekin hasi ziren gero, haize botilekin. Ura ibiltzen zen bueltaka, motorra ez berotzeko. Gasoilaren faltan gasogenoa, egur ikatzarekin; bi kaldera handirekin.

631. Motoristaren lana eta buruhaustea (HON-054/010)

Fogoneroak igual-igual egiten zuen lana, arrantza. Motoristak ere bai. Motoristaren lanak; zein arazo izaten ziren ur bonbarekin, atunetan kanaberarekin zebiltzanean. Oraingo itsasontziak eta lehengoak konparatzen ditu.

632. Kordelarekin eta konpasarekin (HON-054/011)

Sonarrak eta radarrik ez zen lehen. Eskuz egiten zuten dena. Kordelarekin ibiltzen ziren, beruna hondora botatzen; brazak eskuz kontatzen zituzten. Norabidea jakiteko, karta eta konpasa. Santoñako itsasargiak bidalitako soinua. Radarra. Itsasargien seinaleak.

633. Etxekoekin komunikatu ezinik (HON-054/012)

Irratirik ez zegoen, etxean ez zuten berririk. Arrasteroei galdezka ibiltzen ziren, ea non zeuden. Ezin zuten komunikatu, ez zegoen telefonorik. Itsasora begira egoten ziren lehorrekoak. Arraina non harrapatu zuten ez zuten esaten batzuek. Tranpak. Arrantzaleen arteko harremana.

634. Itsasontzi kopurua gora, legatzetan hasi zirenean (HON-054/013)

Hogei bat itsasontzi zeuden hasieran. Legatzetan eta bisigutan hasi zirenean, 120 ontzi izango ziren. Antxoia eta atuna. Mercado Comun jarri zenean, isunak eta atxilotetak. Baionan preso.

635. Mugaz bestaldeko arrantzaileekin gaizki (HON-054/014)

Mugaz bestaldekoekin gaizki konpondu dira beti; hirugarren mundukoak zirela esaten zieten haiek. Okerrenak hemendik hara bizitzera joandakoak ei ziren. Anekdotak kontatzen du, aitari gertatutakoa.

636. Gerra etortzean, ihesi bestaldera (HON-054/015)

Gerra hasi zenean, bestaldera joan ziren. Amaren lehengusu bat zegoen han, eta etxean hartu zituzten, baina ez oso gogo onez. Kanean ere gorrotoa sumatzen zen beraiei kontra.

637. Frantziako gobernuaren indarra (HON-054/016)

Sare pelajikoen erabilera. Frantziako gobernuak indarra izan du beti, Espainiakoak ez. Frantses uretan sartzea ebastea baldin bada, Somalian egiten ari direna ere bai.

638. Lehengo eta oraingo ontziak (HON-054/018)

Ontziolan bi hilabetez egiten zituzten itsasontziak. Ez ziren handiak. Materialak asko aldatu dira. Itsasontzi bakoitzean 8-9 ibiltzen ziren, orain 18.

639. Arraina sarearekin nola harrapatu; berunak (HON-054/020)

Arraina non zegoen nola jakin: begiz ikusten zuten, gora igotzen zelako. Sondarik ez zuten. 80 brazako sarea, kabida txikikoa oraingoan aldean. Berun gutxiago jartzen zuten lehen. Kortxoa. Berunak egiten, moldeekin.

640. Arraina begiz ikusten (HON-054/021)

Arraina begiz ikusten, atunetan. Balbalada. Hiru-lau joaten ziren aurrean, erne-erne. Ipar haizearekin, atuna olatuarekin batera. Uretako itzalak. Txoria zen tokian arraina izaten zen. Bertaratu arte ez zekiten arrainik bazen ala ez.

641. Antxoatan, ardoran; argiarekin arrantzan (HON-054/022)

Antxoatan, ardoran. Ilargiak ez zuen laguntzen arrainaren argia ikusten. Uretara botatzen zuten argi bat. Aurreratu egin behar zen, antxoa harrapatzeko. Itsasontzi handiekin, batela botatzen zuten, argia piztuta. Fokoekin nola hasi ziren; argia erabiltzea galarazita zegoen.

642. Ontziko kamainak nolakoak ziren; komunik ez (HON-054/024)

Kamainetan koltxoak txurikinarekin egiten zituzten, eta zarata handia ateratzen zuten. Patroia haserre, ezin lo egin ezinik. Hasieran komunik ez zuten. Kareletik.

643. Etxean dutxarik ez lehen (HON-054/026)

Gero bai, komuna jarri zuten itsasontzietan; motorreko ura komunerako jarri zuten. Orain dutxa ere badute. Lehen, etxean ere ez zuten dutxarik. Gasoil usainarekin joaten zen etxera. Dutexarekin lotutako anekdota.

644. Umetako bihurrikeria; ama arraina saltzen (HON-059/006)

Umetako bihurrikeria: hirugarren bizitzan bizi ziren, eta jolasean ur kantina hustu zuten eskaileran. Zortzi anaia zituen. Amaren erretratua. Ama Hendaian ibiltzen zen arraina saltzen, gerra aurrean; gero, Nafarroan. Bentan erosten zuen.

645. Jostunak; "printzesita" (HON-059/007)

Arropa jostunak egiten zuen. Ziburun egin zizkieten soinekoak. Eskolako maistrak oso maitea zuten. Josten ibili zen bueltan. "Printzesita" deitzen zioten.

646. Arropa garbitu eta zabaldu (HON-059/010)

Arropa garbitzera, labaderora, goizean seietarako, lekua hartzeko. Asteazken hirutan. Itsasoko arropak oso zikinak egoten ziren. Maindireak. Arropa zabaltzean, argindarraren kableen txispekin beldurtuta.

647. Dotrina Ziburun eta Hondarribian (HON-059/018)

Jaunartzea, 12 urterekin. Ziburun dotrina euskaraz ikasi zuen, baina ez eskolan; bueltan, 10 urterekin, dotrinan hasi zen, Don Manuel Elgorriagarekin. Gerra denboran Guadalupen egon zen preso; lehengusua fusilatu zuten, bera zelakoan. Aita errepublikanoa zen.

648. Jaunartzea, zuriz jantzita (HON-059/019)

Oso altua zen. Zuriz jantzita egin zuen Jaunartzea; soinekoa Donostian egina. Gotzaina etorri zenekoa. Frantses doinuarekin erantzun zuen berak. Mojetan ibili zen. Lagun bat eta bera komuna garbitzera bidali zituzten. Amak jakin zuenean, eskolatik atera zuen.

649. Perico anaia, ogi bila Hendaiara (HON-059/023)

Perico anaia joaten zen ogi bila Hendaiara. Meningitis harrapatu zuen hiru urterekin, eta gorria geratu zitzaion. Behin harrapatu egin zuten. Karabineroak eta garitak. Alabak anekdota bat kontatzen du osabari buruz.

650. Komuneko papera; dutxarik ez (HON-059/025)

Komuneko papera: Elefante, eta aurretik egunkaria edo estraza papera. Dutxarik ez zuten. Komuna biltegia ere bazen. Oiloak zituzten baratzean; balkoia eramaten zituzten gauean. Anaiak arrautzak zulatu, eta barrukoak jan. Komuneko leihotik botatzen zituen. Amak Nafarroan saltzen zituen arrautzak. Iparraldera ezin joan, muga itxita zegoen.

651. Anaiei ibilerak gerra garaian (HON-059/026)

Anaiak nola desertatu zuen; Gernika batailoian eman zuen izena. Beste anaia gerran ibili zen eta gero kontzentrazio-esparru batean egon zen preso, baldintza txarretan.

652. Baserriko bizimodua (HON-063/002)

Mixerebe baserrian jaioa. Non dagoen azaltzen du. Bizimodua nondik ateratzen zuten. Ganadua zuten eta esnea partitzen zuten. Kontrabandoa.

653. Aitona-amonekin bizi zen baserrian (HON-063/005)

Bi senide ziren. Ama bertakoa zen (Mixerebe), eta aita Alkizenekoa. Baserri hura non zegoen; osaba bizi zen han. Aita Kostan bizi zen. Aitona-amonekin eta osaba-izebekin bizi ziren baserrian.

654. Gerra hasiera eta gerra ostea (HON-063/006)

Gerra nola hasi zen. Hegazkinak Nafarroa aldetik etortzen ziren. Baserrian dirurik ez zen, baina goserik ere ez. Ogia, harria baino gogorragoa. Nahiago zuen taloa, esnearekin.

655. Errotara ezkutuan, Nafarroara (HON-063/007)

Errotara Nafarroara joaten zen aita, menditik. Artzuko errotara joan zen behin hamar urterekin; Joakin harginak bidean lagundu nahi zion. Goiko errota.

656. Artzukoekin harreman ona (HON-063/009)

Artzuko Joxe Mari Berrotaranekin eta Justizkoekin ondo konpontzen ziren. Idiak zituzten. Gosaltzera gonbidatu zuen behin Joxe Marik, errotara joan zenean.

657. Oilaskoak zituzten I (HON-063/012)

Goserik ez zuten pasatu baserrian. Oiloak zituzten etxean. Lokak. Txitak. Oilaskoa, igandetan.

658. Oilaskoak zituzten II (HON-063/014)

Oilaskoak nola lokatu. Dozena erdirekin ehun bat txita ateratzen ziren. Harakin batek ganadu gibela gordetzen zion aitonari; ilarra ematen zioten trukean. Dirua ere erabiltzen zuten. Bi txerri hiltzen zituzten.

659. Hondarribiko baserri handienak (HON-063/016)

Nikaxio, Oilurtakoa. Baserri famatua zen ganadu kontuan. Beste baserri batzuk aipatzen ditu. Lehiaketetan parte hartzen zuten. Esnea partitzen nola ibiltzen ziren azaltzen du.

660. Esnea partitzen; Irunera zihoan tranbia (HON-063/018)

Esnea nola partitzen azaltzen du, kantinekin. Beste batzuk Irungo plazara joaten ziren saltzera, tranbian. "Zizeruak". Tranbiari hondarra botatzen, ez patinatzeko. Txinpartak. Tranbia ezin frenatu ibili zenekoa.

661. Irunera zihoan tranbia II (HON-063/019)

Tranbiak hanka moztu zion bati. Beraiek martxan igotzen ziren. Hondarribian ze tokitan saltzen zuten berdura. Tranbian joaten ziren arrain saltzaileak ere. Ehundik gora saski eramaten zituen, bagoietan. Irunera tranbian joaten zen, lanera.

662. Soldadore lanetan, Irunen (HON-063/020)

Soldadore ibili zen. Bizikleta piezak egiten zituzten. Pedro Tximista berarekin zebilen lanean. Tranpa egiten zieten lankide batzuek.

663. Soldadutza Irunen I (HON-063/021)

Soldadu joan zen 19 urterekin, boluntario. Teniente bat ezagutzen zuten. Instrukzioa egin zuen Irungo kanposantu inguruan. Fusilak ondo zaindu behar zituzten. Mosketoia galdu zuenik bazen. Bere lagunak egin zuen eskapada. La Palmera lantegia.

664. Soldadutza Irunen II (HON-063/022)

Egunero etxera joaten ziren. Ibañez tenientearen laguntzailea zen bera. Atea itxi, eta Juanito Mendizabal laguna eta biak tabernara joaten ziren. Komandanteak zer esan zien.

665. Soldadutza Irunen III (HON-063/023)

Nafarroara joateko salbokonduktoa eta muga pasatzeko baimen berezia. Bere adineko neska bat laguntza eske joan zitzaion, eta salbokonduktoa egin zion.

666. Soldadutza Irunen IV (HON-063/024)

Nazioarteko zubian ere egoten zen. Posible zuen bestaldera pasatu, baina ez zen joaten. Kontrabandoa.

667. Batelean, kontrabandoa (HON-063/025)

Batelean tranpa zuen eginda aitak, ogia eramateko. Tenientearen emazteak esan ziona. Kafea, ogia eta angulak. Faisan uhartetik gertu zegoen okindegia. "Falua" deitzen zioten bat argi ibiltzen zen, kontrabandoan zebiltzanei dirua ateratzeko.

668. Arroketako kontrabandistak (HON-063/027)

Arroketan ibiltzen ziren kontrabandistak. Automobilen piezak. Hil ere egin ziren batzuk. Arroketan ito zen mutila.

669. Lapak, gordinik eta saltsan (HON-063/028)

Lapetara joaten zen arroketara. Beheko lapak dira onenak. Hiru lagunak artean hogei bat kilo hartu zituzten. Gordinik ere jaten zituzten. Mimarria. Saltsan jaten zituzten.

670. Lanpernak eta sabiak (HON-063/029)

Lanpernatan ez zen ibili. Sabitara ere joaten ziren batzuk. Lanpernatan zeintzuk ibiltzen ziren.

671. Baserriko lanetan umetatik (HON-063/031)

Umetako lanak baserrian. Ganaduari jaten ematen, artoa "ifintzen"... Ama Kostan bizi zen, eta beraiek baserrian; baratzeak. Aita kontrabandoan ibiltzen zen; beste lan batzuetan ere bai: peoi, bideak konpontzen...

672. Aitona ondo konpontzen zen denekin (HON-063/032)

Zaldunbordako Nikolasek (aitonaren laguna zen) idiak uzteko tokia eskatu zien; bidea konpontzen ari ziren, eta joan-etorrian ez ibiltzeko. Aitonak auzokoekin zuen harremana.

673. Azpitarako inaurkin bila Jaizkibelera (HON-063/033)

Artoa eta erremolatxa. Azpiak egiteko, inaurkin bila. Gurdi pila bat elkartzen zen Guadalupeko kantinan. Zubietara eramaten zuten inaurkin asko. Herri lurrak.

674. Guadalupeko kantinan, itzainak eta soldaduak (HON-063/035)

Zakotea eramaten zuten mendira eta sagardoa. Kantinan geratzen ziren ardoa edatera eta etxetik eramandakoa jatera. Engraxik prestatzen zuen jana gotorlekuko soldadu batzuentzat. 800 soldadu zeuden. Barrakoiak.

675. Jaizkibelgo errepidea, soldaduek egina (HON-063/036)

Don Elias apaizak lanean jartzen zituen Guadalupeko soldaduak, tripa truke. Jaizkibelgo bidea soldaduak egin zuten.

676. Guadalupera eta parrokiara mezara (HON-063/037)

Igandero joaten ziren Guadalupera, mezara. Aitona Kapilauaren laguna zen, eta berriketan egoten ziren. Parrokiara joaten hasi zen gero; elizatik zuzenean etxera.

677. Bilerak eta dantza (HON-063/038)

Ez zaio dantza egitea sekula gustatu. Santiago eguna. Bilerak aipatzen ditu. Neskak ezagutzeko aukera izaten zen, bestela beti aparte ibiltzen zirelako.

678. Aita kaminero lanetan ibili zen (HON-065/003)

Baseritik bizi ziren. Hamar bat buru izatera iritsi zen, baina umetan baratzea zuten gehiago. Aita kaminero ere ibili zen; astean behin Pasai Donibanera joaten zen. Baserriko lanak. Baratzeko berdura.

679. Amari eta aitari laguntzen umetatik (HON-065/004)

Ama Irunera joaten zen saltzera Irunera, tranbian; berak karretilarekin lagundu izan dio, oinez. Postua. Bera zen zaharrena. Arrebei ilea ondo jartzen ibiltzen ziren aita eta bera. Potajea egiten. 26 urte arte baserriko lanetan.

680. Eskolan baino hobeto lanean (HON-065/005)

Umetako lanak, baserrian. Batzuetan eskolara joan gabe geratzen zen, eta nahiago zuen hala. Biteri eskolan jo egiten zieten, erdaraz ez zekitelako. Neskak eta mutilak aparte. Soldadutzara joan zenean ikasi zuen erdaraz, Madrilén; kamarero egon zen. Etxean gehiago ikasi zuen eskolan baino, aitonak erakutsita.

681. Txoritan amuarekin eta tiragomarekin (HON-065/006)

Umetako jostaketak. Pilotan ibiltzen ziren frontoian, askotan hanka-hutsik. Txoritan, amua jarrita hegaberak harrapatzen. Alkabana, birigarroa... Tiragomarekin ere ibiltzen ziren. Pareta txoria. Erreklamoa, sarearekin.

682. Ilargiari begira (HON-065/009)

Ilargiari begiratzen zioten batzuetan. Belarretarako. Egurra mozteko ere bai. Hazia bota, lorea ematen duten landareak ilberrian.

683. Lanpernetan, aitarekin (HON-065/010)

Itsasoari lanpernetarako begiratzen zioten. Aitak hartutako lanpernak berak eramaten zituen etxera. Amak saltzen zituen, gordinik zein beroak. Lapak. Lapakia. Salabardoa.

684. Aingirak harrapatzen, errekan (HON-065/011)

Arroketan ez zu arrantza askorik egin, errekan gehiago. Aingira asko zegoen. Harrapatu eta guardasol barrenera sartzen zituen aingirak. Angulak. Perretxikotarako ohiturarik ez zuten. Gaur egungo kontuak.

685. Sendabelarrak; mediku gutxi lehen (HON-065/012)

Kamamilotara urtero joaten ziren. Pasma belarra ona da zaurientzat; istripua izan zuen batean nola lagundu zion. Udan hartu behar da eta lehertu. Berbena. Kontsurta belarra. Medikua bizikletan eta oinez ibiltzen ziren lehen.

686. Lurra gozatzeko, hondarra; uztarria (HON-065/015)

Lurra nola goxatzen zuten, hondarra botata. Marinako eliza ondora joaten ziren hondar bila. Guardari pezeta bat ematen zioten gurdiko. Eskuz kargatzen zuten. Goldearekin ematen zioten buelta lurrari, behiarekin. Uztarria nola lotu. "Uztarri estalkiya".

687. Izeba esnea saltzen; egunero babarruna jaten (HON-065/016)

Esnea Hondarribian bertan saltzen zuen izebak, astoarekin. Marinara joaten ziren baserritar asko. Arrain saltzaileak etxera joaten ziren saltzera. Egunero babarruna jaten zuten, igandetan izan ezik. Gaztainak.

688. Beheko sua sukaldean (HON-065/017)

Sukaldean beheko sua zuten. "Lagatza", "labetxua" eta "hiru zangukua". Egurra. Lurrezko ontziak. Bakoitzak bere plateretik jaten zuen. Pitarra edaten zuten. Garlian ekartzen zuten, eta barrikara pasa.

689. Gerra nola hasi zen eta nola bukatu (HON-065/018)

Gerra hasi zeneko kontuak. Etxetik atera zituzten. Granada erori zen etxera, eta aita airean bota zuen. Metraila puskak biltzen, jolasteko. Beste baserri batzuetara joaten ziren lotara. Hondarribia hutsik geratu zen. Nazionalak sartu zirenean, Arma plazan zeuden. Festa. Baleares ontzian hil ziren gazte asko.

690. Nafarroara errotara; kontrabandoa (HON-065/019)

Gerra ondoren goseak egon ziren kaletarrak, arrantzaleak eta. Baserritarrak ez. Ogirik ez eta errotak itxita; Nafarroara. Aita eta lehengusua joaten ziren, eta bera inbidiatan. Hendaiatik ogi zuria ekartzen. Karabinero batek pasatzen uzten zien. Kontrabandoan pianoa eta motoa ere pasatu zituen batek.

691. Kontrabandoa, Guardiak kontrolatuta (HON-065/020)

Kontrabandoa: angulak; bidean jaten zituzten kontrabandistek, zakua zulatuta. Guardiak kontrolatuta izaten zituzten. Hariak jartzen zituzten bideetan, pasa ziren ala ez jakiteko.

692. Artoa eta babarruna entregatu beharra (HON-065/021)

Artoa, babarruna eta patata Amuten entregatu behar izaten zituzten. Jaizkibeldik barrena patata kontrabandoa. Errazionamendua.

693. Txerria hiltzen (HON-065/022)

Txerria hiltzen zuten, urtean bat. Auzoko bat ibiltzen zen hiltzen. Isilka ere hiltzen zituen hark. Urdaizpikoa gatzetan jartzen zuten. Odolkiak eta txorizoak egiten zituzten. Postreak.

694. Gaztetako ibilerak, Errandonean (HON-065/023)

Baserritarren arteko elkarlana. Auzolanari "pajina" esaten diote; bideak konpontzen. Dantzara Irunera joaten ziren, Anakara. Etxe laguntza. Errandoneara joaten ziren, han serenorik ez zelako izaten.

695. Bandoa jotzen; hiletetarako abisua (HON-065/024)

Bandoa jotzen zuten eliza atarian, meza ondotik. Xelestino. Hiletetarako deia mutikoek egiten zuten baserrietan, kalean emakume batek; afaltzen ematen zieten. Lezoko mugara joan ziren behin, azkenengo baserrira. Hiletak.

696. Jasotzaileak, hilkutxa eramaten (HON-065/026)

"Jasotzailiak" ziren hilkutxa elizara eramaten zutenak. Artzuko errotara joan zen aita, hango amona hil zenean, jasotzaile asko behar zituztelako. Elizatik kanposantura ere bizkarrez. Aingerua. Gaubeila. Lutoa.

697. Elizaren indarra (HON-065/028)

Elizan baserri bakoitzak bere aulkia zeukan. Amonaren aulkia. Parrokiara eta Guadalupera joaten ziren. Bezperetara gutxi joan zen. Luistarren kongregaziokoak hilero Jauna hartzera. Don Pedro apaiza. Dena bekatu. Misioak eta fraideen sermoiak.

698. Aita alargundu eta berriz ezkondu zen (HON-067/002)

Botika baserrian jaioa, Zemizarga auzoan. Senide asko ziren. 1918ko gripe izurritean aitari emaztea, aita eta ume bat hil zitzaizkion; alargun geratu zen bi neskatorekin. Berriz ezkondu zen, eta beste zazpi jaio ziren. Ama jaitzubiakoa zen.

699. Ahizpak esnea partitzen, etxez etxe (HON-067/003)

Baserritik ateratzen zuten bizimodua. Aitak lorezain lana ere egiten zuen. Zazpi-zortzi behi zituzten eta esnea partitzen zuten, oinez. "Txipitxua". Bueltan kantinan sartzen zituzten enkarguak.

700. Ama Irungo plazara berdurarekin (HON-067/004)

Irungo plazara joaten zen ama. Hondarribian ez zen egiten plazarik. Berdura eramaten zuen, zestoan. Tranbian joaten zen; bagoi bat zuen gauzak eramateko. Irungo plaza non izaten zen. Postuak.

701. Bazkaria egitea ahaztu, jolasean (HON-067/005)

Goizean goiz joaten zen ama Irunera, eta eguerdirako bueltatu. Bazkaria egiteko eskatu zion, eta ahaztu egin zitzaion, jolasean. Pasatu zuen larritasuna. Korrika joan zen amarengana.

702. Baserriko lanak gustatu ez (HON-067/006)

Baratzean denetik zuten. Berdurak aipatzen ditu. Abereentzat belarra, arbia eta erremolatxa. Aitari lagundu behar zioten; berak ihes egiten zuen beti, ez zitzaion gustatzen. Goldea. Jostea gustatzen zitzaion.

703. Dutxarik ez; erreka bainuak (HON-067/007)

Umetako lanak. Anaiak moztutako egurra ekarri. Sukaldea nolakoa zen: ekonomika eta ur depositoa. Ur beroa zertarako erabiltzen zuten: hankak

garbitzeko. Dutxarik ez. Palanganan jartzen zuten ura. Bainuak, soineko zahar batekin.

704. Komuna; gorotza eta hondarra (HON-067/008)

Etxeko komuna nolakoa zen. Depositoa. Baldean ura hartuta. Baratzerako ona zen hura, gorotza. Hondarra ere asko ekartzen zuten. Umetan hondar pilan jolasten zuten. Komuneko papera, egunkaria.

705. Aita irakurzalea zen eta musikaria (HON-067/009)

Ez du gogoan ze egunkari erosten zuten. Aitak egunero irakurtzen zuen. Nahiko intelektuala zen; baserritar asko joaten ziren berarengana, laguntza eske. Eskola asko gustatzen zitzaion. Beraiei ere ez zien faltatzen uzten. Musikaria zen. Anekdotak.

706. Eskola garaia amaitzean, negarrez (HON-067/010)

Biteri eskola publikoan ikasi zuten denek. Anaia batek asko faltatzen zuen, eta jesuitetan sartu zuen. Sei urterekin hasten ziren eta 14 urte arte. Negarrez utzi zuen eskola. Amak mojetan sartu zuen, josten ikasteko. Gomazko panpinari soinekoak egiten zizkion.

707. Josten ikasten, mojekin; gero, etxean (HON-067/011)

Ezkondutuek zenean, tailerra jarri zuen Errenterian. Lau-bost neska zituen bere kargu. Mojetan lehenengo josi zuena, bata bat. Azkar asko josi zuen. Etxean makina zuten. Sukaldaritza ere ikasten zuten mojekin. Ingurukoentzat josten hasi zen gero, etxean.

708. Jostun tailerra jarri zuen etxean (HON-067/012)

Josteko zailena zer zen. Gogoan du galtza batzuei poltsikoa okerreko aldean jarri ziela. Tailer txikia jarri zuen etxean. Lau bat neska izaten zituen aldiko, baserritarak. Tela dendak Hondarribian eta Irunen. Perkala. Festetarako ahizpei soineko bana egiten zien. Soinekoak nolakoak ziren, beso luzeak. Elizarako buruan zapia.

709. Umeen arropa nolakoa zen (HON-067/013)

Bordatzen hasi zen, baina josi egiten zuen gehiago. Umeen arropa. Puntua. "Florecitas de rococo" eta festoiak. Trapuak. Gerrian troza jartzen zieten jaioberriei, bueltan-bueltan, tente egoteko. Gantxiloa.

710. Emakumeen barruko arropa; ama soinekoak josten (HON-067/017)

Emakumeen barruko arropa ere egiten zuten. Puntua ez zen erabiltzen, dena telazkoa. Maindireekin egiten zuten batzuetan. Elastikoak gero hasi ziren. Sostanak eta kuleroak. Ama hiru hilabetean ibili zen josten ikasten; festetarako josten zizkien soinekoak. Makina. Gauez ibiltzen zen josten. Argindarra.

711. Mezetara goizean goiz, ilunpean (HON-067/018)

Elizara asko joaten zen; amak deitzen zion goizaldean 5:30ean. Kosta egiten zitzaion ilunetan joatea; beldurtu egiten zen. Arrosarioa erreztatzen zuen bidean. Gaueko argitasuna. Bidezidorra.

712. Lehengusuaren denda (HON-067/020)

Lehengusuari, Leandrari, osabak janari denda jarri zion. Oso ondo joan zen negozioa. Sukaldea eta logela zituen hantxe bertan.

713. Parrokia eta eskola (HON-067/021)

Santa Engraziatik joaten ziren parrokiara. Kalea eta portua. Portuko eliza. Parrokia Don Agustin Zurutuza zen. Eskolan maistra erdalduna zuten, Demetri Lejarreta. Neskak eta mutilak aparte. Maisuak. Zigorrak.

714. Dotrinan bandera irabazi zuen (HON-067/022)

Dotrinan bandera irabazi zuen. Euskaraz. Erdarazko dotrina gutxi ikasten zuten. Otoitzak buruz zekizkien. Bandera nola irabazi zuen.

715. Aitarekin izarrak ikusten, zelaian etzanda (HON-067/023)

Etxean egunero arrosarioa, bost misteriokoa. Sukaldearen bestaldean oilategia zegoen. Zakuak lurrian jarri eta belardian etzaten ziren aitarekin; izarrak erakusten zizkien.

716. Lo egiteko garaia; koltxoiak (HON-067/024)

Nola egiten zuten lo: ohe bakoitzean bi. Berogailurik ez. Koltxoiak. Arto azalez betetakoak baziren, baina beraiek artilezkoak zituzten. Jo egiten zituzten noizean behin, ilea harrotzeko.

717. Pitarra egiten zuten; bazkaltzeko urik ez (HON-067/025)

Dolarea zuten. Sagardoa. Matxaka, eskuzkoa. Tiña. Sagardoa eta pitarra. Bazkalorduan ez zuten urik edaten. Barrikak. Txandaka joaten ziren pitar bila. Pitar egarria.

718. Urik ez etxean; putzu zuloa (HON-067/026)

Urik ez zuten etxean. Putzu zuloa, aska harriarekin. Labadorea egin zuten han. Zelaian zabaltzen zuten arropa, "al verde".

719. Arropa garbitzen II (HON-067/028)

Arropa garbitzen. Xaboa. Ez du lixiba ezagutu. "Gobara" maindire pilari esaten zioten. Arropa nola eraman putzura. Astean behin garbitzen zituzten maindireak, barruko arroparekin batera. Arropa.

720. Gomazko oinetakoak (HON-067/029)

Oinetakoak, gomazkoak. Abarkak. Taulazko oinetakorik ez du erabili. Alpargatak. Hanka-hutsik gutxitan.

721. Irun sutan; gerra hasiera (HON-067/030)

Gerra hasiera. Irun erre zutenekoa. Argitasuna. Ez ziren Hendaiara joan, aita esan ziena. Komentuko zubia bota zuten. Kanoikadak eta obusak. Farola ondoko baserri batera joan ziren, beldurtuta. Ogi bila joan zen handik.

722. Tropak Hondarribian sartu zirenean (HON-067/031)

Colonia Escolar dagoen tokian, Errepublikaren aldeko batzuk egon ziren, bizkaitarrak. Bat Botikara joan zen ihesi, tropak sartu zirenean. Hilketak. Guadalupeko gotorlekuko tenientea joan zitzaien etxera. Balak. Soldaduak bidean gora, emakume bat tarteko.

723. Etxeko giroa (HON-069/003)

Santa Maria Madalena kalean jaioa. Etxe denak zaharrak ziren. Zazpi senide ziren orduan. Hiru logela. Sukaldea, egur-ikatzarekin. Aita arrantzalea zen, eta ama Hendaia joaten zen arraina saltzera. Berak prestatzen zuen bazkaria. Denek batera jaten zuten, otoitz eginez. Postrea.

724. Etxe atzean oiloak, untxiak eta txerriak (HON-069/004)

Baserritar batek ekartzen zizkien babarruna eta esnea. Etxe atzean oiloak zituzten, untxiak ere bai; egunero joaten zen belar bila, baserrira. "Jitaia". Txerriak zituzten. Eskolara joan beharrean, txerri jan bila etxetik.

725. Baporea: ura eta ikatza (HON-069/012)

Baporea: ikatzezkoa. Makina eta kaldera. Ura eta ikatza, briketa. Ingalaterratik Pasaiara eramaten zuten ikatza, eta bila joaten ziren hara. "Saiatan" izaten zituzten gordeta briketak. Ontzi bakoitzean 11 gizon ziren. Bueltan, lau geratzen ziren ikatza eta ura kargatzen. "Zabakua".

726. Txipiroitan, aitarekin (HON-069/019)

Izkira harrapatzen, gauez. Txitarroten kanaberarekin. Amak saldu egiten zuen arraina. Txipiroia ez zen ezagutzen Hendaian. Kontserba lantegiak. Aguarinak aita egiten zituen, moldeekin, beruna urtuta. Zaldi ilea pita bezala.

727. Txoriei begira, arrantza egiteko (HON-069/025)

Arraina non den jakiteko, txoriei begira. Marlaxkak. Bi bote eramaten zituzten; arrabak txikitu eta itsasora botatzen zituzten, arraina erakartzeko. "Turtua". Sarea nola bota eta jaso. Sardina nola gorde ontzian.

728. Itsasontziko bizimodua: jatekoa eta edatekoa (HON-070/002)

Itsasontzietan ez zuten sukaldarik. "Uhelak" eta "prisalak" zituzten, arraina bertan erretzeko. Ogirik ez zutenean, kortxo gainean jartzen zuten arraina. Ardoa, zortzina poto. Atunak ez zuten jaten, zaharrei ikasita.

729. Itsasontzian lotan; arrantzaleen janzkera (HON-070/003)

Lo egiteko, barrura sartzen ziren. Komunak ez zuten. Arropa: olio ematen zieten zirei, eta sua ere hartu izan dute. Urdinez jantzita. Eskalaproiak.

730. Arrantzarako deia, ujuka (HON-070/005)

Arrantzara joateko deia nola egiten zuten, ujuka. Bizkaian andreak ibiltzen ziren deika; Hondarribian gizonezkoak, patroiak.

731. Arrantzarako deia, ujuka II (HON-070/007)

Anekdotak bat kontatzen du. Arrantzarako deia.

732. "Manta" eta "txakurrena" (HON-070/009)

"Partiya", "manta". Patroiaren etxean egiten zen banaketa. Sobretan sartzen zuten dirua. "Txakurrena" zer zen azaltzen du.

733. Arraina ekarri bai, baina ezin saldu (HON-070/011)

Kanaletik joaten ziren beti, behea ez jotzeko. Antxoa asko harrapatzen zuten, eta hondarretara botatzen zuten saldu ezin zutena. Baserritarrek eramaten zuten, baratzerako. Kontserba lantegirik ez zegoen artean Hondarribian. Kamioiek asko tardatzen zuten bidean. Izotza, berriz, gutxi zegoen.

734. Antxoaren arrantza; izurdeei segika (HON-070/013)

Antxoa martxotik aurrera arrantzatzen zuten. San Jose egun batean bost atun bilatu zituzten; aita izan zen egun hartan. Hurbil harrapatzen zuten antxoa. Izurdeei segika joaten ziren. Gauzez aritzea galarazita egon zen garai batean.

735. Antxoatan: ardoran; neurria, potoa (HON-070/014)

Ardoran nola egiten zuten arrantza, antxoatan gauzez. Ematen du sua zegoela uretan. Botea botatzen zuten, eta argia piztu. Karburoa. 18 kiloko potoa zen antxoaren neurria. "Xistuak" (saskiak).

736. Benteroak eta erosleak (HON-070/015)

Hondarribian bentan gizonezko bat egoten zen. Benta egiteko modua, bolekin. Rufino, Euxebio... benteroak. Erosleak bertako andreak izaten ziren. Emakume batzuek Irunen saltzen zuten arraina.

737. Lehengo kofradia (HON-070/017)

Lehengo kofradia non zegoen. Arrantzatzen zena kontrolatzen zuten han. Banderarik ez zuten jartzen eguraldi txarra zenean. Ontzi txikiak ziren lehengoak, 20 bat metrokoak. Makinak eta kalderak leku asko behar zuten.

738. Sareak "tanatzen" eta lehortzen, egundoko lanak (HON-070/018)

Sareak "tanatu" egiten zituzten, tindatu, ez usteltzeko. "Tana-tokia" non zegoen eta nola erabiltzen zuten, txandaka. Hustu egiten zuten, eta berriz bete. "Laja", "xaia". Karroan eramaten zuten sarea, lehortzera. Kotoizko sareak ziren, oraingoak nylonezkoak.

739. Sare konpontzaileak (HON-070/019)

Sareak emakumeek armatzen zituzten. Berunak eta kortxoak erosi egiten zituzten. Sare konpontzaileak.

740. Itsasoratzean Guadalupeko amari erreztatzeko ohitura (HON-070/021)

Bapore jabeak gutxi ziren. Bera izan da familiako patroia bakarra. San Telmo, San Luis... ontziek santuen izenak zituzten. Aita Ama Guadalupekoa ontzian ibili zen. Fedea zuten. Egunero erreztatzen zuten itsasoratzean. Ontzi bakoitzak meza ateratzen zuen urtero.

741. Bisigutan eta legatzetan, Exkote aldean (HON-070/023)

Bisigutan ere ibiltzen ziren, neguan. Exkote zen kala ezagunena. Frantsesen sareei botatzen die bisigua galtzearen errua. Esku hotzak berotzeko zer egiten zuten. Bisigua nola harrapatu, aparejua. Legatza.

742. Gabonetan, barraskiloak (HON-070/025)

Eguberrietan barraskiloak jateko ohitura aspaldikoa da Hondarribian. Orain ere egiten dute.

743. Gaztelun jaioa (HON-072/002)

Gaztelun jaio zen Fermin. Maizterrak ziren han. Rodrigueztarrak ziren jabeak, Irungoak. Gaztelua pirata denborakoa zen: kartzela zuen, jendea fusilatzeko tokia... Baratzea zuten eta ganadua. Ama esnea partitzera joaten zen herrira. Aita arrantzalea zen, batelarekin. Txitxarroak, txipiroiak.

744. Txipiroitan eta txitxarroitan (HON-072/003)

Txipiroitan. Etxean koloretako hariak jartzen zizkieten aguarinei. Pita. Txitxarroitan alanbrearekin, kainaberekin. Abantean.

745. Arroketan lapatan eta lanpernatan (HON-072/004)

Arroketan lapatan eta lanpernatan. Gaztetan ausartagoak ziren. Lanpernatarako tresnak. Lanperna motak. Uhartekoak dira onenak; itsasbeheran joaten ziren. Egosi, itsasoko urarekin onena. Saldu egiten zuten.

746. Lapak eta lapakia (HON-072/005)

Lapak. Lapakia nola egiten zuten. Itsasoko errikoak ziren goxoenak. Lapak etxerako. Gordinik ere jaten zituzten. Zopan, arrozarekin, egosita...

747. Baratzea eta arroketako arrantza (HON-072/006)

Mutikotan baserriko lanetan. Baratzean zer zuten. Babarruna bazkaltzeko. Langosta. Arroketan arrantzan. Olagarroa nola harrapatu, trapu zuri batekin.

748. Txoriak harrapatu eta lapikora (HON-072/007)

Txoritan. Lehorrekoak eta idorrekoak. Martina goxoa zen jateko. Batzuk aipatzen ditu. Txori txikiak sarearekin, erreklamoa. Txori txiki asko zen lehen, orain ez. Lehen, eskopeta gutxi zegoen. Eskopeta nolatan utzi zuen.

749. Kamamilotara amonarekin (HON-072/008)

Perretxikotarako afiziorik ez zen. Pinutela. Kamamilo bila joaten da orain ere Maria Jesus. Amonarekin joaten ziren egunpasa; atuna eramaten zuten, tomatean. Lehortu, ganbaran.

750. Sendabelarrak eta medikuak (HON-072/009)

Sendabelarrak. Belar mina, tentsioa jaisteko. Berbena, enplastoak. Medikuak oinez edo motoan joaten ziren. Don Candido Ostolaza. Sei lagun egon ziren tifusarekin etxean. Bera ere gaixo egon zen hilabeteen. Senideak.

751. Leriñenea, beti beteta; aita Terranovan (HON-072/011)

Leriñenea Goia baserrian jaio zen. Ama zen bertakoa, aita Perukenekoa. Zazpi senide ziren. Izeba eta amona bertan bizi ziren. 17 bizi ziren udan, lehengusuekin; bestela, hamabi. Ezkondu zirenean, hamar. Ikusi ere ez zuten egiten aita, Terranovara joaten zelako. Irratia.

752. Ama tratuarekin, tranbian eta topoan (HON-072/012)

Tratua saltzen zuten. Berdurak. Irunera joaten zen. Ama eta izeba, aurretik; tranbian joaten ziren, portutik. Arrautzak mantaleko poltsikoan eramaten zituen amak, paperean bilduta. Ama Erreenteriara joaten zen lapekin, topoan.

753. Zaldi-karroan Erreenteriara eta Irunera (HON-072/013)

Bera zaldi-karroarekin ibili zen. Farolarekin. Ilarra saltzera Erreenteriara. Esnea ahizpak partitzen zuen portuan. Goizean goiz jaikitzen zen. Bideak. Irunera ia egunero, plazara; postua zuten han. Postua nolakoa zen. "Zizeroa".

754. Irungo postua eta erosleak (HON-072/014)

Irungo postua nolakoa zen. "Zizeroa". Irungo plazaren gainbehera. Kamioneta. Erretratu bati buruzko azalpenak. Irungo erosleak. Denek regateatzen zuten.

755. Erosketak, zaldi-karroarekin (HON-072/015)

Erosketak Irunen bertan egiten zituzten, ala bidean. Arraina etxean ere izaten zuten. Irunen zaldi-karro asko elkartzen ziren. Toldorik ez zuen, eta guardasolarekin ibiltzen zen.

756. Elizatik bueltan, baserriko lanetan (HON-072/016)

Mezetara goizeko seietan, eta bueltan lanera: lanpernetara. "Bauxa". Parrokiara joaten ziren. Ganaduaren jatena. Belar metak. Inaurki bila gurdiarekin. Lanpernatan ere ibilia da.

757. Salaberri baserrian eskolan (HON-072/017)

Eskola berean ibili ziren, Salaberri baserrian, zazpi urte bete arte. Maistra bertakoa zen, Maria. Euskaraz. Kantuan ikasten zituzten otoitzak. Neska-mutilak elkarrekin, denak banku batean eserita. Ferminak osabaren etxean bazkaltzen zuen.

758. Dotrina ondo ikasi zuten (HON-072/019)

Salaberriko eskolan goiz eta arratsalde. Dotrina ondo ikasi zuten. Parrokiara joaten ziren gero astean bitan. Zigorra. Don Agustin Zurutuza eta Don Carlos. Erraz jotzen zuen hark. Eskola baino inportanteagoa zen dotrina.

759. Jaunartzeko bazkaria etxean (HON-072/021)

Jaunartzea parrokian egin zuten. Bazkaria egiten zuten etxean, oiloa hilda. Oparirik ez. Soinekoa eta marinel jantzia. Erretratua ateratzen zuten.

760. Jaunartzearen ondoren, eskolan (HON-072/022)

Maria Jesus mojetan ibili zen eta Fermin Arma plaza atzean. Maisuak makilarekin jotzen zien. Biterin ere ibili zen Fermin. Harekin gutxiago ikasi zuen. 12 urterako txipiroitan zebilen.

761. 14 urterako itsasora; "txotxua" sardinatan (HON-072/023)

14 urterako itsasoan hasi zen Fermin, motorrarekin. Baporeak ezagutu zituen. Ke beltza. Santa Gema itsasontzia. "Txotxua". Sardinetan. Begiz ikusten zuten arrainaren mugimendua. Txoriak. Botetik jaten ematen zieten arrainari, arraba, eta gero sarea botatzen zuten. Salabardoa.

762. Arraina deskargatzea eta benta (HON-072/024)

Sardina deskargatzea. Arroa. Benteroa. Benta nola egiten zen. Bola. Erosleak, emakumezkoak; bitartekari lana egiten zuten. Arrain saltzaileak.

763. Antxoatan, izurdeekin eta ardoran (HON-072/025)

Sardinetan hasi zen. Antxoatan egunez eta gauez, ardoran. Arrainaren argitasuna ikusi eta aurea hartzen zioten. Botea, fokoarekin. Egunez, izurdeekin.

764. Antxoa asko harrapatzen zuten, gehiegi (HON-072/026)

Antxoa asko harrapatzen zuten. Saldu ezin zena, Pasaiara txori-gorotza egiteko. Bota ere bai. Izotz lantegia. Antxoa oparitu egiten zuten, eta salmueran jarri ere bai.

765. Antxoak salmueran jartzen (HON-072/027)

Antxoa salmueran nola jarri. Gatzarekin. Orlando kontserba lantegia. Maria Jesus ibili zen han lanean. 40 bat emakume izango ziren.

766. Atun handiegiak harrapatu eta ezin saldu (HON-072/028)

Atunetan, kanaberarekin, berta-bertan. Biberoarekin, arrain bizia jarrita amuan. Kanabera laburrak eta luzeak. Kolpeak. Putzura joan zen lagun bat, hiru atunek tiratuta. Atuna ezin saldu, Santoñan. Hondarribira joan ziren eta handik Bermeora.

767. Atunetan kazan (HON-072/029)

Atunei kolpea ematen zieten buruan. "Matxapeta". Kazan gutxi ibili da: "Malotia", txurikinarekin egina; tindatu egiten zituzten. Zintzilik jartzen zituzten, lehortzeko. Orraztu. "Belarra".

768. Legatzetan; itsasoko mendiak eta errekek (HON-072/030)

Arrosela, legatza... Aparejoak. Arraina goian ala behean zegoen nola jakiten zuten. Sonda erabiltzen zuten. Itsasoko mendiak eta errekek.

769. Kordela, hondoa jakiteko (HON-072/032)

Kordela hondo txikitan erabiltzen zuten. Beruna. Brazak zenbatuta egoten ziren. Legatzetan, sondarekin. Kala ezagunenak aipatzen ditu. Bixigutan. Arraina zergatik desagertu den.

770. Patroiaren etxean partitzen zen "manta" (HON-072/033)

Baserritar asko zebilen itsasoan. Hondarribian lantegirik ez zen. Partiya ala manta. Astero kobratzen zen, patroiaeren etxean. Fermin ez zen sekula joan, etxera eramaten zioten dirua.

771. Hiru tokitan eskolan (HON-074/003)

Aitak Erretereriako papeleran egiten zuen lana. Sei senidetan zaharrena, umezain ibiltzen zen. Ventasen ibili zen eskolan eta gero Erretererian korazonistekin. Izebak eskola txiki bat zuen Zaldunbordan bertan.

772. Ventaseko eskola publikoa (HON-074/004)

Ventasko eskola publikoan Cara al Sol kantatzen zuten, maisuarekin. Ez zekien euskaraz. Mutilak eta neskak aparte.

773. Erretereriara eskolara, bizikletan (HON-074/005)

Bizikletan joaten zen Erretereriara, eskolara. Fraide korazonistak. Zigorra: ondo portatzen ez zena eskolan geratzen zen. Ventasen baino gehiago ikasi zuen. Dena mutilak. Dena erdaraz. 14 urte arte. Jolasak, frontoian. Bizikleta garraibide.

774. Baratzea bai, baina baserririk ez (HON-074/006)

Baratzea bazuten. Berdura, etxerako. Abererik ez zuten, eta eskuz lantzen zuten lurra. Ez zuten baserririk. Osaba Karlosek bai, eta hari laguntzen zion: belarretan, artoa biltzen, sagardoa egiten...

775. Sagardogintza: sagar motak (HON-074/007)

Sagardogintza. Sagar motak eta bakoitza nolakoa den. Arbolak nola landatu, gazia eta geza txandaka.

776. Sagarrondoak kimatzea; sagar urtea (HON-074/008)

Sagarrondoak ez da kimatu behar sagar asko nahi bada. Sagar ale onak egiteko, gutxi baina ederrak, bai. Santakruzak baino lehen biltzen zena, erdi preziora saltzen zuten. Sagar urtea izan ala ez, zeren arabera den. Simaurra. Karea.

777. Sagarrak batzen; lehen sagarrekin, zizarra (HON-074/009)

"Kiskilla", sagarra jasotzeko. Muturra karratua izan behar du, ez borobildua. Sagar-otarrea. Lau otarrek zakua osatzen zuten. Zaldunbordan egiten zuten sagardoa. Lehenengo sagarrarekin egiten dena zizarra da.

778. Sagardoa eta pitarra (HON-074/010)

Sagardoa eta pitarra. Sagardoa pitarra baino gehiago egiten zuten. Pitarra etxerako. Umeek ere edaten zuten. Pitarra edatea ona da.

779. Sagardoa egiten I (HON-074/011)

Sagardoa egiteko prozesua. Matxakan txikitzen zuten sagarra, motorrarekin. Dolarean 24 bat orduan eduki, bildu eta estutu. Urratu, moztu eta berriz bildu eta estutu. Patsa, behientzat. Patsulua.

780. Sagardoa egiten II (HON-074/012)

Sagar ura kupelera edo garliara. Garlian eramaten zuten sagardoa, gurdian. Onila, egurrezko inbutua. Baldeka betetzen zituzten kupelak. Irakiten izaten zuten, irekita. Sagar mota, eguraldia... Pospolaa arrimatu eta itzaltzen ez bada, kupela itxi daiteke.

781. Kupela garbitzen, barrura sartuta (HON-074/014)

Zaldunbordan ez zuten sagardoa etxean saltzen. Sagardotegiak. Litro asko egiten zituzten, baserri askorentzat. Kupelak haritzarekin eta gaztainarekin eginak. Kupela garbitzen, barrura sartuta. "Ataleihoa". Seboa eta manteka.

782. 14 urtetatik arotz lanetan (HON-074/016)

14 urterekin hasi zen arotz lana ikasten, Irunen. Carpinteria Serrano. 5-6 langile ziren. Denetik egiten zuten. Egurra Pasaiaetik eramaten zuten asko. Pinu galiziarra erabiltzen zuten gehien. Pinu motak.

783. Haritza, gaztaina; tresnak (HON-074/017)

Altzariak egiteko haritza da ona, baina inguruan ez zegoen asko. Haritz amerikarra. Gaztainaren tipula. Erabiltzen zituzten makinak.

784. Egur lanak; lisatzen (HON-074/019)

Zuloa eta espiga. Lazoak eskuz egiten zituzten, kaxoiatarako. Lisatzen ikasi zuen lehenengo. Ateak zepilatzen. Orain lijadorak daude.

785. Aulkiak, lan asko (HON-074/021)

Oholak eramaten zizkieten arotzeriara. Nafarroako egurra: pagoa, haritza, gaztaina... Aulkiak egiteak lan asko eta diru gutxi. Arotzeriako nagusia Salamancakoa zen, langileak irundarrak.

786. Arotzeria jarri zuen anaiekin (HON-074/023)

Soldadutza egin ondoren, Gaztelumendi arotzerian ibili zen urtebete, eta gero bere kontura jarri zen, anaiekin. Irunen. 10-12 ordu egiten zuten lana, baita larunbatetan eta igandetan ere. Langileei ordaintzeko modua.

787. Mezetara San Jose kapilara (HON-074/025)

Igandetan mezetara. San Jose kapilara joaten ziren, bizikletan. Ama anaiarekin joaten zen furgonetan, anaiarekin; esnea bildu eta Donostiara eramaten zuten. Ama gaztetan zaldi-karroan joaten zen. Tranbia.

788. Dotrina, jaunartzea eta kongregazioa (HON-074/026)

Dotrina Hondarribiko parrokian ikasi zuen, bikarioarekin. Astean bitan joaten zen. Euskaraz. Kalabaza. Bizikletan joaten zen. Parrokian egin zuen jaunartzea. Bazkaria etxean. Kongregazioa.

789. Hondarribitik Irunera bizitzera (HON-074/028)

Hondarribitik Irunera 18 urterekin joan zen bizitzera familiarekin. Lokaiztegi baserrira. Jaitzubiarekin mugan dago, Ventas izan arren. Baserria erosi zuten. Irunen zuen lana eta bizimodua. Baserria nolakoa zen. Behiak zituzten, eta esnea saltzen zuten.

790. Oinetakoak (HON-074/030)

Bideak txarrak ziren lehen. Beraiek ez zituzten oinetakoak aldatzen. Abarkak. "Txokluak", egurrezko oinetakoak.

791. Oilurta baserrian jaioa (HON-075/002)

Oilurta baserria nolakoa zen bera mutikoa zela. Familia bat bizi zen han, baina aita ezkondu zenean, bi. Aitona bi aldiz ezkondu zen, eta etxea partitu egin zuten. Aitak erosi zuen etxea, kostata.

792. Itzain lanetan aitarekin; egurra eta adreilua (HON-075/003)

Itzain ibiltzen zen aita, eta baita bera ere, 14 urtetatik. Itsasontziak egiteko materialak eramaten zituzten, idiekin Nafarroara joanda. Berara. Haritza. Etxeko obra egin zutenean, asko sufritu zuen adreiluak etxeraino eramaten.

793. Nafarroara egurretara, urka-motzarekin (HON-075/004)

Bera ez zen Nafarroara joaten egurretara, baina inguruan bai. Egun batean joan eta hurrengoan bueltatzen ziren. Idiaren pausoa. Itzainak. Idi pareak eta gurdiak. Urka-motza erabiltzen zuten. Katea.

794. Gurdiaren egitura (HON-075/005)

Gurdiaren egitura: kurtetxia, ardatza, pertika... Urka-motza ganbaran dauka. Kartolak, hondarketarako.

795. Gabarretan hondarra ekarri eta gero gurdietara (HON-075/006)

Hondarketara nora joaten ziren, obretarako. Patxiku eta Nikasio (bere aita) itzainak. Gabarra ondo betetzea inportantea zen, eta denek ez zuten ondo betetzen. Etxaidek lagundu zion bere aitari. Anakara eramaten zituzten, idiekin.

796. Gabarrariak eta gabarrak (HON-075/007)

Gabarrariak. Gabarra nolakoa den azaltzen du.

797. Gurdiaren kartolak, falkak eta gurpilak (HON-075/008)

Gurdiaren kartolak eta taketak. Falkak, zakarretarako eta belarketarako, gurpilak babesteko. Bideak txarrak ziren. Gurpil motak. Gurdiak eta gurpilak non egiten zituzten.

798. Inaurkin bila mendira (HON-075/009)

Inaurkin bila joateko ere gurdia. Karroa. Abere asko zen baserrietan, eta ez zen erraza inaurkina topatzea. Otea. Anguletan ibiltzen ziren lehengusuak. Soldaduska egin arte idiekin ibili zen.

799. Harria garraiatzen harrobietatik (HON-075/010)

Beste batzuentzat ere egiten zuen lana, itzain. Harria garraiatzen, harrobietatik. Harriketan. Adreiluak garraiatzen sufritu zuena aipatu du berriz. Eskularrurik ez zen lehen. Joxeparen semeek lagundu zioten. Etxeko obrak. Lau senide ziren.

800. Egurketan Amezketako papelerara (HON-075/012)

Itzain lana galtzen hasi zen. Egurra Amezketara eramaten zuten papelerara. Pasai Donibanetik pinua Guadalupera eramaten zuten. Bi idi parerekin. Ogitartekoa eramaten zuten etxetik, eta sagardoa. Batzuetan janaria izoztu egiten zitzairen.

801. Gurdiaren azpian lotan, zakua gainean jarrita (HON-075/013)

Itzain lanak egiteko aita gauez jaikita ibiltzen zen, idiei jaten ematen. Bera seiak aldean jaikitzen zen. Edozein lekutan egiten zuten lo. Idien buruko ardi-larruaren gainean, zakua lepoan jarrita. Gurdi azpian lotan. Guardasolak konpontzen zituen. Euritan.

802. Arropa eta oinetakoak (HON-075/014)

Arropa. Arrantzaleen lehenengo zirak. Oinetakoak, gomazkoak. Botinak. Mendirako oinetako arinak behar ziren. Egurrezko oinetakoak.

803. Zakarketara (HON-075/016)

Zakarketara nora joaten ziren. Guadalupeko kantinan gurdi asko egoten ziren. Idietako bat uztarritik askatu egiten zituzten batzuetan. Idiei ez zieten erremolatxa ematen, janari lehorragoa baizik: baba erosten zuten Irunen.

804. Abereen jatena eta azpiak (HON-075/018)

Idiei artoa ere ematen zieten jaten. Pagotxa behiei. Arbia. Idiak eta behiak non edukitzen zituzten. Behiei egunero egiten zizkieten azpiak. Gorotza, baratzerako.

805. Amezketako artzaina; trafikorik ez (HON-075/019)

Neguan artzain bat joaten zen Amezketatik Oilurtara. 200 ardi zituen. Oinez. Trafikorik ez zegoen. Irungo Colon pasealekutik idiekin askotan pasatzen zen lehen; belarra ekartzen zuten Irundik. Serenoak. Ez zuten argirik erabiltzen.

806. Gaueko lanetan (HON-075/020)

Itzain zebilela, jende arraroa topatzen zuen bidean, gauez: kontrabandistak, mozkorrak... Dibertitu ere egiten zen lanean.

807. Irunera berdura eta esnea saltzera (HON-075/021)

Oilurtan lau-bost langile izaten zituzten, kanpokoak, neskameak eta morroiak. Baratzera egiten zuten asko. Berdura batzuk aipatzen ditu. Ama eta arrebak Irunera joaten ziren tratuarekin, San Migelera. Esnea ere espaloian saltzen zuten; kexatu egin ziren batzuek, eta lokal bat erosi zuen. Denda.

808. Bi zaldi-karrokekin Irunera (HON-075/022)

Zaldi-karroa nolakoa zen. Toldoa. Lau gurpileko zaldi-karroa. Gainbehera nola etorri zen. Bi karrotan joaten ziren. Berdura plazan egoten zen ama eta arrebak San Migelen. Bi morroi zituzten.

809. "Txipitxuarekin" esnea partitzen; postuak (HON-075/023)

Hamabost bat behi zituzten. Egunean 100 bat litro. Neurria: txipitxua. Erakutsi egiten du nolakoa den. Litro erdikoa. Espaloian saltzeagatik ordaindu egin behar zen garai batean, gero ez. Berdura plazako postua. Hondarribian plazarik ez zegoen, hiltegia bai. Jaitzubiatic hobeto zuten Irunera joateko, eta jende gehiago bizi zenez, saldu ere errazago.

810. Hondar beltza eta zuria (HON-075/024)

Hondarribiko lurra. Hondar beltza botatzen zioten. Obretakoa diferentea da, zuria. Hondarra porlanarekin nahasten zuten, palaz.

811. Ilargiaren garrantzia (HON-075/026)

Tratua egiten zuten asko. Tranbian joaten ziren asko irunera. Ilargiaren garrantzia, baratzeko lanetarako, ereiteko eta arbolak mozteko. Haritza mozten hasi, eta gertatu zitzaiena: izerdia bota zuen. Pagoa. Altza. Kantineren barrikak.

812. Ferratzaile lanetan I (HON-075/027)

Etxeko tresnak egiteko hurritza, altza, lizarra... Arrasteluak egiten, kiderrak... Ferratokia jarri zuen etxean. Ferrak. Iltzeak. Behorrak ondo ferratzeko sua behar da, eta berak ez zuen.

813. Ferratzaile lanetan II (HON-075/028)

Ferratzeke, azazkala garbitu behar da. Ferra. Iltzeak. Behi bakoitzari zortzi ferra, hanka bakoitzean bi. Zauria zutenean, odola kentzen zieten. Zotala.

814. Ama goierritarra zuen (HON-077/002)

Harresien pasealekuan jaioa. Ama goierritarra zen, baserritarra, neskame joana Hondarribira; zortzi haurrekin alargun geratu zen. Aita gabarraria zen, eta lorezaina; Endanea baserrikoa zen. Zazpi urte zituen aita hil zenean; nola hil zen azaltzen du.

815. Ama, zerbitzari Eguren familiarekin (HON-077/003)

Bere amak Miramarren egiten zuen lana, Eguren familiarekin; zerbitzatzen. Lorezaina asko egoten zen beraien etxean. Kasino zaharrean aberatsak ibiltzen ziren, eta beraiek begira egoten ziren. Marinelen etxeak.

816. Biterin eskolan; umetako jolasak (HON-077/007)

Biterin maisua eta maistra zeuden; neskak eta mutilak aparte. Moilara joaten ziren jolastera. Alamedako kuartelean batela hartzen zuten. Frontoian, pilotan. Sokasaltoan eta buleka. Etxeetako ateak irekita egoten ziren.

817. Hendaian, itsasontzi batean bizitzen (HON-077/008)

Harresian dago bere jaiotetxea. Balkoitik bonbak erortzen ikusten zituzten; behin, anaiaren lagun bat hil zen. Hendaia joan ziren, eta handik Irun sutan ikusi zuten. Itsasontzi batean bizi izan ziren hiru familia. Frente Popularrera joaten ziren jatera. Batzuk Bartzelonara bidaltzen zituzten trenez. Milizianoek ontzia hartu nahi zuten, baina ez zuten lortu.

818. Gerra ondoren, errazionamendua (HON-077/010)

Gerra ondoko errazionamendua. Kale nagusian erosten zituzten gauzak. Goserik ez zuten pasatu. Ogia. Militarrek saldu egiten zuten. Estraperloko olioak.

819. Kaletarrak eta portuarrak (HON-077/013)

Kaletarrak eta portuarrak beti borrokan ibiltzen ziren. Sagardotegian lanean egon zenean ezagutu zuen senarra, portuarra.

820. Sagardotegian lanean I (HON-077/015)

San Pedro kaleko eta Santiago kaleko sagardotegietan sagardoa partitzen ibili zen ahizpa, eta batzuetan laguntzera joaten zen. Merkea zen sagardoa. Edalontziak nola garbitzen zituzten.

821. Sagardotegian lanean II (HON-077/017)

Sagardotegietan sagardoa partitzen. Bere nagusiak lau edo bost zituen. Etxetik eramaten zuten janaria arrantzaleek. Luis Mariano ezagutu zuen; egunero joaten zen.

822. Serenoa eta pregoilaria (HON-077/025)

Serenoaren lanera. Uniformea zeraman, eta makila. Bandoa jotzen zuen gizona. Sagardotegiko nagusiak ordaintzen zion, kupela irekiko zutela esateko. Danborra jotzen joaten ziren igandetako hamarretako mezarako bidean.

823. Labaderora arroparekin; koltxoiak jotzen (HON-077/033)

Buru gainean eramaten zuten arropa labaderora, kantinetan. Txinbo xaboia eta lixiba. Etxean zabaltzen zuten arropa, belarretan ere bai batzuetan. Bazuten ura eta argia etxean. Koltxoiak jotzen.

824. Arropa eta oinetakoak (HON-077/037)

Amak egiten zizkien arropak. Kanporako ere josten zuen batzuetan. Tela Irunen erosten zuten. Igandetako arropa eta hanketakoak. Alpargatak eta zapatak. Portuan miseria handiagoa zegoen kalean baino. Turistak; prozesioa ikusteko balkoiak alokatzen zituzten.

825. Zezenaren aurrean korrika (HON-077/041)

Portuan zezena ibiltzen zen festetan. Bera ere ibiltzen zen korrika. Igeri egiten badaki. Hondartza nolakoa zen lehen. Bainujantzia.

826. Baratzea, oiloak eta esneduna (HON-077/045)

Baratzea zuen amak, Alameda aldean. Oiloak ere bai. Edozein tokian izaten ziren oiloak. Esneduna etxera joaten zen egunero, Endaneako lehengusua.

827. Mezak eta bekatuak (HON-077/047)

Denak joaten ziren elizara. Konfesatu egiten ziren. Apaizak. Bekatu zer zen.

828. Dotrina; hemengo eta hango euskara (HON-077/049)

Parrokian ikasi zuen dotrina. Elgorriaga apaizarekin ikasi zuen. Zigorrak. Euskararen egoera. Etorkinak. Portuarren euskara zakarragoa ei da kaletarrena baino. Irungo eta Donostiako euskara.

829. Ama kalera saltzera, aita baserriko lanetan (HON-078/002)

Bere ama esnearekin joaten zen kalera, astoarekin. Marmita buruan. Parrokia ondoan saltzen zuen berdura eta fruta. 8-10 behi izaten zituzten. Esne litroak. Aita baratzean, mendian eta soroko lanetan. Gorotza. Jaizkibelera inaurkin bila, segarekin.

830. Behien jatena; jokila (HON-078/003)

Arbia eta erremolatxa ematen zizkieten behiei neguan. Bakoitza noiz ereiten den. Erremolatxaren lanak. "Jokila": lastoa edo otea xehatuta, erremolatxarekin batera. Oterik ez zuten egiten, baina beste toki batzuetan bai, eta lan gogorra zen.

831. Behien elikadura eta gaixotasunak (HON-078/004)

Pentsurik ez zen. Esnea ere ez zuten hainbeste ematen behiek. Artoa bai, ematen zieten. Orain baino gogorrago egoten ziren. Arraza makaldu egin dela dio. "Susaltzea". Gaixotasunak gehiago izaten zituzten. Hildakoak aprobetxatu egiten zituzten. Enkantea. Errape mina, "zingriya", nola sendatu.

832. Sendabelarrak eta baratxuria (HON-078/005)

Animaliak zaintzeko modua. Lehen ez zen botikarik. Sendabelarrak. Osina, berbena, pasmo belarra, iodo belarra, ahuntz zurrunbiloa, baratxuria...

833. Barraskiloak, Gabonetan (HON-078/006)

Barraskiloak jaten zituzten Gabonetan, orain ere bai. Haiek nola garbitu.

834. Medikua oinez, al baitaria bizikletan (HON-078/007)

Medikua gutxitan joaten zen. Oinez. Etxekoak joaten ziren haren bila. Albaitaria bizikletaz. Mediku bakarra zen Hondarribian.

835. Sekretuak eta bekatuak (HON-078/008)

Jaiotzak. Emaginak. Ez zen horri buruz hitz egiten. Sekretuak eta bekatuak. Beraiek ez zuten galdetzen, gurasoei errespetu handia zieten. Apaizei eta guardiei ere bai. Gutxiegi hitz egiten zutela uste du.

836. Apaizari errespetua; Elizako aldaketak (HON-078/009)

Gurasoekin zuka hitz egiten zuen. Anai-arrebekin hika. Apaizari ere zuka. Eskuan musu ematen zioten. Dena bekatu. Konfesatzea. Baraurik Jauna hartzea; ez ziren deskuidatzen. Elizako aldaketek noraeza ekarri zuten.

837. Dotrina eta meza (HON-078/010)

Umetan parrokian ikasi zuen dotrina, etxean ere bai. Don Agustin Zurutuza. Serioa zen, eta beldurra zioten. Kalabaza. Mezetara parrokiara, igandero. Ehizarako afizioa zuen, eta goizean goiz jaikitzen zen. Argal egoten ziren denak.

838. Ehizan, mutikotatik (HON-078/011)

Ehizarako zaletasuna, mutikotatik. Tiragomarekin ibiltzen zen, piku arboletan. Sarea. Txori motak. Kantariak erreklamorako erabiltzen zituzten, "engañadoriak". Jateko harrapatzen zituzten.

839. Ehiza: txoriak eta untxiak (HON-078/012)

Txori tranpak, elurretan. Egurrezkoa. Txantxangorria. Jateko txori onena zita zen. Eskopetarekin ere ibiltzen zen. Untxiak harrapatzen, Jaizkibelen. Lorik egin gabe ibiltzen zen. Untxiak nola harrapatu.

840. Azeriarekin etxez etxe (HON-078/013)

Azeritan ez da behin ere ibili. Azeria makilan lotuta baserrietan erakusteko ohitura. Propina ematen zuten etxeetan. Oiloak jaten zituen azeriak. Orain ere badabiltza.

841. Ehizan eskopetarekin, txakurra lagun (HON-078/014)

Eskopetarekin harrapatzen zituen txoriak: usoa, tortola, birigarroa... ez zuen urruti joan beharrik. Galeperra eta oilagorra. Txakurrik gabe ezin ehizan ibili. Arratoi txakurra untxietarako.

842. Egurra eta hondarra, gurdian (HON-078/016)

Baratzeko lanak eta ilargia. Ez du askorik sinesten. Hazia ereiteko, erbolak botatzeko... Aitak botatzen zituen, portuko zerrategira eramane eta oholak egin. Orain ez du merezi. Egurra lehortzen uzten zuten. Hondar bila joaten ziren hondartzara, azpiak egiteko eta baratzerako. Arbia egiteko ona zen.

843. Bideak txarrak ziren; oinetakoak (HON-078/017)

Bideak txarrak ziren. Oinetakoak. Alpargatak eta "galotxak". Kalera iristean zapatak aldatzea. Kontuz joaten ziren bidean, putzuak ez zapaltzeko.

844. Arropa eta orrazkera (HON-078/018)

Arropa. Lehen dotoreago janzten ziren orain baino. Pelukeriara sarri joaten ziren; merkea zen oraingo aldean. Arropa jostunak egiten zuen; arrebak josten ikasi zuen.

845. Jaunartzeko bazkaria (HON-078/019)

Jaunartzeko trajea, berria egin zioten. Bazkaria etxean egiten zen, baina berezia. Oilaskoa gordeta izaten zuten. Postrea ere egun berezietan eta igandetan. Sagarrak, mizpirak, gaztainak.

846. Urik ez etxean; arropa garbitzera errekarara (HON-078/020)

Urik ez zuten etxean. Iturria etxe ondoan zuten. Lehen debalde zen, orain ez. Lau-bost iturri zeuden auzoan. Kontagailuak jarri zituzten gero. Arropa garbitzera beheko errekarara. "Al verde".

847. Argia joaten zenean, kandelak (HON-078/021)

Argindarra beti ezagutu du. Haizearekin joan egiten zen. Kandelak izaten zituzten beti. Farola.

848. Eskolan, gaztelu ondoan, erdaraz (HON-078/022)

Eskolara Amutera joaten zen, eta gero Hondarribiko gazteluaren ondora. Maistra bat ibiltzen zen. Neskak eta mutilak aparte. Zer erakusten zien. Ez zioten inportantziarik ematen. Etxean hasi zen, eta gero lokal bat hartu zuen. Maistra euskalduna zen, baina erdaraz erakusten zuen. Ulertzeko lanak.

849. Oinez eskolara; guardasola eta zakua (HON-078/023)

Oinez joaten zen eskolara. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Hamaiketakorik ez zuten eramaten. Beti puntuan. Hanka bustiekin askotan. Guardasolarekin. Zakua ere erabiltzen du oraindik ere, zira baino hobe dela dio.

850. Amuteko eskola (HON-078/024)

Amuteko eskolan ere neskak eta mutilak aparte. Maisua zuten, erdalduna. Ez zen gogorra. 8-9 urte arte egon zen han. 12 urterekin eskola utzi eta baserriko lanetara. Ikasitakoa ahaztu egin zaio.

851. Baserriko lanak: belarketa, arto zuritzea, egurketa (HON-078/026)

Egun normal bat nolakoa zen. Goizean goiz jaiki, eskolara, eta bueltan lanera. "Mantusarekin" belar bila. Artoa zuritzen, bakoitza bere etxean normalean. Egurra txikitu. Zaldi-karrorik ez zuten, beti bizkarrez. Astoarekin ere gutxitan. Arreba.

852. Belar metak egiten (HON-078/027)

Belar meta asko egiten zituzten. Ziria. Lau hanka. Salabardoa. Muturra borobila. Zakua, harriekin. Ziriaren gainean taula txiki bat jartzen zuten.

853. Leikua entregatu beharra (HON-078/028)

"Leikua" edo babarruna entregatu beharra, gerraostean. Batzuek ezkutatu egiten zuten, baina kontrolen beldurrez egoten ziren.

854. Patata eta angula kontrabandoa (HON-078/029)

Patata kontrabandoa, Hondarribitik Nafarroara. Angula kontrabandoa: Hendaiatik itsasoz arroketara, eta bizkarrez Gaintxurizketara; txarra zen eramateko. Tiroak bota zizkieten behin. Lagun bat aurretik joaten zen.

855. Olinoa, azukrea eta kafea (HON-078/030)

Olinoa falta zen, baina baserrietan txerriaren koipea erabiltzen zen. Azukre beltza eta gutxi. Kafea kontrabandoan. Ogi zuria Hendaiatik, batelean; guardiak kendu, deskuidatuz gero.

856. Igerian kanalean ikasi zuen; arroketan arrantzan (HON-078/031)

Igeri egiten kanalean ikasi zuen. Zikinduz joan zen. Lehen, arrainak zeuden. Etxean esan gabe joaten ziren bainatzera, galtza zaharrak arto artean jantzita. Arroketan arrantzan, etxean egindako kainaberekin.

857. Lanpernatan, salabardoarekin (HON-078/032)

Lanpernatan ibiltzea arriskutsua zen. Marea handiak behar ziren. Salabardoa burdinarekin landua.

858. Artzu baserriaren historia; Artzuko Matxin (HON-080/002)

Artzu baserrian jaioa. Baserriaren historia. Duela mila urteko dokumentazioa dute. Hondarribiak frantsesekin izan zituen tirabirak. Artzuko Matxinen kontuak: erregeari zuzendu zitzaion; hiru jeneral frantses hil zituen. Dokumentu horren historia.

859. Familia eta Artzu; birraitonaren kontuak (HON-080/003)

Familiaren historia. Artzu baserrian gertatutako aldaketak. Bost etxebizitza ezagutu zituen; bi beraienak ziren, beste bitan maizterrak zeuden eta bosgarrenean beste jabe batzuk. Birraitonaren kontuak: etxean gustukoa ez zen emaztearekin ezkondu zen. Maiorazgoen gaitza.

860. Maiorazgoa izatearen alde txarrak (HON-080/004)

Baserrietako seme-alaba askok kanpora jo behar zuten. Dena batentzat zen, baina horrek ere baditu gauza txarrak, bere ustez. Zaila da amaginarreba eta erraina ondo konpontzea. Bestek nahi duenarekin ezkontzea eta besteren mende bizitzea.

861. Maiorazgoaren gaitza; baserria lehen eta orain (HON-080/006)

Guraso denak ez dira berdinak, baina erabakirik ezin hartu izan gogorra da. Soinekoa erostea jartzen du adibide moduan. Baserri handia izatea ohorea zen lehen; orain, desgrazia. Horri buruzko azalpenak. Lege desegokiak. Inaurkina.

862. Baserriaren etorkizun beltza (HON-080/007)

Hamar urte barru Gipuzkoa eta Bizkaia erabat sasituta egongo direla aurreikusten du. Gazteek ez dute baserrian geratu nahi. Baratztea egitea tira, baina ganadua ez da errentagarria, ezta esnea ere. Prezioa ez da urtetan aldatu. Globalizazioa. Zaharrek garbitzen dituzte zelaiak orain; gero zer?

863. Urrutiko baserrien gainbehera (HON-080/008)

Gazteek ez dakite etxeko mugak non dauden, interesik ez dago. Etxea ezin da zatitu, eta zaharrak bakarrik geratzen dira. Urrutiko baserriak desagertu egingo dira.

864. Baserriko ekonomia nolakoa zen (HON-080/010)

Bera umea zeneko giroa eta ehun urte lehenagokoa antzekoak ziren. Kontrabandoa. Baserriko ekonomia nolakoa zen; auto-ekoizpena, ahalik eta gutxien erosteko. Gerra ondoko eskasia. Etxeko abereak eta arroketoak arrantza. Saltzen noiz hasi ziren. Hiztegia: "blagan".

865. Baserritarrak eta arrantzaleak bañistei jatekoa saltzen (HON-080/011)

Hondarribiko arrantzalea eta baserritarra, biak ziren pobreak. "Bañistei", udako bisitariei saltzen zieten. Francisco Sagarzazu alkatea Francoren oso laguna zen, eta haren gobernuko jendea joaten zen Hondarribira. Neskameekin eta txoferrekin. Parte Zaharrean bertan abereak zituzten.

866. Baserritar gehienak maizterrak ziren (HON-080/012)

Gutxi ziren baserri jabeak, gehienak maizterrak ziren. Baserri batetik bestera ibiltzen ziren. Errenta gauzekin eta lanekin ordaintzen zuten. Ganadua ere besteena zuten askok; beraiek zaindu eta salmenta erdibana izaten zen.

867. Ganadua eta sabia auzoan banatzea, ez hondatzeko (HON-080/013)

Ganadu bati zer bait gertatzen zitzaionean, istripuz hil adibidez, inguruko etxe guztietan partitu, eta gazitu egiten zen. Batzuk lurperatu egiten zuten, nahiko sakonean. Sabia harrapatzen zutenak ere partitu egiten zuten auzoan, ez hondatzeko.

868. Zaldi-karroak; behorrak kapelarekin, Irunen (HON-080/014)

Derrigor erosi beharrekoak: tela... Hondarribitik Irunera saltzera. Jaitzubia auzotik zaldi-karroan joaten ziren. Zaldi-karro dotoreak, kapotarekin. Ilaran egoten ziren denak. Irungo azoka. Behorrak lastozko kapelarekin. Ikatz saltzailea. Zaldi-karroa zein baserritan zuten, gutxitan. Gainerakoak astoan.

869. Emakumeen bizimodua: plazara joatea askatasunerako bidea zen (HON-080/016)

Emakumeen bizimodua: egunero oinez plazara saltzera. Etxetik alde egitea arnasa hartzeko modua ere bazen, giro itogarria izaten zelako sarritan. Plazara joaten zirenak argitu egiten zirela dio. Etxekoandreak beraiek joaten ziren zaldi-karroarekin; erraina ez, alaba bidaltzen zuten bestela.

870. Artzuko errotako kontuak (HON-080/017)

Hondarribiko errotak aipatzen ditu. Artzuko errota beraiena zen, eta maizterrak zituzten. Bertako neska bat karabinero batekin ezkondu zen; kuartela ehun metrora zuten. Prezintua kentzen zion gauez, gerra ondoan.

871. Artzuko errotako aitona-amonen heriotza (HON-080/018)

Artzuko errotako aitona-amonen heriotza. Tabakoa landatzen zuen aitonak, eta lehortu. Beti erretzen zegoen, eta usaiarengatik igartzen zioten bazetorrela. Oiloak izaten zituzten; amonaren ohitura. Hileta nola izaten zen: sei jasotzaile. Aurrean, gurutzea. Auzo bakoitzak bere puntua zuen, gorpua eramateko. Handik elizara eta gero kanposantura.

872. Gaubeilak eta eliz-bideak (HON-080/019)

Heriotza eta hiletak. Gorpua kaleraino jarraian eramaten zen. Etxeetan izaten ziren hildakoak, eta amonaren bat izaten zen erreztatzen beti. Gorputza zaintzea. Mozkortzeko ere aprobeztatzen zuten batzuek. Eliz-bideak errespetatu egin behar ziren, sakratuak ziren. Gastu handia izaten zen hildakoaren familiarentzat. Hildakoa pasatzen zenean, jendea belauniko jartzen zen.

873. Elizaren indarra (HON-080/020)

Hildakoaren segizioa. Lutoari buruzko iritzia. Fededuna da, baina elizkizun batzuek antzerkitik asko dutela dio. Txorakeria asko egiten zituzten umetan. Mariaren alabak. Baraurik joatea mezetara.

874. Erabat kontrolatuta bizi ziren (HON-080/021)

Dantza egitea bekatu zen. Berak ez zuen ikasi, eta pena du; astirik ez zuen izan eta lotsatia zen. Goiz joaten ziren etxera. Oso kontrolatuta bizi ziren. Denak zebiltzan Polizia lanetan. Askatasunik eza. 16 urterekin bidali zuten itsasora.

875. Ez zuen igerian ikasi (HON-080/022)

Ez zuen igeri egiten ikasi. Terranovan igeri egitea alferrik dela dio, izoztu egiten zarelako. Hasi zen ikasten, aitarekin, errota ondoan; olatuak harrapatu eta gaizki pasatu zuen. Baserritar gehienek ez zekiten.

876. Artzuko errotako mutilen arrantza (HON-080/023)

Artzuko errotako mutilak harginak ziren, arrebak errotariak, gurasoekin. Arrantza onak egiten zituzten; harkaitzetan sarea jartzeko baimena zuten. Astean bitan kalera joaten ziren, saltzera. Enkarguak hartzen zituzten. Harkaitzean egindako zuloan sartzen zuten arraina, bizirik.

877. Harginak eta Guadalupeko gotorlekua (HON-080/024)

Artzuko harginak non ibili ziren lanean. Guadalupeko gotorlekuko hargin-lanak. Txirrita bertsolaria. Gotorlekua 1902an ireki zuten, baina denbora asko pasatu zuten hura egiten. Inguruko jende edadetuak begi onez ikusten zuten, lana sortzen zuelako. Altuek soldata hobea zuten. Gerra garaian, bi bandoen esku egon zen, eta sarraskiak egin zituzten biek. Fusilamenduak. Harrobiak.

878. Harria zulatzeko zailtasunak (HON-080/026)

Harria zulatzeko zailtasunak. Palanka. Jaizkibel harriak azkar jaten du burnia; sarri zorroztu behar da palanka. Zuloa urez bete behar da, hondarra ateratzeko; zipriztinak. Burni-ziria. Enkatxeak, bideak egiteko. Dinamita.

879. Guadalupeko gotorlekuko kanoiak (HON-080/027)

Guadalupeko gotorlekuan militarrek 1960an egin zuten. Kanoiak zeuden, itsasora begira, eta kendu egin nahi zituzten. Handiegiak ziren, baina. Dinamitaz lehertu zituzten. Egundoko zuloa egin zuten.

880. Gaintxurisketako kantinan jaioa (HON-083/002)

Gaintxurisketan jaioa, kantinan. Zortzi urterekin etxez aldatu ziren; aita topoko trenbidean egiten zuen lana, eta estazio etxera joan ziren bizitzera. Izeba zen kantinako arduraduna. Eskola ondoan zuten. Maistra Irundik joaten zen.

881. Kantinako lan banaketa I (HON-083/004)

Kantinan bizi ziren. Izeba egoten zen tabernan. Lehengusuekin harreman ona zuten. Kantinara langileak joaten ziren. Ogitartekoak. Ama ere tabernan egoten zen.

882. Aita, topoko kapataza; trena debalde (HON-083/005)

Topoko arduradunetako bat zen aita (tranbia deitzen dio topoari). Trenbideak konpondu behar izaten ziren. Erreterria eta Irun bitarteko zatia kontrolatzen zuen. Euskotren. Debalde zuten, eta eskolara ere topoan joaten ziren Erreteriara, mojetara.

883. Izeba fruta saltzera Irunera (HON-083/007)

Ama ahizpari laguntzen ibili zen beti, baserriarekin eta kantinarekin. Izeba Irunera joaten zen fruta saltzera. Lehengo fruta oraingoa baino hobe zen. Umetan etxean laguntzen zuen.

884. Josten ikasten; moja ikastetxea (HON-083/008)

Lau senide ziren. Hiru ahizpak neskame joan ziren. 13 urterekin joan zen bera Erreteriarra. Josten ibili zen aurretik. Mojekin erdaraz eta frantsesez; ikastetxean bazkaltzen zuten.

885. Dotrina eta Jaunartzea (HON-083/010)

Ez ziren dotrinara joaten, Hondarribia urruti geratzen zelako. Euskarazko dotrina. Jaunartzeko soinekoa, lehengusuarena. Astigarragan bazkaldu zuten.

886. Bizimodua Erreteriar; festetan Hondarribira eta Irunera (HON-083/011)

Mezara Erreteriarra joaten ziren, dantzara ere bai. Oso gutxi joaten ziren Hondarribira, festetan eta. Irungo San Martzialetara aitarekin joaten ziren, amak egindako soineko berriekin. Egunpasa joaten ziren Guadalupera, oinez. Bueltan, tranbian.

887. Bizikleta gustatu, baina ezin eduki (HON-083/015)

Bizikleta asko gustatzen zitzaion, baina ez zuten. Kantinan ibiltzen zen. Izebaren sotoan ikasi zuen.

888. Konfesatzera joateko beldurrez (HON-083/018)

Bezperak. Konfesatzera joateko, beti beldurrez. Kongregaziokoa zen, eta ezin zuten helduta dantza egin. Gurasoen aginduetara bizi ziren; amak esanda joan zen neskame.

889. Kantinako lan banaketa II (HON-083/019)

Kantinako janari denda. Inguruko baserrietatik joaten ziren eroatera. Amak baserriko lanak egiten zituen, eta arropa garbitu. Amona ez zen etxetik ateratzen; ume denak berak hazi zituen. Ogia.

890. Geltokia, beraien bizitokia (HON-083/020)

Topoko geltokian bizi ziren, jada desagertua; kantinatik gertu zegoen. Topoa eta trena, biak pasatzen ziren handik. Etxea nolakoa zen.

891. Tela erosi eta jostunarengana (HON-083/022)

Baratze txiki bat zuten, eta untxiak. Erreteriarra joaten ziren erosketak egitera. Jostunak egiten zituen jantziak, tela norberak erositak. Donostian denda asko zeuden. Puntuzko jertseak egiten zituen. Alabentzat Jaunartzerako soinekoa egin zuten.

892. Umeak etxean jaiotzen ziren (HON-083/025)

Umeak etxean izan zituen. Don Enrike medikua eta Erreteriarra emagina. Bost senidetik lau atera ziren aurrera. Haurdunaldia tabua zen.

893. Dena aprobetxatzen zen (HON-083/027)

Ijitoei beldurra zieten. Eltzeak eta aterkiak konpontzen zituzten. Dena aprobetxatzen zen. Ondo janzen ziren. Labaderoak eta garbitasun pertsonala. Urik ez zuten etxean, argia bai.

894. Neskametzako bizimodua (HON-083/030)

Erreterian egon zen neskame, kaputxinotako lantegiaren etxean. Hango senar-emazteen kontuak. Real Compañía Asturiana de Minas. Hango lanak eta bizimodua.

895. Neskametzako bizimodua II (HON-083/031)

Umeak zaintzen zituen neskame zegoela, eta baita etxeko lanak egin ere. Plantxa. Lanparak emakumeak garbitzen zituen. sua piztu, janaria prestatu... denetik egin zuen. Gela guztietan zegoen tximinia. ez zen erosketak egitera ateratzen.

896. Neskametzako bizimodua III (HON-083/032)

Bisitak. Lantegiko administratzailea zen etxeko gizona; bulegoan zortzi bat lagun izaten ziren.

897. Neskametzako bizimodua IV (HON-083/034)

Mezara Erreteriarra joaten zen. Igande arratsaldea libratzen zuen, eta alamedara joaten zen. Bilerak. Beste neskame batekin ateratzen zen. Dantza. Banda eta gramola. Biteri kalean paseatzen zuten, eta kremazko bonba jan.

898. Erreteriarako lantegiak (HON-083/038)

Erreteriarako lantegiak aipatzen ditu. Gaileta lantegiak eta artile lantegia.

899. Neskametzako bizimodua V (HON-083/040)

Gutxi irabazten zuen neskame bezala. Atera zenean 75 pezeta kobratzen zituen. Bi urte egin zituen nobiotan.

900. Erditzea eta bataioa (HON-083/042)

Haurdunaldian ez ziren medikutara joaten. Hirugarrenarekin joan zen. Medikuari deitu zioten. Lehenengo erditzea gogorra izan zen. Indarberritzeko, salda eta ardoa. Azkar bataiatzen zituzten umeak. Linboa. Elizan sartzea. "Amaidina".

901. "Amaidina" (HON-083/044)

Amaidina, apaidina. Amautxia, aitauxia. San Markos opila oparitzen zion izebak.

902. Aranburuenea baserria; oilo haztegia (HON-087/002)

Aranburuenea baserria nolakoa zen. Aitak oilo haztegia jarri zuen; makina bat zuen, txitoak ateratzeko. Bost neska eta mutila ziren. Maizterrak lurra iraultzera joaten ziren. Aitak bulego batean egin zuen lana aurretik. Aita oso irakurzalea zen. Liburu asko zituen. Gerra garaian arazoak izan zituen.

903. Oilo haztegia nolakoa zen (HON-087/004)

Artoa ereiten zuten eta pentsua erosi. Esnea. 200 bat oilo izaten zituzten. Oilaskoak eta arrautzak saltzen zituzten. Txitoak ateratzeko makina. Oilo haztegia. Garbitu, jaten eman... Oiloei egunean bitan edo hirutan ematen zieten jaten.

904. Txitoak ateratzeko makina (HON-087/005)

Txitoak ateratzeko makina nolakoa zen. Petrolioarekin zebilen, eta eskuz graduatzen zuten. Arrautzak egunero atera behar ziren eta jiratu. 300 arrautzakoa zen makina.

905. Txitoak nola hazi; pentsua (HON-087/006)

Txitoak nola hazten zituzten, berogailuaren ondoan jarrita. Arto-irina ematen zieten. Pentsua nondik ekartzen zuten. Txitoen makina. Oiloen aldizkariak. Txitoak erosten hasi zen gero aita.

906. Arrautzak saltzera Erreenteriara (HON-087/007)

Arrautzak saltzera eta berdurarekin Erreenteriara joaten ziren. Esnea etxez etxe, Irunen eta Erreenterian. Sei-zazpi dozena saltzen zuten egunero. Arrautzak lasto tartean, otarrean. Tratuko saskia. Toporaino karretilarekin.

907. Oilaskoak eta berdura; saltzea erraza zen (HON-087/008)

Oilaskoak bizirik eramaten zituzten plazara, Erreenteriara. Udaberrian jaiotzen ziren txitoak. Oilaskoak aise saltzen zituzten. Orain ez da erraza saltzea. Baratzean zer zuten. Patata, babarruna. Gerra ostea. Aldaketak.

908. Esnea etxez etxe (HON-087/009)

Esnea etxez etxe saltzen zuten, hogeit bat litro. Maizterrek egiten zuten goldean. Errandenea, Palazzo eta Iparragirre beraienak ziren.

909. Maizterrak langile gisa baserrian (HON-087/011)

Maizterrek errenta urtean behin ordaintzen zuten, dirutan. Goldean ibiltzea aparte zen. Morroirik ez zuten, baina bai langileak. Inaurkina eta hondarra ere ekartzen zuten maizterrek, idiekin. Gorotza.

910. Komuna nolakoa zen (HON-087/012)

Etxeko komuna harrizkoa zen. Egunkaria erabiltzen zuten, aita egunero irakurtzen zuen eta. Ura eta argia bazituzten etxean. Amak etxeko arraskan garbitzen zuen arropa.

911. Jaitzubiko errekan bainatzen (HON-087/014)

Dutxarik ez zuten etxean, sukaldeko arraskan garbitzen zuten gorputza. Erreka etxe ondoan zegoen, eta labaderoa zegoen han. Udan jaitzubiko errekan bainatzen ziren, itsasgoran. Bainujantzirik ez zuten. Igerika. Hondartzara oso gutxi.

912. Kalerako bidea eta meza (HON-087/017)

Kalerako bidea nahiko ona zen. Gurdi bidea. Lokatza. Amak oinetakoak aldatzen zituen eliza ondoan, baina beraiek ez. Mezetara nora joaten ziren.

913. Bizikletarekin mandatuak egiten (HON-087/018)

Oinez ibiltzen ziren eta bizikletan ere bai. Bakarra zuten eta txandaka ibiltzen ziren. Behia saltzean erosi zuten. Mandatuak berak egiten zituen, Mendelun eta Irunen.

914. Gerra nola hasi zen (HON-087/020)

Gerra hasi zenean, zazpi urte zituen. 10-16 urte bitartean, miseria garaia izan zen. Oraingo krisia. Gerra nola hasi zen. Tiro-hotsak eta bonbak. Arto artean ezkutatzen ziren.

915. Gerra hasi zenean, Hendaiara (HON-087/021)

Etxetik inor ez zen gerrara joan. Aita Hendaian egon zen 13 hilabetea eta bueltan arazoak izan zituen: etxean preso eduki zuten eta Logroñora ere bidali zuten. Beraiek 15 egun bakarrik egin zituzten han. Aitak gehiegi kontrolatzen zituen alabak, beldurrez zegoen beti.

916. Hendaiako egonaldia; Irun erreta (HON-087/022)

Osabaren itsasontzian joan ziren Hendaiara. Lasto artean egin zuten lo. Aitak 13 pezeta ordaintzen zituen pentsio gisa. Buelta gogorra izan zen. Irun erreta ikusi zuen bueltan.

917. Etxeberria ikastetxean, Irunen (HON-087/023)

Eskolan gerra ondoan hasi zen. Irunen ibili zen, Etxeberria ikastetxean, parrokia ondoan. Dotrina ere han ikasi zuen, jaunartzea Hondarribian egin arren. Don Julian. Oinez joaten ziren, egunean lau aldiz. Bi maistra ziren, ahizpak. Ume asko. Euskara galarazita zegoen.

918. Eskolako kontuak; maistra feminista (HON-087/024)

Neska-mutikoak elkarrekin egoten ziren txikiak zirenean. 12 urte bitarte ikasi zuen han. Eskola nolakoa zen. Binaka eserita. Tinta eta pizarra. Liburuak. Maistrari buruzko iritzia: feminista zela dio, irekia.

919. Dotrina eta Jaunartzea (HON-087/025)

Dotrina Irungo parrokian ikasi zuen, eta Jaunartzea Hondarribian egin zuen. Azterketa modukoa egin zieten. Eskolan ikasten zuten dotrina eta parrokian ere bai, Don Julianekin. Euskarazko eta erdarazko dotrinak.

920. Laboreak egiten eskolan (HON-087/026)

Eskolara ahizpekin joaten zen. Laboreak ere egiten zituzten, Matilderekin. Berari ez zitzaizkion gustatzen, baina emakumeak josten ikastea ohikoa zen. Iritzia.

921. Emakumea lan-munduan (HON-087/029)

Emakumeak Irungo lantegietan: Elgorriaga, pospoloak, Palmera... portzelana. Kontserba lantegia. Neskame joateko ohitura.

922. Artoa jorratzen, kantuan (HON-087/030)

Baserriko bizimodua. Artoa jorratu. Bostortza, antxurra... Tontorrak, behien bazka egiteko. Artoari mokotsa kendu eta kuxkildu. Atunetarako txurikina. Aitak kantatzeko zaletasuna zuen; sagardotegietan ikasitakoak.

923. Sorginik ez zen Hondarribian (HON-087/032)

Amak ez zuen sorginekin sinisten. Esaten zuen baserritarrak mozorrotzen zirela eta bidera atera.

924. Urik ez etxean (HON-089/002)

Komuna bazuten Elizazpi baserrian, jaitzubian, baina urik ez. Iturrira joaten ziren ur bila; bidean jolasean. Ezkondu zenean ere urik ez Irunen; errekarra joaten ziren. Umetako jolasak: kukuka.

925. Igandetean bileretara (HON-089/004)

Igandetean dantza egitera joaten ziren, bileretara. Oinez joaten ziren. Ventaseko bilera non izaten zen. 15 urterekin hasten ziren.

926. Eskolan Txakolan eta Irunen (HON-089/005)

10 senide ziren. Txakolan ibili zen eskolan, jaitzubian, eta gero Irunen. Han okerrago ibili zen, Etxeberria ikastetxean. Doña Flora maistra, Anakakoa. Erdaraz ikasten zuten. Oinez joaten zen Irunera, eta ahizparen etxean bazkaltzen zuen.

927. Esnea partitzen, amarekin (HON-089/006)

Anakara eramaten zuten esnea, neguan, eta udan beraneanteei. Ama astoarekin eta bera 15 litroko marmitarekin buru gainean. Tranbiak. Amak beste emakume batekin izan zuen eztabaida.

928. Elkar ezagutu (HON-090/004)

16 urterekin ezagutu zuten elkar Axierrek eta Jonasek, Hondarribiko Hawai Txikin. Gozo denda da Hawai Txiki, eta herriko hainbat gaztek haren aurrean biltzeko ohitura izan du urtetan zehar.

929. Lokala utzi eta kanposantura (HON-090/005)

Bolada bat izan zen kuadrilla guztia Hondarribiko kanposantuan biltzen hasi zirena. Kanposantuan biltzen hiru negu gorri pasa eta gero, beste lokal bat hartu zuten egungo kuadrilla osatzen duten 28 lagun artean.

930. Kanposantuan biltzeko ohitura (HON-090/007)

Hondarribiko institutura zihoazen hainbat gaztek omen zuen kanposantu inguruan biltzeko ohitura.

931. Jaizubitik kalera (HON-090/008)

Jaizubiko 6 gazte kaleko lagun kuadrillara bildu ziren. Txingudi Ikastolan ikasitakoak dira seiak, eta auzokideak, gainera. Gaur egun seitik lauk jarraitzen dute kuadrillan.

932. Lekuona taberna bilgune (HON-090/010)

17 urte zituztela hasi ziren Lekuona tabernan biltzen, ia larunbatero. Herriko gazteak bildu ohi ziren bertan, batik bat. Ez dira txarrak orduko martxaz dituzten oroitzapenak.

933. 9 txupito 10 euroan (HON-090/012)

Lehendabiziko mozkorraldiak Lekuona tabernan bildu zituzten Axier eta Jonasek. Gogoan dute nola 9 txupitoko "tableta" batzuk zerbitzen zizkieten, 10 euroren truke.

934. Dirua zuenak, taberna; ez zuenak, lokala (HON-090/013)

Egun baino "kontrol" gutxiago zegoen lehen. Bestalde, dirua zuenak tabernan egin nahi izaten zuen parranda. Dirurik ez zuenari, lokalean geratu beste erremediorik ez zitzaion geratzen. Neskekin gutxi ligatzen zutela diote.

935. Nafarroa aldera parrandan (HON-090/015)

20 urte inguru zituztela Nafarroako hainbat herritara joaten hasi ziren kuadrillan, parranda "sanoago" baten bila, nonbait.

936. Parranda "selektiboak" (HON-090/017)

Gazteagoak zirenean ez zen parrandarik gabeko astebururik joaten ia. Gaur egun diferentea da.

937. Kirolari heldu (HON-090/019)

Axierrek umetatik egin izan du kirola. Gaur egun korrikari eta bizikletari emana dabil. Jonasek beranduago heldu zien kirol kontuei. Egun, eskalada eta mendian ibiltzea ditu gogokoen.

938. Kirolarekiko zaletasunaren gorakada (HON-090/020)

Gaur egun korrika ibiltzeko zaletasun handia dago. Jendeak itxura fisikoari ematen dion garrantziarekin oso lotuta ikusten dute Axierrek eta Jonasek kirolarekiko moda.

939. Kirola obsesio (HON-090/021)

Kirolak dependentzia sor dezake. Kirola medio astakeririk egin ote duten galdetuta, Axierren kasua aletzen dute lehenik: maratokia korritzera animatu ziren, bai eta bukatu ere, baina nonbait ez zeuden behar beste prestatuta.

940. Obsesio puntu bat paretan gora igotzeko (HON-090/022)

Kirola aitzaki astakeririk egin ote duten galdetuta, Jonasek bere esperientzia kontatzen du.

941. Bizi filosofia (HON-090/023)

Hondarribi inguruan eskalatzeko dauden aukerei buruz mintzo da Jonas. Bestalde, bizi ahal izateko lan egitearen aldekoa da bera, eta ez alderantziz; bera ez da lanerako bizi.

942. Hizkuntza joerak kuadrillan (HON-090/025)

Kuadrillan gazteleraz egiteko joera dute. Zergatiak azaltzen dituzte.

943. Lehendabiziko hitza, normalean, gazteleraz (HON-090/028)

944. Umoreak zenbaitetan euskaraz behar du, derrigor (HON-090/030)

Umoreak batzuetan euskaraz behar duela diote Jonasek eta Axierrek. Ez dakite ziur esaten zergatik, baina gazteleraz ari arren, komentario jakin batzuek euskaraz "behar" dutela diote.

945. Irain gutxi kuadrillan (HON-090/034)

Ez omen da irainak erabiltzeko ohitura handirik Axier eta Jonasen kuadrillan.

946. Kuadrillan, neskek, gazteleraz aritzeko joera (HON-090/036)

Axier eta Jonasen kuadrillan, neskek beraien artean gazteleraz mintzatzeko joera omen dute.

947. Oraindik parrandan ligatzen da gehien (HON-090/038)

Derrigor hala behar duenik uste ez duten arren, badirudi euskaldunok parranda giroan harremantzen garela gehien. Asierrek eta Jonasek neska kirolariak ezagutu nahi lituzkete, baina parrandan ez omen da modurik.

948. Azaleko komunikazioa (HON-090/040)

Kuadrillako neskekin ez dute askotan hitz egin izan harremantzeko garaian batzuei eta besteei gustatzen zaizkien eta gustatzen ez zaizkien kontuei buruz.

949. IKTen zalea bata; urrundik begiratzen diena, bestea (HON-090/043)

Axierrek sakeleko telefonoa badu, eta "whatsapp" erabiltzailea da, baina gainontzeko sare sozial eta halakoei ez die erreparatzen. Jonasi, ordea, gustatzen zaizkio.

950. Mezu bidezko komunikazioa (HON-090/045)

Sakeleko telefonoek eta halakoek eskaintzen duten mezu bidezko komunikazioaren alde onak eta txarrak.

951. Hondarribiko herri olinpiadak I (HON-090/047)

Hondarribian herri olinpiadak antolatzen ziren lehen, eta gazteek berriz ekin diote horiek antolatzeari, herriko koadrilen arteko hartu-emanak sustatzea eta hobetzea helburu.

952. Hondarribiko herri olinpiadak II (HON-090/049)

Olinpiadak ez dira Koadrilen arteko jokora mugatzen. Elkar ezagutzea, elkarlana eta herrikideen arteko giro ona sustatzea dira helburu nagusi.

953. Hondarribiko herri olinpiadak III (HON-090/051)

Hondarribiko olinpiaden antolakuntzari dagokion oro asanbladan erabakitzen da, nahiz eta ekimenari berari uneoro erreparatzen dion talde eragile murrizago bat baden. Parte hartzeko baldintzak zeintzuk diren kontatzen du Jonasek.

954. Hondarribiko herri olinpiadak: kamiseta eta bandera eta izena (HON-090/053)

Herri olinpiadetan parte hartu nahi duen kuadrillak bandera, kamiseta eta izena behar ditu.

955. Herri olinpiadak: frogak asteburutan (HON-090/056)

Frogak asteburutan izaten dira, larunbatarekin zein igandearekin, eta ez dira beti fisikoak izaten; beste hainbat eduki motari ere garrantzia ematen diote.

956. Herri olinpiadekin konten (HON-090/058)

Pozik daude Axier eta Jonas herri olinpiadek negu partean Hondarribiari ematen dioten "biziarekin". Halako herri ekimenen alde egin beharko litzatekeela uste dute.

957. Herri bakoitzak bere "ero" puntua (HON-090/060)

Axier eta Jonasen esanetan, herri bakoitzak bere nortasuna du eta eutsi egin behar zaio horri. Hondarribia itsasotik bizi zen lehen; gaur egun gutxi batzuk dira itsasotik bizi direnak.

958. Jaizkibel (HON-090/062)

Jaizkibelek bere baitan gordetzen dituen altxorrei buruz.

959. Herri olinpiaden lorpena (HON-090/064)

Urtetan zehar Hondarribiko gazte kuadrillak errealitate isolatuak izan dira. Egun, badute denek elkar hartzeko motibo bat.

960. 101 Gazteluko partaide (HON-091/002)

Kirolzalea izan da beti, eta lagun baten gomendioz castingean izena eman zuen. Oso esperientzia polita izan dela dio.

961. Telebista kanpotik eta barrutik (HON-091/003)

Telebistan, edizioaren bidez, nahi dena erakusten dela dio Jonasek.

962. Gu Ta Gutarrak eta El Conquistador del Fin del Mundo (HON-091/004)

Gu ta Gutarrak telesailean parte-hartzeko aukera izan zuen, baina ez zuen nahi izan. El Conquis telesailean, berriz, casting-a egin zuen baina ez zuten hartu.

963. Zer eman dizu 101 Gaztelun parte-hartzeak? (HON-091/006)

Jendea ezagutzeko aukera nabarmentzen du.

964. Igeltserotzan murgildurik (HON-092/002)

Udako lan gisa hasi zen kontua. Denbora batez utzi bazuen ere, luzatu egin zen kontua eta gaur egungo lanbidea du Axierrek.

965. Lan-esparrua handitu egin dute (HON-092/004)

Muga zabaldu eta iparraldean ere lanean hasi dira, hango igeltserotza garestia goa baita, haien artean, Angelu, Hendaia, Baiona...

966. Nola ezagutu zenuen igeltserotza? (HON-092/006)

Aitak kanpoan lan egiten zuen, eta diru sarrera gehiago lortu nahian, borda txiki bat hartu eta animaliak zaintzen eta baratzean hasi ziren. Borda hau moldatzen eta berritzen ezagutu zuen Axierrek igeltserotza.

967. Etxean euskara batuan (HON-092/007)

Aitak Azpeitiko hizkera galdu egin du, eta amak ere erdararako joera zuen hasiera batean. Gaur egun denek euskaraz egiten dute etxean, euskara batuan.

968. Nola ezagutu zenuten elkar? (HON-094/008)

Jonek eta Xabierrek gazte asanbladan ezagutu zuten elkar duela hamar urte inguru. Asanbladaren bitartez eskualdeko hainbat gazte ezagutu dituzte.

969. Mugaldeko asanbladak (HON-094/009)

Euskal Herriko mugaldekoek gazte asanbladen bilera bat egin zuten. Ondorioz, hondarribitar, irundar, urruñar eta hendaiarrek elkar ezagutzeko aukera izan zuten. Txirrinda lasterketa izan zen talde hauen arteko lehen ekimena.

970. Urruñako plazaren okupazioa (HON-094/010)

Urruñako herriko plaza okupatu zuteneko anekdota dakarte gogora.

971. Sareak zabalduz (HON-094/011)

Duela lau urteko kontuez ari dira. Aurten, Berako asanbladarekin elkartu dira txirrinda lasterketaren aitzakia baliatuz.

972. Gazte asanbladaren helburuak (HON-094/012)

Hondarribiko gazte asanbladaren helburua gazte hondarribitarren aisialdi-eredua aldatu eta aisialdi autogestionatu bat bultzatzea da. Izan ere, herriko gazteen aisialdiaren analisi bat egin eta gero, euren aisialdia kontsumoarekin lotuta zegoela ohartu ziren.

973. Gazte asanbladaren sorrera (HON-094/013)

Asanbladaren sorrera nolakoa izan den kontatzen dute: non, noiz eta nola biltzen hasi ziren.

974. Gazte asanbladaren lehenengo ekintzak (HON-094/015)

Asanblada sortu zenean ekintzak egiten hasi ziren. Xabierrek umeen eguna du gogoan bereziki. Gazte eguna urtero egiten duten beste ekintza bat izaten da. Egun honen eboluzioaz ari dira hizketan.

975. Gazte asanbladaren oinarri edo helburuak (HON-094/016)

Hondarribiko gazteen etsai nagusia indibidualismoa zen, nor bere lagunekin eta kitto. Horren aurrean asanbladak gazteen arteko erlazioak sendotzea zuen helburu, gazteek elkarrekiko zituzten mugak haustea.

976. Jai parte hartzaileak eraikiz (HON-094/017)

Gazte asanbladaren ekintzek funtzionatzen zutela ikusita eta Donostiako piraten ospea ikusita jai parte-hartzaileak sortzen hastea pentsatu zuten. Horretarako, gazteen lonjetara laguntza eske joaten hasi zirela kontatzen digute. Bilera haietatik ekintza asko atera ziren eta horietako bat, arrakastatsuen, desenbarkoa izan zen.

977. Donostiako piratekin elkarlanean (HON-094/018)

Donostiako Piratekin egindako tratuaz dihardute, eurei abordaiako zaborra jasotzearen truke haiek plastikozko poltsak berrerabiltzeko utzi zizkieten. Hondarribitarrek balsa-lasterketarekin izan zuten esperientzia ere itzela izan zen, eta gazteen arteko harremanak sendotu zituen.

978. "Vikingo marea" antolatzea (HON-094/019)

Baltsa lasterketak edo "Vikingo mareak" Hondarribiko gazteen arteko elkartasuna sortu zuen, eta, hortik aurrera, asanblada asko sendotu zen. Urteen poderioz ekintza formalizatu egin zen.

979. Ekintzen atzean dagoen lana (HON-094/020)

"Vikingo marea" Udalarekin batera formalizatzeko prozesua kontatzen dute. Baita prozesuak arlo pertsonalean zer eskatu izan dien ere.

980. "Vikingo Mareaz" gain, ze proiektu zenituzten? (HON-094/021)

Baltsa lasterketaren antolaketarekin batera, beste proiektu batzuk zituen martxan asanbladak. Proiektu horren oinarria espazio bat lortzea zen. Hau da, Gaztetxea sortu nahi zuten euren eredu autogestionatuaren bitartez gazteek gazteentzat gauzak egiteko.

981. Gaztetxearen sorrera I (HON-094/022)

Gaztetxea lortzeko bide edo prozesua nolakoa izan zen esaten dute. Euren oinarriak zein ziren eta Udalaren aurrean nola aurkeztu zuten.

982. Gaztetxearen sorrera II (HON-094/023)

Jonek eta Xabierrek gaztetxea lortzeko Udalarakin izandako harremanaren inguruan hitz egiten dute.

983. Herri Olinpiaden sorrera I (HON-095/002)

Jai herrikoiak eta gaztetxea lortu zituzten Hondarribiko gazteek. Herri olinpiadak martxan jarri eta eragin handia izan dutela adierazi dute.

984. Herri Olinpiaden sorrera II (HON-095/003)

Sunbillara joan ziren gazte asanbladako kidean atseden hartzera. Han sortu zen Herri olinpiaden itzuleraren proiektua. Beraz, olinpiada xume batzuk

antolatzen hasi ziren, eta herri olinpiaden inguruko ezagutza zabaltzen. Horretarako, bideo bat egin zuten.

985. Herri Olinpiaden inguruko bideoa (HON-095/004)

Herri olinpiaden inguruko dokumental bat egin zuten, herrian gaiaren berri emateko. Garai batean olinpiadak antolatzen zituztenekin biltzen hasi ziren beranduago.

986. Herri Olinpiaden antolatzaileak (HON-095/005)

Zenbait izen aipatzen dituzte proiektu honetan parte hartu zutenenak. Bestetik, olinpiaden inguruko informazio eta lan guztiak bildu zituzten.

987. "Olinpiadek herriko eragile guztiak ukitzen zituzten" (HON-095/006)

Elkarlan handia izaten zutela aipatzen dute. Kulturalki ere aberatsak ziren bertsolariak etab. baitziren.

988. Olinpiadak komunikabideetan (HON-095/007)

Zenbait hedabidek haien lana jaso eta zabaldu zuten, olinpiaden gaineko informazio kate bat sortuz.

989. Lehengo Olinpiaden antolatzaileak (HON-095/009)

Joko moduan izen zerrenda bat egiten dute garai batean Hondarribiko herri olinpiadak antolatzen zituztenekin.

990. Identitatea, batasuna Herri Olinpiaden oinarri (HON-095/010)

Gaur egun herria banaturik dagoela diote, eta herri olinpiadek herria nolabait batzen zuten baloreak zituztela.

991. Zer ekarri dute Herri Olinpiadek herrira? (HON-095/012)

Oraindik herria banaturik dagoela diote, nahiz eta nolabait herritarrak batu egiten diren herri olinpiadetan.

992. Herria zatiturik, alardea dela eta? (HON-095/014)

Alardeak ekarri duen zatiketa sozialaren inguruan ari da Xabi pasarte honetan, egunerokotasunean nola eragiten duen kontatuz. Gaur egungo egoera eta gatazka hasi zenekoa oso bestelakoa dela diote.

993. "Zorionez bizikidetza mila aldiz hobea da" (HON-095/015)

Garai batean Alardearen gatazka urte osokoa zela aipatzen du Jonek, gaur egun ez bezala. Hala ere, normaltasuna galtzen dela dio Alardearen egunean, txikitako lagunekin egotetik ezta agurtu ere ez egitera aldatuz.

994. Ezin ideologia ezberdinekoekin elkartu (HON-095/016)

Alardeek garai batean ez zuten garrantzia hartu dutela diote, urte osoan presio moduko bat mantenduz. Estatusarekin loturik dagoen ospakizuna da hau, eta modu interesatu batean jokatzeari dakar askotan.

995. Herri Olinpiaden parte-hartzea lehen eta gaur (HON-095/018)

Herriko lanbideak eta olinpiadetako paperak oso loturik zeuden, lanbidearen arabera antolaketa egiten baitzen lehen. Gaur egun, hartu-emanak ez dira hain sakonak.

996. Olinpiadetako partaideen izenen garrantzia (HON-095/019)

Garrantia handia dutela dio bikoteak, eta izen baitzuk aipatzen dituzte. Gaur egun ere jendea olinpiadako taldeetatik ezagutzen da.

997. Euskara herrian eta Herri Olinpiadetan (HON-095/020)

Euskaraz dira parte-hartzen duten kuadrillen izen gehienak, bide batez euskara bultzateko ekimena ere baita hau.

998. Nola esaten duzue Hondarribi? (HON-095/022)

Herria izendatzeko bi-hiru modu daude, eta honen inguruanari da bikotea pasarte honetan.

999. Herrian, parrandarik bai? (HON-095/024)

Udan herrian gelditzen dira, baina neguan Xabi Irun aldera joaten da parranda egitera. Jonek krisiaren eragina nabarmena izan dela adierazten du.

1.000. Zein da parranda perfektua? I (HON-095/025)

Jonek karaoke bat du gogoan, aktiboa izateko eman zion aukeragatik. Xabik, ordea, gustuko parranda gisa oroitzen du otartekoa hartu eta Hondarribiko Muara tabernan dardotan jolasten aritzen zirenekoa. Jonen iritziz, parrandarik gorrotagarriena Truk diskotekakoa da.

1.001. Zein da parranda perfektua? II (HON-095/026)

Zumardiko jaiak, txosnetako lanak, erreko bainuak... aipatzen ditu bikoteak pasarte honetan.

1.002. Areto Berriaren eragina herrian I (HON-095/029)

Hondarribia oso isolatuta dagoela aipatzen dute, eta kultura herrian sartzea ahalbidetu omen du Areto Berriak.

1.003. Areto Berriaren eragina herrian II (HON-095/030)

Aktiboa den gunea dela aipatzen dute, nahiz eta dena gustukoa ez duten, mugimendua dagoen gunea dela Areto Berria. Xabik, ondoren, subkontratazioaren alde onak eta alde txarrak aipatzen ditu.

1.004. Xabiren zaletasunak eta informatika (HON-096/002)

Irakurtzea, kultura, mendia, dantza, informatika, antzerkia, dokumentalak... gustatzen zaizkio. Informatika mundua asko apreziatzen duela dio, honi esker jende asko ezagutu duela.

1.005. Informatika eta hacker-ak (HON-096/003)

Hacker bat gehiago jakin nahi duen pertsona bat da. Ondoren zenbait infomatikari ezagun aipatzen ditu.

1.006. Informatikaren garrantzia herrigintzan (HON-096/005)

Informatikak proiektuetan garrantzi handia duela aipatzen du Xabik pasarte honetan, komunikazioak duen garrantziaren aldetik.

1.007. Gizartearen informatika ezagutza (HON-096/007)

Proiektu autogestionatuetoako erabilera azpimarratzen du Xabik, informatika ezagutza informalaren adibide.

1.008. Herrigintza eta baliabide informatikoak, elkarren osagarri? (HON-096/009)

Komunikazioa, publikazioa eta segurtasuna ditu mintzaiagai Xabik pasarte honetan.

1.009. Irakurzaletasuna du etxean nagusi (HON-096/011)

Gurasoak ere irakurzaleak ditu, eta etxean beti bizi izan du liburuekiko estima. Zaletasun honek bertsolaritzara eraman zuela adierazten du Xabik.

1.010. Irakurzaletasunetik bertsolaritzara (HON-096/012)

Irakurzaletasunak bertsolaritzara eraman zuen Xabi.

1.011. Irakurzaletasuna sustatzeko plana (HON-096/013)

Umeari nahi duena hautatzen utzi behar zaiola azpimarratzen du Xabik, literatura ez dela inposatu behar.

1.012. Zein literatura mota nahiago duzu? (HON-096/014)

Literatura irakurtzeko mota guztien konplementazioa nahiago du Xabik. Internet eta literaturaren harremanaz ere hitz egiten du pasarte honetan.

1.013. Bidaiatzea, zaletasuna eta lana (HON-096/016)

Irakurzaletasuna eta bidaiatzeko zaletasuna aldi berean sortu zitzaizkion. Unibertsitate ikasketak bukatu zituenean Zelanda Berrira joan zen ingelesa ikastera.

1.014. Hegazkinean piztu zitzaion irakurzaletasuna (HON-096/017)

Zelanda Berrira bidean Joseba Sarrionandiaren liburu bat irakurtzen hasi, eta irakurzaletasuna piztu zaitzaion.

1.015. Zelanda Berriko bizia (HON-096/018)

Hasiera batean akademia batean izena eman zuen. Ondoren, furgoneta bat erosi eta bidaiatzeari ekin zion.

1.016. Asian barrena bidaiatuz (HON-096/019)

Asiako zenbait tokitan ibili zen. Horrena, laguntzaile lanetan hasi zen turismo giden enpresa batean, Bilbon. Bertako aniztasunarekin txundituta itzuli zen Euskal Herrira.

1.017. Ezustean Afrikara bidaia (HON-096/020)

Belero batean izena eman eta Afrikarako bidaia hasi zuen. Marokon, Saharan eta Senegalen barrena ibili zen. Beranduago, txirrinda gainean Afrika hegoalderantz abiatu zen.

1.018. Aitaren teoria munduan barrena aplikatuz (HON-096/023)

Jonen aitag beti esan dio hizkuntza bat ikasteko modurik onena ohean dela. Hori erreferetzia eginez ingelesa ikasi duela aipatzen du. Komunikatzeko beharrak hizkuntzak ikastera zaramatzala esaten du Jonek.

1.019. Afrikatik itzultzeko komeriak (HON-096/024)

Kasualitate hutsez Afrikatik Euskal Herrira itzultzeko hegaldia aurreatu eta Jonekin ezin komunikatu ibili ziren bere gurasoak. Azkenean, herriko gazte bati esker itzuli zen, eta bere lehengusinarekin ezkontzan gaur egun bere bikotea dena ezagutu zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com